



HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA
FACULTAD DE
HUMANIDADES Y
CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN



40 URTEAN EUSKAL GIZARTEAN ERAGITEN
IRAKASLE ESKOLA - HUMANITATE ETA HEZKUNTZA
ZIENTZIEN FAKULTATEA (HUHEZI)

“ Izan ginelako gara, garelako izango dira ”

(Joxe Migel Barandiaran)

“ Beste batzuek hobeto egingo dute,
baina guk egiten dakigu ”

(Telesforo Aranzadi)

“ Dabilen harriari goroldiorik ez ”

(Herri jakintza)

Bizipenetan oinarritutako dokumentu hau egin ahal izateko, lehen eta oraingo Irakasle Eskola-Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko hezkuntza komunitate osoak emandako adore eta erraztasunagatik, bihotz-bihotzez, eskerrik asko.

Izenburua:

40 urtean euskal gizartean eragiten

Irakasle Eskola - Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI)

Egilea:

Iñigo Ramirez de Okariz Telleria

Argitaratzailea:

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Dorleta, z/g

20540 ESKORIATZA

Gipuzkoa

tel. 943 71 41 57

Maketazioa:

AZK Taldea

Inprimaketa:

Gertu Koop. Elk.

ISBN: 978-84-617-5156-3

Dokumentala:

40 urtean euskal gizartean eragiten

Irakasle Eskola - Humanitate eta

Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI)



<http://bit.ly/294jK0j>

Dokumentalaren egileak:

Iñaki de Bilbao eta Adrian Alonso

(Ikus-entzunezko Komunikazioa

gradu ikasleak).



<http://bit.ly/2dcDZJl>

Liburua deskargatzeko PDF formatuan:

Eskubide guztiak jabetuna dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrightaren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.



HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA
FACULTAD DE
HUMANIDADES Y
CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN



40 URTEAN EUSKAL GIZARTEAN ERAGITEN IRAKASLE ESKOLA - HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA (HUHEZI)

Iñigo Ramirez de Okariz Telleria

AURKIBIDEA

0. HITZAURREA	11
1. SARRERA	13
<u>I. ATALA: IRAKASLE ESKOLA (1976-1997)</u>	
2. IRAKASLE ESKOLA BATEN BEHARRA?	17
3. IRAKASLE ESKOLAREN ERNALDIA	23
4. 'DORLETA' ERAIKUNTZA: LUR EROSKETAK ETA OBREN HASIERA	33
4.1. IKASTETXEA ERAIKITZEN: DOHAINTZAK ETA EZAUGARRIAK	35
4.2. ERAIKUNTZA BERRIAREN EKITALDI AKADEMIKOA ETA LEHEN URRATSAK	37
5. BILBOKO UNIBERTSITATERA BABES BILA	43
6. 'IRAKASLE ESKOLA' IRAKASKUNTZA-KOOPERATIBA	47
6.1. KOOPERATIBAREN ESTATUTU SOZIALAK	48
7. HASIERAKO IRAKASLEAK ETA LANGILEAK KONTRATATU, LAN ORDUTEGIA ZEHAZTU	51
7.1. HASIERAKO IRAKASLEAK ETA LANGILEAK	52
7.2. LAN ORDUTEGIA	58
8. HASIERAKO IKASLERIA (1976-1997)	63
8.1. HEZKUNTZA KOMUNITATEA OSATZEN: LEHEN IKASLERIAREN PROFILA ETA INTERESAK	69
9. IRAKASLE ESKOLAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA (1976-1980)	79
9.1. HASIERAKO URRATSAK	80
9.2. EUSKAL HEZKUNTZA	82
9.3. PEDAGOGIA KOORDENADAK	85
9.3.1. KATALUNIA HEZKUNTZA ERREFERENTEA: 'BLANQUERNA', 'ROSA SENSAT', 'VIC' ETA IRAKASLE ESKOLAREN PEDAGOGIA	85
10. IKASKETA PLANGINTZAREN DISEINUA	91
10.1. ESPEZIALITATEAK	93
10.2. PRACTICUM	96
11. TITULU-GABEKO IRAKASLEENTZAKO PLANGINTZA BEREZIAK	101
11.1. HASIERA	101
11.2. IKASKETA PLANGINTZA ETA FASEAK	103
11.2.1. BERGARAKO PLANGINTZA	103
11.2.2. ESKORIATZAKO PLANGINTZA	104
11.2.3. NAFARROAKO PLANGINTZA	105
11.3. EMAITZAK	106

12. IRAKASLEAK BIRZIKLATU: EGOKITZEKO IKASTAROAK (`IRAPREST` ETA `GARATU` PROGRAMAK)	109
12.1. HIZKUNTZEN DIDAKTIKARI BURUZKOAK	113
12.1.1. `ESAIZU` IKAS-METODOTIK ARGITALPENETARA	115
12.2. DOKUMENTAZIO ZENTROA ETA JAKINGARRIAK. HAUR LITERATURA MINTEGIA ETA IRAKUR GIDAK. IPUIN TAILERRAK	117
12.2.1. DOKUMENTAZIO ZENTROA ETA JAKINGARRIAK	117
12.2.2. HAUR LIBURU MINTEGIA. GALTZAGORRI ELKARTEA. IRAKUR GIDAK	120
12.2.3. IPUIN TAILERRA, IPUIN ORDUA, OSPITALEKO JARDUERAK ETA ITSUENTZAKO GRABAKETAK	123
12.3. KONTSUMO	125
12.4. ORDENAGAILUAK IKASTETXEETAN	127
12.5. INGURUMEN ARLOA	128
12.6. TEKNOLOGIA ARLOA	129
13. `IHARDUN`: IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA ARGITALETXEA	131
13.1. `IHARDUN` IKUS-ENTZUNEZKOA: MULTIMEDIA	132
13.2. `IHARDUN` ARGITALETXEA	136
14. EUSKARA SAILA: SOZIOLINGUISTIKA, HAEE-IVAP, MCC, ULIBARRI, EMUN, HERRIETAKO MONOGRAFIAK	143
14.1. SOZIOLINGUISTIKA	143
14.2. HAEE-IVAP	144
14.3. MCC	145
14.4. `ULIBARRI` PROIEKTUA	146
14.5. EMUN Koop. E.	146
14.6. HERRIETAKO MONOGRAFIAK	146
15. IRAKASLE ESKOLA ETA LANBIDE HASTAPENA	147
16. EKONOMIA	149
17. IRAKASLE IKASKETAK: IKASLE PROMOZIOAK (1976-2002).	159
18. OSPAKIZUN GARAIK	167
18.1. HAMARGARREN URTEBETETZEA (1976-1986)	167
18.2. URTETAN "IRAKASTEN IRAKATSIZ": IRAKASLE ESKOLAREN ZILARREZKO EZTEIAK (1976-2001)	170

**II. ATALA: HUMANITATEAK ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA (HUHEZI) MONDRAGON UNIBERTSITATEA (1997
URTETIK GAUR ARTE)**

19. HUHEZI ETA MONDRAGON UNIBERTSITATEA	177
20. HUHEZIREN HEZKUNTZA PROIEKTUAREN ARDATZ BERRITZAILEAK ETA 'MENDEBERRI' PROIEKTUA	181
21. IRAKASLE IKASKETAK: GRADUEN INPLEMENTAZIOA ETA "BLENDED" SISTEMA (1998-2013)	187
21.1. HEZKUNTZA FISIKOA	188
21.2. HEZKUNTZA LERROAREN GORAKADA	189
21.3. BIGARREN DIPLOMATURA	191
21.4. GRADUEN INPLEMENTAZIOA	193
21.5. HEZKUNTZA ('BLENDED' MODALITATEA)	196
21.6. MATRIKULATUEN JATORRIA	197
21.7. IKASLE PROMOZIOAK: IRAKASLE IKASKETAK (1997-2014) ETA BESTE TITULUDUNAK	198
22. HUMANITATEAK ETA ENPRESA (HUEN)	203
23. IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA (IKO) ETA ARETXABALETAKO CAMPUSA	211
23.1. MATRIKULAK ETA BILAKAERA	211
23.2. ARETXABALETAKO CAMPUSA	214
23.3. HUHEZINEMA ETA KOMUNIKALDIAK	214
23.4. EUSPOT	215
23.5. GOIKOLAB LABORATEGIA	216
24. PSIKOPEDAGOGIA LIZENTZIA	221
25. IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA LERROAK HUHEZIN	227
26. HIRUGARREN ZIKLOA	237
27. INSTITUTUAK	243
27.1. KUI/LANKI	243
27.2. HEZ-ICE	245
28. INTERNAZIONALIZAZIOA ETA ERASMUS	253
29. FORMAZIO IRAUNKORRA: MASTERRAK, GRADUONDOAK, ADITU TITULU ETA BESTELAKO IKASTAROAK	257
29.1. ENPRESA PROIEKTUEN ZUZENDARITZAN MASTERRA	258
29.2. PERTSONEN GARAPEN ETA KUDEAKETA ESTRATEGIKOAN MASTERRA	259
29.2.1. NORBERE GARAPENA ETA TALDEEN LIDERGOA	260
29.3. INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIORAKO TEKNOLOGIAK FORMAZIOAN MASTERRA	260
29.4. HEZKUNTZA ZENTROEN ZUZENDARITZA MASTERRA	261

29.5.	ENTZUMENA ETA MINTZAIRA GRADU-ONDOA	262
29.6.	BIGARREN HEZKUNTZA ESPEZIALIZAZIOTIK MASTERRERA	262
29.7.	BERRIKUNTZA DIDAKTIKO METODOLOGIKOKO PROIEKTUEN GARAPENA ETA KUDEAKETA HEZKUNTZA ERAKUNDEETAN (BERRIMET)	265
29.8.	HEZKUNTZA TESTUINGURU MULTIKULTURAL ETA ELEANITZETAN (EKOMU)	266
29.9.	EKONOMIA SOLIDARIOAN MASTERRA (SARE. Garapenerako zubigintza)	268
29.10.	MCOOP. GIZARTE EKONOMIA ETA ENPRESA KOOPERATIBA UNIBERTSITATE-MASTERRA	268
29.11.	HIZKUNTZA KUDEATZEKO ADITU TITULUA	268
29.12.	‘EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOAN’ (EKT) UNIBERTSITATE ADITU TITULUA	269
29.13.	KOOPERATIBIGINTZAN UNIBERTSITATE ADITU TITULUA	270
29.14.	KOMUNIKAZIO ERAKUNDEETAN ADITU TITULUA (ADITUKOM)	272
29.15.	HIZKUNTZA PROIEKTUEN AHOLKULARIAK FORMATZEKO IKASTAROA	273
29.16.	JATORRIZKO HIZKUNTZEN ETA IDENTITATEEN BERRESKURAPENERAKO ADITU TITULUA	273
29.17.	IKASKIDE TALDEAK FORMAZIO SAIOAK	274
29.18.	ZEHARKAKO KONPETENTZIAK GARATZEN LANBIDE HEZIKETAKO ZENTROETAN	275
29.19.	HERRI HOBEAK GUZTIONTZAT: KOMUNITATEAREN PARTAIDETZA KALITATEZKO HEZKUNTZARAKO GILTZA	275
30.	HIZKUNTZA POLITIKA	279
30.1.	EUSKARA TALDEA	280
31.	EKONOMIA ETA LANGILERIA	281
31.1.	EKONOMIA (1997-1998 ikasturteetik 2013-2014 ikasturtera)	281
31.2.	LANGILERIA	286
32.	GESTIO UNITATE BERRIA	289
33.	BESTE EKINTZA AIPAGARRI BATZUK	293
33.1.	LITERATURA ASTEA (Literatura Topaketak)	293
33.2.	KIROL ZERBITZUA ETA EKINTZAK	294
33.3.	TXOMIN “TXAPEL” EGUNA	295
33.4.	TXANGOIA	297
34.	AMIAERA GISA	303

III. ATALA: ERANSKINAK

> INFORMAZIO ITURRIAK	311
> TAULAK	311
> GRAFIKOAK	314
> ILUSTRAZIOAK	315
> BESTE	316
1. 'JUNTA PROVISIONAL' PARTAIDEAK	316
2. IRAKASLE ESKOLAREN 'KOMISIO DELEGATUA' ETA ERREKTORE KONTSEILUAREN OSAKETA (1977-80)	316
3. HUHEZI: ZENBAKITAN	316
4. AIPAMEN HISTORIKOA. IKUSPEGI KRONOLOGIKOA (1976-2015)	317
RESEÑA HISTÓRICA. VISIÓN CRONOLÓGICA (1976-2015)	320
HISTORICAL NOTES. CHRONOLOGICAL PERSPECTIVE (1976-2015)	323

HITZAURREA

40 urtetan asko eta onetik sortu da hemen.

Eskuartearen duzun liburu honetan argi ikus daitekeen bezala, 1976. urtean Hezibideren eskutik, Irakasle Eskola sortu zenetik gaur egunera arte oparoa izan da etxe honen emaria. Harrotasun eta poz handiz ikusiko dute gaur, sorrerako hazia erein eta zaindu zuten haiek, nola hazi eta edertu den jada 40 urte bete dituen proiektu itxaropentsu eta bitxi hau.

MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN baitan dagoen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak izaera berezia garatu du urteen joanean. Unibertsitatea, Euskalduna eta Kooperatiboa dira proiektuaren oinarritzko ezaugarriak.

- Unibertsitatea: gizartearen humanizazioan eragiteko jakintza sortzaileria.
- Euskalduna: euskara ardatz harturik, harremanak josi mundu eleanitz eta kulturantzarekin.
- Kooperatiboa: gizartearen garapenean konprometitutako lankide eta ikasleak, proiektu burujabe baten protagonistak.

Eta ez dira ez hitz hutsak; proiektu honen garapenean mamitutako errealitateak dira. Horixe adierazten digute bertan egunero lanean ari diren pertsonengan ikusi ditugun balore eta jokamoldeak.

Sortze beretik HUHEZIREN jardun zentrala Hezkuntza izan bada ere, azken 15 urte hauetan garatu diren bi lerro berriak Komunikazioa eta Kooperatibagintza izan dira.

Hezkuntza. Urtez urte garatu eta eguneratuz joan den Hezkuntza eredu propioa du ardatz HUHEZIK; horrek berak bereizten du beste eskaintza batzuegandik. Mendeberrri proiektuarekin batera kompetentzietan oinarritzen den curriculum garatu du, eta ikaslea bilakatu da hezkuntzaren ardatz: lankidetzan, aniztasunean eta ekitatean modu eraginkorrean funtzionatzeko gai den pertsona hezi nahi da.

Badira hamar urte **Ikus-entzunezko Komunikazioa** lizentziatura ikasketak sortu zirela. Gaur egun egonkortuta dagoen Aretxabaletako campusak arrakasta esanguratsuekin erantzuten dio gizartearen eskari in-

dartsuari. Horren adierazle dira urte hauetan matrikulazioan izan dugun hazkundera eta azken ikasturtean ikasketa plangintzan sartutako berrikuntza prozesuak.

LANKI institutua 2001.ean sortu zen. Inguruan indartsua den kooperatiben eta kooperatibagintzaren arloan ikerketa eta proposamen ausart bezain argigarriak egin ditu; Mondragon taldeko kooperatiben hausnarketa eta heziketa prozesu esanguratsuenen gidari bilakatu da. Horretaz gain, giza garapenean eta bestelako errealitateekin elkartasunezko kooperazioan jarduteko bide berriak jorratu ditu: Mexiko eta Brasilen bideratutako proiektuak.

Doktoregoa, ikerketa eta transferentzia izan dira, hurrenez hurren, eskainitako jakintzaren iturburu eta ibai. Argitalpenak liburu eta aldizkarietan, nazioarteko kongresuak, proiektu konpetitiboetan parte-hartu, transferentzia proiektuak eta doktorego programak dira gaur egun garatzen ditugun jardunak.

Nazioartera zabaltzeak ere eragin handia izan du. Nazioarteko sareetako jardunaldi, ekimen eta urteko bilkuretan (NETT, ETEN, EJTA,...) izan gara, ikasleentzat 30 unibertsitatetako nazioarteko programak ditugu aukeran, hainbat ikasle ERASMUS egonaldietan izaten da urtero eta atzerrian ere egiten dira praktikak. Irakasle eta ikertzaileen truke programak ere garatu ditugu ezagutzetan sakondu eta bilakaera profesionalean hobekuntzak erdiesteko.

XXI. mendeko gizartearen ezaugarri nagusienak etengabeko aldaketa eta ezegonkortasuna dira. Globalizazioak, Informazioaren teknologiak, krisi finantzario eta ekonomikoak, Hezkuntza marko eta politika aldakorrek... gure bizitzaren konplexutasuna handitu eta aldaketan abiadura izugarri azkartu dute. Erronka zaila dauka Unibertsitateak testuinguru honetara etengabe egokitzeko.

Honek ahalegin berezia eskatzen digu etorkizunerako helburuak eta estrategiak aukeratzeko. Egundak, HUHEZIn, datozen urteetan zer eta nola egin nahi dugun definitzen ari gara. Hausnarketa estrategikoan jasoko dugun hurrengo urratsen norabidea.

Etorkizunerako erronkak ez dira makalak, besteak beste: berrikuntza pedagogikoa, ikerketan eta aholkularitzan bide egitea, eta finantzaketa egonkortzea. Erronka izango da ere proiektu honetan parte hartzen duten pertsona guztien ongizatea eta garapen profesionala bermatzea.

Orain artean egin dugun bezala, gure printzipio eta baloreei eutsiz eta HUHEZiko familia osatzen dugun kide guztion parte-hartze eta elkarlanarekin, proiektu honi dagokion tokia eta erreferentzialtasuna ematen asmatuko dugun sinemen tinkoa dugu.

Mikel Uribeberria
Kontseilu Errektorearen
Lehendakari ohia, 2012-2016

Begoña Pedrosa
Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultateko Dekanoa

1. SARRERA

Zaila da norbera “arte eta parte” izan den edozein egitasmori buruz idaztea.

Oso erlatiboak dira bizipenen balorazioak pertsona batetik bestera, eta sarritan, dokumentu kopurua hain urria izateak ez du gehiegi laguntzen ikuspegi objektiboen araberako hausnarketa partekatua egiten. Ausardia puntu batekin, beraz, ondorengo lerroen helburua hainbat informazio iturri -ahozkoak, idatzizkoak nahiz grafikoak- erabiliz, Irakasle Eskolaren (IE) zein Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen (HUHEZI) memoria historikoa bildu eta berreskuratzea da.

Bilketa honen haria kronologikoa da, eta bi atal nagusitan banatzen da: lehendabizikoa, 1976tik 1997ra, hau da, Irakasle Eskola jaio eta ondoren HUHEZI (Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea) sortu arte. Bigarren atala, berriz, gaur egunera artekoa da; 1998tik 2016ra, alegia.

Beraz, batean zein bestean, IE-HUHEZIK bere esparru formal eta ez-formalean izandako betekizunak hautemango baditugu ere, dokumentu honek aukerak eskainiko dizkigu ezagutzeko zeintzuk izan ziren (eta gaur egun oraindik badiren) gurea bezalako hezkuntza erakundeei egunerokotasunean sortzen zaizkien erronkei aurre egiteko bideak.

“Irabazi-asmorik gabeko” Erakunde Kooperatiba izanda¹, eta zerbitzu publikoa eskaintzen duen gizataldeak osatuta, ez dugu horrek gugan sorturiko militantzia kontzientzia ezkutatu. Nahiz eta norbanako bakoitzari dagokion ondorioetara iristea, argi diogu, Erakunde bizia eta dinamikoa dela gurea. Beraz, euskal gizartearen, nahiz eskala geografiko handiagoetan (batez ere gaur egungo globalizazio paradigma ez hain berri honen zurrunbiloan) sorturiko erronkei erantzun egokia eman, eta suertatzen diren aldaketetara moldatzen saiatu gara.

Kolektibitate baten oroimena berreskuratzea helburu duen egitasmo honek ezin ditu bidelagunak aipatu gabe laga. Batzuk zuzen zuzeneko lankideak izan dira, eta hala, ia 40 urte hauetan gure artean lan eta egitasmo desberdinak dinamizatu dituztenak elkarriketatu eta haien bizipenak jaso ditugu: lehendakariak, zuzendariak, gestio arduradunak,

1. HUHEZI KOOP. ELK. irabazi-asmorik gabeko onura publikoko irakaskuntzarako kooperatiba integrala da, eta Eskoriatzan –Dorleta auzoa, zk. g.- du egoitza soziala. Sozietatea 1980ko ekainaren 19an eratu zuten, Irakasle Eskola, Kooperatiba Sozietatea izenarekin, eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroko Kooperatiba Sozietateen liburuan dago inskribatuta: IV. Liburukia, 458. Folia eta 88. 1.230 zenbakia. Sozietatea Euskadiko Kooperatiben 1993ko ekainaren 24ko 4/1993 Legeak eta Estatutu Sozialetan ezarritakoak arautzen dute. Sozietatea Mondragon Unibertsitateari atxikita dago, eta Mondragon taldeko kidea da.

irakasleak, langileak, ikasleak. Beste batzuk, berriz, zeharkakoak izan dira, eta horrenbestez, hango eta hemengo artxi-
boetan aurkitutako dokumentuak kontsultatu eta erabili dira.

40 urte (1976-2016) bete ditu Irakasle Eskola-HUHEZI Erakundeak. Badakigu, atzera begiratzea beti egin behar den
ariketa dela - izan ere, atzeak esaten digu-eta nola jokatu etorkizunean-, eta unea iritsi dela uste dugu gure iraganaz
jabetu eta, zergatik ez, bertatik ikasteko. Aldi berean, gure identitatean gero eta gehiago sendotzeko ere balioko digu.

Iñigo Ramirez de Okariz Telleria

I. ATALA
IRAKASLE ESKOLA (1976-1997)



2. IRAKASLE ESKOLA BATEN BEHARRA?

Deba ibarrari begira Irakasle Unibertsitate Eskola baten beharraz ditugun lehendabiziko albisteak 1970 hamarkadakoak dira².

Egitasmo horren aitzindaria da 'Liga de Educación y Cultura' edo L.E.C (gerora HEZIBIDE izango dena)³.

Proiektu hori egikaritzeko egitura juridiko bat izatea beharrezkoa zen, eta 70 hamarkadan (Frankismoaren diktaduraren gainbeheran) oso zaila omen zen hori lortzea⁴.

Herri-ekimenari esker euskal gizarte euskaltzalearen hastapenak 1960ko hamarkadakoak dira, eta beraz, euskal kulturaren aldeko gizarte zibila garatuko zen hamarkada izan zen 1970a. Ezin dugu ukatu, baikortasun hori Franco hil ostean (1975) areagotu egin zela, eta interes desberdinen inguruan gizarte zibila ere sendotzen hasi zela. Testuinguru horretan kokatu behar dugu Debagoiena bailaran irakasle ikasketak egiteko gizatalde baten egitasmoa bera. Baita 1974 urtean, Aretxabaletako ALMEN ikastolan lehen bertso eskola sortu izana ere, edota 1988an euskara hutsean idatzitako lehen herri aldizkaria izan zen Arrasate Press kaleratu izana. Bazegoen, beraz, Gipuzkoako hego-mendebaldean kokatuta dagoen giza komunitatearen aldetik, kooperatiba mugimenduak lagunduta, nahi beste ongarri proiektu hezitzaileak ernaltzeko. Eure-

2. *Escuela Universitario de Formación del Profesorado. ALMEN. Escoriaza. Actividades curso 1974-1975. Abril de 1974.* HUHEZI Artxiboa, Sorriera, Informea, A.2.1. dokumentua.

3. 1948an. urtean 'Liga de Educación y Cultura' hezkuntza kooperatiba bilgunea eratu zen, eta bere baitan lehen partaidetza sozialeko eskola Arrasateko Eskola Politeknikoa izan zen. Beranduago, 1977ko apirilaren 5ean, L.E.C.ren Errektore-Konseiluak erabaki zuen bere burua 'HEZIBIDE' bezala izendatzea, eta hiru printzipiotan oinarritu zuen bere hezkuntza proiektua: 1) "Formación del hombre euskaldun". Horretarako elebitasuna eta euskal kultura bultzatuz, euskaldunak eta ez zirenak kultura komun batean integratu, eta, hala, errealitate sozio-ekonomikoak ezagutzea. 2) "Socialización de la educación". Hezkuntzan parte hartzeko guztiak aukera emanez. Eta hala, komunitatearen parte hartzearekin, hezkuntza komunitarioa bultzatu. 3) "Toma de conciencia de los valores cristianos". Kristau kontzeptua eta sentimendua bereganatuz. Hala ere, akta ofiziala ez zen 1980ko abenduaren 11ra arte idatziko: "Exponen que habiéndose transformado la Cooperativa " Liga de Educación y Cultura" en la Cooperativa "Jose Maria Arizmendiarría, Eskola Politeknikoa", desean constituir una Asociación privada ... que se denominará HEZIBIDE". Lehendabiziko lehendakaria Jabier Erdocia izan zen. (Iturriak: Erakunde harremanak. Hezibide. C.1.1.1tik-C.1.2.3ra. Irakasle Eskola eta Hezibide Elkarte. Memoria de actividades, 1977. 1 de junio de 1978. *Irakaslego Eskola.* HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.). 1980an, erakunde hauek zituen bere baitan Hezibide Elkarteak: Arrasateko Eskola Politeknikoa, Oñatiko ETEO, Eskoriatzako Irakasle Eskola, Arrasateko San Viator Ikastetxea, Arrasateko San Francisco Jabier Ikastola, Aretxabaletako Loramendi Ikastola, Eskoriatzako Jose Arana Ikastola, Arrasateko AHIZKE, Eskoriatzako ALMEN eta Arrasateko Umezaintza. Iturria: Acta de la Asamblea General de Irakasle Eskola (1980. 12.17). *Irakaslego Eskola.* HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Errektore Kontseilua, B.3.1-3.5 dokumentua.

4. "A esta escuela le ha tocado nacer en tiempos conflictivos, de inseguridad general". Jesus Garmendia, Irakasle Eskolako bigarren zuzendariaren hitzak 1980ko otsailaren 14ean eginiko Batzar Orokorrean esandakoak. Iturria: Acta de la Asamblea General de Irakasle Eskola (1980. 02.14). *Irakaslego Eskola.* HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Errektore Kontseilua, B.3.1-3.5 dokumentua.

tako bat Eskoriatzan kokatu zen, batez ere ikastolen sorrera hazkundeak eragindako irakasle euskaldunak izateko premiari erantzuteko: Irakasle Eskola.

Paulo Agirrebaltzategik (1983:56) ongi adierazten du pizkunde garai hartan bizitakoa:

“ Hego Euskal Herrian gertakari erabakigarriak izan ziren 1975eko azaroaren 20koa eta hurrengo urteetako aldaketa politiko-sozialak. Orduan sortu edo suspertu ziren mugimendu sozialak. Euskalgintzan eta euskal kulturgintzan ere indar sozial berriak askatu ziren orduan, eta ordura arteko euskararen aldeko talde, elkarte eta erakundeei perspektiba berriak ireki zitzaizkien beren ekimenerako: batez ere euskalgintzarako sail ezberdinetako erakundeak hobeto koordinatzeko, eta beren lana epe luzeko planen barruan antolatzeko. Horrekin batera, euskararen aldeko gizarte-mugimendu zabala -eta aktibazio soziala- eratu edo bizkortu egin zen ”⁵

Zein zen une hartan Debagoieneko, eta batik bat Leintz bailarako, hezkuntzaren egoera? Eskualdean maisu-maistrak hezteko Eskola bat sortzeko adina kontzientzia eta premia egon bazegoen? Zera diosku Felix Ormaetxeak, Irakasle Eskolaren lehendabiziko zuzendaria izandakoak:

“ Garai hartan Euskal Herrian eklosio bat gertatzen ari zen, euskararen eklosioa hain zuzen ere, eta denok ginen egoera horretan hartzaileak. 1972tik aurrera sumatu eta gauzatu zen fenomeno hau. Eklosio horren erdian, eta gizartean bizi zen behar baten ondorioz ematen da ikastolen sorrera. Sorrera hori bultzatzeko, ikastolek laguntza handia jaso zuten Hezibidetik eta Lan Kide Aurrezkitik. Ez zegoen ideia kontrajarririk; adostasuna ikaragarria zen. Ideologia aldetik ere adostasun handia zegoen. Lana egiteko aukera ere ikaragarria zen, beraz, testuinguru horretan ez zen zaila izan egitasmoak martxan jartzeko ahaleginari eustea. Hezibidetik maisu-maistra eskola bat sortzea ere pentsatu zen. Izan ere, gauza bat zen ikastolak sortzea (elizak uzten zuen zirrikitua aprobetxatuta sortzen ziren), baina bestelako kontua zen gero nola erantzun erronkari. Alegia, maisu-maistrak prestatu egin behar ziren ”⁶

5. Agirrebaltzategi, P. (1999). "Euskararen aldeko gizarte-mugimenduaren 25 urteok. EKBren ekarpena". BAT 31, 55-73.

6. Felix Ormaetxeari elkarrizketa, 2012/11/14.

Aipatu behar da, prozesu honetan bailara osoan ezarri eta zabaltzen ari zen industrializazioak ere eragin nabarmena izan zuela. Maila ekonomikoak nahiz ongizate maila eta kontsumoa igo ahala, kulturarekin loturiko adierazpenak sustatzeko ekintzen beharraz ere kontzientzia hartzen ari zen jendea. Kultura adierazpen batzuk mehatxupearan jar-tzea oztopo handi bihurtu zen norberaren nortasuna zabaldu eta kultur adierazpenerako; ez da ahaztu behar, Fran-koren Diktaduraren azken garaia batik bat gordina izan zela Gipuzkoan.

Industrializazioak immigrazio indartsua bertaratu zuen, eta honek, hezkuntzari dagokionez, sozializataileak eta inte-gratzaileak ziren hezkuntza baliabide egitasmoak ekarri zituen.

Aldi berean, guraso askoren borondatea zen euren seme-alabak unibertsitate-titulua eskuratzea. Jabier Retegik, Hezibi-de Elkarteko zuzendari izandakoak, horrela gogoratzen du hasiera hura:

“*Hasieran, ni neu gai honekin nahiko ezkorra nintzen, izan ere Eskola Profesionaletik nentorren; mekanika eta tekni-ka mundutik. Baina berehala ikusi zen irakaskuntzarekin lotutako arlo desberdinak batuko zituen moduko bailara bat osatzea beharrezkoa zela. Eragile asko ari ziren bide horretan lanean. Hala, ingeniariartzarako Eskola Politeknikoa osatu zen Arrasaten; ETEO Oñatin, ekonomia eta enpresa sustapenerako; eta, ondoren, humanitate ikasketei lotuta-ko Eskoriatzako Irakasle Eskola. Beharrezkoa zen bailarako biztanleei arlo anitzez osatutako eskaintza zabala egitea. Behintzat, gazteei unibertsitateko lehenengo eta bigarren zikloa egiteko aukera ematea. Kontuan izan behar da, jen-deak baliabide gutxi zeukala unibertsitatean ikasi edota kanpora joateko. Asmoa gazteen % 60-70 bailaran geldit-zea zen lehen zikloa egiten; bigarrena kanpoan egingo zu-ten*”⁷

Goian esandakoa, komunitateari eskaintzen zitaion zerbitzu bezala ulertu behar da, eta ez norbanakoaren hobe-kuntzarako soilik, eta beraz, guztiz da laudagarria. Norbanakoaren sustapen pentsaera hau, gainera, hertsiki lotuta zegoen une hartan hezkuntza-sistema berak transmititzen zuenarekin.

Egoera honen atzean bazegoen ere gazteek lana gutxieteko zuten joera, batik bat ez zutelako eskulan soil izan nahi. Hala ere, sentimendu horren eragileak gazteak eurak edo gurasoak ote ziren galdetu beharko litzateke. Izan ere, azken hauek euren lantokietako soldatarekin lotutako desadostasun adierazpenen ondorio ere izan daitezke jarrera horiek.


7. Jabier Retegiri elkarrizketa, 2013/01/24.

Hezkuntza eskaintzari zegokionez, berriz, oso heterogeneoa eta egitura juridiko anitzekoa zen garai hartakoa:


1. Eskola Nazionalak eta Institutuak. Zentralismoan oinarrituta eta komunitatearekin harreman ez hain zuzenak. Ageri-rikoa zen, beraz, Irakasle eta eskola erabiltzaileen arteko etena.

Lehen hezkuntzako irakaskuntza ofizialarekin bat eginda, honako hau zen 1975ean, generoa aintzat hartuta, irakas-leriaren jatorria eta kopurua Gipuzkoan:

Grafikoa, 1: Maisuen jatorria eta kopurua Gipuzkoan, 1975ean



Grafikoa, 2: Maistren jatorria eta kopurua Gipuzkoan, 1975ean



Iturria: Murua, H. (2008). *La formación de Magisterio en Gipuzkoa, 1936-1975*. Ikastaria. 16, 241-267.

Beraz, esan genezake, lehen hezkuntza ofizialari dagokionez, emakumeen esku zegoela irakasletza, eta gehienak kanpotik etorritako maisu-maistrak zirela. Hala ere, euskal jatorria zuten maisu-maistrak ere bazeuden, Nafarroa eta Arabakoak batik bat, gutxiago Bizkaia eta Gipuzkoakoak. Hau adierazgarriagoa zen gizonezkoetan emakumezkoetan baino.

2. Hezkuntza erlijiosoa. Nahiz eta aurrekoaren helburuekin alderatuta desberdinak izan, aitortu behar da, gizarteak eta botere publikoak zituen hutsuneak ordena erlijiosoek betetzen zituztela. Hala ere, komunitateari begirako ondorioak antzerakoak dira. Hezitzaileen interesak ordena erlijiosoak zeuzkan helburu eta interesen arabera moldatzen ziren.
3. Ikastolak. Komunitateak finantzatutakoak eta era kolektiboan kudeatutakoak ziren. Aldi berean, kontrol demokratikoa zuena eta gurasoak murgiltzen zituena hezkuntza ekintzan. Komunitatearen nahi eta beharizanetara egokitzen zirenak, alegia.

Kontua, ordea, ez zen hezkuntza politika berritzailearen eraketa prozesuan ordura arte zegoena baztertzea, aitzitik, sinergiak aprobetxatu behar ziren parte-hartzailea izan zitekeen hezkuntza kudeaketa baten mesederako; hau da, hezkuntza eragile guztiak integratu behar ziren bertan. Horretarako, urrats garrantzitsu bat behar zen egitura horiek aldatuko zituzten pertsona edo irakasleak prestatzeko, kontuan izanda urte haietan hezkuntza egiturak zeharo baldintzatzen zituela hezitzaile zein eragileak. Gainera, gizarteak eskaera berriak zituen, bereziki euskara eta euskal kulturari lotutakoak.

Horrela oroitzen du Jesus Garmendiak (Irakasle Eskolaren bigarren zuzendaria) sorrera unean zegoen egoera sozio kulturala:

“ *Euskalgintzari eta herrigintzari ekin genion. Garai hartan pentsaezina zen unibertsitatean euskara sartzea. Alde batetik herriaren nahia zegoen, euskal hezkuntza baten beharra, baina bestetik ez zegoen irakasle euskaldun tituludunik. Gerra osteko zapalkuntza zela eta, jendeak baztertu egin zituen irakasletza ikasketak, eta egoera horri irtenbidea emateko sortu zen, hain zuzen ere, eskola hau* ”⁸

8. GARA egunkaria, 2001/05/30.

3. IRAKASLE ESKOLAREN ERNALDIA

1973-1974 ikasturtean A.L.M.E.N (“Asociación Léniz Mancomunidad de Enseñanza”) erakundearen Zuzendaritza Batzordean izandako babesa eta bultzadarekin hasi zen bailaran Irakasle Eskola sortzeko ernaldia⁹.

Hasieran, honako hauen babesa izan zuen: Salamancako Unibertsitatea, Bilboko (Derio) Elizbarrutiko Irakasle Eskola, Donostia eta Gasteizko Irakasle Eskola Ofiziala, eta Nafarroa (OPUS) zein Valladolideko Unibertsitatea. Hala ere, orokorrean, Leintz Bailaran Irakasletza emateko “sektzio” edo gela bat sortzeko harremanek ez zuten emaitza onik izan. Salbuespena izan zen Gasteizko Irakasle Eskola¹⁰. Zergatik?

“ Ez da erraza jakitea, baina nire pertzepzioa da politikoa izan zela: garai hartan euskara, politika zen (Felix Ormaetxea) ”¹¹

Aldi berean, Administrazioarekin negoziatzea pentsatu bazen ere, ideia honek ez zuen aurrera egin. Eta hau atzera pausua izan zen, batez ere, ikasturte hartan Oñatin COUko ikasleekin egindako zundaketan 23 bat ikaslek adierazi zutelako irakasle izateko karrera hautatzeko borondatea.

Irakasle Eskola izango zenaren ernaldia ezin da Gipuzkoako Elizbarruti barik ulertu. Bitxia da Irakasle Eskola eraikitzeke zelak uztartu ziren Hezibide Elkartearen eta Elizbarrutikoen gogo eta interesak. Anekdotak batekin azalduko digu une hartan Hezibideren lehendakari zen Jabier Retegik:

9. Hezibideko ikastetxeen artean ALMEN izan zen euskalduntze prozesua abian jartzen lehena. Baxilergoa egiteko beharrei aurre egiteko, inguruko eragileak elkarturik, Marianistekin egindako hitzarmenaren bitartez nahiz eskualdeko kooperatiben laguntzari esker, 1965-1966. ikasturtean eskola berri bat ireki zen Eskoriatzan: Dorletako Amaren ikastetxea. Handik bi urtera, 1967an hain zuzen ere, A.L.M.E.N (Asociación Léniz Mancomunidad de Enseñanza) bilakatu zen ikastetxea. Iturria: Elkar lana (2002): *Kooperatibak eta euskara. Historia eta aro berri baten oinarriak*. Eskoriatza: LANKI ikertegia. 65 or.

10. Esan beharra dago, dena dela, hasi, Gasteizko Irakasle Eskolak emandako estalpe juridikoari esker hasi zirela klaseak ematen A.L.M.E.N.en, horretarako zegoen irakasle baten ardurapean. Hiru baldintzekin: 1) Matrikula librea, eta klaseetarako dispensa. 2) Ez talde bezala aurkeztea, baizik eta gizabanako bezala. 3) Ikasleek lana egin behar zutenez, ezin zituzten klaseak jarraitu. Baina berehala hasi ziren oztopoak: Gasteizen ematen zen gaitegiagatik, bibliografiagatik, irakasleren baten kexagatik, Irakasle Eskoletako zuzendari batzuek Gasteizko Irakasle Eskolaren zuzendariak zuen jarrerari eginiko kritikengatik... Honek guztiak, ondorioz, proiektua bera atzera bota eta programa eten egin zen abenduan.

11. Felix Ormaetxeari elkarrizketa, 2012/11/14.

“ Gu geuk ordurako pentsatuta geneukan irakasletzarekin lotutako eskola bat sortzea, eta behin, orduan sarri joaten nintzen Gasteiztik Madrilera, hara non ikusi nuen Jose Maria Setien gotzaina¹² tren geltokian paseatzen. Agurtu eta hasi nintzaion azaltzen zeintzuk ziren gure proiektuak, eta tartean Irakasle Eskolarena, eta, harriduraz-edo eurek ere antzerako asmoa zutela esan zidan. Tren geltokian egon ginen bi-hiru ordu paseatzen, eta bakoitzaren egitasmoak azaldu genizkion elkarri. Trena hiru ordu berandua-go (gaveko 3:00etan) iritsi zen; eta orduan Madrilera joan nintzen ”¹³

Elkarrizketa horren ondoren etorri zen, Gipuzkoako hainbat eragileri zuzenduta, Gipuzkoako Elizbarrutiko Unibertsitate baten beharraz Jose Maria Setienek egindako proposamena. 1974ean, Gipuzkoako Elizbarrutiko Unibertsitate Ikasketen inguruko hausnarketa eta planteamendua kaleratu zuen Setienek. Dokumentu horretan oso atal eta egitasmo interesgarriak aipatzen dira. Egitasmoak adierazterakoan, aipatutako dokumentuan Euskal Herria bezalako gizarteak dituen premia eta kezken aurrean unibertsitateak nola jokatu beharko lukeen adierazten da. Guri ere interesgarria iruditu zaigu horri kasu egitea, izan ere, bailaran Irakasle Eskola bat izateko proiektua martxan jarrita zegoelako, eta Debagoieneko kooperatibetako hainbat eragilek dokumentuari oniritzia eman ziotelako.

Laburbilduz, eta atalka banatuta, zera esaten du Jose Maria Setien jaunak bere egitasmo horretan¹⁴:

1. Kristau soilek Elizaren hierarkia nola ikusten duten. Besteak beste, Eliza eta herriaren artean ematen ari zen etenez adierazten da kezka: “... Elizak Euskal Herrian nahiago izan du Estatuaren adiskide izan herriaren kezka eta asmoei erantzutea baino”.
2. Zer egin dezake Elizak egoera honen aurrean? Galdera honi halaxe erantzuten dio: “... Egindako akatsak onartu eta jokabidea zuzendu”.
3. Zein dira Euskal Herriaren premiak? Euskal Herriak bere buruaren jabe egin behar du: “Hala ere ezin zaio eskatu Elizari buru belarri sartzeko; ez da bere eginkizuna hori”.

12. Jose Maria Setien 1960tik aurrera Salamancako Apezpiku Unibertsitatean aritu zen irakasle, bai Zuzenbide Kanonikoko Fakultatean eta baita Teologiakoan ere. Azken horretan dekanu izan zen. 1972ko irailaren 26an Donostiako Elizbarrutiko Gotzain Laguntzaile izendatu zuten. 1979ko otsailaren 17tik 2000ko urtarrilaren 13ra arte Donostiako Gotzaina izan zen. Iturria: <http://www.euskomedia.org/aunamendi/ee109807> (Kontsulta: 2013/01/30). Oharra: Jose Maria Setienekin hitz egitea nahi izan genuen zeregin honetarako, baina oroimen arazoak bitarte, eta datak eta gertaerak ez nahasteko asmoz, elkarrizketa ez egitea erabaki zuen. Hala ere, lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkiogu Setien jaunari eskainitako arretagatik.

13. Jabier Retegirekin elkarrizketa, 2013/01/24.

14. *Comentario al proyecto del Centro Universitario Diocesano de Guipúzcoa*. Respuesta a D. José María Setién. Mondragón, abril, 1974. Iturria: HUHEZI Artxiboa, Sorrera, 2.A.7. dokumentua.

4. Zer da, gaur egun, gizarteari kristau kutsua ematea? Egindako erruak zuzendu nahi baditu elizak, gizartearen “gizatasun jatorrenaren asmo eta ekintza guztiak babestu eta bultzatu behar ditu”.
5. Nola antolatu, jokabide horretan, Eliz barrutiaren babeseko irakaskuntza? Hasteko, Elizak orain arte praktikatu duen “agintarismoa” alde batera utzita, “Euskal Herriko gizatasun jator baten bila dabiltzan indar eragile guztiekin mahai inguruan bildurik: herri eta eskualdeetako kultur elkarteak, guraso elkarteak eta abar”.
6. Hasiera hasieratik euskaraz irakastea oso gogoan hartu beharko da. “Ezin da Euskal Herrian irakaskuntzaren aldeko jokabide erabat jatorra hartu, euskaraz emateko asmo tinko eta benetakorik ez badago”. Premia dago irakaskuntzarako profesionalak beren formazioa euskaraz jaso dezaten.

Esan bezala, proposamen honek erantzuna izan zuen bailarako kooperatibetako eragileen aldetik¹⁵. Hala ere, dokumentu honek zenbait zalantza eragin zituen kooperatibetako eragileen artean. Alegia, zeintzuk izango ziren proiektu hau martxan jartzeko eragileak; Eliza eragile horietako bat izan behar ote zen edo ez; nortzuk izango ote ziren gainerako eragileak; zein izango zen euskara sustatzeko benetako jarrera, eta finean, nola antolatuko zen. Esandako honi guztiari erantzuteko “Elizbarrutiko Unibertsitatearen Ikasketen Liburu Zuria” egitea eskatu zen.

Jabier Retegik, Hezibide Elkarteak adierazitako egitasmoarekin aurrera egin zuen:

“*Eta ondoren hasi nintzen Donostiara joaten Jose Maria Setienekin hitz egitera. Donostiako eskolako patronatua zelan martxan jarri izaten genuen hizpide. Une hartan, Karlos Santamariarekin¹⁶ ere jarri ginen harremanetan gure unibertsitate-eskola sortzeko asmoak berarekin kontrastatzeko, eta berak memento hartan ez zuen ikusten Euskadin horrelako bat antolatzeko ahalmenik. Egoera horren aurrean, elizbarrutitik talde bat osatzea erabaki zen; Eizmendi izan zen arduradun. Hala, Jose Maria Setienek Salamancako Apezpiku Unibertsitatearekin (Universidad Pontificia de Salamanca -UPSA-, gaztelaniaz) harremanak zituelako (bertako Teologia Fakultateko dekanoa eta irakasle ere izan zenez, prestigio handia zuen bertan), jarri ginen harremanetan bertako ‘Luis Vives’ Maristen Irakasle Eskolarekin”¹⁷*

15. Javier Erdocia, “Liga de Educación y Cultura” lehendakaria; Javier Mongelos, ULARCO zuzendari orokorra; Alfontso Gorroñoigoitia, ULGOR eta EUSKADIKO KUTXA lehendakaria. Pablo Letona eta Victoriano Aranburu, apaizak; Julio Gorroñoigoitia, Andoni Sagarna eta Carmelo Azkoitia, Eskolako irakasleak; Jose Mari Ormaetxea, Euskadiko Kutxa zuzendaria. Iturria: Estudios Universitarios de Guipúzcoa. Reunión 8 de abril de 1974. SORRERA: 2.A.7.

16. Garai hartan intelektual erreferentea zena eta gero Consejo General Vasco-ren hezkuntza sailburua ere izan zena. Ikusi: <http://www.euskomedia.org/aunamendi/ee106482> (Kontsultatua: 2013/06/16).

17. Jabier Retegirekin elkarrizketa, 2013/01/24.

Baina, zergatik 'Luis Vives' Irakasle Eskolarekin?

Erantzun aurretik, ezin aipatu gabe utzi Salamancako Apezpiku Unibertsitateak (UPSA) ez zeukala OHOkoko Irakasle Unibertsitate eskolarik, eta I.S.P.E. (Instituto Superior de Perfeccionamiento Educativo) barruan Maristek kudeatzen zuten 'Luis Vives' izeneko irakasle eskola euren unibertsitatean integratzea pentsatu zutela. Elkarren arteko osagarritasuna, batarentzat zein bestearentzat onuragarri zela uste izan zuten: Salamancako Unibertsitatearentzat, batetik; Maristen Eskolak tradizio handia zuelako irakaskuntzan. Eta, bestetik, Maristentzat; horrela Unibertsitate Eskola bat izatea lortuko zutelako.

'Liga de Educación y Cultura' edo Hezibide Elkarteak ere ba omen zituen harremanak Salamancako 'Luis Vives' Eskolarekin; garai hartan marista batzuk ingeniari-tza egiten ari ziren Arrasateko Eskola Politeknikoan. Horrela kontatzen digu egoera hura Felix Ormaetxeak:

“ Baina gauza bat izan zen Salamancako Errektoreak gurekin bat egitea nahi izatea, eta beste bat euren batzordeak gure proposamenari baiezkota ematea. Prozesu honetan laguntzeko Arrasateko egoitzan zeuden Salamancako marista batzuk izan genituen bidelagun. Horrela lortu genuen Maristek onartu gintzaten Salamancako Apezpiku Unibertsitatean zuten 'Luis Vives' Irakasle Eskolako 'sektio' bezala. Alegia, hemen kokatuko ziren gela batzuk, eta Salamancako babesa izango zuten. Aldi berean, hementxo irakasleria Salamancako irakasleen baldintza beretan egongo ginen (txartel eta guztiz). Horrela, ebaluazio garaian, maristak etortzen ziren guregana. Beraz, lehendabiziko Irakasle Eskolako irakasleak eta ikasleak 'Luis Vives' eskolako irakasleak eta ikasleak ere izan ziren ”¹⁸

Hala, bada, bata zein bestearen interesak edo nahiak elkartuta, bidea batera egitea erabaki zuten Salamancako Apezpiku Unibertsitateko eta Hezibideko arduradunek, Jabier Retegik dioskun bezala:

“ Buelta batzuk egin nituen Jose Maria Setienekin bere kotxean Salamancara. Bertako errektorea zen Fernando Sebastianekin elkartu eta baietza jaso genuen; berak lagunduko zigula lan horretan. Hala ere, ofizialtasuna lortzerakoan zalantza bat izan zuen Setienek, hau da, ikastetxe bat egin edo bi ikastetxe egin. Gu geuk garbi laga genion gure ikastetxeak ez zeukala lotura handirik Elizbarrutiak egin nahi zuenarekin. Alegia, bi pentsaera eta estilo des-

18. Felix Ormaetxearekin elkarrizketa, 2012/11/14.

berdinekin ikastetxe bat ezin genezakeela egin. Hori bai, euretako batek ofizialtasuna lortuz gero, bestea babesteko hitza eman genion elkarri ”¹⁹

Beraz, Irakasle Unibertsitate Eskola lortzeko helburuaren bueltan bildu ziren Salamancako Apezpiku Unibertsitatearen nahiak, eta Hezibide nahiz Donostiako Elizbarrutiaren beharrak. Eta bidelagun paregabea topatu zuten: `Luis Vives` Unibertsitate Eskola.

`Luis Vives` Irakasle Eskolaren estatutuetan, gainera, beste zonalde batzuetan ere `sekzioak` zabaltzea aurreikusten zen, eta berau aprobetxatu zen Leintz bailaran ere Irakasle Eskola sortzeko aukera negoziatzeko. Negoziazioak 1974ko maiatzean bukatzea espero ziren, eta klaseak 1974-1975 ikasturtean hasi.

Baina hainbat eragileren oniritzia ez zen nahikoa izan proiektuaren bideragarritasuna bermatzeko. Bezerorik gabe, hau da, ikaslerik gabe proiektuak ez zeukan etorkizunik. Beraz, ikasleak lortu behar ziren proiekturako.

Landa lan zabala egin zen Bergara, Oñati eta ALMEN ikastetxeetan COU egiten ari ziren 300 ikasleekin: 98 Bergaran; 96 Oñatin eta 106 ALMENen. Badirudi hauetako %14ak (42 ikaslek) irakasletza ikasteko asmoa adierazi zuela. Bazegoen arrazoirik, halaber, hurrengo urteetan ehuneko hori handituko zela uste izateko:

1. Irakasletza, eta aldi berean euskararekiko konpromisoa, ospe handia hartzen ari zen.
2. Denbora tarte laburrekoa zen, eta horregatik ere erakargarria izan zitekeen.
3. Diru asko ordainduta, behartuta, hiriburuan ikasi beharra zegoen eta horrek autofinantzatzeko bateraezintasuna zekarren.
4. Bailaran bertan egongo zela bermatzea.

Honezaz gain, eraiki nahi zen eskolak bazuen beste batzuek ez zuten ezaugarri bat, hots, ikasketak eta lana bateratzeko aukera²⁰. Honekin gazteei aukera eman nahi zitzairen etxeko dependentziaz alde egin, autonomoak izaten ikasi eta lan munduarekin ere harremanak izateko. Hala, gastuak norbere poltsikotik ordaindu eta euren buruak autogestionatzen ikasteko ere oso baliagarria zen. 1974ko datuetan agertzen den bezala, lau ordu lan eginez gero “ikasle batek hilero 6.000 pezeta lortzeko aukera zuen”²¹. Horrek euren ikasketak finantzatzeko aukera eskaintzen zien.

Bultzatzaile nagusien arteko negoziazioak, berriz, uste baino gehiago luzatu ziren; Gipuzkoako Elizbarrutiak 1976-1977 ikasturterako zabaldu nahi zuen Irakasle Eskola. Hori errealitate bihurtu zedin, 1976 urtean zehar, negoziazioak azkartu eta Salamancara bisitaldiak ugaritu egin ziren. Salamancako Apezpiku Unibertsitatearekin harreman zuzenak zeuden

19. Jabier Retegirekin elkarrizketa, 2013/01/24.

20. ALECOP (Arrasate) bidez egiten zena.

21. HEZIBIDE Artxiboa, 1-04. “Correspondencia, varios ...” karpeta.

Fernando Sebastian Erretorearekin, Errektore Ordea zen Antonio Maria Rouco Varelarekin (une hartan, Santiagoko Gotzain Laguntzaile) eta `Luis Vives´ Irakasle Eskolako zuzendaria zen Eladio Fernandezekin. Haien guztien arteko harremana oso emankorra izan zen. Horrela gogoratzen du garai hura Felix Ormaetxeak:

“ Gasteizko esperientziak porrot egin zuenean, hemengo ikastetxeekin ere frogatu genuen. Ez genuen oraindik aitorren akademiko eta juridikorik. Adibidez, Deustorekin egin genuen saiakera. Pentsatzen genuen ulertuko zutela gure beharra, baina ez zen hala izan. Ondoren Derioko Irakasle Eskolara ere joan ginen, gero Valladolidera..., baina ez genuen ezer lortu. Testuinguru honetan etorri zen Jose Maria Setien, Salamancako Apezpiku Unibertsitatean irakasle izan zena. Ikuspegi erlijiosoa izango zuen eskola bat sortu nahi zuen Donostian... Guk ere eskola bat nahi genuen, baina laikoa. Garai hura, laikotasuna eta erlijioa banatzeko garaia zen, eta eztabaida zegoen gizartean. Guk, dena dela, Salamancako errektorea zen Fernando Sebastianekin egin genuen bat gure helburuak lortzeko. Orduan, errektore ordea Antonio Maria Rouco Varela jauna zen. Jabier Retegi, Hezibideko zuzendaria, Emeterio Isasti, Gipuzkoako Elizbarrutiko Bikario Nagusia, eta ni neu joan ginen egoera akademiko eta juridikoak lotzen ”²²

Proiektua indartzeko patronatu bat ere sortu zen 1976ko apirilean²³. Are gehiago, Irakasle Eskola martxan jartzeko bi egoitza aurreikusi ziren: Donostiako Seminarioan bata, hiriburuko eta inguruko eskakizunei aurre egiteko; eta, bestea, Eskoriatzako “ALMEN” ikastetxean Deba ibarreko, Zumarraga, Legazpi eta beste hainbat lekutako ikasleentzat. Elizbarrutiko Unibertsitate-Eskolarako ikasketa-plangintzak ere 1976ko maiatzerako zehaztu ziren.

Kudeaketak kudeaketa, 1976ko irailerako erabaki garrantzitsu bat hartu zen Salamancan. Alegia, zera erabaki zuten Jabier Retegik, Elizbarrutiko bikario orokorra zen Emeterio Isasti eta Felix Ormaetxeak batetik, eta Salamancako errektore, errektoreorde eta `Luis Vives´ Irakasle Eskolako zuzendariak bestetik: sortuko zen Irakasle Eskola ez zela elizako eskolatzat hartuko. Horrek esan nahi zuen, Eskoriatzan sortuko zen Irakasle Eskola ez zela Salamancako Apezpiku Unibertsitatekoa izango, baizik eta `Luis Vives´ Irakasle Unibertsitate-Eskolaren sekzio bat.

Hala, Donostiako Elizbarrutiak (Jazinto Argaia zen orduan Gotzaina) eta `Liga de Educación y Cultura´-k (Jabier Erdozia zen Ligako lehendakaria), akordio bat sinatu eta zera adostu zuten: “la creación de una sección de la Escuela Universitaria Diocesana de Profesorado de E.G.B. en Escoriaza, en régimen de integración en la Universidad Pontificia de

22. Felix Ormaetxearekin elkarrizketa, 2012/11/14.

23. 1976ko otsailaren 6an Arrasatera etorri ziren `Luis Vives´ Irakasle Eskolaren zuzendaria (Eladio Fernandez), zuzendari ordea (Carlos Ampurias) eta kongregazioaren probintziala zen Casimiro Sanchez. Harrituta gelditu ziren ikusitakoaz, batez ere jendeak Eskola bat izateko zuen interesaz, eta laguntza guztia eskainiko zutela hitz emanda bueltatu ziren Salamancara.

Salamanca (UPSA), a través de la Escuela Universitaria de Profesorado de EGB ‘Luis Vives’ de Salamanca”²⁴. Salamanca-koek Eskola bakar bezala hartzen zituzten bi “sekzioak” (Donostiakoa eta Eskoriatzakoa). Integrazio honek hala izaten jarraitu zuen Donostiako Elizbarrutiko Unibertsitate-Eskolak bere ofizialtasuna lortu zuenera arte. Beraz, esan genezake, Donostiako Elizbarrutia pizgarria izan zela Eskoriatzako Irakasle Eskolaren sorreran eta sustapenean.

Ulertu behar da, ordea, harreman horren helburua trantsiziozkoa izatea zela, finean, Eskoriatzako Irakasle Eskolarentzat azken helburua Euskadiko Unibertsitatearen eremu barruan onartzea zelako.

Hala ere, ‘sekzio’ bat izateak bazekartzan bere baitan baldintza batzuk ere onartzea: Irakasle Eskolaren zuzendaria Salamancako Unibertsitateko Errektorearen esku egotea; irakasle ez numerarioak Salamancako Unibertsitatearen estatutuen arabera aukeratuak izatea; kontratatuak, berriz, Irakasle Eskolaren esku egotea; eta ikasketa-plangintzak, programak eta azterketak, ‘Luis Vives’ Eskolaren eskutan egotea.

Azken eskumen honen baitan azterketen notak Salamancako Unibertsitatearen esku geratzen ziren. Ikasturte bukaeran protokoloa burutzen zen, eta “ikurrina jarri zuten lehen promozioko ikasleek ohorezko mahaiaren atzean Salamancako ‘Luis Vives’-eko zuzendaria notak sinatzera etorri zenean. Zuzendariak ez zuen ezer esan; kaperan eman zen mezaren ostean, ordea, esan zigun abestutako *Aita Gurea* oso polita iruditu zitzaiola”²⁵.

Azterketak egin, zuzenketak bukatu, ikasleekin batera egindako berrikuspenak amaitu eta ebaluazioa egin ondoren, uztailaren bigarren hamabostaldian-edo etortzen ziren Salamancatik notak sinatzera. Notak uztaila bukatu aurretik ematen ziren.

Beraz, hautematen den bezala, ernaldiaren lehendabiziko urratsak norabide askotakoak izan ziren:

“ Ez pentsa oso jakitun ginenik proiektuak zuen garrantziaz. Ilusio izugarria genuen, baina baliabiderik ez. Hara, gaur dakigun guztiarekin berriro hutsetik hasi beharko bagina, ez ginateke hasiko (Felix Ormaetxea) ”²⁶

24. *Creación de una sección de la Escuela Universitaria Diocesana de Profesorado de E.G.B. en Escoriaza, en régimen de integración en la Universidad Pontificia de Salamanca (UPSA), a través de la Escuela Universitaria de Profesorado de EGB “Luis Vives” de Salamanca.* HUHEZI Artxiboa, Sorrera, A.8.

25. Jesus Garmendiaren aparteko oroimen idatziak.

26. GOIENKARIA astekaria, 2001/03/02.

ACUERDO entre la DIOCESIS de SAN SEBASTIAN y LIGA DE EDUCACION Y CULTURA de MONDRAGON(GUIPUZCOA), para la creacion de una SECCION de la ESCUELA UNIVERSITARIA DIOCESANA de Profesorado de E.G.B. en Escoriaza, en regimen de integracion en la UNIVERSIDAD PONTIFICIA DE SALAMANCA U.P.S.A., a traves de la ESCUELA UNIVERSITARIA DE PROFESORADO DE E.G.B. "LUIS VIVES" de SALAMANCA.

1



2



3



4



5



6



7

1 1975-76. Eskoriatzan Irakasle Eskola bat sortzeko akordioa.

2 Hezibide Elkartearen eraketa 1980/12/11.

3 Salamanca - Universidad Pontífica "Luis Vives". Escuela Universitaria de Formación del Profesorado de E.G.B.

4 Liga de Educación y Cultura, Hezibide bihurtu aurretik.

5 Irakasle Eskolaren anagrama.

6 Salamanca - Eskoriatza, azterketa aktak direla eta 1977/05/14.

7 Irakasle Eskola "Ze barri?" aldizkarian 1996ko urrian.

4. ‘DORLETA’ ERAIKUNTZA: LUR EROSKETAK ETA OBREN HASIERA

Goazen Irakasle Eskola kokatuko zen eraikuntzaren nondik norakoak aztertzeraz; oso izan zen gorabeheratsua.

“ *Hasta el presente se ha venido dando la Enseñanza Primaria (Eskoriatzan), pero, visto el gran desarrollo industrial que está experimentando esta región y por tanto el aumento de población se ha juzgado necesaria la creación de nuevos centros docentes y poner al alcance de todos el Bachillerato elemental sin necesidad de desplazamientos. Para la ejecución de tales planes ha querido la Divina Providencia concedernos un insigne bienhechor de Escoriaza, residente en Méjico, muy encariñado con su pueblo natal y la enseñanza. Gracias pues a su generosa ayuda se han podido adquirir los terrenos situados junto al convento entre el ferrocarril y el río Deva para la edificación de un nuevo colegio. Dado este primer paso importante se ha trabajado en solicitar el reconocimiento del colegio. Todo ha sido resuelto pronta y satisfactoriamente. Precisa y oportunamente la víspera de San José (Patrono del colegio) se recibió la notificación del reconocimiento del colegio San José para impartir la enseñanza del bachillerato técnico elemental, especialidad industrial-minera. Ya están en estudio los planos del futuro colegio que se edificará en inmejorable terreno por ser céntrico y llano. Ya sólo queda esperar y ver realizado en un futuro próximo, lo que unos años antes era un tanto ilusorio (Goio Eskibel) ”²⁷*

27. Eskerrak eman nahi dizkiot Goio Eskibeli, San Viator Kongregazioko Bikario Nagusia izan zenari eta gaur Espainiako Viatortarren Aita probintziala denari, emandako informazioarengatik. Bera Lakuntzan (Nafarroan) jaio bazen ere, bere aita Eskoriatzako Lete auzokoa izanik, gazte zela etorri zen bizitzera Eskoriatzara.

Eraikuntza hasi aurreko prozesua astuna izan omen zen. Eta ustekabeen hasi ziren obrak, hala diote dokumentuek bederen, 1967ko martxoaren 20an, astelehenez: “sin avisar a nadie ni nada dieron comienzo las obras de construcción del nuevo colegio, que para estas horas deja ver ya las columnas que sostendrán el primer piso”²⁸.

Hamabi bat langilek ekin zioten lanari, oso egoera prekarioan gainera: “Casi la mitad de los cuales habitan al abrigo de los nuevos departamentos de la terraza del convento, ante la puerta de la cocina, con hornillos eléctricos y colchones cedidos caritativamente por el Hno. Santiago”²⁹.

Helburua 1968-1969 ikasturterako inauguratzea zen, baina asmoak ez ziren bete. Hezkuntza barruan izandako aldaketek hankaz gora jarri zuten ikastetxe honetarako aurrez pentsatutako egitasmoa, eta ezinezko bihurtu zuen herriko semeei batxilergoa eskaintzea. Eta 1972ko ekainean herriko Udalari eskaintzea erabaki zen eraikuntza:

“ *Cumpliendo deseos de la Dirección provincial hemos ofrecido el colegio, casi terminado, al Sr. Alcalde. Bajo nuestra gerencia, o la del Ayuntamiento, es claro que el colegio se prevé imprescindible para el pueblo, en un futuro muy próximo. Las Escuelas que totalizan el contingente escolar del casco y barrio de Escoriaza, tienen ya 700 alumnos* ”³⁰

Beraz, S. Viatorrekoek (“Congregación de Clérigos de San Viator”)³¹, Eskoriatzako komentu ostean dagoen Dorleta auzoan, erdi bukatuta zegoen eraikuntza bat zeukan. Eta laster agertu zen eraikuntza horretan interesa zuen bestelako eragilerik. Kongregaziokoek ez zuten inongo eragozpenik izan eraikuntza hori eta inguruko 4.670 metro karratu lur ‘Liga Educación y Cultura’ erakundeari saltzeko³². Izan ere, arestian aipatu dugun bezala, eraikuntzarako San Viatorrek aurreikusitako egitasmoak (bertan batxilergo laboral bat jartzea), porrot egin zuen hezkuntza erreformak batxilergo mota hau baztertu ondoren. Hala ere, guztiaren funtsean bestelako arrazoiren bat ere egon zitekeen; alegia, apaiz edo fraide izateko gero eta bokazio urriagoa zegoela. Horrela gogoratzen du garai hura Felix Ormaetxeak:

“ *San Viatorrekoek eraiki nahi izan zuten batxilergo zuzendutako eraikuntza bat. Baina eraikitze horren arrazoia gehiago izan zen, ene ustez, bokazio krisi garaian, zerbait egin nahi zuten bokazioa pizteko. Baina porrot egin zuen. Orduan eskaini ziguten eraikuntza. Lehendabizi Madrilen*

28. Goio Eskibelek emandako datuak.

29. Goio Eskibelek emandako datuak.

30. Goio Eskibelek emandako datuak.

31. http://www.csviator.es/centenario/decada_1921_1948.asp, http://www.csviator.es/centenario/decada_1949_1969.asp eta http://www.csviator.es/centenario/decada_1968_1980.asp Hiru iturri hauek interesgarriak dira San Viator Kongregazioaren nondik norakoak Eskoriatzan aztertzeko. Adibidez, “Año 1921: ESKORIATZA. 1 Marzo: Salen los juniore de Zarautz y se cierra definitivamente la Casa de Formación. Recibimiento cariñoso en la villa de Eskoriatza e instalación definitiva de los C.S.V. en la nueva casa”.

32. Eraikuntza zegoen lurra eta ingurua, “Talleres de Escoriaza S.A.” edo TESArri erosi zioten S. Viatorrekoek 1965ean. Iturriak: Escritura de compraventa otorgada por la Congregación de Clérigos de San Viator a favor de “Liga Educación y Cultura”. Mondragón, 30 de diciembre de 1977. Compraventa “Talleres de Escoriaza, S.A.” a favor de “Clérigos de San Viator”. Mondragón, 23 de diciembre de 1965.

eurek zuten ‘Banco Hipotecario de Crédito’-n ordaindu genuen hipoteka. Obrak bukatzeko Juanito Zelaiak dirua eskaini zuen. Hezibidetik, berriz, bere gain hartu zuen ‘Banco Hipotecario’-ri zor zitzaiona. Hala ere, lehendabiziko kurtsoa San Viator komentuan hasi zen, hango gela batean”³³

Diru ordainketa hauek buruhaustek sortu zituzten, izan ere, San Viatorrek pertsona partikularrek emandako dohaintza eta diru-laguntza ofizialak ere erabili baitzituen Dorleta eraikuntza jasotzeko. 1969an, esate baterako, Espainiako Hezikuntza eta Zientzia Ministeriotik 4.000.000 pezeta jaso zituen³⁴.

Kontuak kontu, San Viatorrek lur saila eta eraikuntza bera salmentan jarri zuen 2.500.000 pezetatan³⁵.

Baina ezagutu dezagun nola joan zen gauzatzen eraikina.

4.1. IKASTETXEA ERAIKITZEN: DOHAINTZAK ETA EZAUGARRIAK

Eraikina eraikiko zen lurra “Talleres Escoriaza S. A. (TESA)” enpresarena zen. ‘San Viator’ kongregaziokoak eurekin harremanetan jarri eta gero, 1.401.000 pezetatan saldu nahi izan zien TESAk. Hala ere, jakinda zein helburu izango zuen eraikuntzak, hau da, Eskoriatzako gazteentzat batxilergo ikasketak eskainiko zituela, %25aren (350.000 pezeta) dohaintza egitea erabaki zuten. Diru faltak behartuta, Eskoriatzakoak ziren Aramburuzabala sendiari 25.000 dolarreko interes gabeko mailegua eskatu zioten Viatoristek 1965 urtean. Diru horrekin eraikuntza jasotzeko beharrezkoak ziren lurrak erosi zituzten³⁶. Ez zen, ordea, behar adina diru izan, eta banketxeekin mailegua lortzeko arazoak izan zituztenez³⁷, beste 20.000 dolarreko mailegua eskatzea erabaki zuten eraikuntzarekin hasteko (1966). Aramburuzabalarrek, esku zabal, 45.000 dolar (2.000.000 pezeta garai hartan) ematea erabaki zuten.

Kongregazioak, berriz, 1976an 2.500.000 pezeta bere poltsikotik jarri zuela aitortu zuen. Kontua da, diruak diru, ez zela nahikoa izan ordainketa guztiak egiteko, eta, ondorioz, 1966an obra egiteko baimena jaso bazuen ere, 1968an oraindik obrak bukatzeke zeuden³⁸.

33. Felix Ormaetxearekin elkarrizketa, 2012/11/14.

34. Kreditua 3.500.000 pezetakoa zen. Horietatik 2.500.000 pezeta erabili ziren eraikuntza jasotzeko (ez bukatzeko). Beraz, 1.000.000 pezeta geratu ziren erabiltzeko, eta eskuratu ahal izango zirenak obra bukaeraren ziurtagiria aurkezterakoan. Honi gehitu behar zitzaion 2.000.000 pezeta lortu zirenak dohaintza desberdinetatik. Beraz, obraren hasierako aurrekontua 4.500.000 pezetakoa zen. Iturria: HEZIBIDE Artxiboa, 1-04. “Correspondencia, varios ...” karpeta.

35. Biatoristen aldetik, salerosketaren sinatzailea Jose Martínez Ruiz izan bazen ere (Administrador Provincial de los Clérigos de San Viator de la Provincia de España), berau Biatoristen “Superior”ra omen zen Jose Luis Ezkurra Larrañagaren agindupean sinatu zuen dokumentua notario aurrean, 1977ko abenduan. Hezibidetik, berriz, edo “Liga de Educación y Cultura”tik, Jabier Retegi, une hartan Zuzendari Orokorra zena. Erakundearen Lehendakaria, berriz, Jabier Erdozia zen. Dokumentuan bertan, “Liga de Educación y Cultura”tik onartu zen San Viatorrekoen 3.500.000 pezetako partizipazioa (euren esanetan dohaintzan jasotako diru-laguntza) eraikuntza eta lurraren balioan. Baldintza bakarra erositako lurra eta eraikuntza irakaskuntzara lotuta jarraitzea. HEZIBIDE Artxiboa, 1-04. “Correspondencia, varios ...” karpeta).

36. Felix Aramburuzabala, Mexikon bizi zen herriko semeak, Eskoriatzan denbora luzez egoten zenak, dirua egin zuen Mexikon. San Viatorrek Gasteizen zuen ikastetxerako ere dirua emanda zegoenez, Eskoriatzarako ere eskatu zioten, emango zuen dirua herriko semeentzat izango zela aitortuz. Beste iturri bat: http://es.wikipedia.org/wiki/F%C3%A9lix_Aramburuzabala (2012/10/10ean kontsultatuta).

37. Ondoren lortuko zuten 4 miloiko mailegua ‘Banco de Crédito’tik.

38. Obra berriaren eskriturak 1969ko urriaren 7koak dira. Iturria: Escritura de compraventa otorgada por la Congregación de Clérigos de San Viator a favor de “Liga Educación y Cultura”. Mondragón, 30 de diciembre de 1977.

Eraikina diseinatu zuen arkitektoa Migel Anjel Lazpita Barrenetxea izan zen.

Halaxe, eraikina bukatzeke geratu zenez, hainbat obra eta konponketa egin behar izan ziren eraikina bukatu eta izango zuen hezkuntza funtzioetara egokitzeko. Horiek 1976ko iraila eta abendu bitartean egin ziren HEZIBIDE elkartearen kontura. Guztira, 14.000.000 pezeta inbertitu ziren.

Hauexek izan ziren egindako eraikuntzaren ezaugarriak: estalitako azalera, lau solairutan banatuta (azpiko oina eta hiru altura), guztira 750 metro karratu. 450 ikaslerentzat aurreikusita zeuden hamar gela handi eta argitsuak; saloi anizkoitza; batzar saloia; irakasle gela; liburutegia; zuzendaritza; administrazioa; zerbitzuak; dutxak; berogailu sistema; biltegia eta babestutako frontoia (beheko solairua).

Obra bukatzeko eta egokitzapen-inbertsio hauen finantzaketari begira, bi dohaintza ere jaso ziren: Eskoriatzako Udalak emandako 1.800.000 pezeta³⁹, eta CEGASA industria jabe zen Juanito Zelaia oñatiarrak emandako 5.000.000 pezeta⁴⁰.

Jabier Retegik ondo gogoratzen du Juanitoren gana diru eske joan zenekoa:

“ *Lehendik ondo ezagutzen nuen. Betidanik egonda prest euskara, ikastola eta euskal kulturaren egitasmoei laguntza emateko. Halaxe joan nintzaion diru eske. Berehala galdetu zidan zenbat behar nuen. Erantzun ezinda geratu nintzen. Orduan berak esan zidan: ‘bost miloi nahikoa izango dittuk?’ Nik, neure ustetan, baietz erantzun nion. Halaxe, idazkariari deitu zion eta bertan egin zuen bost milioiko taloia* ”⁴¹

Baina, hau nahikoa ez eta orduko Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalari ere epe luzerako 9.000.000 pezetako mailegua eskatu zitzaion. Aldi berean, maileguaz gain, eta honek guztiak Gipuzkoari zekarzkie onurak kontuan izanda, aipatutako erakundeak kudeatzen zuen Giza Lanetarako Fondoetatik diru-laguntza eskuratzea lortu zen. Honekin batera, Kutxak berak begi onez ikusi zuen Eskolaren kudeaketan parte hartzeko aukera. Azkenik, Euskadiko Lankide Aurrezkiak (CLP) hitzartutako kopuruaren mailegua eman zuen; bost urtetan ordaindu behar zen. Guztira, beraz, 15.800.000 pezeta zegoen obrak bukatzeko.

39. Dohaintza honen baitan dago Eskoriatzako Udalak obraren kostuak bere gain hartzea pentsatu zutelako (10.358.927 pezeta). Hala ere, batik bat Gipuzkoako Foru Aldunditik zeuden aurreikuspenak ez ziren bete, eta azkenean, Eskoriatzako alkatearen eskariz, finantzaketarako aurreikusita zegoen 1.800.000 pezetako kreditua “Acondicionamiento de Edificio Municipal de Cultura” kontzeptuan ematea erabaki zuen Gipuzkoako Diputazioak.

40. Irakasle Eskola-HUHEZI zorretan dago hila berri den (2016/08/10) Juan Zelaia Letamendiarekin. Enpresaburu bezain euskaltzale amorratua, kulturaren eta euskararen alde lan handia egin zuen. Une honetan idazten ari garen gure oroitza-penetan nahiz bizipenetan, beraz, bere eskuzabaltasunaren aitortza eta esker on adierazi nahi dizkiogu.

41. Jabier Retegirekin elkarrizketa, 2013/01/24.

4.2. ERAIKUNTZA BERRIAREN EKITALDI AKADEMIKOA ETA LEHEN URRATSAK

Eta halaxe ekin zitzaion 1976ko irailean 27an Irakasle Eskolaren lehendabiziko ikasturteari, ez aurreikusi zen bezala 42 ikaslerekin, bai, ordea, 39rekin; eta ez Dorleta auzoan dagoen eraikuntzan, -eraikina ez baitzen 1977ko urtarriaren 10era arte egokituko, eta urte bereko martxoaren 3an inauguratu zen-, baizik eta San Viator eraikinean. Alegia, gaur HUHEZlren eraikuntza nagusiko gela batean⁴². Honatx lehendabiziko promozioekoei zer ekarri zien San Viator-en klaseak hastea:

“ ‘Inpaktantea’ izan zen guretzat sartu ginenean San Viator eraikuntzan. Geuk bakarrik, apaiz batzuk, gela zaharrrak, mahai handi batzuk... lehen pisuan hasi ginen klaseak ematen. Lehen hiru hilabeteak-edo hementxe egin genituen, beste eraikuntza egin arte ”⁴³

Esan bezala, 1977ko martxoaren 3an egin zen eraikin berriaren inaugurazioa eta baita ikasturteko jarduera akademiko ofizialaren irekiera ere. Jabier Erdocia (L.E.C.ko lehendakaria), Eladio Fernandez Sierra, Salamancako ‘Luis Vives’ Irakasle Eskolako zuzendaria, P. Acebal, Salamancako Apezpiku Unibertsitateko Idazkari Orokorra eta Donostiako Elizbarrutiko Gotzain Laguntzailea zen Jose Maria Setien izan ziren parte hartu zutenak. Hainbat irakasle, ikasle eta guraso ere egon ziren.

Jose Maria Setienek egin zuen sarrera-hitzaldia; benetan esanguratsua izan omen zen. Egitasmo hain garrantzitsua (Elizbarrutiak bere jatorrian ere bultzatutakoa) gauzatuta ikustearen harrotasuna hauteman daiteke jasotako hainbat pasartetan; hona hemen berak esandakoak:

“ Hasiera bertatik jabetu nintzen zer nolako mesedea ekar dezakeen gure Euskal Herriarentzat horrelako ikastetxe batek (...). Bestalde, ezbairik gabe kultur indar honek badu bere helburua: egiaz euskalduna izango den unibertsitatea lortzea. Eta hau, orduan bakarrik lortuko da (...) heziketa honek unibertsitate irakaskuntzaren goi mailara igotzea eskatzen duenean ”⁴⁴

42. Eta egia izan daiteke neurri batean, izan ere hasierako urte haietako bizipen asko zeuden eraikuntza hartan. Euretako bat, sukaldaritzari lotutako kontuak. Jesus Garmendiak hala kontatzen digu: “lehenengo bi urteetan, San Viator sukaldera hurbiltzen ginen goizeko kafesnea hartzera. Sukalde hartako erregea Dalmazio zen; txiki eta bizi, beti bromaren bat ezpainetan, bazkariak ere prestatu zizkien irakasleei denboraldi batean, Dorletako eraikuntzan taberna zabaldu eta Merte Bolinaga etorri arte. Burnizko sukalde ederra bezain handia zuen, 100 pertsona baino gehiagorentzat egin behar izango baitzuen bazkaria garai batzuetan. Dalmazio etxekotzat hartzen gintuen, eta beti defendatuko gintuen. Espejo herriko semea, sutzua. Sukaldari ona”. Iturria: *Jesus Garmendiaren aparteko oroimen idatziak*.

43. Resu Abasolo eta Iñaki Lazkanorekin elkarrizketa, 2016/01/20

44. HEZIBIDE Artxiboa, 1-04. “Correspondencia, varios ...” karpeta.

Baina, ekitaldi ofizialarekin batera antolatutako ekintza paraleloak bertan behera utzi ziren. Egun hartan, aldi berean, Gasteizen 1976ko martxoaren 3an gertatuko liskar eta heriotzen urtemuga ospatzen zen. Zera adierazi digute lehendabiziko belaunaldiko ikasleek orduko inaugurazioaz zein garai politikoaz:

“ *Inaugurazioa oso apala izan zen. Urte bat zen Gasteizko heriotzak gertatu zirela. Guk aurretik asanblada bat egin genuen eta ekintzak goitik behera lagatzea erabaki genituen. Meza izan zen, eta ondoren luntxa ere bai kaperan. Gure gurasoak ere etorri ziren inauguraziora. Ondoren batzuk Apotzagara joan ginen. Grebak egiten baziren ere, ekintzak gutxi egiten ziren. Pegatina pila eramaten genituen paparrean; ia urte osoan zehar generaman pegatinaren bat zintzilik* ”⁴⁵

Irakasle Eskolaren lehendabiziko zuzendaria, berriz, Felix Ormaetxea izan zen, eta zera diosku hasierako jardunaz:

“ *Ni neu izan nintzen lehendabiziko bi ikasturteetan Irakasle Eskolaren zuzendaria, Hezibidek eta Jabier Retegik hala nahi izanda. Urte haiek harrotasunez gogoratzen ditut, sustatzailletako bat nintzen eta ilusioz gainezka nengoen. Elkartu ginen Juanjo Otaño (Caja Laboraletik zetorren), Jesus Garmendia (CIMetik) eta hirurok, eta hemen aritu ginen dena antolatzen. Pobrezia sortu genuen eskola. Zelako saltsan sartu ginen! Gogoa, asmoa eta ilusioa zegoelako gauzatu zen proiektua, militanteak ginelako... Beldur ginen, gure arteko mesfidantzak ere ez ziren nolana hikoak, eta ez genekien nola irtengo zen dena. Hasierako gure irakasleak ordukakoak ziren, Eskolatik, Almenetik eta San Viatorretik zetozen. Ikaragarriko ilusioarekin hasi ginen* ”⁴⁶

45. Resu Abasolo eta Iñaki Lazkanorekin elkarrizketa, 2016/01/20

46. Felix Ormaetxearekin elkarrizketa, 2012/11/14.



1



2



3



4



5

1 2 3 4 5

Erainkin nagusia, XX. mendean zehar.





6 7 8 9

Dorletako gelak eta bulegoak.

10 11 12 13

Eraikuntza Nagusiko klaustroa.

14

Dorletako eraikuntzaren eskeletoa.

15 16 17

Dorletako eraikuntza bukatuta.

5. BILBOKO UNIBERTSITATERA BABES BILA

Irakasle Eskola Salamancako Unibertsitatearen menpean egoteak Valladolideko Unibertsitatearen barrutian egotea zekarren.

Beraz, hurrengo urratsa, Bilboko Unibertsitatean sartzeko gestioak hasia izan zen. Honela dio Jabier Retegik:

“ *Bilboko Unibertsitateko errektorea zenarekin (Martin Mateorekin) harremanetan jarri ginen. Ni neu bere lagun handia nintzen, izan ere, unibertsitateko ‘Junta de Gobierno de la Universidad’ delakoan parte hatu bainuen, bertako juntakide bezala⁴⁷. Orduan galdetu genion ea oztoporen bat legokeen euren babesean bi ikastetxe onartzeko. Berak ezetz, ez zegoela arazorik. Beste bide bat ere jarraitu genuen aldi berean, Madrilekoa, hau da, ‘Enseñanza Universitaria’-ko zuzendari orokorra zen Aparicio jaunarena (lehendik ezagutzen nuen Eskola Politeknikoarekin egindako gestioak zirela-eta). Deitu nion, eta elkarrekin gelditu ginen. Jose Maria Setien eta biok joan ginen Madrilerara, eta berak ere esan zigun ez zegoela arazorik bi eskola onartu eta babesteko: bat Donostian eta beste bat Eskoriatzan. Dokumentazioa prestatu genuen, eta biak onartuak izan ziren Madrilen (aurretik Bilbokoak onartu zuen). Prozesu guztia bukatuta, eta osatutako batzordeen arteko giroa gozatze aldera, desadostasunak eta eztabaidak ere egon zirelako, batzorde biek, guztiekin, Bedoñan (Arrasaten) dudak elkartean bazkari bat antolatu nuen* ”⁴⁸

Beraz, 1977ko urriaren 19an hasi ziren harremanak EHU/UPVko (une hartan Bilboko Unibertsitatea) Errektorea izan zen Ramon Martin Mateorekin. Jose Maria Setinek ere garbi zeukan zein izan behar zen estrategia:

47. Ahotsa bai, baina botorik gabe bertan parte hartzen hasi zen 1978an, Martin Mateo jaunak gonbidatuta. Hezibide ez zen estatus hau zeukan bakarra izan, Arabako Unibertsitate Ikastetxea (C.U.A. deritzona) eta irakasle ez numerarioak eta dozentek ez ziren langileek ere parte-hartzen zutelako bertan. Guztira 30 bat. *Erakunde harremanak*. HEZIBIDE Artxiboa, C.1.1.1-tik-C.1.2.3ra. Irakasle Eskola (1979.11.07).

48. Jabier Retegirekin elkarrizketa, 2013/01/23.

“Hay que ir a Bilbao ... como única escuela diocesana”⁴⁹. Horrela, Hezibide Elkarteak bi egoitzak (Donostia eta Eskoriatza) Bilboko Unibertsitateari atxikitzea eskatu zuen.

Esan behar da, ekimenak harrera ezin hobea izan zuela; hasiera hasieratik jaso zuen onarpen ofiziala lortzeko Errektorareen oniritzia. Lehendabizi Eskoriatzako Irakasle Eskolak lortu zuen izendapena.

Kudeaketa honen inguruan egindako gestioaz zera diosku Felix Ormaetxeak:

“ Ondoren gure nahia hemengo adskripzioa lortzea izan zen, Bilboko Unibertsitatean adskribatuta egotea. Eta hori, bertan zegoen Errektoreari esker lortu zen. Asko maite zuen talde kooperatiboa, eta ondo portatu zen gurekin. Jabier Retegik oso harreman ona zeukan berarekin, eta 1978an lortu genuen izendapena. Hau arrakasta izan zen guretzat; zegoeneko `geu` ginen. Ondoren Donostiako Elizbarrutiari lagundu genion izendapena lortzen ”⁵⁰

Hala, hurrenkera kronologikoa jarraituz, 1978ko urtarrilean egin zen eskaera ofiziala Bilboko Unibertsitatean, eta 1978ko otsailaren 14ean onartu zuen adskripzioa Gobernu Batzarrak. Martxoaren 8an, berriz, Errektore Kontseiluak eta maiatzaren 2an, ondoren, Espainiako Ministerio Kontseiluak. Onarpen hau ekaineko 8an kaleratutako Estatuko Aldizkari Ofizialak (BOE) itxi zuen. Orduan lortu zuen autonomia osoa Eskoriatzako Irakasle Eskolak⁵¹.

Tomas Uribe-Etxeberria, jatorriz aretxabaletarra, izendatu zuen Bilboko Unibertsitateak ordezkari gisa Eskoriatzako Irakasle Eskolan (geroago Donostiako Elizbarrutiko Irakasle Eskolakoa ere izango zen).

Aintzat hartu behar dugu Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV) bera ere sortzeaz eta garatzeaz zegoela garai hartan, eta horrek ez zuela laguntzen gestioak ahalik eta azkarren egiten. Hala aitortu zuen 1981eko ekainaren 1ean bertako errektorea zen Goio Monrreak bailarako hiru unibertsitate eskoletara (Eskola, ETEO, Irakasle Eskola) eginiko bisitan. Bestalde, eskua luzatu zuen eta laguntzeko prest azaldu zen, besteak beste, Hezibide Elkartearen baitan zeuden Unibertsitate-Eskolak EHU/UPVn sartu edo administrazioarekin kontzertu motaren bat sinatzeko. 1986an, baina, konpontzeke zegoen gai hau, eta bestelako aukera bat zabaldu zen: “la obtención de este Concierto se viene gestionando desde hace diez años (...). Ahora se pretende obtenerlo al tener ya el Gobierno Vasco las transferencias completas en materia educativa”⁵².

Jesus Garmendiak zera esan digu prozesu honetaz guztiaz:

49. *Reunión Villa Genta* (28/11/1977). HUHEZI Artxiboa, Sorrera, A.8. dokumentua.

50. Felix Ormaetxearekin elkarrizketa, 2012/11/14.

51. HEZIBIDE Artxiboa, 1-04. “Correspondencia, varios ...” karpeta.

52. *Erakunde harremanak*. HEZIBIDE Artxiboa. C.1.1.1.tik-C.1.2.3ra karpeta. C.1.1.1.tik-C.1.1.15era dokumentua (1986.02.16).

“ Gu ere oso pozik, ondo konpondu ginen berarekin [Tomás Uribe-Etxeberriarekin]. Bizpahiru urte egin zuen gurekin. Ondoren, Luis Mari Bandres etorri zen, garai hartan UNEDeko zuzendaria zena. Gero, UNEDeko zuzendari zen Iñaki Maizak hartu zuen erreleboa; denbora gutxi egon zen. Eta, azkenik, Pello Ayerbe etorri zen, eta berari egokitu zitzaizkion une eta gune korapilatsuenak. Lehendik ere ezagutzen genuen, bai Elizbarrutiko Irakasle Eskolatik baita Eusko Jaurlearitza ere: adiskide onak ginen. Epezialitate berriak sortu ziren -hezkuntza fisikoa eta musika, besteak beste -. EHU-UPVk zenbait aukera ukatu nahi zizkigun, eta hainbat ate jo behar izan genituen. Ate horien artean, gehien estutu genuena Juanjok eta biok, Pello Ayerbe ordezkariarena izan zen. Bere jarrera leiala eta zintzoa izan zen; kolaboratzailea eta beti informazioa konpartitzeko prest ”⁵³

53. Jesus Garmendiaren aparteko oroimen idatziak.

6. ‘IRAKASLE ESKOLA’ IRAKASKUNTZA - KOOPERATIBA

Hezibide Elkartearen barne egituraren parte hartzen du lehendabiziko urtean Irakasle Eskolak; Hezibide Elkartea izan zen Irakasle Eskolaren jabea eta titularra.

1977ko ekainaren 7an hartutako erabakiaren arabera, Hezibide Elkartearen Kontseilu Errektoreak Irakasle Eskola Hezkuntza-Kooperatiba bihurtzeko prozesua bultzatzeko batzorde bat antolatzea erabaki zuen; honakoak ziren batzordearen helburu nagusiak: lehenik, Hezibiderek harremanak izanda ere, independente izango zen egitura juridiko baten aldeko bidea jorratzea; eta, bigarrenik, Irakasle Unibertsitate-Eskolak administrazioarekin zuzenean kudeaketak egiteko gaitasuna izatea.

Hasierako asmoa, Irakasle Eskola errealitate bihurtzen lagundu zuten erakundeekin batzorde bat osatzea izan zen. Honakoak egon ziren bertan: Donostiako Elizbarrutiko ordezkari bat; Eskoriatzako Udaleko ordezkari bat; Hezibide Elkarteko bi ordezkari; Almengo ordezkari bat; S. Viatorretik bi ordezkari; Leniz bailarako ikastolen ordezkari bat; irakasleriaren hiru ordezkari; ikasleriaren bi ordezkari eta erakunde laguntzaileen bi ordezkari⁵⁴. Adierazitako partaideen izendapen hau, ordea, aldatu egin zen. 1977ko azaroaren 11n batzorde berriak egin zuen lehendabiziko bileran honako ordezkari hauek zeuden: Zuzendari (Felix Ormaetxea); Liga Educación y Cultura, 4 (J. Erdocia, J. Retegi, J.L. Izagirre eta J.L. Gonzalez); Almen, 1 (A. Gomez); San Viatorretik, 2 (J.A. Lezama eta J. Serrano); Debagoieneko ikastoletatik, 1 (A. Markaide); Irakasleak, 3 (J. Garmendia, J.J. Otaño eta F. Etxeberria); Ikasleak, 2 (H. Iribecampes eta A. Etxeberria); Eskoriatzako Udaletik, 1 (J. Errasti), eta Erakunde ekonomiko kolaboratzailetik, 1 (J.M. Larrañaga)⁵⁵.

Batzordeak batzorde, eta erabakiak erabaki, finean, Irakasle Eskolako zuzendariarekin batera 14 pertonez osaturiko batzordea antolatzea erabaki zen (Liga de Educación y Cultura-tik bi ordezkari soilik). Komisio honetako lehendakaritza, era adostuan, Juan M. Otaegiri egokitu zitzaion. Lehendakariordea, Andoni Etxeberria izan zen; idazkaria, Fernando Etxeberria, eta diruzaintza Juan Luis Izagirre eta Jose Luis Gonzalezek eramanen zuten -boto berdinketa izan zuten (6 bakoitzak)-, eta horren ondorioz zeregina era partekatuan garatzea erabaki zuten⁵⁶.

54. *Irakaslego Eskola*. HUHEZI Artxiboa, Sorrera, Informea, A.7.1. dokumentua.

55. *Informe sobre Irakaslego Eskola*. Escoriaza, enero de 1979. HUHEZI Artxiboa, Sorrera, Informea, A.2.2. dokumentua, 4 or.

56. *Irakaslego Eskola*. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Errektore Kontseilua, B.3.1-3.5 dokumentua.

Batzorde horren helburua, beraz, Irakasle Eskola erakunde autonomoa izatea lortzea izan zen, onarpen ofizialarekin eta estatutu zein arategi propioarekin. Nortasun juridiko horrek emango zion eskubidea Batzarrean eta Kontseilu Errektorean ordezkariak izateko: irakasleak, ikasleak eta erakunde kolaboratzaileak.

6.1. KOOPERATIBAREN ESTATUTU SOZIALAK

Beste urrats garrantzitsu bat Irakasle Eskolaren Estatutuak idaztea izan zen. Zuzendaritza eta ikasleek proposatutako aukeren artean eztabaida interesgarriak gauzatu ziren. Halaxe, 1978an, gai izan ziren kontsentsuetara iristeko bertan parte hartzen zuten eragileak; eta Asanblada Orokorra hartu zuten Irakasle Eskolako organo gorentzat. Kontseilu Errektoreak, Asanblada Orokorrak erabakitakoa garatzea zuen helburu, eta ordezkari funtzioak betetzen zituen. Bertan ikasleek, irakasleek eta gizarteko eragileek hartzen zuten parte; bakoitzak botoen heren bat zeukan. Aldi berean, ikaslez zein irakaslez ostutako Zuzendaritza eta Zuzendari Kontseilua eratu ziren⁵⁷.

1979ko Kontseilu Errektorean, era batean edo bestean, Irakasle Eskolaren egunerokoan parte hartzen zuten erakundeak honakoak izan ziren: irakasleak, ikasleak, zonaldeko ikastetxeak, San Viator, Eskoriatzako Udala, Hezibide Elkarte eta enpresa kolaboratzaileak.

Bide batez, eragileak, beste urrats batzuk ere ematen hasiak ziren. Emandako urrats horien emaitzak dira, alde batetik, 1980ko otsailaren 14ean ikasleen abstentzioarekin Batzar Orokorrak onartutako Estatutu Sozialak⁵⁸. Eta bestetik, 1980ko abuztuaren 14ean Eusko Kontseilu Orokorreko Lan Kontseilaritzak emandako agiria kontuan hartuta⁵⁹, Irakaskuntza Autonomoko Kooperatiba bezala eratzea. Felix Ormaetxeak zera diosku gertaera hartaz:

“ Eskola Politeknikoko eredu zabaldu nahi izan zen, eta horretan Jabier Erdozia (HEZIBIDE) izan zen garrantzitsua, izan ere bera saiatzeko ikastetxeen arteko harremanak eta sendotzeko iniziatibak aurrera eramaten. Sare bat osatzea izan zen helburua, eta aldi berean kooperatibistak izatea. Eta hala, 80. hamarkadan kooperatiba mistoa sortu zen, Hezibide eta Gizabidearen kudeaketa eta baita baliabide eskaintza babesarekin ere: kolaboratzaileak, langileak, gurasoak eta ikasleak elkartzen ziren bertako kooperatibetan. Hau da, hemen sortutako formula berezia eta berria. Alegia, autonomoak ziren kooperatibak, baina HEZIBIDEn elkartuta ”⁶⁰

57. HEZIBIDE Artxiboa, 1-04. “Correspondencia, varios ...” karpeta.

58. *Asamblea General de Irakasle Eskola de Escoriaza*, 14.02.80. HUHEZI Artxiboa. Errektore Kontseilua. Batzordearen Bilera Aktak (I), 1976-1981. Antolakuntza, Errektore Kontseilua, B.3.1-B.3.15. karpeta.

59. Esan ere, Sozietatea 1980ko ekainaren 19an eratu zela, Irakasle Eskola, Kooperatiba Sozietatea izenarekin, eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroko Kooperatiba Sozietateen liburuan dagoela inskribatuta, IV. Liburukia, 458. Folia eta 88.1.230 zenbakiaz.

60. Felix Ormaetxearekin elkarrizketa, 2012/11/14.

Kooperatiba izate horren hasiera 1979ko apirilaren 23an kokatzen da, kooperatibaren promotoreek Madrileko Lan Ministerioko Kooperatiben Erregistrora eskaera bidali zutenean, alegia. Hala, Juan Mari Otaegik, Juan Luis Izagirrek, Juan Luis Gonzalezek, Jesus Garmendiak, Juan Jose Otañok, Fernando Etxeberriak eta Felix Ormaetxeak egin zuten eskaera: “como promotores de una cooperativa de Enseñanza para la cual tienen prevista la siguiente denominación: Escuela Universitaria del Profesorado de E.G.B. IRAKASLE ESKOLA”⁶¹.

Eratze prozesu honen amaiera 1980ko otsailaren 14ean izandako Batzar Orokorra izan zen; bertan erabaki oso esanguratsuak eta garrantzitsuak hartu ziren. Hasteko, Irakasle Eskola irakaskuntzako kooperatiba sozietate bezala eratu zen; bigarrenaz, Estatutu Sozialak onartu ziren; hirugarrenaz, Kontseilu Errektorean parte hartuko zutenak aukeratu ziren⁶²; laugarrenaz, notarioaren aurrean kooperatibaren eratze-eskritura sinatuko zuten bazkideak aukeratu ziren⁶³ eta, bosgarrenaz, Lagun Aron sartzeko eskaera egin zen^{64/65}.

Taula, 1: Irakasle Eskolako Hasierako Bazkideak (1980)

URTEA	GUZTIRA	IZEN ABIZENAK
1980	8	Jesus Maria Garmendia; Juan Jose Otaño; German Derteano; Nerea Alzola; Iñaki Mendiguren; Agustin Azkarate; Mertxe Bolinaga; Arantxa Aiastui.

Iturria: Asamblea General de Irakasle Eskola de Escoriaza, 14.02.80. HUHEZI Artxiboa. Errektore Kontseilua. Batzordearen Bilera Aktak (I), 1976-1981. Antolakuntza, Errektore Kontseilua, B.3.1-B.3.15. karpeta.

Hau da, dagoeneko irakaskuntza-kooperatiba bezala onartua, Irakasle Eskolak izandako lehendabiziko Batzar Orokorren aktak adierazten duena:

“ *Preside la Asamblea Juan M^o Otaegui, como presidente del Consejo Rector provisional, a quien acompañan en la mesa Jesus M^o Garmendia, Director de la Escuela, Jesús M^o Larrañaga, miembro del Consejo Rector saliente e Iñaki Mendiguren, Secretario de la Escuela y miembro también del*

61. HUHEZI Artxiboa, Sorrera, Informea, A.2.2. dokumentua. Paper solteak.

62. Ikasleak: Miren Apaolaza, Iñaki Artola, Carlos Errazti, Jose Angel Urbieta eta Imanol Aginagalde (ordezko). Langileak: Nerea Alzola, German Derteano, Iñaki Mendiguren, Juan Jose Otaño eta Arantza Aiastui (ordezko). Kolaboratzaileak: Jose Maria Larrañaga, Juan Mari Otaegi, Jose Ramon Elorza, Jabier Garcia eta Jesus Errazti (ordezko). Kontu hartzaileak: Juan Luis Eizagirre, Pedro Otadui eta Agustin Azkarate. Iturria: Acta de la Asamblea General de Irakasle Eskola (1980. 02.14). *Irakaslego Eskola*. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Errektore Kontseilua, B.3.1-3.5 dokumentua.

63. Juan Mari Otaegi, Juan Jose Otaño, Jesus Garmendia, Nerea Alzola, Arantza Aiastui, Imanol Aginagalde eta Arantza Alvarez.

64. Acta de la Asamblea General de Irakasle Eskola (1980. 02.14). *Irakaslego Eskola*. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Errektore Kontseilua, B.3.1-3.5 dokumentua.

65. Aipatu ere, 1980ko abenduaren 17an ospatutako Batzarrean, Hezibide Elkartean integratzea erabaki zuela Irakasle Eskolak. Acta de la Asamblea General de Irakasle Eskola (1980. 12.17). *Irakaslego Eskola*. HUHEZI Artxiboa.

Consejo Rector saliente. Abre la Asamblea J.M. Otaegui, a las 6,15 de la tarde, quien, tras agradecer a los representantes de Profesores, Alumnos y Colaboradores su asistencia, señala los objetivos de esta primera Asamblea General de Irakasle Eskola, Asamblea Constituyente (...) ⁶⁶

1980-1981 ikasturteko Irakasle Eskola kooperatibaren barne eraketari dagokionez, honako erradiografia hau ondoriozta genezake:

1. Batzar Orokorra:

- Irakasleak: 24 boto.
- Ikasleak: 24 boto⁶⁷.
- Kolaboratzaileak: 24 boto
 - Ekonomikoak: ULARCO (9 boto); AMAT (2 boto); CEGASA (boto bakarra).
 - Erakundeak (boto bakarrarekin): HEZIBIDE ELKARTEA, Eskoriatzako Udala, Debagoieneko Mankomunitatea, San Viator, Eusko Kontseilu Orokorra, EHU/UPV, Ikastolen Federazioa, Estatu Eskolak, Eskola Erlijiosoak, Eskola Nazionalak, Ikastolak eta ALMEN.

2. Errektore Kontseilua:

- Bazkide Onuradun Zuzenak (4 partaide).
- Lan Bazkideak (4 partaide).
- Bazkide Kolaboratzaileak (4 partaide).

3. Zuzendaritza Kontseilua:

- Zuzendaria.
- Idazkaria.
- Departamendu buruak (3: Giza Zientziak; Eskolaurea eta Filologia).

Beste erabaki estrategiko garrantzitsua 1980ko abenduaren 17an eginiko Batzar Orokorrean hartutakoa izan zen. Hau da, Euskadiko Kutxari (Caja Laboral Popular) eskaera egin zitzaion Irakasle Eskolan bazkide gisa parte har zezan, eta horretarako egin beharreko diru-ekarpena onartu zen. Irakasle Eskolaren Errektore Kontseiluko Lehendakaria zen Juan Mari Otaegiri egotzi zitzaion horretarako eskumena.

Estatutu Sozialekin loturiko beste data interesgarri bat 1982ko otsailaren 11n Euskadiko Eusko Biltzarrak onartutako Kooperatiben Legearen egokitzapena izan zen. 1987ko urtarrilaren 26an onartu ziren egokitutako estatutu berriak, eta ondorengo egokitzapenak egokitzapen, "Irakasle Eskola S. Coop. Ltda" (Escuela Universitaria de Formación del Profesorado de E.G.B.) bezala erregistratu zen.

66. *Asamblea General de Irakasle Eskola de Escoriaza*, 14.02.80. HUHEZI Artxiboa. Errektore Kontseilua. Batzordearen Bilera Aktak (I), 1976-1981. Antolakuntza, Errektore Kontseilua, B.3.1-B.3.15. karpeta.

67. Kooperatiben organoak ez zetozelako bat eurek defendatzen zituzten interesekin, 1980-1981 ikasturtearen hasieran erabaki zuten ikasleek kooperatibaren organo guztietatik (Batzar Orokorra, Errektore Kontseilua, Zuzendaritza Kontseilua ...) alde egitea.

7. HASIERAKO IRAKASLEAK ETA LANGILEAK KONTRATATU, LAN ORDUTEGIA ZEHAZTU

Irakasle kontratatuak izango zirenekin harremanak egin, bakoitzari egitasmoak azaldu eta haien oniritzia jasotzea ez zen lan erraza izan; horrek kudeaketa egokia eskatzen zuen.

Lan horreko lehendabiziko urratsa Deustuko unibertsitatean eman zen. Bertara joan ziren Felix Ormaetxea eta Jesus Garmendia, eta han ibili ziren pedagogia karrerako ikasleen artean norbait “fitxatzeko” asmoarekin. Baina Deustukoa ez zen izan hautatutako norabide bakarra.

Irakasle Eskolaren (1976) dauzkagun hasierako datuen arabera, hauek izan ziren klaseak emateko aurreikusitako irakasleak⁶⁸:

- Hizkuntzak (ingeleza eta frantsesa): Eskola Politeknikoan zegoen C.I.M.eko irakasle batek.
- Euskara: Miren Arregi.
- Pedagogia: ALMENeko zuzendaria zen Ignazio Otaño. Pedagogoa.
- Psikologia: Caja Laboral-Euskadiko Kutxako langilea zen Juan Jose Otaño. Psikologoa.
- Matematika: San Viatorreko zuzendaria zen Julian Serrano. Fisikoa.
- Plastika: Pilar Arin, ALMENeko irakaslea.
- Erlijioa: Bitoriano Aranburu, Aretxabaletako parrokoa.
- Dinamika: ALMENeko irakaslea zen Maria Asun Berezibar.
- Hezkuntza fisikoa: Pilar Arin eta Paulino Peñin. ALMENeko irakasleak.
- Gaztelania: Itxaro Andueza, ALMENeko irakaslea.
- Zientzia Sozialak: Guillermo Azkoaga.
- Euskadiko Historia: Rufina Olasagasti, ETEOko irakaslea.

68. *Lista de profesores (30/07/76)*. HUHEZI Artxiboa, Sorrera, A.8. karpeta

7.1. HASIERAKO IRAKASLE ETA LANGILEAK

Jesus Garmendiak zera diosku irakasleen bilaketari buruz:

“*Matematika emateko ere behar genuen norbait. Hasieran Julian Serranok eman zuen, baina erdaraz. Gero UNEDeko Goio Eguren ekarri genuen, euskalduna hau: baina honek lan nahikoa bazuen eta utzi egin zuen. Ondoren, Lazkaoko baserri batean euskara ikasten -ordurako maila oso txukuna zuen- ari zen German Derteano konbentzitu genuen. Ez zitzaidan asko kostatu, eta berak ziurtatu zuen arlo hori, eta baita zientzien arloko koordinazioa ere, Oñatiko Barnelegira alde egin zuen arte. Historia asignatura euskaraz Joxe Ramon Aiastruik eman zuen aurreneko bi urteetan, baina honek ere nahikoa lan zuen ikastolan eta utzi egin gintuen. Ondoren, Koldo Larrañagak eta Edorta Kortadik ere ezin zuten, azken honek Josetxo Urrutikoetxearen izena eman zigun. Urtebete egin zuen gurekin; orduan etorri zen ikastolatik, Agustin Azkarate. Komeria askotxo, ikusten denez, euskara ziurtatzeagatik. Haur Hezkuntzan ere behar genuen norbait hizkuntzaren apendizgoa eta didaktika emateko: gai espezializatua, gutxi batzuk eman zezaketena. Horrela kontratatu genuen Mariam Bilbatua, euskaldun berria*”⁶⁹

1977an, hiru irakasle berri sartu ziren: Fernando Etxeberria filosofia gaia emateko, Filosofian lizentziatua eta UNEDeko irakaslea; Xabier Mendiguren, euskara emateko; eta historia eta geografia emateko, Jose Ramon Aiastru, Arrasateko ikastolako irakaslea.

69. Jesus Garmendiaren aparteko oroimen idatziak.

1978-1979 ikasturteko datuak kontuan hartuta, honako hauek ziren Irakasle Eskolako irakasleak:

Taula, 2: Irakasle Eskolaren irakasleria, 1978-1979 ikasturtean

IRAKASLEAK	GAIA
Felix Ormaetxea	Zuzendaria
Beatriz Arregi	Plastika
Bitoriano Aranburu	Erlijioa
Fernando Etxebarria	Filosofia
Gloria Urteaga	Erdal hizkuntzen didaktika eta frantsesa
Gregorio Eguren	Matematika
Iñaki Mendiguren	Geografia
Jesus Garmendia	Hizkuntza
Jesus Mari Sagarna	Dinamika
Jose Migel Azkarate	Soziologia
Jose Urrutikoetxea	Historia
Joseba Etxebarria	Preteknologia: Egurgintza eta mekanika
Juan Alarcon	Natur zientzien metodologia
Juan Jose Otaño	Psikologia
Mariam Bilbatua	Hizkuntza haur eskolan
Miren Arregi	Euskara
Nerea Alzola	Pedagogia
Xabier Mendiguren	Euskara
Xabier Mendiluze, Joseba Etxebarria	Preteknologia: Elektrizitatea eta iturgintza
Xabier Tapia	Gimnasia/Psikomotrizitatea

Iturria: [Acta Reunión de Profesores, 12.09.1978. Irakasle Eskola. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.](#)

Datuetatik hauteman daitekeen bezala, irakasle “dantza” handia izan zen hasieran, hala baieztatzen digu 1980-1981 ikasturteko Irakasle Eskolaren irakasle-langile zerrendak:

Taula, 3: Irakasle Eskolaren irakasleria, 1980-1981 ikasturtean

IRAKASLEAK	ARLOA
Agustin Azkarate	Gizarte Zientziak
Beatriz Arregi	Plastika
Felix Plazer	Gizarte Zientziak
German Derteano	Natur Zientziak
Iñaki Mendiguren	Gizarte Zientziak
Jesus Garmendia	Hizkuntza
Jose Luis Irazabal	Gizarte Zientziak
Jose M. Azkarate	Gizarte Zientziak
Joseba Ariznabarreta	Gizarte Zientziak
Joseba Etxebarria	Teknologia
Juan Jose Otaño	Psikologia
Luis Larrañaga	Ikus Entzunezkoa
Lutxi Mancisidor	Musika
Mariam Bilbatua	Hizkuntza
Marisa Zubillaga	Psikologia
Miren Arregi	Hizkuntza
Mitxel Kaltzakorta	Hizkuntza
Nerea Alzola	Pedagogia
Xixa Gardner	Hizkuntza
Xabier Tapia	Psikologia

Iturria: HEZIBIDE Artxiboa, 1-04 karpeta. "Aurkezpen txostena. Gipuzkoako Ikastolen Federakuntzari zuzendua" dokumentua.

Hogei langile guztira: 8 langile egun osoko jardunaz, eta 12 ordukako jardunaz.

1981-1982 ikasturtean irakasle gehiago kontratatu ziren: Arantxa Gabiria (Matematika); Mikel Leizaga (Kimika); Adelina Moya (Arte); Xabier Zubizarreta (Dialektologia); Xabier Amuriza (Bertsolaritza); Ramiro Gonzalez (Orientalismo)⁷⁰. 1982-1983an, berriz, Iñaki Pagonabarraga kontratatu zen; batik bat natur zientzia eta teknologiaz arduratuko zen⁷¹. 1985-1986 ikasturtean, Luis Mari Alvarez eta Matilde Sainz gehitu zitzaizen⁷². Lehena, ikus-entzunezkorako, eta bigarrena, hizkuntzarako.

70. Acta Junta Rectora, 03.12.1981. *Irakaslego Eskola*. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Errektore Kontseilua, B.3.1-3.5 dokumentua.

71. *Plan de Gestión. Curso 1982-83. Irakaslego Eskola*. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.

72. *Plan de gestión. Curso 1985-86*. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.

Ondorengo urteetan irakasleak, poliki-poliki, egonkortu egin ziren. Hala, 1989-1990 ikasturteko langile zerrendari erreparatuz gero, ikus daiteke hainbat irakasle ia-ia gaur arte iraun dutela haien jardunean, edota badela gaur egun, oraindik, gure artean lanean ari denik ere:

Taula, 4: Irakasle Eskolaren irakasleria, 1989-1990 ikasturtean

IRAKASLEAK	GAIA
Jesus Garmendia	Literatura, Hizkuntza, Zuzendaria
Juan Jose Otaño	Psikologia
Nerea Alzola	Pedagogia eta praktikak
Mariam Bilbatua	Eskolaurreko hizkuntza eta hizkuntzaren didaktika
Bea Arregi	Txotxongiloak eta plastika
Luis M ^º Alvarez	Didaktika, ikus entzunezkoak eta kontsumoa
Matilde Sainz	Hizkuntza eta Glotodidaktika
Mitxel Kaltzakorta	Dialektologia, euskara eta literatura
Julen Arexolaleiba	Euskara
Iñigo Ramirez de Okariz	Geografia, historia, arte
Eugenio Astigarraga	Matematika, teknologia
Xabier Arregi	Matematika, biologia, informatika eta teknologia

Iturria: *Gestio Plana, 1989-90. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.12tik B.4.19ra.*

1991-1992 ikasturtean gure artean zenbait urte eman zituzten irakasle berriak etorri ziren: Aitor Lauzirika (Informatika), Xabier Alberdi (Ikus entzunezkoa), Aitor Altolagirre (Preteknologia), Gurutze Uribarren (Dinamika), Pili Arin (Soinketa), Felix Plazer (Soziologia), Emeterio Sorazu (Filosofia), edo gaur ere oraindik badagoena: Pello Añorga (Ipuin tailerra)⁷³.

Hasierako kronologia honekin bukatzeko, 1992-1993 ikasturtean, beste irakasle berri batzuk ere hasi ziren Irakasle Eskolan saioak ematen: Pili Sagasta (Ingelera, bere Didaktika eta Fonetika); Jose Ramon Vitoria (Musika); Mirari Telletxea (Eskolaurreko Musika); Izaskun Madariaga (Eskolaurreko didaktika); Marian Iriondo (Eskolaurreko psikologia); Ikertze Taldea (Eskolaurreko musika-plastika)⁷⁴.

Hezkuntza komunitatea, ordea, ez dago soilik irakasle edo hezitzailez osaturik; gelan sartzen ez diren pertsona eta profesionalen beharra ere egoten da egunerokotasunari erantzuteko. Hori da, adibidez, Irakasle Eskolak izan duen lehendabiziko langile erretiratuaren kasua; jaiotzez arrasatearra den Mertxe Bolinagarena, alegia. Bere zeregina bikoitza zen: instalazioak garbi mantentzea, eta tabernan kafea eta "tortilla de patatas" behintzat bermatzea. Baina baita gehiago ere⁷⁵:

73. *Gestio Planak, 1991-92, 92-93. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, B.4.12tik B.4.19ra.*

74. *Gestio Planak, 92-93. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, B.4.12tik B.4.19ra.*

75. Mertxe Bolinagarekin elkarrizketa, 2014/05/22.

“ 1976an sartu nintzen lanera Irakasle Eskolan, Jose Mari Larrañagaren bitartez. Garbitasunaz arduratzen nintzen, baina baita goizean ateak zabaltzen eta gauean ateak ixten ere. Neguan, berriz, goizeko 6:00etan joaten nintzen berogailua piztera. Eta abuztuan, leiho guztiak garbitzen nituen, goitik behera. Halaxe jarraitu nuen jubilatuta arte. Gero nire alabak, Montsek, hartu zuen garbiketa lana ”⁷⁶

Esan bezala, bere zeregina ez zen soilik garbiketa, tabernaren ardura ere bazeukan:

“ Behin, Jesus Garmendiak, taberna bat jartzeko asmoa zegoela Irakasle Eskolan eta, komentatu zidan ez ote nintzen ausartuko neuk hartzera. Nik ez nekien tabernen inguruan ezer. Baina, orduan, seme bat etxean neukan eta berak baietz, lagunduko ninduela taberna eramaten. Baietz esan nion Jesusi. Beraz, hasiera batean semea egoten zen tabernan. Kafearekin batera, ikasleentzat pintxoak gertatzen nituen. Hiru bat `tortilla de patata` egin, bokadilo txikietan jarri eta otartxo eta zapi batekin jartzen nituen kafeteraren gainean epel mantentzeko. Gustura jaten ziren. Bat edo bat `chorizo de lomo` ere bai. Gero, errekreo garaian, etxera joaten nintzen eta han prestatzen nuen lauzpabost bat irakaslerentzako bazkaria. Ordu-bata inguruan bueltatzen nintzen irakasleei jaten ematera. Garai hartako oroitzapen onak dauzkat ”⁷⁷

Bide beretik, diru kontuez nahiz idazkaritza akademikoaz arduratzen zirenak aipatu behar dira: Arantza Aiastui eta Marisa Pagonabarraga, edo liburuzaina izan zen Guillermo Martin.

1977ko urtarrilaren 31n zabaldu zen liburutegia Irakasle Eskolan. Lehendabizi bertako irakasleak arduratu ziren haren kudeaketaz. Liburutegia, arratsalde zabalitzen zen: 6,30etatik 8,30etara. Arratsalde zabalitzearen helburua, irakasle eta ikasleen arteko komunikazioa, lotura gehiago erraztea zen. Liburuak ostegunetik astelehenera atera zitezkeen.

76. Alboan izan dut Montse bere ama elkarrizketatzen nuen bitartean. Berak ere hogei urte egin omen ditu lanean dagoeneko HUHEZIn, baina dioskun bezala “amari laguntzen ibilitakoak kontatuz gero, bizitza osoan nagoela Irakasle Eskolan esango nuke”.

77. Mertxe Bolinagarekin elkarrizketa, 2014/05/22.

Gainerako egunetan liburutegian egon behar ziren⁷⁸. Dena dela, berehala egin zuten protesta ikasleek arratsalde ezin zirela etorri esanez. Horrela, astearte, asteazken eta ostegunetan goiz zein arratsalde zabaltzea erabaki zen⁷⁹.

Jesus Garmendiak dion bezala Guillermo Martin arduratu zen egiteko hauetaz:

“ *‘Con la música a otra parte’*. Hori zen ostiral eguerdiko Guillermodok errepikatzen zidan leloa nire despatxu aurretik pasatzen zenean. Alegia, Gasteizko komentura joateko tenorea heldu zitzaizola. Astearte goiz erdira arte ez genuen berriz ikusiko; eta liburutegia, ondorioz, itxita. Ordaintzen geniona sinbolikoa zen, liburutegiak hasierako urte haietan ez zuelako nahiko mugimendurik lan oso batentzat. Denbora muga horiez at, lana txukun egiten zuten: fitxak zehaztasunez bete, liburuen maileguak kontrolatu, isiltasuna errespetarazi... Ez dakit berak alde egin zuelako ikusi genuen liburuzain profesional bat kontratazeko beharra, edo bera erretiratu egin zen liburuzain profesionala kontratatu beharraz hitz egin genionean. Dena dela, jakin bagenekien, ordurako, zerbitzua profesionalizatu egin behar zela. Liburuzain profesionalak Arantxa de la Torre zuten izena, eta Bilbotik zetorren. Mari Karmen Apraizen laguntzaz liburutegiari beste dimentsio bat eman zion: zerbitzuak jendearen beharretara egokitzen saiatu zen ”⁸⁰

78. Acta Reunión de Profesores, 24.01.1977. Irakaslego Eskola. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.

79. Acta Reunión de Profesores, 23.03.1977. Irakaslego Eskola. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.

80. Jesus Garmendiaren aparteko oroimen idatziak.

7.2. LAN ORDUTEGIA

Kanpotik datorren askori oso arraroa iruditzen zaio HUHEZIn sartu beharreko ordu kopurua, irakaskuntzan jarduten duen edozein ikastetxerekin alderatuz handia dena. Izan ere, solidaritate printzipioa ezarriz, metal hitzarmenaren ordutegia aplikatzen da gurean hasiera hasieratik. Hala, urteko metal hitzarmenaren orduak dira erreferente lan ordutegia zehazteko orduan Fakultatean, eta hala bateratu behar izaten dugu langileok ikasturtero gure lan egutegia.

Egin dezagun proiektzioa, eta ikus dezagun zein izan den lan ordutegiaren bilakaera:

- 1978-79 ikasturte osoko lan jarduna aintzat hartuz, 1.983 orduko (218 lan egun) lan ordutegia zen^{81 / 82}.
- 1979-80 ikasturtean, 2.001 lan ordu (220 lan egun, guztira)⁸³.

Ondorengo ikasturteetan izandako zenbait lan ordu alderatuz, berriz⁸⁴:

- 1980-81 ikasturtean: 1.974 ordu.
- 1981-82 ikasturtean: 1.900 ordu.
- 1982-83 ikasturtean: 1.880 ordu.
- 1983-84 ikasturtean: 1.850 ordu.

Gaur egun, berriz:

- 2015-2016 ikasturtean: 1.697 ordu. Beraz, hasierako lan orduekin alderatuz, ordu jaitsiera nabarmena da.


81. *Plan de Gestión, 1978-79. Irakasle Eskola. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.*

82. 1977ko urtarrilaren 24an San Francisco Jabier aukeratu zen Irakasle Eskolaren patroia. Baina orduan ospatu ez zenez (erabakia ondoren hartu zelako) aukera eman zitzaïen ikasleei Santo Tomas egunean (urtarrilak 28) jai har zezaten edo eurek ondoen ikusten zuten egunean. Iturria: *Acta Reunión de Profesores, 24.01.1977. Irakasle Eskola. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.*

83. *Plan de Gestión, 1979-80. Irakasle Eskola. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.*

84. Esan dezagun, gaur ere, eta MÜren beste fakultateek bezala, metaleko hitzarmena duela HUHEZIK.

Grafiko, 3: Lan ordutegiak (1978-2015)



Iturria: HUHEZI. Idazkaritza akademikoa.

Hasiera hartan (1976 urtean), langileen lan egutegiak eta oporren hasiera zein bukaerak ere eztabaida bat baino gehiago sortu zituen taldean. Hasteko, gabonetako oporrak: irakasleek, gehienek, abenduaren 23an hasi eta Errege Eguna pasa eta gerora arte eskatu zuten. Haiei egindako proposamena, ordea, bestelakoa zen: Urte-Berri segidan hastea, Eskola Politeknikoak egin ohi zuen bezala⁸⁵.

Juanjo Otañok, Irakasle Eskolako hirugarren zuzendaria (1985-89) izan zenak, zera diosku lan jardunaz sortutako eztabaidaren inguruan:

“ Ez dakit zuzena den hau kontatzea, baina urtarrilaren 2an nahi ziren klaseak hasi. Enpresetako eta Arrasateko Eskola Politeknikoen argudioak erabili ziren horretarako. Irakasleak ez zeuden ados neurri horrekin, are gutxiago ikasleak egun horretan klaseak hastearekin. Beraz, zer egin? Ikasleentzako ikastaro batzuk antolatu ziren. Horrela izan zen pare bat ikasturtetan. Irakasleek, beraz, urtarrilaren 2an hasten zuten lana, baina batzuetan berogailurik ez zegoe-lako edo desinfekzio kanpainakoak etortzen zirelako, etxera joan behar izaten ginen denok ”⁸⁶

85. Acta Reunión de Profesores, 29.11.1976. Irakasle Eskola. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.

86. Juanjo Otañori elkarrizketa, 14/02/14.





9

1 Gizarte Zientzietako ikasleekin irteera, Sorginen Txabola trikuharrira. Bilar (Arabako Errioxa) 1989. urtea



10



11

2 3 4 5

Txangoa Asturiasera. 1986-7 ikasturtea.

6 7

Iñauteriak Eskoriatzan, irakasle eta langile protagonista (1980. hamarkada).



12

8

Haur Liburutegi Mintegia, 1988.

9 10 11 12

Txangoa. Quintanar de la Sierra (Burgos). 1980. hamarkadaren bukaeran.



13

13

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa (EKT) aditu titulukoen txangoa Bilbora, 2010-11 ikasturtean.

14 15

Txangoa 2012, Abbadia Gaztelua (Hendaia).



14



15

17

Txangoa 2011, Nerbioi ibaia.



18

Txangoa 2014, Elizondo (Nafarroa).



19 20

Batzar Nagusia, 2016.




8. HASIERAKO IKASLERIA (1976-1997)

Grafiko eta taulen bidez azalduko dugu hasierako urteetako ikasleriaren bilakaera zelakoa izan zen. Datu hauek iruzkintzeko bi aldi bereiziko ditugu: lehen, 1976tik 1986ra artekoa; Irakasle Eskolaren hamargarren urtemugarekin lotuta dagoena. Bigarrena; 1987-1997 hamarkada.

Hasteko, beraz, ikus dezagun 1976tik 1986ra lehen mailan matrikulatutakoen kopurua grafiko baten bidez; ondoren, arestian aipatutako urteak aintzat hartuta, 2. eta 3.ean matrikulatutakoak ere ikusiko ditugu, eta hiru mailak elkartuz hauteman dezakegu garai hartako Irakasle Eskolaren txikitasuna, baina aldi berean matrikula kopuruak duen igotzeko joera.

Grafikoa, 4: Matrikulak lehen mailan: Hasierako formazioa. Ikasleriaren eboluzioa (1976-1986)



Oharra: Datu hauetan ez daude sartuta Eskoriatza eta Nafarroako titulu gabeko irakasleen matrikulak.

Iturria: Irakaslego Eskola. HUEZI. Idazkaritza akademikoa: Marisa Pagonabarraga.

Datu kuantitatiboak arretaz begiratu gero, hauek dira kopuruak ikasturteka:

Taula, 5: Lehen mailan, hasierako formazioan, matrikulatutako kopuruak (1976-1986)

MAILA	1976 1977	1977 1978	1978 1979	1979 1980	1980 1981	1981 1982	1982 1983	1983 1984	1984 1985	1985 1986	1986 1987
1	39	51	38	59	66	70	69	75	75	N:71 B.E.:122	N:59 B.E.:44
2.	-	39	46	32	60	70	74	73	75	72	N.:71 B.E.:71 B.N.:40
3.	-	-	39	46	31	59	69	71	70	78	73
GUZTIZ	39	90	123	137	157	199	212	219	220	221	203

Iturria: Irakasle Eskola. Idazkaritza akademikoa: Marisa Pagonabarraga. (N) Normalak edo hasierako formazioan matrikulatutako ikasle berriak. (B.E.) Titulu gabeko irakasleentzat Eskoriatzan egindako programa bereziko ikasleak. (B.N) Idem. Nafarroan. Oharra: bata zein bestearen datuak ez dira aurreko grafikoan adierazten.

Honako datuetan bi ideia nagusi nabarmentzen dira:

- Lehendabizikoa, 1976an hasi eta 1984-1985 ikasturtera arteko garaia: matrikula berrien kopurua goraka badoa ere, gorakada apala da, eta hainbat ikasturtetan beherako joerak hautematen dira.
- Bigarrena, 1985-1986 ikasturtetik 1990era arte iraungo duen beherako joera.

Espezialitateka izandako ikasle kopuruetan berriz, hauek dira datu absolutuak:

Taula, 6: Bigarren eta hirugarren mailan, hasierako formazioan, espezialitateka banatutako ikasle kopurua (1977-1986)

ESPEZ.	MAILA	1977 1978	1978 1979	1979 1980	1980 1981	1981 1982	1982 1983	1983 1984	1984 1985	1985 1986	1986 1987
Giza	2.	39	25	22	30	13	21	14	18	15	11
Zientzak	3.	●	39	25	21	30	12	20	14	19	17
Haur	2.	●	21	10	18	21	24	26	14	16	17
Hezkuntza	3.	●	●	21	10	18	21	22	26	17	16
Euskal	2.	●	●	●	12	22	16	14	25	22	29
Filologia	3.	●	●	●	●	11	22	16	13	25	21
Zientziak	2.	●	●	●	●	14	13	19	18	19	14
	3.	●	●	●	●	●	14	13	17	17	19

Iturria: Irakasle Eskola. Idazkaritza akademikoa: Marisa Pagonabarraga.


Aipatzekoa da, lehen maila komuna izaten zela ikasle guztientzat, eta bigarrenean hasten zirela espezialitatearekin lotutako saioak hartzen. Lehendabizi Gizarte Zientziak (1977-1978) soilik eskaintzen baziren ere, ondoren etorriko ziren Haur Hezkuntza (1978-1979), Euskal Filologia (1980-1981) eta Zientziak (1981-1982) ikasketak.

Espezialitateka dauden kopuruak, berriz, gorabeheratsuak ziren eta Euskal Filologiaren nagusitasun apala nabaritzen da bertan.

Ikaslearen jatorria dela eta, hona hemen, adibide gisa, 1986-1987 ikasturteko ikasleriaren jatorria zein zen:


Grafikoa, 5: Ikasleriaren jatorria %etan (1986-1987)

Iturria: Irakasle Eskola. HUHEZI Artxiboa, Ospakizunak, J-1tik J-ra karpeta. J.2 dokumentua.



1987tik 1997ra arteko matrikulari erreparaturaz gero, hauek dira lehen mailan matrikulatutakoen datuak:

Grafikoa, 6: Matrikulak lehen mailan: Ikasleriaren eboluzioa (1987-1997)



Iturria: Irakasle Eskola. HUHEZI. Idazkaritza akademikoa: Marisa Pagonabarraga.

Grafiko honetan zenbait matrikulazio epealdi hautematen dira datuei dagokienez:

- 1987-1988 ikasturtetik aurrera: aurreko urteetatik zetorren jaitsiera hautematen da; 1990-1991 ikasturtean behea jotzen du 22 ikaslerekin. Irakasle ikasketak krisian zeuden.
- Ondoren, igotzeko joera apala du 1995-96 ikasturtera arte.
- 1995-1996 ikasturtetik aurrera, ostera, benetako eklosioa eman zen; nahiz eta 1997an matrikula zertxobait jaitsi. Hala ere, irakasle ikasketak modan jarri ziren eta matrikulazioek gorako joera hartu zuten ondorengo urteetan.

Arestian egin dugun bezala, datu kuantitatiboei zehatz-mehatz begiraturaz gero, hauek dira kopuruak ikasturteka epealdi honi begira:

Taula, 7: Lehen mailan, hasierako formazioan, matrikulatutako kopuruak (1987-1997)

MAILA	1987 1988	1988 1989	1989 1990	1990 1991	1991 1992	1992 1993	1993 1994	1994 1995	1995 1996	1996 1997	1997 1998
1.	67	43	36	22	24	33	42	45	54	112	102
2.	N.:59 B.E.:44	60	41	36	28	30 B.Esk.: 36 B.Ing.: 39	32	44	39	48	91
3.	N.:69 B.E.:71 B.N.:41	N.:68 B.E.:4 4	63	58	37	27	31	34	42	38	51
GUZTIZ	195	171	140	116	89	90	105	123	135	186	244

Oharra: (N) Normalak edo hasierako formazioan matrikulatutako ikasle berriak. (BE) Plangintza berezia Eskoriatza. (BN) Plangintza berezia Nafarroa. Iturria: Irakasle Eskola. HUIHEZI. Idazkaritza akademikoa: Marisa Pagonabarraga.

Datuen arabera, ikus daiteke hasierako formazioko matrikulazioen jaitsiera nabarmena eman zela. 1990-1991 ikasturtean izan zen inoizko matrikula berri mailarik baxuena: 22 ikasle. Hala ere, hurrengo ikasturteak ere ez ziren oso oparoak izango, eta joera aldaketa ez zen eman 1995-1996 ikasturtera arte. Hori bai, ordutik hona irakasle ikasketetarako matrikulen igoera nabarmena izan da. Hori horrela izatearen arrazoietakoa bat, ez bakarria, bi espezialitate berri jartzea izan zen: batetik, Atzerriko Hizkuntza, eta, bestetik, Hezkuntza Berezia. Azken honek, adibidez, 54 matrikula lortu zituen 1996-1997 ikasturtean.

Lehen, arestian egin dugun bezala, espezialitateka, hau da matrikulazio bilakaera 2. eta 3. mailak aintzat hartuta:

Taula, 8: Matrikulatutako kopuruak espezialitateka (1987-1997)


ESPEZ.	MAILA	1987 1988	1988 1989	1989 1990	1990 1991	1991 1992	1992 1993
Giza	2.	6	16	●	●	●	●
Zientzak	3.	11	7	16 (*)	●	●	●
Haur	2.	21	17	18	10	16	13
Hezkuntza	3.	16	22	17	20	7	12
Euskal	2.	11	16	16	11	5	8
Filologia	3.	28	12	17	17	11	4
Zientziak	2.	21	11	7	13	7	●
	3.	14	20	11	9	14	4
Atzerriko Hizkuntza: Ingelesa	2.	●	●	●	●	●	9 (*)

(*) Atzerriko hizkuntzaren lehendabiziko promozioa 1992-93koa da.

Iturria: *Irakasle Eskola*. HUHEZI. Idazkaritza akademikoa: Marisa Pagonabarraga.

Taula honetatik hainbat ondorio atera daitezke. Lehenik eta behin, Gizarte Zientzia espezialitatea 1989-1990 ikasturtean desagertu zela. Bigarrenik, 1992-1993 ikasturtean bukatu zela Zientzietako espezialitatea. Hirugarrenik, Euskal Filologiaren zein Haur Hezkuntzaren beherako joera. Bukatzeko, laugarrenik, beste espezialitate berri baten sorrera: Atzerriko Hizkuntza, Ingelesa, 1992-1993 ikasturtean.

Eta bukatzeko 1976tik hasi eta 1997ra lehen mailako matrikulazioan izandako bilakaera adierazten grafikoa, bertan ikasle berrien etorrera gorabeheratsua azpimarratuz:

Grafikoa, 7: Matrikulak lehen mailan: Ikasleriaren eboluzioa (1976-1997)

Iturria: *Irakasle Eskola*. HUIHEZI. Idazkaritza akademikoa: Marisa Pagonabarraga.

8.1. HEZKUNTZA KOMUNITATEA OSATZEN: LEHEN IKASLERIAREN PROFILA ETA INTERESAK

Nolakoa zen ikasle berriaren profila? Zeintzuk bere interesak? Egia esanda, hasieran ikasleen interesak anitzak baziren ere, karreran hasi eta edukietan sakondu ahala, irakaskuntzaz eta irakasle izatea zer denaren gaineko kontzientzia areagotzen zitzairen. Hasierako irakasleriaren nondik norakoaz jabetzeko, bi lekukotza hartuko ditugu aintzat: Santos Izagirrerena, hirugarren promozioiko ikaslea; eta Iñaki Artolarena, laugarren promozioiko ikaslea.

Zera diosku Santos Izagirrek:

“ Nik neuk hasieran psikologia egitea pentsatu nuen, baina jakin nuenean Eskoriatzan aukera zegoela irakasletza egin eta arratsaldean ALECO Pen lan egiteko, ez nuen zalantzarik izan. Hala ere, nire asmoa ez zen irakasle izatea. Egokia zen karrera niretzat Eskoriatzan zegoelako Irakasle Eskola, Aretxabaletan etxea neukalako, lagunak ere bai, lana egiteko aukera... Ondoren bihurtu zen niretzat irakaskuntza bokazio. Gainera konturatu behar zara guk geuk

gaztelaniaz jaso dugula irakaskuntza. Erdaldun mundutik gentozen. Niretzat euskal idazle ezagunena Pio Baroja zen; atera kontuak! ”⁸⁷

Iñaki Artolak, berriz, zera adierazi digu:

“ *Ingeniaritza egiten hasi nintzen Arrasaten. Handik ezagutzen nuen Felix Ormaetxea, ikastetxe nagusiko egoitzaren zuzendaria. Ondoren, ingeniarietza laga eta euskararen munduan murgildu nintzen, gau eskolen munduan, lantegietako langileei euskara ematen, gurasoei ere bai ... Nire burua euskalgintzan edo eskola munduan ikusten nuen, eta orduan Eskoriatzako aukera etorri zen. Nire ikasle kideak baino bizpahiru urte zaharragoa nintzen. Irakasle izateko bokazioa ez dakit, baina bai lan ildo bezala jendearekin lan egitea, horretan bai ikusten nuela neure burua. Pertsonekin harremanetan lan egitea izan zen nire nahia; bai umeekin eta baita nagusiekin ere* ”⁸⁸

Nolakoa izan zen ikasleen egokitzapena ikastetxe berri batean? kooperatiba batera zetozela kontuan izanda, zein zen euren parte-hartze egitasmoa?

Irakasle Eskolak hasiera hasieratik bultzatu zituen irakasle eta ikasleen arteko harreman eta komunikazio bideak. Hari beretik dator kooperatiba misto bat eratu nahi izana ere. Eta utopikoa bazirudien ere, berdinkideen arteko elkarrekintza bultzatu nahi izan zen hasiera hasieratik.

Hala ere, sarri suertatzen ziren ikasle zein irakasleen artean tirabirak. Unean bertan ikasleak euren identitate pertsonala, soziala, afektiboa... ari ziren garatzen. Eta horrek, nahi baino gehiagotan egiten zuen talka irakasleek eta Irakasle Eskolako arduradunek ezartzen zuten autoritate jarduerarekin.

Are gehiago, inguruko testuinguru politikoak berak ere ez zuen hainbatetan une baketsurik sortzen, aitzitik, elkarren arteko harremanak baldintzatzen zituen. Adibide bat jartzearren, 1977ko martxoaren 21ean batzar bat anto-

87. Aretxabaletakoa eta hirugarren promozioiko (78-79) Santos Izagirrekin elkarrizketa, 2013/03/28.

88. Donostiarra eta laugarren promozioiko (79-80) Iñaki Artolarekin elkarrizketa, 2013/02/14.

latzea eskatu zuten ikasleek. Izan ere “ ... a fin de poner las bases de la Escuela, germen de la Universidad Vasca. Manifiestan la necesidad de discutir las bases de funcionamiento y, vista la variedad de opiniones de los profesores y de los alumnos, decidir la forma democrática (...)”⁸⁹.

Azpirarratzekoa da ere Santosek dioskuna:

“ *Asanblada pila egiten genituen garai hartan, bai goian (liburategia zegoen tokian) eta baita behean ere. Politikoak ziren, batez ere, asanbladak. Oso pil-pilean zegoen gaia. Ilusioa nabaritzen zen, ez genekien norako bidean baina atea zabalik zegoen. Pentsatzen genuen denok batera lortuko genuela. Ilusio politikoa geneukan aurrera egiteko. Adibidez, ikustekoak ziren garai hartan Arrasaten egiten ziren manifestazioak bertan guardia zibilak zirela. Zenbat aldiz bueltatu behar izan nintzen Aretxabaletara mendi bi-deetatik. Emakumeen aldeko manifestazioak ere bai. Egiten ziren grebak bailara osokoak izaten ziren. Kontzientzia politikoa puri-puri bizi genuen. Aldarrikapen kulturala ere bazen gurea. Alegia, ezagutu ez genuena ezagutzeko aukera izatea. Eta uste dut alderdi horretan Irakasle Eskolak asko eman duela* ”⁹⁰

Ikasleen beste kezka nagusienetako bat Irakasle Eskolaren organoetan parte hartzeko sistemari buruzkoa izan zen. Hots, ikasleen parte hartzea Kontseilu Errektorean eta Zuzendaritza Batzordean. Hala, ikasturte batzuetan, organoetan-eta parte hartzen zuten ikasleak, beste batzuetan, berriz, ez. Adibidez, 1980ko egoera dakargu gogora. Ikasleek uko egin zioten batean zein bestean parte hartzeari (Kontseilu Errektorean eta Zuzendaritza Batzordean), ez zituztelako euren interesak ordezkatzeko. Horren lekuko, 1980ko Batzorde Orokorrean Jesus Garmendiak esandakoak:

“ *Alderdi ilun batzuk ukitzea ere tokatzen zait: ikasleen partizipazioa, alegia. Ikusten duzue ez Batzar honetara ez da ikaslerik agertu; iaz, alderantziz, etorri ziren (...). Orain dela aste batzuk Batzorde Zuzendaritzatik, Zuzendaritza Kon-*

89. Acta Reunión de Profesores, 23.03.1977. *Irakasle Eskola*. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.

90. Santos Izagirrekin elkarrizketa, 2013/03/28.

tseilutik... irtetea erabaki zuten (...). Alegatzen zuten bere presentzia alferrekoa zela, ezin zutela ezer egin (...). Guk aitortu behar dugu hemen problema bat daukagula: ez dugula garbi ikusten nola bideratu, nola artikulatu ikasleen esku-hartzea, beraien jokabidea erakunde horietan agertzen den espiriturik oso urruti aurkitzen delako (...) ”⁹¹

Dena den, Irakasle Eskolaren erronka bakarra ez zen izan zuzendaritza organoetan ikasleen parte hartzea areagotu edo protagonismo handiagoa sustatzea. 1978an Hezibide berak planteatu zuen gazteon protagonismoa gizartearen areagotzearen beharra. Eta horren baitan izandako eztabaidetan hiru egoera nabarmendu ziren: (1) satorrarena egin, hots, aldaketarik onartu ez, nolabait gazteak arduragabeko batzuk direla onartuz; (2) parte-hartzea onartu bai, baina atal batzuetara mugatutakoa (batzar orokorrean, kontseilu errektorean); edo (3) benetako hezkuntza komunitatea osatu, nolabaiteko ko-kudeaketa lortu, non estamentu guztiek berdinkideak izango ziren⁹².

Hala ere, tirabirak egon bazeudela aitortuta ere, irakasle eta ikasleen arteko harremanak oso estuak ziren. Eta, egoera honekin kezkatuta-edo, Hezibide Elkarteak 1979an antolatutako zuzendaritza batzorde batean zera adierazi zuen Irakasle Eskolako zuzendariak: “hay una fuerte y cercana convivencia entre profesores y alumnos, que conlleva el peligro de que falte rigor a la hora de la exigencia”⁹³.

Dena dela, aintzat hartu beharreko beste aldagaia honako hau da: ikasle promozio guztiak ez direla berdinak izaten. Bakoitzari bitzeta suertatutako gizarte koiunturaren araberrako bizipenak eta balorazio subjektiboak erreproduzitzen ditugu. Hala ere, belaunaldi bakoitzaren aldagaiak aldagai, Jesus Garmendiak adierazten diguna: “Irakasle Eskolak betidanik adierazi du ikasleekiko hurbiltasuna eta egoera berrien aurrean egokitzeko ahalmena”⁹⁴.

Kezka sorrarazten zuen beste gaietako bat klaseetan ikasleen asistentzia baxua zen. Hainbat ikasgaitan klasera joatea nahitaezkoa bazen ere, absentismoa dezentekoa zen⁹⁵.

Hona hemen ikasleen parte-hartze ezaren isla; 1977ko ekaineko irakasleen bilera aktan jasotakoa:

91. Jesus Garmendiak Batzar Orokorrean esandakoak. Iturria: Irakasle Eskolaren Batzar Orokorra, 1980.12.17. *Irakasle Eskola*. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Errektore Kontseilua, B.3.1-3.5 dokumentua.

92. *Erakunde harremanak. Hezibide*. HUHEZI Artxiboa, C.1.1.1tik-C.1.2.3ra.

93. *Erakunde harremanak. Hezibide. Irakaslego Eskola* (11.07.1979). HUHEZI Artxiboa C.1.1.1tik-C.1.2.3ra.

94. Jesus Garmendiari elkarrizketa, 2013/06/04.

95. Batanaz beste %20-25 bitarteko absentismoa.

“ *Se hace patente una especial preocupación por parte de los profesores por la marcha del curso. No se ve que los alumnos cumplan ni sus expectativas ni las de los profesores. Al desinterés se une una falta de motivación así como faltas de asistencia sin motivo aparente* ”⁹⁶

Hori zerk eragiten zuen argitzeko buruhauste bat baino gehiago izan zuen Irakasle Eskolak. Batzuk “suspentso” gehiago jarrita konpondu nahi zuten afera, beste batzuk arlo praktikoa gehiago jorratzeko eskatzen zuten ... Hala ere, denak zetozen bat: ikaslea gustura zegoen Irakasle Eskolan; eta laneko giro egokia zegoen⁹⁷.

Baina nola bizi izan zuten egoera hau hasierako ikasleek? Hona hemen arestian aipatutako ikasle ohien iritziak:

“ *Asanbladaz asanblada ari ginen beti, eta helburua guztia-
ren kontra joatea zen. Batzuk joaten ziren Irakasle Eskolako
bileretara. Gu ez geunden ohituta modu horretara parte
hartzen. Izan ere, ordura arte zeinek hartu gintuen aintza-
kotzat?... Gu kontra egitera geunden ohituta, ez genekien
nola jokatu sistema barruan. Orain konturatzen naiz oso
ona zela euren (irakasle, zuzendaritzaren) egitasmoa. Bai-
na, hala ere, ez dut uste iskanbila handirik egon zenik. Ira-
kasleak oso gertukoak ziren. Irakasleen ateak beti zabalik
zeuden. Harreman zuzena geneukan* ”⁹⁸

Ildo beretik doa beste ikasle honen iritzia:

96. *Acta Reunión de Profesores, 01.06.1977. Irakasle Eskola. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.*

97. *Acta Reunión Junta Rectora (1978.12.19). Irakasle Eskola. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Errektore Kontseilua, B.3.1-3.5 dokumentua.*

98. Santos Izagirrekin elkarrizketa, 2013/03/28.

“ *Irakasle batzuekin harremana oso estua izan zen. Adinean ere gure arteko desberdintasuna ez zen handia. Oso irakasle gazteak ziren asko eta harreman oso hurbila sortzen zen. Pertsonari zuzendutako irakaskuntza zen* ”⁹⁹

Mariam Bilbatuak ere garai hartako irakasle nahiz ikasleen arteko harremanak estuak zirela aitortzen du:

“ *Ikasleekin harremana oso gertukoa zen, besteak beste kontzientzia ere bazegoelako denok proiektu komun baten parte ginela: euskara eta euskal kulturaren transmisioa bermatu nahi genuen* ”¹⁰⁰

1980ko apirilaren 17an eginiko Errektore Kontseiluan, Irakasle Eskolak une hartan zituen ahuluneen artean ez zen irakasle eta ikasleen arteko harreman konturik azaldu, bai, ordea:

“ *Lehena, puntualitatea, batik bat saioen hasieran (goizeko 7:45etan) eta bukaeran (13:00etan). Bergaratik zetozenek ez zeukaten autobus zerbitzu egokirik; garai hartan hain ugariak ziren asanbladek eta grebek ere eragin handia zuten ...* ”¹⁰¹

99. Iñaki Artolarekin elkarrizketa, 2013/02/14.

100. Mariam Bilbatuarekin elkarrizketa, 2014/02/14.


101. *Acta de la Junta Rectora de Irakasle Eskola (1980.04.17). Irakaslego Eskola. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Errektore Kontseilua, B.3.1-3.5 dokumentua.*



1 2 3

1977ko martxoaren 3an eginiko
inaugurazio ofiziala.
Lehen promozioiko ikasleak eta
irakasle batzuk.







4 5

Ikasle karnetak (1976).



6

Iruñeako plangintza 85-86-87.

7

Ikasleak eta irakasleak Duru (Oñati) aldean, 1980. hamarkadan.



8 9

Gelak eta ikasleak,
1980. hamarkadan.

10

Eskolaurreko bidaia Bartzelonara
(1981 - 1982).



11 12

Gizarte Zientzietako ikasleak,
1980. hamarkadan.

13

Plastika gela.

14

Erakusketa Dorletako areto
nagusian, 1980. hamarkadan.

9. IRAKASLE ESKOLAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA (1976-1980)

Hezkuntza Proiektuaz hitz egiterakoan, behartuta gaude Irakasle Eskolaren misio eta balioak zeintzuk diren identifikatzera. Horiek ezagutu ondoren, esanetatik ekintzetara koherentziarik mantentzen den ala ez ikusi ahalko dugu.

Horretarako, hasteko, ezinbestekoa da Estatutu Sozialak arakatzea (1980). Bertan, ikastetxearen helburuetako bigarren artikuluan, zera agertzen da: “El objeto social de esta Entidad es la formación de profesores de Educación General Básica con una preparación especial para que puedan ejercer su docencia en las Escuela del País Vasco”.

Horretarako ...

- “Impartirá la enseñanza de Formación de Profesorado de E.G.B. con arreglo a los programas y normas emanadas por las autoridades educativas del País Vasco, a la que se encuentra adscrita, o de la que dependa en sucesivo, de manera que sus alumnos alcancen al terminar su carrera el título oficial que les faculte a ejercer docencia en escuelas públicas o privadas”.
- “Preparar a sus alumnos en el conocimiento de la lengua y cultura vasca, con absoluto dominio del euskara, de forma que puedan impartir las enseñanzas de la E.G.B. o similares en Centros bilingües o Ikastolas”.
- “Formará hombres capaces de vivir en sociedad y de evolucionar hacia un estilo de relaciones más humanas, tomando conciencia de las realidades sociales, económicas y políticas de la comunidad a la que han de servir”.
- “Buscar nuevas formas que dinamicen la transformación de los sistemas educativos, ofreciendo puntos de referencia a los implicados en la educación”¹⁰².

Beraz, ikus daitekeen bezala, Irakasle Eskolaren misio garrantzitsuenak honako hauek dira: hizkuntza eta euskal kulturaren ezagutza sustatu; inguruarekiko kontzientzia landu, eta hezkuntza eratzaille zein berritzaileen bidez hezitzaile onak prestatu.

102. Aurkezpen txostena. Gipuzkoako Ikastolen Federakuntzari zuzendua. HEZIBIDE Artxiboa, 1-04 karpeta.

Baina nola diseinatu barne arkitektura ideia hauek guztiak abian jartzeko? Galdera hau erantzuteko ezinbestekoa da Hezkuntza Proiektua zertan zen arakatzea.

9.1. HASIERAKO URRATSAK

“Formar profesores de E.G.B. capaces de realizar una pedagogía que se adecúe constantemente a las necesidades del entorno”. Hori zen 1976an hezkuntza proiektuaren egitasmo nagusia: ikaslea izaera zein nortasun aktibo, kritiko eta sortzailean hezte.

Esandako helburua lortu ahal izateko Irakasle Eskolaren funtzionamendua bi printzipio hauetan oinarritu zen¹⁰³:

1. Ikasleak dagokion espezialitatearekin loturiko oinarritzko ezagutzak bereganatzea.
2. Ikasleen eta bere testuinguruaren beharretara egokitutako pedagogia bultzatu, irakasle eta ikaslearen arteko elkarrekin-tza sustatu eta, hala, norbanakoaren hezkuntza prozesuaren jabe izatea.

Argi geratu den bezala, helburua ez zen irakasle eruditua lortzea; gaitasun kritikoa oinarri hartuta eraldatzeko gai den eta egokitzen dakien hezitzailea izatea baizik. Are gehiago, proiektuan bertan aipatzen zen Irakasle Eskola bere ingurune hurbilarekin harremanetan egon behar zela:

“ *Teniendo en cuenta las características del País Vasco (por lo que) la Comisión Delegada podrá establecer asignaturas y programas especiales que tengan por finalidad desarrollar el euskara, cultura y costumbres del País, dentro de las asignaturas optativas o bien proponiendo algunas asignaturas adicionales. (Además) Las aplicaciones, ejemplos, investigación actividades complementarias, etc., deberán tener en cuenta las características propias del País* ”¹⁰⁴

Gainera, euskara izango zen hizkuntza ofiziala Eskoriatzak aintzat hartuko zituen materietan. 1979an hizkuntza departamenduko arduraduna zen Iñaki Mendigurenek memoria bat aurkeztu zuen. Memoria horretan onartu zen irakasle titulua izateko Euskaltzaindiaren “D” titulua eskatu behar zela. Honek, baina, kezka ere sortu zuen: bazi-

103. Escuela Universitaria de Profesorado. ULARCO. Abril, 1976. Dossier. Irakasle Eskola. HUHEZI Artxiboa, Sorrera karpeta, A72 dokumentua.

104. Estatutos. Título XI. Año 1977. Irakasle Eskola. HUHEZI Artxiboa, Sorrera, A.8. carpeta.

rudien “D” titulua lortzeko gehiegi eskatzen zela, eta honek arazoak ekar zitzakeen, izan ere, garai hartan ez zen batere erraza irakasle euskaldunak lortzea. Beraz, badirudi hautatutako neurria ez zela guztiz mesedegarria izan Irakasle Eskolarentzat. Hori dela eta, estrategia aldaketa eskatu zuen Iñaki Mendigurenek: praktikaren bidez, euskaraz emango ziren ikasgaien baitan euskararen garrantzia azpimarratzea; eta aldi berean, ikasleei titulua ateratzeko beharra adieraztea¹⁰⁵.

Hezkuntza proiektuan, beraz, euskara eta euskal kulturari garrantzia emango zitzaien; baita arlo pedagogikoari ere. Horren harira, zera diosku Felix Ormaetxeak:

“ *Euskara eta euskal kulturaren sustapena, herriarekiko zintzotasuna eta herriarekin elkarlana ziren gure premisak. Eta orduan modan zeuden Freire, Montesori... irakurri eta horren arabera aberasten joaten ginen eta txertatzen gure hezkuntza proiektura. Juanjo zen hor ibili zena, batik bat irakurtzen eta idazten; baita Jesus ere, asko irakurtzen zuelako* ”¹⁰⁶

Hala ere, zein zen ikasleen pertzepzioa hasiera hartan? Lehen promoziokoak ziren Resu Abasolo eta Iñaki Lazkanori emango diegu hitza, era globalean esan diezaguten nola hautematen zuten curriculumak:

“ *Irakasle izateko bokazioa ondoren etorri zitzaigun. Zalan-tzarik ez dago gaurkoa baino curriculum pobreagoa zela. Apunteak hartzen genituen asko. Berrogei eta hamar minutuko klaseak-edo izaten ziren, eta bost bat saio egoten ziren. Curriculumaren ardatza euskara, euskal geografia eta historia, pedagogia eta psikologia ziren. Hala ere, konturatu ginen batez ere pedagogia zein garrantzitsua zen... baina baita euskara ere, asko identifikatu ginen ikasgai bi hauekin. Xabier Mendiguren hitz egiten hasten zenean denok liluratuta egoten ginen; zenbat eta gehiago jakin orduan eta gehiago jakiteko beharra sentitzen genuen. Guretzat ikaragarria izan zen konturatzea nola ikasten ari ginen*

105. Reunión Junta Rectora (1979.09.24). *Irakaslego Eskola*. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Errektore Kontseilua, B.3.1-3.5 dokumentua.

106. Felix Ormaetxearekin elkarrizketa, 2012/11/14.

euskara. Erljioa ere ematen genuen, asteleheneko lehen orduan, eta hor ibiltzen ginen geure artean negoziatzen nor joango klaseetara, baina azkenean asistentzia bermatzen genuen. Gelaz kanpoko saioak ere egiten genituen. Fernando Etxeberriak filosofia-antropologia ematen zigun eta behin Ekainera ere joan ginen, bertako marrazkiak ikustera Jesus Altunaren laguntzarekin. Baita iparraldera ere Iñaki Mendigurenekin; Baigorriara. Hala ere, irakasleen arteko komunikazioa faltan botatzen genuen. Irakasle asko etorri ziren klasea ematera, baina berehala joaten zirela euren beste eginkizunetara. Liburutegia poliki-poliki hasi egin zen. Lehendabizi, irakasleek ekartzen zituzten liburuak, eta ondoren, gure artean banatu eta txandaka irakurtzen genituen liburuak. Gero Gilermo, San Viatorreko apaiza, jarri zen liburutegiko arduradun, eta egia esanda, beti zegoen umore txarrean. Gure asistentzia klasera oso-oso ona zen. Agian zuzendaritzarekin harremanak ez ziren hain onak, kudeaketa bertikala zelako, eta hor ez ginen ondo konpondu, baina jakin-mina genuen eta asko ikasi genuen. Harri-garriena, orain atzera begiratuta, garai hartan gela barruan zigarroak erretzen zirela da; ez zen giro izaten, eta gure artean iskanbilak ere sortu zituen horrek. Pasilloetan ere erre zitekeen, eta zigarro mutxikinez josita zegoen beti, zikin-zikin. Batzuetan zazpi zortzi pertsona egoten ginen une berean erretzen ”¹⁰⁷

9.2. EUSKAL HEZKUNTZA

70 hamarkada zen eta Frankoren Diktadura bukatzeaz zegoen. Euskal kulturak oro har jasandako debekuak eta eragozpenak oso garrantzitsuak ziren. Beraz, egoera konpontze aldera, eta epe luzera begirako proiektu sendo bat diseinatzeko asmoz, esperientzia eta gaitasuna zuen jendearen beharrean aurkitu zen irakaskuntza lanbidea.

Estatuko programek, gainera, ez zuten aintzat hartzen euskal errealitatea. Egoera horrek baldintzatuta, irakasle eta ikasleei aparteko ahalegina egitea eskatzen zitzairen; besteak beste, ahalik eta gai gehienak euskaraz eman eta jasotzea.

107. Resu Abasolo eta Iñaki Lazkanorekin elkarrizketa, 2016/01/20

Horrela, euskal hezkuntza sustatu asmoz, honako ezaugarri hauei erantzungo zion programazioa diseinatu zen:

- Lehen urtean. Euskara lantzea komunikazio tresna gisa. Horrela, bigarren ikasturtetik aurrera gaiak euskaraz emateko gaitasuna lortuko zen. Ordubete egunean.
- Bigarren urtean. Euskadiko Geografia (giza, fisikoa eta ekonomikoa). Euskara astean hiru orduz emango zen. Helburua: alfabetatze maila egokia lortzea. Aldi berean, euskararen didaktika, idazketa eta gramatikan sakondu nahi zen.
- Hirugarren urtean. Euskadiko Historia eta Euskal Literatura eta bere Historia. Helburua: euskal nazioaren historia ezagutu eta hizkuntza egoki lantzea.

Esan gabe doa, gainerako materia edo gaietako diseinuetan, euskal kultura erabiliko zela ardatz: dantzan, musikan, filosofian... "Eta harremanetarako, oharretarako, denerako, gure hizkuntza euskara da"¹⁰⁸.

Ukaezina da, Frankismo garaian batez ere baina baita ostekoan ere, euskaraz eta euskal kulturaz hitz egiteak urduritasun eta egonezinak sorrarazten zituela hainbat eragileren artean. Eta badirudi, Irakasle Eskolak euskal kulturaren aldeko apustu argia egin izanak, hainbat eragileren ikusmiran jarri zuela. Egoera horren ondorio da Jesus Garmendiak kontatzen digun pasadizo hau:

“ Telefonoak esnatu ninduen. Mertxe, Irakasle Eskolako tabernaria eta garbitzailea zen: eskolan sartu zirela, sarre-rako atea bortxatuta zegoela eta lehenbailehen joateko. Aretoko atea ere bortxaz irekita zegoela ikusi nuen, baina bertatik ez zutela ezer eraman; telebista eta bideoa betiko tokian zeuden. Gora joan nintzen: nire bulegoan ere bortxa arrastoak, eta usain hura...; harantzago, liburutegiko atea ere sarraila apurtuta zuen, baina han ere, lehenengo begiradan behintzat, ez zuten ezer ukitu. Beste gela guztiak ere ikuskatu nituen, baina ez nuen ezer berezirik aurkitu. Beraz, sartu, sartu dituk, baina ez dik ematen ezer hartu dutenik, pentsatu nuen, eta bulegora bueltatu nintzen... Eta berriz usain hura...a, bai! roquefort gaztarena; armairua ez zegoen erabat itxita eta bertan gordetzen nuen gazta kaxa borobilarena zen usaia, norbaitek zabaldu eta ondo itxi ez zuen kaxari zeriona. Ordurako, ordea, beste bi xehetasuni ere erreparoa jarrita nien: bilera mahaitxoaren gainean,

108. *Irakasle Eskola*. HUHEZI Artxiboa, Sorrera, Informea, A.7.1. dokumentua.

erabilitako kopa bat zegoen - ez zioten, honenbestez, muzin egin Carrefour-en erositako nire Rémi Martin botilari-eta gela erdian, erdi-erdian, putzu txiki bat... Dena kontrol handiz egina zirudien, eta zehaztasun handiz, nolabaiteko mimoz. Ordurako, kasik goizeko zortziak zirenean, jendea eskolara etortzen hasita zegoen, ikasleak eta irakasle batzuk; hauetako bati bota nion, hain zuzen, nire bihozkada: Hau poliziak egin dik. Berak, ordea, eta gero beste batzuk, ezetz, ezin nuela hori esan... Baina nik, hasieratik antzeman nuen gela erdian zegoen putzu txikia txiza zela; txiza egin zuela norbaitek gurekiko sentitzen zuen gorrotoaren seinale, eskolaren euskal zaletasuna ezaguna baitzen ordurako. Ez neukan frogarik eta ezin nuen inor inon salatu. Eta horrela joan zen goiza, eta horrela amaituko zen kontua, arratsaldean bertan Beatriz irakasleak ez bazigukeen informazio xume bat kontatu: bere senarrak, bezperan, afaria izan zuela Eskoriatzan eta, gauerdian edo, handik pasatzerakoan, eskola ondoko zubitxoak guardia zibilez josituta ikusi zuela. Errasti aretxabaletarra zen orduan herriko alkate, eta berarengana jo nuen. Orain bageneuzkan zenbait aztarna, baina ondotxo genekien, bai berak eta bai nik, ezingo genuela inor salatu ”¹⁰⁹

Irakasle Eskolak euskararekiko izandako atxikimendu horren ibilbidean izandako beste une garrantzitsua 1982a izan zen. Urte hartan eskuratu zuen irakasle diplomadun berriei EGA titulua emateko eskumena, eta horrek erabilerari ez ezik hizkuntza kalitateari bereziki erreparatzeko beharrean ipini gintuen. Beraz, gure ikasleak, karrera bukatzerakoan titulu horren jabe egin ziren.

109. Jesus Garmendiaren aparteko oroimen idatziak.

9.3. PEDAGOGIA KOORDENADAK

Eskola eta gizartearen arteko lotura edo elkarrekintza funtsezkoa izanda, eta urte haietan gizarteak eta eskolak berak bizi zuen krisia zela eta, edozein koordinada deskribatzen hasi aurretik komeni da hausnartzea zein funtzio betetzen zuen eskolak eta irakasleak gizartearen. Eta hori eta gero hasi definitzen zein funtzio bete beharko lukeen euskal gizartearen, ondoren zein motako irakasleak formatu edo hezi nahi ziren diseinatu ahal izateko.

Hala ere, koordinadak malguak dira; gizartearen ematen diren aldaketek beti izango dute eta eragina irakaskuntzan zein eskolan. Beraz, beti egon behar da prest koordinada horiek egoera berrietara egokitzeko. Arreta fina eta aldi berean kritika zein autokritikarako gaitasuna beharrezkoa izango da pedagogia egokia martxan jartzeko.

Baina nondik abiatu?

9.3.1. KATALUNIA HEZKUNTZA ERREFERENTEA: 'BLANQUERNA', 'ROSA SENSAT', 'VIC' ETA IRAKASLE ESKOLAREN PEDAGOGIA

1978-1979 ikasturtean egin zuten lehendabiziko bisita Bartzelonako Unibertsitate Autonomora Blanquernara Felix Ormaetxeak, Jesus Garmendiak eta Nerea Alzolak¹¹⁰. Bisita arrakastatsua izan zen, Eskoriatzara etortzeko borondatea ere adierazi zuten hango zuzendariek¹¹¹.

Erakunde biak Rosa Sensat-en pentsamendu eta pedagogia ildotik zihoazen, eta ezagutzak didaktikarekin lotzen zituzten. Blanquernak, adibidez, klase magistralak baztertu eta talde lanari ematen zion garrantzia. Unibertsitate Autonomoan, halaber, OHOk (Oinarritzko Heziketa Orokorra) eskolekin harreman estuak zituzten irakasleek, bai teoria eta baita praktikan ere¹¹².

Kezkati ere bageunden, batez ere sistema berri horrek gurean, agian, absentismoa gehitu besterik egingo ez zuelakoan¹¹³. Gainera, ez zen hain erraza metodologia hori ezartzea; Irakasle Eskolak ez zeukan baldintzarik egitasmo berria behar zen moduan garatzeko. Ondo baino hobeto azpimarratzen digu Jesus Garmendiak zer ikusi zuten Bartzelonara egindako bisitan:

110. Blanquerna (ondoren Ramon Llull unibertsitatea). Iturria: http://www.blanquerna.url.edu/web/interior.aspx?idf=1&id=1997&alias=fb.coneix-blanquerna.historia&lang=_es : "1991 - Aprobación unánime por el Parlamento de Cataluña de la Universitat Ramon Llull de la que la Fundació Blanquerna es miembro fundador, con la Escola Universitària de Mestres y la nueva Facultat de Psicologia i Pedagogia, en la c/ Cister, 34". (Kontsulta: 2014/01/10).

111. *Acta Reunió Junta Rectora (79.04.23). Irakaslego Eskola*. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Errektore Kontseilua, B.3.1-3.5 dokumentua.

112. ROSA SENSAT. Iturria: http://eu.wikipedia.org/wiki/Rosa_Sensat eta Asociación de Mestres Rosa Sensat: <http://www2.rosasensat.org/>. (Kontsulta: 2014/01/10).

113. *Acta Reunió Junta Rectora (79.05.06). Irakaslego Eskola*. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Errektore Kontseilua, B.3.1-3.5 dokumentua.

“ *Felix Ormaetxea, Nerea Alzola eta neuk, Blanquerna Irakasle Eskolan ikasleen autonomia lantzeko erabiltzen zuten metodologia aurrerakoi bat ezagutzeko parada izan genuen. Klase tradizionalen formatua hautsi, eta ikasleek, taldeka, bi gai lantzen zituzten goiz osoan, betiere irakasleen laguntzaz. Honako hau zen, avant la lettre, MENDEBERRI indarrean jartzen saiatutako filosofia: ikasleei ematea ikaste-irakaste prozesuko protagonismoa. MENDEBERRIK, egiteko horretarako, dozenaka milioi pezeta inbertitu zituen hiruzpalau urtetan, eta gaian adituak zirenen hainbat ikastaro jaso genituen. Guk, garai hartan, zuzenean jarri genuen martxan Bartzelonan ikusitako eredu. Oso gutxi iraun zuen, noski. Hala ere, garbi azaldu genuen pedagogia arloan puntako zeozer egin nahi genuela. Baina ez geneukan oinarririk, ez geneukan urteek ematen uten esperientzia eta ziurtasunik, eta hanka-sartzeak egin genituen* ”¹¹⁴

Dena dela, Juanjo Otañok dioskun bezala¹¹⁵, “Unibertsitate Autonomoa Irakasle Eskolarentzako erreferentetako bat izan zen haur hezkuntza ipintzerakoan. ‘Rosa Sensat’-etik irekitasuna hartu genuen aintzat, eta, Blanquernatik, berriz, klaseak emateko erak zuen eragina”.

Irene Balagué eta Marta Mata izan ziren Rosa Sensat-ekin harremanetarako arduradunak. Aldi berean, Rosa Sensat-ekoak oso interesatuta zeuden Irakasle Eskolak titulugabekoentzat garatutako plangintza eta esperientziarekin; eta bilera zabal batean interes handiz entzun zituzten emandako azalpenak.

Une berean, hasiera hasieratik, VICeko Irakasle Eskolarekin ere harreman estuak lortu ziren. Esan behar da, 1977-1978 ikasturtean Bartzelonako Unibertsitatearen babesean sortu zela “L’Escola Universitària Balmes de Formació del Professorat”¹¹⁶. 1980-1981 ikasturtean-edo izan ziren haiekin lehendabiziko harremanak. Une hartan zuzendaria zen Ricard Torrent-ek eta beste zenbait irakasle (besteak beste, Josep Tió-k) erraztasun guztiak eskaini zituzten adierazi zitzaizkien hezkuntza eta pedagogia kezkei argibideak emateko. Besteak beste, ‘Interpretazioa eta Itzulpengintza’ karrera ematen hasi zirelako eta Eskoriatzan ere gai horiek emateko bideragarritasuna aztertu nahi zelako.

114. Jesus Garmendiaren aparteko oroimen idatziak.

115. Juanjo Otañorekin elkarrizketa, 2014/02/14.

116. UNIVERSITAT DE VIC. Iturria: <http://www.uvic.es/historia-i-present> (Kontsulta: 2013/10/14).

Ikasleen arteko elkar-trukeak ere gauzatu ziren. Hemengo Gizarte Zientzietako talde bat, Agustin Azkarate zela irakasle, bertara joan eta Ebro ibaiaren delta lantzen ibili ziren. Ondoren, bertako talde bat etorri zen Eskoriatzara.

Geroago, hango EUMO argialetxearekin ere harreman estuak egin ziren, eta eskoletara zuzenduta zituzten ipuinak kaleratu ziren. Hala ere, harreman honetatik atera zen egitasmorik emankorra, gaur egun ere kalean ikusgai dagoen lehen hezkuntzara zuzendutako *Lehen Hiztegia* izan zen¹¹⁷.

Urteetan zehar jositako harremana, urte batzuetan zehar, eten egin zen. Orain, ordea, azken urteetan Boloniako Itunak unibertsitateetan izan duen eraginaren ondorioz, (“Berrikuntza eta esku-hartzea hezkuntzan” doktorego-programaren bidez)¹¹⁸, MONDRAGON UNIBERTSITATEAK (Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, HUHEZI) eta Vic-eko Unibertsitateak (Facultat d’Educació, Traducció i Ciències Humanes) berriro estutu egin dituzte harremanak. Gaur egun, unibertsitate arteko programa eskaintzen dute. Programa honek eskaintza zabala dauka aniztasun inguruneetan berrikuntza eta esku-hartzeetan ari diren ikertzaileentzat. Ondoko ikerlerroen baitan eskaintzen du formazioa programa honek: “Berrikuntza eta esku-hartzea gizarte kultur anitz eta eleaniztunetan”, eta “Berrikuntza eta esku-hartzea hezkuntza inklusiboan”.

Esandakoak esanda, beraz, garbi dago Eskoriatzako Irakasle Eskolarentzat hasiera hasieratik erreferente pedagogiko izan zela Katalunia. Bertako erakundeetatik asko jaso zen, eta zer esanik ez bertako gizon eta emakumeen aldetik: Ignasi Vila, Jaume Carbonell, Paco Imbernon, Irene Balaguer, Ricard Torrent, Josep Tió, Marta Mata, Karma Angel, Blanca Moll ...

Abiapuntu honetatik, bada, honako ezaugarriak zituen oinarritzko pedagogia koordenadak idatzi ziren¹¹⁹:

- Partaidetza. Maila guztietan eta denen parte-hartzea ezinbestekoa zen. Izan ere, proiektu honek “gurea” izan behar zuen; ez kanpotik ezarritakoa. Horrek zera esan nahi zuen: kudeaketa maila desberdinetatik hasi, curriculum diseinuetatik pasa eta irakasle-ikasleen arteko harremanetaraino igarri behar zela berezitasuna. Beste era batera esanda, hezkuntza-proiektua komunitario bilatzen zen, zeinetan aniztasuna onartzen bazen ere, denak adostutako gutxiengo helburuetatik abiatzen ziren¹²⁰.
- Materien programazioan, berriz, kontuan izanda karreraren zehar eskaera maila handia zela (materia asko, ordu asko eta denbora gutxi), ez zen komeni ikasleei materietako datuak edo edukiak transmititzea, baizik eta “irakas-ten irakatsi”, “lanean irakatsi” gaitasunak transmititzea zela egokiena erabaki zen. Beraz, beldurra galdu behar zitzaion materia bat bukatzeko denborarik ez izateari, eta bakarkako nahiz talde-lana garatzea zen helburua.
- Programazio honen barruan, hezkuntzaren historian marjintuak geratu ziren materiak eta gaitasunak sustatu beharra ere ikusten zen, besteak beste “arte eta gorputz-hezkuntza, sintesirako gaitasuna, jende aurrean hitz

117. Ikusi IHARDUN argialetxearekin loturiko atala.

118. <http://www.mondragon.edu/eu/ikasketak/doktoregoa/doktorego-programa-berrikuntza-eta-esku-hartzea-hezkuntzan/> (Kontsulta: 2014/01/20).

119. Irakasle Eskola. HUHEZI Artxiboa, dokumentu soltea.

120. *Plan de gestión. Curso 1980-81. Irakasle Eskola. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.*

egiteko gaitasuna, edo poesiarekiko sentsibilitatea". Hori bai, oso garrantzitsua zen materia guztiek proiektzio sozial eta praktikoa izatea.

- Heziketa integrala lortzea. Horretarako diziplinartekotasuna ezinbestekoa zen, baita irakasleen arteko talde-lana bultzatzea ere. Irakasleari haien arteko puntu komunak aurkitu eta hezkuntza esperientzia bihurtzea eskatzen zitzaion. Hala ere, hankak lurrean, argi zegoen helburu horiek erdiesteko baldintzarik garrantzitsuena irakasleria finkoa izatea zela.
- Irakaskuntzaren pertsonalizazioa. Masifikaziotik at, garbi zegoen egoera idealena bakoitzari jarraipen zuzena eskaintzea zela. Hori, agian, nahikoa utopikoa izan zitekeen; giza-baliabide eta diru-inbertsio handia eskatzen baitzuen. Hori aurrera eramatea, bestalde, ez zen batere erraza, ikasleek arratsaldez lan egiten zuten-eta.
- Ebaluazio jarraitua. Kontuan izan behar da, zaila zela irakaskuntza benetan pertsonalizatua izatea. Eta hala ere, aldaketari atek zabalduz, posible zen azterketak desmitifikatu, irizpideak aldatu, eta azterketak hain erabakigarriak izan ordez oinarritzko ezagutzak garatuko zituen bestelako ebaluazio mota batzuk eskaintzea; sormena, pertsonaren garapena... Horrek, irakasleek, departamenduko arduradunarekin batera, asignaturaren ikasturteko plangintza diseinatzea eskatzen zuen. Plangintza horrek helburuak, bitartekoak eta ebaluazio irizpideak bildu behar zituen.
- Irakaskuntza bizia eta aktiboa; gizarte-inguru hurbilari arretaz begiratzen diona. Sozializatzeko prozesu horretan gure herrietako sektore desberdinetako egoeren inguruko sentsibilizazioa lortu asmoz, eragileekin harremanak landu behar dira, besteak beste hitzaldiak, mintegiak, bisitaldiak... antolatu edo burututa. Garrantzitsua zen hurbileko irakasleei, formazio iraunkorraren ikuspegitik, beharrezkoak ziren zerbitzuak eskaintzea. Esan nahi da, materia bakoitza errealitateara proiektatu eta hurbildu behar zela.

Honen guztiaren oinarria, euskara komunikazio-hizkuntza bezala hartu eta transmititzeko konpromisoa izan zen.

Oinarritzko pedagogia honek, beraz, eragina izan zuen Irakasle Eskolan. Honako ezaugarri hauek zituen 1979-1980 ikasturterako pedagogia-ildoak:

1. Lan pertsonalak bultzatu; klase magistralak saihestu.
2. Blanquerna eredu hartuta talde-lanak bultzatu.
3. Klaseetako denbora luzatu. 50 minutukoak labur geratzen ziren eztabaidak, elkarrizketak, talde-lanak... gartzeko. Horrela, 100 eta 150 minututako saioak diseinatu ziren.
4. Ikastola eta ikastetxeetako eragileekin harremanak sustatu; metodo pedagogikoen interesa piztu.
5. Ikuspegi praktikoak zeukaten ikasgaiak landu; psikomotritate, eskulanak... ikastaro intentsiboetan ematea, adibidez.

1980ko otsailaren 14ean eginiko Batzar Orokorrean, une hartan Irakasle Eskolako zuzendaria zen Jesus Garmendiak, ildo pedagogiko nagusiak zertan oinarrituta zeuden azpimarratu zuen. Lehendabizi, irakasle eta ikasleen arteko ratioari erreparatu zion. Oso ondo orekatuta zegoen, eta, ondorioz, ikasle bakoitzaren ikaste prozesua pertsonalki eta hurbiletik jarraitzeko aukera ematen zuen. Aldi berean, honek aukera ematen zuen, ikasleak ebaluatzerakoan memoria baino tresna egokiagoak erabiltzeko. Hau da, ikasleek egiten zituzten lan eta ariketen bidez neurtu zitekeen haien ikas-prozesuaren garapena, nahiz eta batzuetan, osagarri gisa, ohiko azterketak ere baliatu ahalko ziren: “Irakaskuntzaren helburua gazteen nortasuna eta ahalmen guztien hazkundera edo askatasuna denez gero, helburu hori lortu dezakeen giro lasai eta kreatiboa sortu behar da eta hori sortzen da, bakarrik, irakaslea laguna, hobeto esanda, laguntzailea denean, eta ez epailea soilik”¹²¹.

Hala ere, urte batzuk beranduago, zenbait egitasmo ez ziren bete eta bestelako erronka berriak agertu ziren. Hala nola, (1) klaseetara asistentzia bermatzea, taldeari ekar diezaiokkeen onuragatik. (2) Koordinazioa; hots, elkar laguntza sustatzeko abiapuntu ona izan zitekeen denok denen berri izatea. (3) Departamenduen egituraketa eta departamendu buruek landu behar zituzten funtzioen-zehaztapena.

Eguneroko jardunean, ikasleak kexu azaltzen ziren irakasleen artean koordinazio falta zegoela eta, hau da, gutxiegi hitz egiten zutela irakasleek elkarrekin. Horrek inkomunikazioa errotu eta dinamikak ahultzea zekarren. Eta hori, zelan ez, bilatzen zen formazio integraztailetik oso urrun zegoen. Beraz, beharrezkoa zen talde pedagogiko bat eratzeko kolektiboaren programazioak kudeatzeko, sor zitezkeen arazo pedagogiko eta akademikoak erantzuteko... Horretarako ezinbestekoa zen ardura orokorrak banatzea, eta didaktika arloa irakasleak ondo trebatzeko ahalegin zentralizatzea. Izan ere, irakasle gehienak unibertsitateko zetozen, eta garai hartako OHOk irakaskuntzarekin ez zeukaten inongo loturarik. Ondorioz, abstrakzioarako gaitasuna bai, baina ikuspegi praktikoko gutxi zeukaten materialak. Finean, arlo honi gehiago erreparatu behar zitzaion: benetan didaktikako materialak identifikatu behar ziren, arduradunak egoki hautatu eta, gainontzeko eremuekin oreka bilatu behar zen. Ildo beretik, “klase mailan ikasleek orduan zutena baino parte-hartzea handiago eskaini behar zitzaion”. Helburu hori lortzeko irakasle bakoitzak aurkitu beharko zituen formularik egokienak¹²².

Hala, 1985-1986 ikasturtean, honako era honetara antolatu zen barne funtzionamendurako mapa: 1) Zerbitzuetan, administrazioan; Arantza Aiaztui zen arduraduna. Bere zaintzapean zegoen garbitasuna (Mertxe Bolinaga) eta mantenimendu ardura (Joaquin). Idazkaria, berriz, Iñaki Pagonabarraga. Hasierako formazioan, Giza Zientzietako arduraduna, Agustin Azkarate zen; Euskal Filologian, Iñaki Mendiguren; Eskolaurrean, Nerea Alzola; Zientzietan, German Derteano. Lehen mailako arduraduna, Iñaki Mendiguren. Departamenduetan, Euskararen, Matilde Sainz; Ikus Entzunezkoan, Luis Mari Alvarez; Plastikaren, Bea Arregi, eta Praktiketaren Nerea Alzola. Jesus Garmendia birziklatzea edo formazio iraunkorraren arduraduna¹²³.

121. *Acta de la Asamblea General de Irakasle Eskola (1980. 02.14). Irakasle Eskola. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Errektore Kontseilua, B.3.1-3.5 dokumentua.*

122. *Plan de gestión. Curso 1982-83. Irakasle Eskola. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.*

123. *Plan de gestión. Curso 1985-86. Irakasle Eskola. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.*

Hala ere, pedagogiaren beste arlo batek zer esana eman zuten hasiera haietan; suspentsio gutxiegi ote zegoen susmoa baitzegoen¹²⁴. Bitxikeria moduan azpimarratu daiteke, lehen promozioiko 39 ikasletatik, 10 ikaslek asignatura bat; 4 ikaslek, 2 asignatura eta, bakarrak, hiru asignatura suspenditu zituztela irailan. Hau da, %38,5 ikasle asignatura batekin gutxienez geratu zen hurrengo ikasturterako. Badirudi, baina, batzuen iritziz, gutxiegi zela: "Guri ere bai, batzuen urteko jarrera ikusita. Esperientzia gehiago behar dugu, eta exijentzia handiagoa ere bai. Hala ere, karrera hau ez da zaila. Ez da ezagumenetan oinarritutako karrera. Asko irakurri behar da eta lan asko aurkeztu behar dira. Alderdi hau askoz zailagoa da neurtzea... Batez ere, karrera honetan inportantea dena irakasten ikastea da"¹²⁵.

Beranduago, 1981eko promozioaren emaitzekin konparatuta, 31 ikasleetatik 18k ekainean bukatu zuten; 13 gelditu ziren irailerako. Hauetatik seik ez zuten gaingitu¹²⁶.

Esandakoak esanda, azpimarratu behar da, arestian aipatutako ildo pedagogikoak ez zirela izan berezitasun bakarrak. Formazioa edo garapen pertsonalarekin loturiko plastika, musika eta psikomotrizitatea bezalako gaiei ere garrantzia handia ematen zitzaien; baita ikasleek egin behar zituzten praktikei ere.

Hezkuntza proiektua, beraz, ez zen zerbait estatikoa; etengabeko berrikuntzak zituen. Irakasle Eskola ez zen gizaritari sorbalda emanda bizi, aitzitik, urte haietan hautematen ziren balio-aldaketen aurrean egokitzen bazekiela erakutsi zuen. Horren harira, 1980ko Batzar Nagusian zera adierazi zen:

“ *Valores humanos que han sido hasta hace unos pocos años los ejes de la formación del educador (espíritu de servicio a los demás, principio de autoridad, la participación proporcional, el civismo ...) están hoy siendo cuestionados en la calle... creando entre los educadores numerosas ocasiones de incertidumbre, de tensión y, a veces de desánimo. Un desafío que hay que darle respuesta, pero sin triunfalismos ni falsas seguridades, sabiendo que no existen recetas mágicas... manteniéndonos abiertos a los nuevos valores que tanto la pedagogía como la psicología y la sociología van detectando...* ”¹²⁷

124. Hezibide Elkarteak 1980ko uztailaren 14ean eginiko bileran erabaki hau hartu zuen: "Comunicar a IRAKASLE ESKOLA su preocupación ante los resultados finales con aprobados casi colectivos, lo que puede significar una cierta relajación en las exigencias académicas o de formación pedagógica en una profesión de tanta responsabilidad como es el Magisterio". Esan beharrik ez dago Irakasle Eskolaren erantzuna tinkoa, ondo argudiatua izan zela bere planteamendu pedagogikoak zalantzan jarri zituztenei. Iturria: *Erakunde Harremanak*. HEZIBIDE *Artxiboa*, C.1.1.1.tik C.1.1.2.3.ra.

125. *Irakaslego Eskola*. HUHEZI *Artxiboa*, Antolakuntza, Errektore Kontseilua, B.3.1-3.5 dokumentua.

126. *Acta de la Asamblea General de Irakasle Eskola (1982.02.24)*. *Irakaslego Eskola*. HUHEZI *Artxiboa*.

127. *Acta de la Asamblea General de Irakasle Eskola (1980.02.14)*. *Irakaslego Eskola*. HUHEZI *Artxiboa*, Antolakuntza, Errektore Kontseilua, B.3.1-3.5 dokumentua.

10. IKASKETA PLANGINTZAREN DISEINUA¹²⁸

Irakasle Eskolaren ikasketa plangintzaren ezarpena eta garapena Espainiako Hezkuntza Ministeriotik dekretuz ezarrita zegoen.

Eskoriatzako Irakasle Eskolak, bere hasierako urratsetan, 1970ko abuztuaren 4ko Hezkuntza Orokorreko Legeak¹²⁹ zehazten zituen OHOk Irakasleentzat zuzendutako Unibertsitate Eskolen ikasketa plangintza jarraitu besterik ez zuen egin.

Honako irizpide hauetan oinarritzen zen plangintza hori:

Lehenik eta behin, hiru urtetako ikasketa planak izango ziren. Bigarrenik, bost espezialitate izateko aukera: Zientziak, Giza Zientziak, Filologia, Eskolaurrea eta Hezkuntza Berezia, nahiz eta azken espezialitate hau eman ahal izateko baimen berezi bat behar izan¹³⁰. Hirugarrenik, astero 21 ordu teoriko izango zituen, 25era igo zitekeena laborategi, praktika... baliatuz gero. Laugarrenik, oinarritzko materialak zeintzuk izango ziren zehazten zen: pedagogia, psiko-soziologia, matematika, hizkuntza, adierazpen plastikoa, musika eta hezkuntza fisikoaren didaktika. Eta adierazitako bost espezialitateekin bat eginda psikopedagogia, instrumental, arte eta zientzia formaziorako edukiak landu ziren. Bosgarrenik, espezialitateekin loturiko materialak zeuden: 1) Filologia (Hizkuntza eta bere didaktika, atzerriko hizkuntzaren didaktika). 2) Giza Zientziak (Geografia, historia, arte, eta euren didaktika). 3) Zientziak (Matematika, fisika, kimika, geologia, biologia, eta euren didaktika). 4) Eskolaurrea (psiko-soziologia, didaktika, hizkuntza, matematika, musika, plastika, eskola antolaketa, eta euren didaktika). Bukatzeko, seigarrenik, praktikak hirugarren mailan; lau hilabeteko iraupenekoak, alegia.

Hauetan oinarrituta, 1977ko abenduaren 22an eskatu zitzaion Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioari Zientziak, Giza Zientziak, Filologia, Eskolaurrea espezialitateekin hasteko baimena.

Irakasle Eskolaren ikasturtez ikasturteko lehen ikasketa plangintzak honako ikasgai hauek biltzen zituen:

128. *Ikasketa Plangintzak. Irakasle Eskola*. HUHEZI Artxiboa, 1 eta 2 karpeta solteak.

129. 1977ko ekainaren 13ko Aginduaren ondoren egokituko zena.

130. Irakasle Eskolak lehendabiziko lau espezialitate garatuko zituen: Zientziak, Giza Zientziak, Filologia eta Eskolaurrea.

- **Lehen maila (komuna zen guztientzat):**

Geografia I; Hizkuntza; Matematika I; Pedagogia I; Psikologia I; Musika eta Adierazpen Dinamika I; Adierazpen Plastikoa I; Euskara; Psikomotrizitatea; Ikus entzunezkoa; Aukerako bat.

- **Bigarren maila:**

- Komuna: Euskal Herriko Historia; Praktikak; Psikologia II; Soziologia; Musika eta Adierazpen Dinamika II; Adierazpen plastikoa II; Euskara; Aukerako bat.

- Espezialitatekoak:

- Giza Zientziak: Historia I; Geografia II; Giza Zientzien didaktika eta Soziologia.

- Euskal filologia: Glotodidaktika; Morfosintaxia; Euskal Literatura; Espainiar Literatura.

- Eskolaurrea: Hizkuntza I; Didaktika; Psikologia; Adierazpen dinamikoa I.

- Zientziak: Fisika; Geologia eta Zientzien Didaktika.

- **Hirugarren maila:**

- Komuna: Didaktika I; Praktikak; Hizkuntzaren didaktika; Preteknologia; Soinketa; Euskara; Aukerako bat.

- Espezialitatekoak:

- Giza Zientziak: Historia II; Artearen historia; Filosofia; Espainiar Literatura.

- Euskal Filologia: Glotodidaktika II; Dialektologia; Euskal Literatura II; Testuen azterketa.

- Haur eskola: Hizkuntza II; Matematika; Filosofia; Adierazpen dinamikoa II.

- Zientziak: Biologia; Kimika; Matematika II eta Informatika.

Ikasturtearen iraupena: irailaren 15ean hasi eta ekainaren 30ean bukatu.

10.1. ESPEZIALITATEAK

Badakigu, 1978ko urtarrilaren 26an egin zela Bilboko Unibertsitatearekin bat egiteko adskripzioa lortzeko eskaera; otsailaren 14ean onartu zuen adskripzioa Gobernu Batzarrak, eta martxoaren 8an Errektore Kontseiluak. Maiatzaren 2an, berriz, Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak onartu zuen “la Escuela Universitaria no estatal del Profesorado de Educación General Básica en Escoriaza (Guipúzcoa), adscrita a la Universidad de Bilbao”. Ekainaren 8an, Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) argitaratu zenean, itxi zen prozesua.

Hala ere, ez pentsa espezialitate guztiak aldi berean martxan jarri zirenik. Progresio bat egon zen:

Taula, 9: Espezialitateen ezarpena eta bilakaera (1977-1981)

IKASTURTEA	ESPEZIALITATEAK
1977-1978	GIZARTE ZIENTZIAK
1978-1979	ESKOLAURREA
1980-1981	EUSKAL FILOLOGIA
1981-1982	ZIENTZIAK

Iturria: *Ikasketa Plangintzak. Irakaslego Eskola. HUHEZI Artxiboa, 1 eta 2 karpeta solteak.*

Berdin, desagertzeko orduan ere. Desagertu zen lehenengoa Giza Zientziak izan zen. 1989-1990 ikasturtean izan zen jakintza arlo horretako azken promozioa.

Bide batez, ondoren ikusi ahal izango diren taula eta grafikoaren arabera, hautemango dugu zein izan zen 1976 - 1977 ikasturtetik hasi eta 1984 - 1985 ikasturteraino ikasleriaren bilakaera, mailaka eta espezialitateka. Eta bertan gizarte zientzien nagusitasuna eta ondorengo gainbeherarekin batera, gainontzeko espezialitateen bilakaera egonkorragoa iragarri daiteke.


Taula, 10: Ikasleriaren bilakaera, mailaka eta espezialitateka (1976-1984)¹³¹

IKASTURTEA	MATRIKULATUTAKOAK GUZTIRA	MATRIKULAK: MAILA/IKASLE KOPURUA/ESPEZIALITATEA
1976-1977	39	1/39 (Komuna).
1977-1978	90	1/51 (Komuna). 2/39 (Giza Zientziak).
1978-1979	123	1/38 (Komuna). 2/46 (25 Giza Zientziak; 21 Eskolaurrea). 3/39 (Giza Zientziak).
1979-1980	137	1/59 (Komuna). 2/32 (22 Giza Zientziak; 10 Eskolaurrea). 3/46 (25 Giza Zientziak; 21 Eskolaurrea).
1980-1981	158	1/67 (Komuna). 2/60 (30, Giza Zientziak; 18 Eskolaurrea; 12 Filologia). 3/31 (21, Giza Zientziak; 10, Eskolaurrea).
1981-1982	200	1/70 (Komuna). 2/71 (12, Giza Zientziak; 22 Eskolaurrea; 23 Filologia eta 14 Natur Zientziak). 3/59 (30 Giza Zientziak; 18 Eskolaurrea; 11 Filologia).
1983-1984	219	1/75 (Komuna) 2/73 34. Giza Zientziak; 48 Eskolaurrea; 3/71 30 Filologia eta 32 Zientziak.
1984-1985	220	1/75 (Komuna) 2/75 32. Giza Zientziak; 40 Eskolaurrea; 3/70 38 Filologia eta 35 Zientziak.

Iturria: Junta Rectora. Errektore Kontseiluak. *Irakaslego Eskola*. HUHEZI *Artxiboa*. Egileak eginda. Oharra: Taula honetan ez dira sartzen Plangintza bereziko ikasleak.

131. (1) 1978-1979 ikasturteko memorian ikasleria Deba bailarakoa eta Goierri goi aldekoa (Legazpi, Urretxu, Zumarraga) zela batik bat adierazten da. (2)1980-1981ean, berriz, 161 ikasle dituela IE-k. (3). 1981-1982an, 140 pertsonak egin zuten sarrerako azterketa, eta 70 aukeratu zituzten. Hala ere, urte hartan ikasleen matriculazioan onik ez zekarren beste kezka bat hautematen da: selektibitatea. (4). Dударik ez dago espezialitateen ezarpen bakoitzak kostu ekonomiko bat zekarrela; Natur Zientzietakoa hainbeste atzeratzea horren ondorioa izan zen. 1980ko martxoaren 18an eginiko Errektore Kontseiluan erabaki zen 1981-1982 ikasturtean espezialitate hau ezartzea. Zenbatu ere egin zen zenbatekoa, 1.000.000 pezeta (500.000 pezeta altzariak eta gainontzekoa materiala erosteko). Hasteko, 15 bat ikaslek aukera zezaketela espezialitate hau ere adierazi zen. Iturria: Acta Junta Rectora, 18.03.1981. Irakaslego Eskola. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Errektore Kontseilua, B.3.1-3.5 dokumentua.

Grafikoa, 8: Irakasle osoa espezialitateka (1976-1985)



Iturria: Junta Rectora. Errektore Kontseiluak. *Irakaslego Eskola*. HUHEZI Artxiboa. Egileak eginda.

Irakasle izateko curriculumean eta horren arabera ikasketa plangintzan izandako beste aldaketa bat 1990ean onarutako LOGSE legea izan zen. Horren harira zeterren 1991eko abuztuaren 30eko Legea ere, non irakasle izateko arautegia, bai bere espezialitateetan zein ikasketa titulazio eta plangintzetan adieraziko zen. Hauexek izan ziren espezialitateak: Haur Hezkuntza; Lehen Hezkuntza; Atzerriko hizkuntza; Hezkuntza Fisikoa; Musika Hezkuntza; Hezkuntza Berezia eta Entzumena eta Mintzaira.

Denbora galtzeke ekin zion Irakasle Eskolak plangintza berria ezartzeko eskaerari. Ondoren, Euskal Herriko Unibertsitateari egin zitzaion eskaera aurkeztutako plangintza ontzat eman zezan. Hala, 1994ko otsailaren 14ean Haur hezkuntza, Lehen hezkuntza, Hezkuntza fisikoa, Atzerriko hizkuntza eta Musika hezkuntza emateko ikasketa plangintzak onartu zituen EHUk. Hezkuntza Berezian, zein Entzumena eta Mintzairan, berriz, erabakia atzeratu egin zen.

Eta gizartean atzerriko hizkuntzen garrantzia gero eta handiago zenez, Atzerriko Hizkuntza espezialitatea ezartzea erabaki zen. Haren ezarpenak gorabeherak sortu zituen Euskal Herriko Unibertsitatearekin; azken erabakia 1996an hartu zen.

Titulazio egokitzapen prozesu honetan, azpimarratu nahi dugu, Pello Aierbek (EHUko unibertsitatearen harremanetarako gure ordezkariak) eta Pello Ellakuriak (Donostiako Irakasle Eskolako zuzendariak) izandako jarrera proaktiboa. Izan ere, garai hartako testuinguruan, argi ikusten zen 90 hamarkadaren hasieran ikasleen matrikula kopurua nabarmen jaitsi zela Irakasle Eskola guztietan. Horrek, elkarren arteko mesfidantza eragin zuen.

1996-1997 ikasturtean, Hezkuntza Bereziak ikusi zuen argia, eta askoz beranduago, Entzumena eta Mintzairak. Azken hau, bigarren diplomatura bezala jarri zen abian 2003-2004 ikasturtean. Beraz, Musika hezkuntza eta Lehen hezkuntza ikasketak albo batera laga ziren (azken hau beranduago berrartu eta jarriko zen martxan. Alegia, 2009-2010 ikasturtean Irakasle Eskola-HUHEZIk ekin zionean Graduoko ikasketak Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokiturik ezartzeko prozesuari).

10.2. PRACTICUM

Arestian aipatutako pedagogiarekin bat eginez (hezkuntza komunitatea, heziketa integrala eta irakaskuntza bizia zein aktiboa sustatzea, gizarte-inguru hurbilari arreta jartzea...) bada beste zutabe garrantzitsu bat: Nerea Alzolak gertutik kudeatu zituen praktikak. Berak dioskun bezala¹³², "praktikak bat zetozen garai hartan Irakasle Eskolak bizi zuen berrikuntza eta dinamismoarekin". Horrela, eskolekin bat egin eta praktika saioak antolatu ziren ikasleen irakaskuntza teorikoari ikuspegi praktikoa emateko.

Hasieran buruhauste batzuk eman bazituen ere, 1977-1978 ikasturtean astean bi egunetan egiten ziren praktikak, lau hilabeteetan zehar; asteko gainerako egunetan ikasleak klaseetara etortzen ziren. 1978-1979 ikasturtean, ostera, urte luzez iraungo zuen aldaketa bat ezarri zen: Gabonak aurretik bi hilabete osoz praktikaldiak prestatu ziren. Hala, ikasturtearen hasieran, 2. eta 3. mailako ikasleak astebetetz etortzen ziren klasera praktikak prestatzeko. Aldi berean, ikasleak hamabostero etortzen ziren klasera hausnarketa bateratuak sustatu eta gai didaktikoak lantzeko.

Zenbait irakaslek tutore lanak egiten zituzten; ikastetxeetara joan eta bertako irakasleekin hitz egiten zuten. Lehen mailakoek, berriz, irakaskuntzari buruzko interesa handitzeko, astebeteko praktikak egiten zituzten.

1980 - 1981 ikasturtean, 3 astera luzatu ziren lehen urteko praktikaldiak; 2. eta 3. mailan, aldiz, bi hilabetetakoak (irailaren erditik azaroaren erdira) mantendu ziren¹³³.

1984-1985 ikasturtean ere aldaketa garrantzitsuak egin ziren: ikasleek irakasleak ordezkatu zituzten irakasleek Eskoriatzan birziklatze saioak jaso ahal izateko. Esperientzia berritzailea izan zen, oso. Apustu sendoa formazio iraunkorraren alde¹³⁴.

132. Nerea Alzolarekin elkarrizketa, 2014/03/20.

133. *Plan de gestión. Curso 1980-81*. HUHEZI *Artxiboa*, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.

134. Juanjo Otañok dioskun bezala, esperimentazio berri honetan oinarrituta, Teruelen 1987an irakasle eskolek ospatu zuten kongresuan komunikazio bat aurkezteko gai izan ziren. Ikusi: Otaño, Juanjo (1987). "El reciclaje del profesorado de E.G.B. Exposición de una experiencia". In, José Emilio Palomero Pescador (coord.) (1988). Seminario Estatal de Escuelas Universitarias de Magisterio. Revista Interuniversitaria del Profesorado, Teruel, 2, 161-166.
Beste iturri bat: <http://dialnet.unirioja.es/servlet/ejemplar?codigo=11360>.
Juanjo Otañorekin elkarrizketa, 2014/02/14.

Honekin guztiarekin batera, praktiketako talde bat ere osatu zen:

“ *Praktika garaian, tutoreok eskoletara joaten ginen urte gutxi batzuetan bertan Praktikak egiten zituzten ikasleak ‘in situ’ ikusteko. Beste pare bat urtetan honelako hau izan zen erabili genuen formula: ikasleek, praktikak burutzeko, urte osoan zehar astean egun oso batez ordezkatzeko zuten irakaslea gelan, bezperan elkartzen ziren gelaren martxaz hitz egiteko... Egun horretan, irakasleak Eskoriatzara etortzen ziren formazio iraunkorrean sakontzera. Bailarako ikuskariekin adostutako formula izan zen hau: Juan Aztiria eta Juana Lopez de Munain-ekin; asko lagundu ziguten. Horrela, praktika saioari salto kualitatiboa eman genion eta haien ardura talde baten esku utzi genuen; Nerea Alzolak eta beste bi irakasleek osatu zuten taldea: gauzak hobeto lotzen eta, aldi berean, dibertsifikatzen hasi ginen* ”¹³⁵

Beranduago, 1988-1989 ikasturtean, praktikak egiteko aukerak asko zabaldu ziren, eta gure ikasleek ahal zuten, hala nahi izanez gero, eskolaz gain heziketa bereziko zentroetan, euskaltegietan, ludoteketan, nagusien heziketa zentroetan, biblioteketan, museoetan, ‘Gizon’ proiektuan (proyecto hombre)... praktikak egiteko¹³⁶.

Praktikak egiteko beste bide batzuk ere jorratu ziren; nahiz eta ez ziren izan oso arrakastatsuak. Jesus Garmendiaren hitzak dira:

“ *Erabakia hartu genuen Praktikak beste modu batean egiteko. Alegia, ikasleak -talde bat behintzat- eskolara joan ordez, baratzea didaktikoki lantzeko proiektu bat egin behar zuten. Hasierak ziren; German han zegoen ordu-rako. Segur aski ez ginen jabetzen horrelako ekimenak zekarren azpiegitura beharrez, ezta ere behar zuen pres-takuntza teoriko eta pedagogikoaz, eta ondorioz, porrot*

135. Jesus Garmendiaren aparteko oroimen idatziak.

136. 1988-89 *Gestio Plana*. HUIHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Errektore Kontseilua, B.4.12tik-4.19ra dokumentua.

*hutsa izan zen. Gure ezjakintasuna eta eskarmentu falta,
zein ikasleen ausardia eta idealismoari esker, edozein lor-
pen ikusten zen eskuragarri (gogoratu, frankismo osteko
garaia zirela)* ”¹³⁷

Irakasle Eskolaren ikasketen plangintzan praktikek berebiziko garrantzia izan dute. Prestakuntza teorikoaz gain, ikastetxe edo erakunde batean beren-beregi sortzen diren egoerak behatu, aztertu eta esperimintatzeko zeregina ezinbestekoa da irakaslearen profila landu eta testuinguru desberdinak ulertzeko.

Praktikaldietako beste ito garrantzitsua, Hego Ameriketara hain zabaldurik dagoen “Fe y Alegria” izeneko herri hezkuntza eta gizarte sustapenerako mugimenduekin loturiko akordioa izan zen. Gure errealitatea ezagutzeko helburuarekin etorri zen Venezuelatik Eskoriatzara mugimendu horren buru zen Antonio Perez Esclarin “Pechin”. Horren bitartez lortu zen hirugarren mailako irakasle ikasketak egiten ari zirenek Hego Ameriketara (Venezuela eta Guatemala) praktikak egiteko aukera izatea.


Eta ez soilik Hego Ameriketara; beste herrialde batzuetara joateko aukera ere zabaldu zen. Kronikatxo hau horren lekuko:

- 2001-2002 ikasturtean, 12 ikasle joan ziren Hego Amerikara (10 Venezuelara eta 2 Guatemalara). Guztiek, joan behar ziren herrialdeetako gorabeherak ezagutu eta praktikei etekin handiagoa ateratzeko, aukera askeko ikasgai berezi bat (Garapenerako Lankidetzeta Programa) izan zuten lehenengo lauhilekoan.
- 2002-2003 ikasturtean, 15 ikasle Ertamerika eta Hego Amerikan egon ziren (7 Guatemalan, 4 Kuban, 3 Nikaraguan eta 1 Venezuelen). Esan behar da, ikasturte honetan San Diegora (AEB) ere joan zirela 3 ikasle lehendabiziko lauhilekoa bertan egitera.
- 2003-2004 ikasturtean, 23 ikasle izan ziren Hego Amerika eta Ertamerikan praktikak egin zituztenak (Nikaraguan, Kuban, Venezuelen, Txilen eta Guatemalan). Beste 3 ikaslek Europako herrialdeetan egin zituzten praktikak.
- 2004-2005 ikasturtean 2. mailako praktikak birmoldatu eta curriculumean sartu ziren. Ikasleen mugikortasunari zegokienez, lehenengo aldiz, lau ikasle Galesera joan ziren praktikak egitera; beste bi Ingalaterrara eta beste bat Irlandara. Mundukideren laguntzaz, garapen bidean dabilzan herrialdeetara zihoan ikasle kopurua gero eta ugariagoa zen, batez ere, Hego eta Erdialdeko Amerikara (Venezuela, Kuba, Guatemala, Nikaragua, Txile ...). Guztira, 19 ikasle joan ziren. Esan behar da, batera zein bestera joandako ikasleak, oso ondo balioetsita zeudela hango irakasleen aldetik. Esan ere, aurreko ikasturtean jarritako arautegiarekin bat eginez, 3. mailako guztiek proiektu bat egin behar izan zutela praktikan zeuden bitartean.

137. Jesus Garmendiaren aparteko oroimen idatziak.

- 2005-2006 ikasturtean erabaki zen, Hezkuntza Proiektuak izandako hausnarketa prozesuaren ondoren, Irakasle Ikasketetako praktiketan proiektuetan oinarritutako metodologia. Hainbat mintegi antolatu ziren ikasle eta tutoreen artean proiektuak garatu ahal izateko. Mintegiak praktikaldia baino lehen, bitartean eta ondoren egiten ziren. 12 proiektu gauzatu ziren Hego Amerikan (Nikaragua, Venezuela eta Guatemala), eta 1 Ingalaterran.
- 2006-2007 ikasturtean, 25 ikaslek egin zituzten praktikak atzerrian: Ingalaterran, Eskozian, Galesen, Irlandan eta Hego Amerikan.
- 2007-2008 ikasturtean 397 ikaslek egin zituzten praktikak atzerrian, aurreko ikasturtean baino 43 gehiagok, alegia. Atzerriko praktikei dagokionez, 3. mailako ikasleen %10ek egin zituen atzerrian (Ingalaterran eta Galesen); beste askok Hego Amerikan (Nikaraguan, Guatemalan eta Venezuelan).
- 2008-2009 ikasturtean 454 ikaslek egin zituzten praktikak irakasle ikasketetan; aurreko ikasturtean baino 57 ikasle gehiagok. Orduan ere kanpoko praktikaldia egin zuten ikasleen kopurua oso garrantzitsua izan zen. Atzerriko praktikei zegokionez, 3. mailako ikasleen %12k egin zituzten praktikak; bi multzotan banatuta, nagusiki: Alde batetik, Hego Ameriketara joan zirenak; (%59) Guatemalara, Venezuelara, Nikaraguara; bestetik, Europarako bidea hartu zutenak %41a; Gales eta Ingalaterrara.
- 2009-2010 ikasturtean 414 ikaslek egin zituzten praktikak irakasle ikasketetan; aurreko ikasturtean baino 43 ikasle gehiagok. 3. mailako ikasleen %20,8k atzerrian egin zituzten praktikak: Hego Ameriketara ikasleen %54,2; Guatemala, Venezuela, Nikaragua eta Ekuadorrerara. Europara gainerako ikasleak, %45,8; Irlanda, Gales, Ingalaterra eta Herbeheretara.
- 2012-2013 ikasturtean, 9 ikasle joan ziren praktikak egitera Europara (Gales, Irlanda eta Ingalaterra), eta 41 Latinoamerikara (Costa Rica, Dominikar Errepublikak, Kolonbia, Nikaragua, Venezuela, Argentina, Txile, AEB).
- 2013-2014 ikasturtean, berriz, Txile, Kolonbia, Argentina, Ekuador, Nikaragua, Guatemala, Mexiko, Dominikar Errepublikak, Britainia handia eta Galesen egon ziren 82 ikasle. Eta beste 25 Estatu Espainiarrean. Beraz, kopuruak goranzko joera nabarmena izan zuen, baita ondorengo ikasturteetan ere.
- 2014-2015 ikasturtean ere sendo garatu zen nazioartekotze-prozesua, eta 89 ikasle joan ziren atzerrira ikasketak edo curriculum-praktikak egitera. Horietatik 35ek seihileko bat egin zuten, Erasmus programaren bidez; 20k praktikak egin zituzte European, Erasmus programarekin ere, eta 34k Latinoamerikan. Estatu ikuspegiari erreparatuz gero, 43 ikasle joan dira praktikak egitera, batik bat, Andaluzia, Katalunia eta Kanariar Uharteetara.

Grafikoa, 9: Praktikak Latinoamerikan (2001-2014)



Iturria: [Nerea Agirre](#).

Hasieran, ikasleen hartzailleak gertuko ikastetxeak, publikoak zein itunpekoak (ikastolak eta kristau eskolak) baziren ere, urteak pasa ahala, eta batik bat Atzerriko Hizkuntza espezialitatea ezarri zenetik aurrera, gure ikasleen interes-gune bihurtu ziren kanpoko ikastetxe eta erakundeak.

Ikasleek praktikaldian garatu behar zuten proiektuaren ezaugarriak ere aldatuz joan ziren. Hasieran, 2. mailako praktiketako memoria egin behar izaten zuten, eta ondoren 3. mailan, proiektua bera garatzen zuten. 1999-2000 ikasturtean, esperientzia pilotua jarri zen martxan praktiketako proiektuak bultzatzeko. Oso emaitza onak eman zituenez, 2000-2001 ikasturtean 3. maila osoan proiektuak egitea erabaki zen.

11. TITULU-GABEKO IRAKASLEENTZAKO PLANGINTZA BEREZIAK

Irakasle Eskola sortu eta berehala iritsi zitzaion Eusko Jaurlaritzatik eskaera garrantzitsu bat: titulu-gabeko irakasleentzat zuzendutako plangintza bereziak antolatzea.

Hasieran, ikastoletan lanean ari ziren titulu-gabeko irakasleei zuzenduko plangintzak garatzeari ekin zitzaion. Ondoren, eskola publiko zein pribatuetan titulu gabe euskara ematen ari zirenei ere zabaldu zitzaien:

11.1. HASIERA

“*Hezkuntza Sailak eskatu zigun, Mari Carmen Alzuetaren bidez, programa berezi bat aurkezteko. Irakasle asko zegoen hezkuntza sisteman, emakume gazteak gehienak, Franco garaian ikastolan titulurik gabe lanean hasi zirenak, kasu askotan esperientzia izugarriaren jabe zirenak eta, orain, demokrazian, egoera irregularran aurkitzen zirenak. Behar zen haien egoera bereziari egokituko zen plangintza martxan jarri. Erronkari heldu genion*”¹³⁸

Irakasle Eskolaren eta Ikastolen arteko harremana ez zen arrotza. Ondo asko zekiten elkarren berri eta oso gertuko harremanak josi zituzten. Hain gertukoak, non 1977an Irakasle Eskolak ikastola-taldearen barnean integratzea eskatu zuen. Izan ere, nahiz eta ikastola ez izan, “irakasleen ikastola” bezala ere ulertzen zuen bere burua. Azken helburua, beraz, euskal maisu-maistra berriak formatzea zen, “eta horregatik Ikastolen Elkartean sartzea izan da

138. Jesus Garmendiaren aparteko oroimen idatziak.

beti gure nahia”¹³⁹. Ikastolen parte hartzea handia zen Irakasle Eskolaren aginte organoetan: Batzar Orokorrean; Ikastolen Elkarteak, Eskoriatzako Ikastolak eta Bailarako Ikastolek ordezkari bana zeukaten. Batzordean, berriz, bailarako ikastolen ordezkari bat zegoen. Are gehiago, Irakasle Eskolak Eusko Jaurlaritzaren babes eta aitortpena behar izan zuenean, Ikastolen Elkartek laguntza emango zuela esan zuen¹⁴⁰.

Sintonia eta harreman on horien emaitzetako bat, titulurik gabeko irakasleentzako plangintza bereziaren garapen bateratua izan zen. Arestian azpimarratu dugun legez, plangintzak ikastetxe publikoetan zein pribatuetan euskara ematen ari ziren titulurik gabeko irakasleekin sortutako arazoari konponbidea ematea zuen helburu¹⁴¹. Eusko Jaurlaritzaren izen programa honen sustatzailea; bertako buru zen Mari Carmen Alzuetak bultzatuta.

Horrela, 1978ko urriaren 19an, Donostian, plangintza hau martxan jartzeko lehendabiziko urratsa eman zen: Euskal Herriko Unibertsitateko Errektoreak (Ramon Maria Mateo), Eusko Kontseilu Orokorreko kontseilariak (Carlos Santamaria), Bergarako UNEDeko zuzendariak (Jesus Arpal) eta Irakasle Eskolako zuzendaria (Felix Ormaetxea) zenak “Plan de acceso de profesores euskaldunes en ejercicio en Ikastolas, a su titulación académica” egitasmoa onartu zuten. Helburu orokorrak, plangintzak adierazten duen bezala: “establecer un sistema de estudio que capacite para la obtención del título de profesor de E.G.B. y preescolar al personal docente no titulado de las Ikastolas, y a los profesores de euskara de los centros privados y estatales”¹⁴².

Beraz, Bilboko Unibertsitateak babestutako plangintza zen. Arduradun akademikoa, ordea, Irakasle Eskola zen; antolaketa eta kudeaketa Bergarako UNEDekin partekatzen zuen. Klaseak, hasieran, UNEDen ematen ziren; Bergarak kokapena egokia zuen egiteko horretarako. Ondoren, Eskoriatzan eta Iruñean ere gauzatu zen programa hau. Plangintza honetan buru belarri aritu zen gure irakaslea Fernando Etxeberria izan zen; UNED eta Irakasle Eskolaren arteko zubi lanak egin zituen.

1980 inguruan, plangintza honetan murgildurik zeuden erakundeek, titulu gabe zeuden 461 irakasleen egoera zertan zen diagnostikatzeko erabakia hartu zuten.

1981etik aurrera 25 urtetik gorako irakasleek ere karrera egin ahaliko zuten; Euskal Herriko Unibertsitateak egingo zien sarrera-azterketa espezifikoa.

139. *Aurkezpen txostena. Gipuzkoako Ikastolen Federakuntzari zuzendua* dokumentua. 1979ko maiatzaren 19an egin zen eskaera ofiziala, Irakasle eskolako zuzendari Jesus Garmendia zelarik. Dena dela, erantzunik ez eta, 1980ko azaroan ere berriro egiten da eskaera. HEZIBIDE *Artxi*boa, 1-04 karpeta.

140. *Irakasle Eskolaren Batzar Orokorra, 1980. 12. 17. Irakaslego Eskola*. HUHEZI *Artxi*boa, Antolakuntza, Errektore Kontseilua, B.3.1-3.5 dokumentua.

141. Hiru baldintza eskatu zitzaizkien irakasleei ikasketa hauek hasteko: plangintza hasi aurretik bi urtez gutxien ikastetxe batean lanean egotea, COU edo unibertsitateko sarrera eginda izatea eta Euskaltzaindiaren “D” titulua edo antzerakoren bat izatea.

142. *Plan de acceso de profesores euskaldunes en ejercicio en ikastolas, a su titulación académica. Octubre de 1978* dokumentua. HEZIBIDE *Artxi*boa, 1-04 karpeta.

11.2. IKASKETA PLANGINTZA ETA FASEAK

Aldi berean, programa honen jarraipenerako batzorde bat, edo kudeaketa kontseilu bat antolatu zen. Bertan, honako hauek parte hartu zuten: Eusko Kontseilu Orokorretik Mari Carmen Alzueta; Juanjo Otaño eta Jesus Garmendia Irakasle Eskolatik; Fernando Etxeberria (UNEDen eta Irakasle Eskolan irakasle) eta Iñaki Dendaluze UNEDetik, eta Ikastolen Elkartetik eta Irakasle Elkartetatik beste hainbat ordezkari. Programa honen koordinatzaile sutsu izan zen Fernando Etxeberria.

Plangintza berezi honetan hiru fase bereizten dira: Bergarako fasea, Eskoriatzako fasea eta Nafarroako taldea.

11.2.1. BERGARAKO PLANGINTZA

Bost urteko plangintza izan zen; hiru belaunaldiko irakasleei eskainitakoa; hots, 1978-1979 ikasturtean hasi eta 1980-1981 ikasturtean bukatuko zen lehen mailan matrikulatzeko garaia. Lehen promozioa, beraz, bi urte egin ondoren irtengo zen, 1980-1981ean, hain zuzen ere.

Saioak, guztira, 400 ordukoak ziren: 280 presentzialak, astero bi gau, eta egun bakoitzean lau klase ordu. Gainerako 120 orduak ikastaro bidez emango ziren. Oinarritzko lau materia izan zituzten: pedagogia, psikologia, lengoaia eta matematikak. Eta honako materiak ikastaro berezietan: plastika eta dinamika, soziologia, euskara, euskal geografia eta euskal historia eta abar. Zera diosku honen inguruan Juanjo Otañok:

“ *Esan behar da lehenengo urtea ‘konbalidatzen’ zitzaiela. Beraz, bi urteetan egiten zituzten bai espezialitateko ikasgaiak, hiru espezialitateetan: eskolaurrea, euskal filologia edo gizarte zientziak, zein ikasgai komunak. Astean bi egunetan etortzen ziren klasera; asteartea eta osteguna, edo ostirala eta larunbata; 18:00etatik 21:00 edo 21:30etara. Uztailean ere zenbait ikasgai ematen zituzten, ikastaro trinko moduan* ”¹⁴³

143. Juanjo Otañoren elkarrizketa, 2014/10/13.

Hona hemen, eskuratutako tituluak zenbakitan:

Taula, 11: Titulu-gabekoen Bergarako Plangintza Berezia. Bukatutakoak (1980-1984)

IKASTURTEA	BUKATUTAKOAK
1980-1981	154 (*)
1981-1982	74
1982-1983	174
1983-1984	67
1984-1985	2

Iturria: Idazkaritza akademikoa: Marisa Pagonabarraga. Egileak egina.

(*) (Giputzak eta bizkaitarrak ikasle gehienak, baina baita zazpi nafar eta bi lapurtar ere)

Honen inguruko xehetasunak emateko, Fernando Etxeberriak, plangintza koordinatzaileak, lehenengo promozioa kaleratzeaz zegoenean emandako iritzia jasoko dugu:

“ Benetako motibazio eta guztizko erantzun positiboa ikusi dut, eta esperientzia oso aberatsa izan da bertan parte hartu dugun irakasleentzat. Ikasleen egoera pertsonala eta egin duten lana balioetsi behar dugu, eta 154 irakasle berri hauek (lehendabiziko promozioek) ez dute inolako konplexurik eduki behar beste edozein ikastetxetako irakasleen aurrean, bai gai aldetik eta bai gaien sakontasunaren aldetik haiek bezain jantziak daudelako ”¹⁴⁴

11.2.2. ESKORIATZAKO PLANGINTZA

Eskoriatzako plangintza, 1985-1986 ikasturtean (plangintza berezi honetako azkenetako promozioa) 122 ikasleekin hasi zen; asteen bi arratsaldetan etortzen ziren. Hemen 320 ordu-klase bete behar zituzten. Hona hemen ikasturteak eta matrikulatutako ikasle kopurua:

144. DEIA, viernes, 19 de junio de 1981

Taula, 12: Titulu-gabekoen Eskoriatzako Plangintza Berezia eta Matrikulak (1985-1986 eta 1986-1987)

IKASTURTEA	BUKATUTAKOAK
1985-1986	122
1986-1987	44

Iturria: Idazkaritza akademikoa: Marisa Pagonabarraga. Egileak egina.

11.2.3. NAFARROAKO PLANGINTZA

Nafarroara ere iritsi zen egitasmo nahi hau (1985-1986 ikasturtean), bertan ere ikastoletako 46 irakasle zeuden titulurik gabe¹⁴⁵. Hauek ez ziren sartzen Eusko Jaurlaritzaren programan, eta Nafarroako Ikastolen Elkarreak eskatu egin zuen plangintza bat martxan jartzea idazkaria lanetan zebilen Juan Luis Larrazaren bidez. Jesus Garmendiak horrela gogoratzen du egitasmo hura:

“ Eskoriatzara, ekainean eta irailean, eta baita Aste Santu inguruan ere etortzen ziren Nafarroa osotik, eta saio intentsiboak egiten genituen. Gainerako klaseak Iruñean ostiraletan (18:00etatik 21:00/21:30etara) eta larunbatetan (9:00etatik 12:00/12:30etara) ematen ziren. Noizean behin ikastaro trinkoak ere bai. Tarteka lanak egiten zituzten. Hala, Eskoriatzako irakasleok joaten ginen Iruñera, Federazioaren egoitzara, klaseak eman eta lan horien jarraipena egitera. Talde maitagarria zen, oso motibatua. Uste dut lan oso ona egin genuela hauekin ere, eta benetan eskertu zigutela ”¹⁴⁶

46 ikaslek eman zuten izena. Eskoriatzan euskal geografia, hizkuntza eta pedagogia jasoko zuten; eta Iruñean, berriz, matematika eta psikologia ikasturte osoko sekuentzian, eta ikastaro trinkoetan ikus-entzunezkoak, plastika eta psikomotrizitatea. Gutxi gorabehera, 320 klase ordu. Iruñeko plangintzako ikasleek 1988an bukatu zituzten bere irakasle ikasketak. Berrogei bat ikaslek lortu zuten titulua.

145. Plan de gestión. Curso 1982-83. Irakaslego Eskola. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.

146. Jesus Garmendiaren aparteko oroimen idatziak.

11.3. EMAITZAK

Faseak fase, plangintza hauen bidez irakasle askok lortu zuen ondo formatu eta lan egoera erregularizatzea. Aldi berean, interesgarria izan zen Irakasle Eskolaren zeregina Euskal Herritik kanpo zabaltzeko.

Rosa Sensat-ekoei oso aproposa iruditu zitzairen Eusko Jaurlaritzarekin batera martxan jarri zen irakasle programa berezi hau, eta aurrez-aurre ezagutu nahi izan zuten esperientzia. Jesus Garmendiaren hitzak dira:

“ Rosa Sensat-ekoek (Irene Balaguer, Marta Mata ...) deitutako bilera zabal batean egon ginen Juanjo, Nerea eta neu Bartzelonako unibertsitateetako hainbat ordezkariekin. Jendeak interes handiz entzun gintuen eta, oso oker ez banago, antzeko planen bat martxan jarri ere egin zuten ondoren. Bileran, gogoan dut, inon falta ez diren irakasle batek bota zuen galdera: ¿Y cuál es el porcentaje de suspensos en ese programa? ”¹⁴⁷

Juanjo Otañok ere programa honi buruzko iritzia ona du; Katalunian bertan ere “para sus trabajadores de Escuelas Infantiles”¹⁴⁸ erabili zen eredu hau. Beraz, Rosa Sensat erakundeari emandako informazioari esker, onarpena eta legitimitate handiagoa lortu zuen plangintzak.

Bitxikeria bezala aipatu behar da 1985eko abenduan Murtzian Haur Eskolen inguruan ospatutako kongresuan aurkeztu zela plangintza honen txosten bat; ondoren, artikulu pare bat ere idatzi ziren.

Ezin dugu atal hau bukatu Jabier Retegik adierazitako oroitzapen batzuk azpimarratu barik. Harro gogoratzen du Retegik gai honetan Irakasle Eskolak bete zuen funtzioa:

“ Irakasle Eskola bat bailaran izateak atxikimendua izan zuen, izan ere ikastolak sekulako indarra hartzen ari ziren. Ni neuk une hartan Arrasateko ikastolarekin egin nuen bost urteko plangintza bat eta orduan, jadanik, hautematen zen irakasle euskaldunen beharra. Hau alde

147. Jesusen aparteko oroimen idatziak.

148. ALZOLA N., OTAÑO J. (1986): “Educar de 0 a 6 anys. La formació dels mestres sense títol”. Infància 29, març-abril 1986. Eta ALZOLA N., OTAÑO J. (1991): “La formación de maestros sin título”. Infancia, nº 7, mayo-junio 1991.

batetik. Baina bestetik, bailaran oreka lortzeko, teknologia eta enpresagintzatik bereiz, humanitateekin loturiko arloa ere behar genuen. Jendeak oso ondo hartu zuen, baita Hezibidetik ere. Gainera, nabarmena zen irakasle asko titulu gabe zebilela eta horri irteera bat eman behar zitzaiola, Bergarako UNEDen bezala. Ni orduan Eusko Jaurlaritzan nengoen, Hezkuntza sailburu ordea nintzen¹⁴⁹, eta Mari Karmen Alzuetarekin prestatu genuen plangintza, Irakasle Eskolan oinarrituta. Berak zuzendu zuen proiektua. Paper ikaragarria jokatu zuen orduan Irakasle Eskolak irakasle havei guztiei titulua lortzeko saioak eskaintzen. Arazo handia konpondu zuen orduan Irakasle Eskolak. Izan ere, ikastolak ofizial bihurtu eta laguntzak jasotzeko, ezinbestekoa zen langile hauek titulua izatea eskolak eman ahal izateko ”¹⁵⁰

149. 1979tik 1982ra bitartean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuordea izan zen, eta gogotsu parte hartu zuen eskumenak eskualdatzeko negoziazioetan, zein euskal hezkuntza-administrazioa abian jartzeko eginkizunetan.

150. Jabier Retegirekin elkarrizketa, 2013/01/28.

12. IRAKASLEAK BIRZIKLATU: EGOKITZEKO IKASTAROAK (‘IRAPREST’ ETA ‘GARATU’ PROGRAMAK)

Ikastetxe publikoan diharduten irakasleen kalitatezko prestakuntza lortzeko zeregina Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari dagokio, eta horretarako hainbat plangintza diseinatu eta garatu ditu.

Hala, prestakuntza-proposamenak egiten ditu, bai unibertsitateaz kanpo irakasleen lan-gaitasuna hobetzeko (eta hezkuntza-sistema berarena ere), bai irakasleek beren lanean sumatzen dituzten beharren eta egiten dituzten eskaeren araberrako prestakuntza etengabea emateko.

Unibertsitateaz kanpoko irakasleak prestatzeko jarduerak aurrera eramateko, beraz, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailak beste erakunde batzuen laguntza izan du, besteak beste, Eskoriatzako Irakasle Eskolarena. Irakasleentzako formazio beharrak, ‘IRAPREST’ eta ‘GARATU’ programen bidez kaleratzen ziren.

Inguruko beharrei erantzuteko zereginean, irakasle eskola baten funtzioa ez da soilik hasierako formazioa eskaintzea; formazio iraunkorra sustatzea ere egiteko garrantzitsua da. Hortik dator, beraz, aipatu dugun erakundeen arteko sintonia.

Hasiera hartan, Hezkuntza Saila eta Irakasle Eskolaren arteko elkar mendeotasuna edo beharra handia zenez, 1984ean, Irakasle Eskolak kolaboraziorako hitzarmen bat sinatu zuen Hezkuntza Antolamenduaren arduraduna zen Patxi Plazaolarekin. Harreman hau urteetan zehar garatuko zen; “eta Irakasle Eskolak positibotzat jotzen du irakasleriaren birziklatzeko sortzen ari zen dinamika berria”¹⁵¹. Beraz, orain arte esandako guztiak, garai hartako irakasleriak adierazitako grina eta espektatiba berriei aurre egiteko gaitasunaren adierazle dira.

Formazio iraunkorra Irakasle Eskolaren aktibitate eta aurrekontu ekonomikoaren barnean kapitulu garrantzitsua da, lehen eta baita orain ere. Horrela, Erakundearen sostengu ekonomikorako oso diru iturri inportantea zen Hezkuntza Sailatik zetorrena; kontuan izan behar da, ondorengo hamarkadan (1987-1997) izandako matrikula jaitsiera nabarmena izan zela:

¹⁵¹. Irakasle goaren Erreziklaiarako PROIEKTUAK. HEZIBIDE Artxiboa, 1-05 karpeta.

Taula, 13: Irakasleen prestakuntzarako plangintza (‘Iraprest’ eta ‘Garatu’ programak): 1983-2004

URTEA/IKASTURTEA	DIRU KOPURUA	URTEA/IKASTURTEA	DIRU KOPURUA
1983	616.000 pezeta	1994-1995	17.520.000 pezeta
1984	3.964.765 pezeta	1995-1996	48.603.000 pezeta
1985	4.100.000 pezeta	1996-1997	26.342.000 pezeta
1986-1987	10.050.438 pezeta	1997-1998	16.036.000 pezeta
1987-1988	15.214.842 pezeta	1998-1999	16.356.000 pezeta
1988-1989	18.793.518 pezeta	1999-2000	17.546.000 pezeta
1989-1990	21.167.205 pezeta	2000-2001	4.200.000 pezeta
1990-1991	Ez dago daturik	2001-2002	18.030,36 euro
1991-1992	52.590.000 pezeta	2002-2003	20.000 euro
1992-1993	22.200.850 pezeta	2003-2004	48.110 euro
1993-1994	13.868.000 pezeta	2004-2005	141.317,68 euro

Iturria: “GARATU” karpeta soltea. *Irakasle Eskola*. HUHEZI Artxiboa. Egileak egina.

Oso garrantzitsua izan zen Irakasle Eskolak 1983-1984 ikasturtean jasotako izendapena; zonaldeko baliabideen zentro izendatu zuen Eusko Jaurlaritzak. Garrantzitsua berritzailea izan zelako, eta eragina izan zuelako ikastetxeetako irakasleengan; baita Irakasle Eskolako irakasle eta ikasleengan ere. Ez zen hutsetik sortutako hitzarmena izan, 1982-1983 ikasturtean egindako gestio-planaren heziketa iraunkorraren egitasmoarekin bat egiten baitzuen.

1984-1985 ikasturtean proiektua garatzen joan zen, eta eskualdeko ikastetxeek eskatuta lau proiektu bideratu ziren: (1) “B” Ereduan, haur-eskola eta hasierako zikloari begira euskararen didaktika; (2) erdiko zikloan, antolaketa eta metodologia; (3) goi zikloan, zientzia naturalen didaktika eta (4) erdi ziklora begira, euskararen hobekuntza eta bere didaktika. Esan beharra dago, hala ere, formakuntza saio hauek Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko ICEtik hartutako eredutik egokitu zirela. Arrakasta handia izan zuten ekintzek; Debagoieneko 76 ikaslek hartu zuten parte saio hauetan. Ezinbestekoa zen programa hauetan ikasleek parte hartzea, izan ere, practicumaren bidez irakasleen ordezkioak egiten zituzten, eta azken hauek urte osoko formakuntza saioak jasotzen zuten.

Hezkuntza saileko hezkuntza antolamendurako arduraduna zen Patxi Plazaolak zioen bezala “irakasle banakako birziklatze kontzeptua gaindituz, orain, ikastetxeen protagonismoa bultzatzean datza gakoa”¹⁵².

Zalantza barik, aukera berriak zabaltzen ari zitzaizkion Irakasle Eskolari bere 10 urtemugan (1986), besteak beste: kontsumoa, informatika (‘teknologia berriak’), ikus-entzunezkoak, eta gero eta gehiago zabaltzen ari zen animazio soziokulturala izan ziren birziklatze saio “emergente” berriak.

152. *Irakaslearen erreziklariarako bide berriak urratzen. 1984-85 eta Plan de gestión. Curso 1987-88. Irakasle Eskola*. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.

1985-1986 ikasturtean, adibidez, orain arte landu gabeko arlo bati heldu zitzaion: Kontsumoa. Lehendabiziko ekarpenak Hondarribian eta Donostian "kontsumoa interesgune eskolan" jardunaldietan gauzatu ziren. Jardunaldi hauek Eusko Jaurlaritzaren kontsumo zuzendaritzak babestu zituen¹⁵³.

Hurrengo ikasturtean (1986-1987) gero eta indar handiagoz sartzen ari zen informatika arloari heldu zitzaion¹⁵⁴.

Ikasturte berean, ikastetxeak kudeatzeko mintegia sortu zen, bertan, bailarako 30 ikastetxeko zuzendari eta koordinatzailek hartu zuten parte.

Ikus dezagun zenbat irakasle eta ikastetxe zeuden birziklatze saio hauetan; honatx bi ikasturteetako kopuruak:

Taulara, 14: Irakasleen birziklatzea (1984-1985 eta 1986-1987)

IKASTURTEA	IRAKASLE KOPURUA	IKASTETXEAK
1984-1985	78	Bailarako ikastetxe eta ikastoleako irakasleak
1986-1987	182	-104: Publikoak. -62: Ikastolak. -16: Pribatuak.

Iturria: *Irakaslegoaren Erreziklirako Proiektuak, 1984-1985 eta Plan de gestión. Curso 1987-88. Irakasle Eskola. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra. Egileak egina.*

Finean, "la inserción en el entorno, el servicio a las necesidades educativas del Valle"¹⁵⁵ filosofia bere baitan biltzen zuen erakundeak derrigorrean eskaini behar zituen formazio iraunkorarekin loturiko mintegi eta saioak. Horrela, urte osoan zehar, hiru helburu hauei begirako mintegiak diseinatu eta eskaini ziren: 1) Maisu-maistrak bere lanean gaurkotu. 2) Gure irakaskuntzari lotuta, eskolako benetako arazoetara hurbildu. 3) Irakasleak trebatu arazo hauek gainditzeko¹⁵⁶.

Aldi berean, ezin uka daiteke, formazio iraunkorra diru iturri ona izan zela. Adibide bat: 1987-1988 ikasturtea aintzat hartuta, irakaslearen arduraldiaren eta aurrekontuaren baitan, formakuntzari begirako atala ia herena izan zen.

Baina zertan oinarritzen ziren mintegiak, saioak?

153. *Plan de gestión. Curso 1985-86. Irakasle Eskola. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.*

154. *Plan de gestión. Curso 1986-87. eta Curso 1987-88. Irakasle Eskola. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.*

155. *Curso 1986-87. Memoria de actividades. Plan de gestión. Curso 1987-88. Irakasle Eskola. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.*

156. *Plan de gestión. Curso 1982-83. Irakasle Eskola. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.*

1987-1988 ikasturterako egindako aurreikuspenetan, Irakasle Eskolan hiruzpalau arlo hartu ziren formakuntzarako ardatz: 1) Hizkuntzaren didaktika. 2) Dokumentazio zentroa. 3) Teknologia berriak (ikusi-entzuneakoak eta informatika). 4) Kontsumoa. 5) Liburutegien animazioa.

Zertxobait aurrerago Jesus Garmendia zuzendariak, 1991eko urtarrilean ospatu zen Batzar Nagusian, 1989-1990 ikasturteari buruzko zuzendaritzak egindako txostena aurkeztu zuen. Zera adierazi zuen Irakasle Eskolak une hartan bizi zuen egoera dinamiko eta aldakorraz:

“ *Lehen ikasleak eskolatze hutsetik bizi baginen ere, orain zerbitzu eskaintzetik jasotzen dugu sarrera ekonomikorik garrantzitsuena. Honek esan nahi du enpresa egituretan sartuta gaudela, nahiz eta arlo honetan oso trebeak ez izan* ”¹⁵⁷

Beraz, esparru hori, Irakasle Eskolaren bizi iraupenerako bizkarrezurra izan zen.

Hala ere, irakasleen formakuntzarako garaiak oso gorabeheratsuak izan ziren, 1994-1995 ikasturtea horren lekuko. Jasandako makalaldien arrazoiak honako hauek izan zitezkeen: Irakasle Eskolaren (1) kokapen geografiko deserosoa; (2) izaera pribatua; (3) Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politika ahula (murrizketa garaia zen); (4) erreformaren aplikazioa (Teknologia baztertu zen).

Egoera horri aurre egiteko bide-orri berri bat diseinatzea erabaki zen. Lau ildo jarri ziren martxan zegoen egoera ezegonkorrari aurre hartzeko: (1) eskaintza formalizatu, eta, ondoren, katalogo eran aurkeztu Hezkuntza sailean; (2) ezagutza atalak argitara eman, gehienbat aldizkari artikulua erabiliz; (3) eskaintza eremu berriak arakatu eta Federazioa, FERE, Hezibide, Hetel... bezalako erakundeei eskaini; arduradun bat ere izendatu zen gai hauetaz arduratzeko.

Hala, hizkuntzekin loturiko ikastaroak garrantzitsuak baziren ere, gero eta ugariagoak ziren bestelako formakuntza esparruak: zientzia eta gizarte zientzien didaktika, teknologia, proiektu globalizatuak, irakasleen egokitasuna, 'PIF' programaren baitan ikastetxeekin izandako aholkularitza, antzerkia, bertsolaritza gaiak, habilitazio ikastaroak, prentsaren erabilera, zuzendaritza taldeen formazioa... eta baita beste gai emergentei loturikoak: kontsumoa, ikus-entzunezkoa, ordenagailua, teknologia...

157. 1991eko urtarrilaren 31eko Batzar Nagusiaren Akta. Irakasle Eskola. HUHEZI Artxiboa (saikatu gabe).

12.1. HIZKUNTZEN DIDAKTIKARI BURUZKOAK

Beraz, Irakasle Eskolatik eskainitako ikastaroak, mintegiak edo saioak denetarik izan baziren ere, hizkuntzaren gaiarekin loturikoak izan ziren ugarietak: ziklo desberdinetan “B” eta “D” ereduaren ezarpena, atzerriko hizkuntza, ikas-etapei loturiko hizkuntzen normalizazio eta erabilera, ‘Murgiltze’ ereduak, ahozko eta idatzizko testuen ulermena ...

80 hamarkadan irakasleei zuzendutako ikastaroen helburua, batik bat, “B” ereduak Eskolaurtean eta Hasiera Zikloan, Erdi zein Goi Zikloan zelan garatu ondo ezagutzea zen. Adibidez, 1988-1989 ikasturtean hiru proiektu zeuden martxan: 1) 1987-1988 ikasturtean hasitakoari jarraipena emanez, irakurketa-idazketa Haur Eskola eta Hasiera Zikloan; 19 ikasle hartu zuten parte. 2) “B” ereduak Erdi Zikloan; 1987-1988 ikasturtean hasitako 17 ikasle hartu zuten parte. 3) “B” ereduak Goi Zikloan; bi arlotan banatu zen: euskararen programazioa eta didaktika (euskara, giza zientziak eta zientziak); 21 irakasle hartu zuten parte. Garai haietan, Irakasle Eskolaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremana estua zen. Eta harreman horretatik egindako proiekturik mardulena Goi Ziklorako “B” ereduaren programazioa egitea izan zen¹⁵⁸.

Hizkuntzen didaktikaren birziklatzeari dagokionean, aipagarria da Mariam Bilbatuak eta Matilde Sainzek Debagoienean garatutako eredu elebidunaren inguruko hausnarketa. 1989an “Murgiltze planaren esperimentazioa Haur Eskolan eta Hasiera Zikloan” mintegian plazaratu zen. Mintegian irakasle askok hartu zuten parte, izan ere, bailarako ikastetxe publiko zein ikastoletako irakasleak egon ziren.

Horrela gogoratzen du une hura Mariam Bilbatuak:

“ Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak hizkuntza ereduak ezarri zituenean (Hizkuntza ereduak legez 1983-1984 ikasturtean ezarri ziren) bazegoen Administrazioan nahiz ikastetxeetan elebitasunean oinarritutako ikaskuntza ondo bideratzeko kezka. Horretarako, irakasleen prestakuntza errazte aldera, formazio saioak jarri ziren martxan administrazioetik. Nahikoa ordukoak izan ziren (200 ordukoak). Bailarako ikastetxeek ere parte hartu zuten, eta eurekin sare bat antolatu genuen. Oso saio praktikoak izan ziren; ikastetxeetako arazoetatik abiatzen ginen. Guretzat, Irakasle Eskolarentzat, gaur egunera arte iraun duen bide berria zabaldu zuen. Bertatik oso material interesgarria sortu zen, ondoren ‘Esaizu’-n gauzatu zen. Talde sendo bat osatu genuen ”¹⁵⁹

158. Gestio Plana, 1988-89. Irakasle Eskola. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.12tik B.4.119ra.

159. Mariam Bilbatuarekin elkarrizketa, 2014/02/14.

Ideia hau sendotzeko, Matildek esan diguna aipatuko dugu:

“*Mariam eta biok lan handia egin genuen, batez ere irakaslearen formazioan. Garai hartarako puntako gauzak egiten genituela iruditzen zait. Bartzelonara joaten ginen Ignasi Vilarekin egotera, eta ondoren haur hezkuntzara zuzendutako saioak antolatzen genituen. Une hartan gaur ahaztuta dugun estrategia bat erabiltzen genuen: aditu oso onak ekartzen genituen ikastaroak ematera, baina aldi berean, geu ere formatu eta ondoren geuk antolatutako saioetan aplikatzen genuen. Ignasi Vilari eskerrak emateko motibo asko dauzkagu*”¹⁶⁰

1997an, mintegietan sortutako materialari esker, Lehen Hezkuntza osoari zuzendutako curriculum materialak argitaratu ziren. Behin mintegietako saioak bukatuta, 1998an, alegia, ikastetxeetan zentratu zen egiteko nagusia. Prozesu honen inguruan eta garai hartako ekintzei buruz, zera adierazi digu Matildek:

“*1995-1996 ikasturtean, Eusko Jaurlaritzaren laguntzari esker, Deba Goienerako eskola guztiekin mintegiak egin ziren HUHEZIn; hizkuntza eta Ingurunearen didaktika uztartzeko sortu berria zen ‘Murgiltze’ eremuan oinarritu ziren. Orduko irakasleek eskolan frogatzen zituzten material didaktikoak eta mintegira proposamen berriak ekartzen zituzten. Orduan sortutako material didaktikoak geroko testu liburuen sorburu izango ziren. Alegia, Lehen Hezkuntzarako, ‘Anaya-Haritza’ eta Bigarren Hezkuntzarako, ‘Esaizu’. Material didaktikoa sortzea izan zen, hortaz, prozesu horren emaitzetako bat, finean, formazio-programetan sortutako materialen azterketa: formazio prozesua bera edo bertan sortutako corpusak ziren nagusi (ikasleek zein irakasleek egiten zutena aztertze, irakasleekin egindako autokonfrontazio saioak aztertu eta hobetzeko...). Ondoren, ikerketa horren emaitzak ikertzaileok egindako artikulua eta tesien*

160. Matilde Sainzekin elkarrizketa, 2014/03/13.

bidez bideratu ziren, eta garrantzitsua da egiletza partekatzen zela aipatzea: balio erantsia da formazioa jaso dutenek ere esperientzia horren zabalkundearen parte hartzea, artikulua idatzi, jardunaldietan parte hartu edo hasierako formazioan formatzaile bihurtzea ”¹⁶¹

Formazio saio hauetan parte hartzen zutenen profilarik dagokionean, hezkuntza sistema bere zentzu orokorrean ulertuta, esan daiteke eskolaz gain hezkuntza sistemaren hornitzaile guztiak hartzen zirela aintzat:

a) Hezkuntza-erakundeak: eskolak, nagusiki; publikoak eta itunpekoak.

b) Hezkuntza eremuan parte hartzen zuten beste zenbait erakunde: Partaide, Kristau Eskola, Berritzeguneak, EAEko Eskola Publikoa, Sortzen-Ikasbatua, Nafarroako Gobernuko Euskara Zerbitzua, Eusko Jaurlaritzako Euskara Zerbitzua (IRALEko formatzaileak...), Euskararako Kontseilua, Soziolinguistika Klusterra, HIK HASI aldizkaria, Eusko Ikaskuntzako hezkuntza mintegia, argitaletxeak, sindikatuen hezkuntza saila, eta abar.

Beraz, esan genezake, urte asko daramala Irakasle Eskolak hizkuntzaren didaktikan etengabeko formazioa eskaintzen: idatzizko eta ahozko testu-generoen ulermena eta ekoizpena, edukien bidezko euskararen ikaskuntza, hizkuntzen curriculum bateratua, hizkuntzaren didaktika marko eleaniztunean, sekuentzia didaktikoa hizkuntza ikasteko lanabesa, gela barruko elkarrekintza, hizkuntza irakasleen formazio gogoetatsua.... Eta azken urteotan, besteak beste, debate sozio-zientifikoa LHko 6. mailan.

12.1.1. `ESAIZU` IKAS-METODOTIK ARGITALPENETARA

Arestian aipatu dugu irakasleei eskainitako mintegietan materialak sortu eta frogatu egiten zirela, eta horren ondorioz liburuak ere egin zirela.

Jesus Garmendiak¹⁶² zera diosku gai honi buruz:

161. *Etengabeko Prestakuntza: Begirada bat HUHEZitik dokumentutik jasoa. Irakasle Eskola. HUHEZI Artxiboa. Dokumentu soltea.*

162. Jesusen oroitzapen karpeta soltetik.

“ Garai hartako Irakasle Eskolaren beste une interesgarri bat, Eusko Jaurlaritzan ezarri ziren hizkuntza ereduak martxan jartzeko ardura zuen Antton Kaifer-ek egindakoa izan zen. Eskatu zigun DBHarekin lotuta, B eredurako euskara ikasteko materiala sortu beharra zegoela. Ordurako ondo ezagutzen genuen Jean Paul Bronckart. Beronek oso ikuspegi interesgarria zuen. Izan ere, frantsesaren didaktikaren inguruko sinposium batera joateko gonbita heldu zitzaigun; han esango zena euskara arlorako lagungarri gerta zekigukeelakoan, bertara joatea erabaki nuen. Aste bat izan zen, eta bertan, Bronckarten maisutzapean, linguistika testuala izan zen gai izarra. Zenbait eskola liburu eta liburu teoriko ekarri nituen neurekin eta hauek aztertzen hasi nintzen Eskolako beste zenbait irakasleekin batera; Matilde Hizkuntzaren Didaktikako irakaslearekin, batez ere... Laster eskatu zitzaigun Hezkuntza Sailetik ESOko B eredu koentzat euskara erakusteko testu liburuak sortzeko. Bide honetan, Joaquin Dolz adituak egindako ekarpena aipatu behar da. Asko zor diogu berari ere ”

Orduan sortu zen, Matilde buru, ESAIZU garatuko zuen taldea.

1987-1988 ikasturtean “B” eredu eskola publikoko Goi Ziklora heltzear zegoen eta Administrazioak ez zuen horri aurre egiteko beharrezkoa zen curriculum materialik; beraz, zenbait ekintza lantzeari ekin zion. Euretako bat: euskararen irakaskuntzan esperientzietako programazioaren lanketa. Eskoriatzan antolatu ziren irakasleei zuzenduta eta Giza Zientzia zein Zientzien irakaskuntzarako euskarazko edukiak oinarri hartuta, B eredu ko ikasleen euskara funtzionalki eta testualki bermatzeko bi ikastaro antolatu ziren. Hemendik zenbait ikas-unitate sortu ziren; euskarari ikuspegi integratzailea eman zitzaion.

Hezkuntza sailetik etorri zen hurrengo ekimena; Eskoriatzara bidali zen ekarpena balioetsia izan zedin. Honen ondorioz, Irakasle Eskolari gomendatu zitzaion Goi Zikloko B eredurako euskararen programazioa diseinatu eta materialaren elaborazioa egiteko.

Bide horretan nahikoa urte iraun zuen talde bat osatu zen: Resu Abasolo (Aretxabaletako Kurtzeberriko irakaslea, orduan PAT/Berritzegunean zegoen lanean); Mariam Bilbatua, Matilde Sainz, Julen Arexolaleiba eta Jesus Garmendia. Esan beharra dago, hala ere, hasierako aldi hartan, talde honek bazuela aholkularitza oso esanguratsua: Joakin Dolz, Josep Tió, Ignasi Vila, Ana Theverosky eta euskara teknikariak, alegia.

Horrela diosku Matildek:

“*Lehendabiziko froga “PARTXELA” ikas-unitatea izan zen; ALMEN (Eskoriatza), MILAGROSA (Arrasate) eta ERREKALDE (Oñati) ikastetxeetan frogatu zen. Ikasketa aberasgarriak jaso ziren esperientzia hartatik; ondoren leuntzen eta hobetzen joan ziren. Lehenengo bi urteetan Jaurlaritzak diru-laguntza esanguratsua eman bazuen ere, ondoren, testuliburu-ruen salmenten %10a besterik ez zuten jaso. Diru iturri hura ez zen gai izan taldearen gastuak asetzeko*”¹⁶³

1997 urtean albiste pozgarria izan zuen taldeak: Eusko Jaurlaritzaren “Isaac Lopez de Mendizabal” sariaren bidez, euskara irakasteko testulibururik hoberenaren saria irabazi zuen: “Euskal Hizkuntza eta Literatura DBH2” testuliburua. Zertan zetzan bere ekarpena? “Irakasleei beste zenbait metodok baino jarrera inplikatzailagoa eskatzen zitzaiela”¹⁶⁴.

12.2. DOKUMENTAZIO ZENTROA ETA JAKINGARRIAK. HAUR LITERATURA MINTEGIA ETA IRAKUR GIDAK. IPUIN TAILERRAK

Irakasleen formazioaren barruan, Haur Hezkuntzari begira sortu eta garatutako hainbat proiektu aipatu behar dira, batez ere Dokumentazio Zentroa eta Jakingarriak aldizkaria. Ondoren etorriko ziren haur liburutegia, ipuin tailerrak eta Galtzagorri Elkarteak.

12.2.1. DOKUMENTAZIO ZENTROA ETA JAKINGARRIAK

Irakasle Eskolaren zuzendaria (eta HUHEZiko dekanoa) izan zenari, Jesus Garmendiari, emango diogu hitza¹⁶⁵:

“*Torino 1982, Pazko eguna. Han geunden Mariam Bilbatua, Felix (Hezibidetik) eta hirurok. Han ezagutu genuen Pello Añorga. Ikastolen Federazioak antolaturiko programa bat zen. Gauza asko ikusi genituen. Irakasleen sormena lantzea*

163. Esaizu, *euskarazko material kurrikularrak*. TANTAK aldizkaria, 1993.

164. Jesus Garmendiaren oroitzapeneko karpeta soltetik.

165. Jesus Garmendiaren oroitzapeneko karpeta soltetik.

zuten helburu gauza gehienek. Guk, handik hainbat ideia ekarri genituen, eta izan zen bat segituan martxan jarri genuena: 0-6 Dokumentazio Zentroa; Nerea eta Mariam izan ziren horren arduradun. Xedea, adin horretan euskaraz argitaratzen zen dokumentazio guztia biltzea, sailkatzea eta ikastolei eskaintzea zen - baita gaztelaniazkoa ere, nahiz eta neurri apalagoan izan-. Hezkuntza Sailak harrera ona egin zion egitasmoari: argazki batean azaltzen dira bertatik inaugurazio ekitaldira etorritako Mendietza sailburuordea eta Fermin Barceló teknikaria... Baliabide gutxirekin, lan txukuna egin zuen Dokumentazio Zentro honek, izan ere, urtero borrokatu behar izaten baitzen Lakuatik zer-bait lortzeko. Mendietaren sailburuordeko ondorengoek ez zituzten gauzak garbi ikusten, eta pixkanaka-pixkanaka itzaltzen joan zen. Hala ere, itzali aurretik, bi erditze izan zituen: Haur Literatur Mintegia eta Jakingarriak. Bien bihotza eta bultzatzailea Nerea Alzola izan zen ”¹⁶⁶

1984an sortu zen haurren gaineko Dokumentazio Zentroa, hots, zazpi urte bitarteko haurren gaineko dokumentazioa biltzen, antolatzen eta zabaltzen saiatu zen Zentroa. Geroago etorri zen Jakingarriak aldizkaria. Honek, Dokumentazio Zentroaren komunikazio tresna izateko helburua zuen ipar, eta bere bidez Haur Hezkuntzako irakasleei etapa horren inguruan kaleratutako informazioa eskaini nahi zen. Eskolaurreko Dokumentazio Zentroaren helburua, etapa horretan bereziki koordinatzaile taldeak bultzatutako lan taldeei laguntza eskaintzea zuen. Laburbilduta, honakoa izan zen egindako eskaintza:

- 1) Bibliografia eta katalogazioa.
- 2) Ikastoletan Haur Hezkuntza mailan sortzen den material guztia bildu eta katalogatu.
- 3) Era guztietako ekintzak (kontsultak, hitzaldiak, ikastaroak, bidaiak...), bultzatu.
- 4) Zentrora etor zitekeen jendeari harrera egin.

Beraz, norberaren lanari oinarri teorikoak jarriko zizkion zerbitzua zen (hainbat galdera teorikoari erantzun egokiak emanez), baliabide erabilgarrien berri izan (liburu, aldizkari, ikus-entzunezko...) eta esperientzien biltegia sortuko zuena.

166. Jesus Garmendiaren aparteko oroimen idatziak.

Zentroak zenbait arlo-ardatz zituen:

1) Alderdi orokorrak (helburu orokorrak, legedia, orientabide ofizialak, metodologia...).

2) 0-7 urte bitarteko haurren garapena.

3) Programazio guneak. Horretarako honako material hauek eskaini ziren: material teorikoa (liburuak, aldizkarik, artikuluak, ikus-entzunezkoak) eta baliabideak (ekintzen fitxak; materialen fotokopiak; bildutako esperientziak eta dauden baliabideen fitxak). Honen bidez, eskualdeko irakasleentzako zerbitzu berri bat jarri nahi zen abian, eta ildo horretan, “hiru galdera hauei erantzuna eman: zergatik? (lanaren oinarri teorikoak); nola egin lan? (baliabide erabilgarrien osaketa); eta besteak? (nola egiten dute lan beste tokietan)”¹⁶⁷. 1984ko otsailaren 13an zabaldu zen, asteazken eta ostegunetan, 2:30etatik 6:30etara. Zentroa Mariam Bilbatua eta Nerea Alzolaren ardurapean zegoen.

1988-1989 ikasturtean hiru atal zituen Dokumentazio Zentro zerbitzuak: kontsulta-zerbitzua, erakusketak eta Jakingarriak.

Kontsulta-zerbitzua atalean informazio aberastu, baliabideetan sakondu eta baliabideen esparrua zabaltzea zuen erronka. Erakusketa atalean, berriz, irakurketa-idazketaren inguruko erakusketa bat burutu zuen (1989).

Esan bezala, Jakingarriak aldizkariak berebiziko garrantzia izan zuen Dokumentazio Zentroan. 1985ean jarri zen martxan. Halaxe gogoratzen du Jesus Garmendiak hasiera hura:

“ Zuzendaritzatik beti babestu izan nuen, eta Euskal Jaur-laritzan defendatu, baina, agian, egin nezakeena baino gutxiago egin nuelakoan nago, ez baitzion aldizkariak erantzuten bete-betean nik buruan neukan horri: barruko jendearen protagonismo handiagoa eskatzen nuen behin eta berriz, baina zaila suertatzen zen; eta monografiak egiteak, gai espezializatua beraz, ez zuen horretan laguntzen. Hemen ere Nerearen lan isila, eta borroka, aipatu-goraipatu behar da; Mariam beti izan zuen alboan (eta ondorengo urteetan, azpiko lana egiten, Mari Carmen Apraiz) ”¹⁶⁸

Hiruzpalau urte beranduago, bi arlotan proposatu ziren aldaketak: edukietan (berri bibliografikoak, gai monografikoak eta baliabideak eskainiz) eta zabaltzeko eran (Hezkuntza saila eta COP bidez eskola guztietara hel zedin).

167. Dokumentazio zentroa, 0-7 urte katalogoa. Irakasle Eskola. HUHEZI Artxiboa. Hainbat proiektu eta ekintza. Dokumentazio Zentroa. F.2.1/F2.2./F2.3/F2.4.

168. Jesus Garmendiaren aparteko oroimen idatziak.

Bi urte iraungo zuen proiektu berri bati heldu zitzaion: Mankomunitateko Biblioteken proiektua. Liburutegi bakoitzaren antolaketa eta kudeaketarako prestakuntza eta ekintzak eskaintzen ziren: arduradunen prestaketa, animazio-ekintzak eta ekimenak¹⁶⁹.

Eusko Jaurlaritzatik, Hezkuntza sailak irakasleen prestakuntzarako bultzatutako egitasmoetatik (*Iraprest* eta *Garatu* programetatik, hain zuzen) diru laguntza onak jasotzen hasi zen bai Dokumentazio Zentroa zein Jakingarriak aldizkaria.

Harrezkero, batak zein besteak bide luzea egin dute Irakasle Eskolaren ibilbidean.

Urte horietan, nola ez, lan egiteko era eta eragin esparrua eraldatzen eta zabaltzen joan zen. Eta gaur, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako erronkei aurre egiteko euskarazko dokumentu gaurkotuak eta berritzaileak eskaintzen ditu; baita etapa bi horietako ikasle zein profesionalen zalantzei erantzuteko bitartekoak eskaini ere¹⁷⁰.

Jakingarriak aldizkariaren baitan sortutako dinamikaren ondorioz, noizbehinkako jardunaldiak antolatzen ziren. Hala, 2009ko azaroan, "Eskola Txikien Ekarpeneren handitasuna" izeneko jardunaldia antolatu zen.

12.2.2. HAUR LIBURU MINTEGIA. GALTZAGORRI ELKARTEA. IRAKUR GIDAK

Nerea Alzolari emango diogu hitza. Bera, hasteko, Kataluniako "Rosa Sensat" mugimendua jarri zuen haur liburutegiaren erreferente gisa. Bertan egiten zenetik ikasi zutela adierazten du. Eta Eskoriatzan antolatu zen liburutegiaren mintegi aurkezpena bertako ordezkari bat ere etorri zen:

“ Gure artean haur liburuen ezagutza hutsala zen, baina lanean hasi eta gai izan ginen Kurtzeberri ikastetxean haur liburutegi bat sortzeko. Gero, Pello Añorgarekin batera, `Kukumira`¹⁷¹ eta `Kukuluma`¹⁷² sortu genituen. Eusko Jaurlaritzatik beka bat ere lortu nuen eta Parisen egon nintzen. Gero, 0-6 eta 6-14 urte-tartekoei bideratutako bi mintegi antolatu genituen; ondoren, bi mintegiak batu egin genituen. Eskolaz eskola, herriz herri ibiltzen ginen erakusketak antolatzen eta hitzaldiak ematen ”¹⁷³

169. Gestio-Plana. 1988-89 ikasturtea. Irakasle Eskola. HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.

170. <http://www.jakingarriak.com/> (Kontsulta: 2013/12/12).

171. 1992/96. ALZOLA, Nerea / AÑORGA, Pello. *KUKUMIRA* aldizkaria. Eskoriatzako Irakasle Eskola. Eskoriatza (12 ale).

172. 1997/99. ALZOLA, Nerea/ AÑORGA, Pello. *KUKULUMA* aldizkaria. MONDRAGON UNIBERTSITATEA. HUHEZI. Eskoriatza. (6 ale).

173. Nerea Alzolarekin elkarrizketa, 2014/03/20.

Nerea Alzolaz gain, Pello Añorga izan zen proiektu honen aita pontekoa. Hala gogoratzen ditu Haur Liburutegiaren hasierak:

“ 1988an sortu zen Haur Liburutegi Mintegia. Lehendabiziko zeregina, AED (Arrasate Euskaldun Dezagun) elkartearen babesarekin, Arrasateko liburutegian haur liburuen aldeko dinamizazio ekintza burutzea izan zen. Gero, berriz, 1989an, Eusko Jaurlaritzaren mandatuz, parte hartu genuen diseinatzen eta koordinatzen Euskadiko Lehen Haur eta Gazte Liburu-Aretoa Getxon. Ondorengo urteetan, 1990-1994 bitartean, beste Haur eta Gazte Liburu-Aretoak diseinatzen jardun genuen, zela Arrasaten, Amurrion edo Legazpin. Azpiegitura garrantzitsuak sortu genituen orduan. Esaterako, Liburu Mintegiari esker, gaur egun Durangoko Liburu Azoka denaren barruan antolatzen den Haur Literatura Aretoa ere orduan diseinatu genuen. Berbaro elkarteko kide zen Marian Bilbatuarekin batera, elkarlanean aritu ginen diseinatzen, animatzen eta lehen zutabeak jartzen. Jarduera hauekin batera, Irakur-Gidak ere orduan hasi ginen kaleratzen; artikuluak ere idatzi genituen ”¹⁷⁴

Jesus Garmendiak ere gertutik jarraitu zuen proiektu hau:

“ Haur Liburu Mintegiaren diseinua eta funtzionamendu sistema oso sinplea zen: liburu bakoitza andereño eta liburu-zainen arteko bi kidek irakurtzen zuten, bien iritziekin fitxa bat egiten zen, eta bien artean desadostasunak bazeuden, hirugarren batek irakurtzen zuen liburua, eta azken honek, nolabait, epaile funtzioa hartzen zuen. Horrela, ikasturtean zehar, dozenaka libururen diagnostikoa egiten zen eta, urte amaieran, didaktikoki aurkeztuta, eskola guztietara bidali-

174. Pello Añorgarekin elkarrizketa, 201/06/06.

Artikuluak: 1990. *Irakurketa zaletasuna bultzatzeko plangintza. Jakingarriak* aldizkaria, 17. Eskoriatzako Irakasle Eskola.
1990. ALZOLA, Nerea / ANORGA, Pello. *Plan de promoción de la lectura. Educación y Biblioteca*, 10. Tilde. Madrid
1992. ALZOLA, Nerea/ ANORGA, Pello. *Los libros, abriendo y habitando espacios. Infancia*, 14. Rosa Sensat. Barcelona.

ko zen argitalpena egiten zen. Lan atsegina izan zen bertako kideak motibazio handia zeukatelako, eta aberasgarria denontzat. Inoiz prentsara ere atera genuen libururen bati buruzko kritika: gogoratzen dut, zehazki, ukitu matxistaz gainezka azaldu zen Oiartzungo ikastolako irakasle bertsozale baten liburua. Gogoan ditut ere partaide batzuk: Arrasateko Mertxe eta M. Asun, Ikastolako Maria Asun Garay, Oñatiko Pruden Garcia eta Arantzazu, Charo Urrutia. Nik bizpahiru urte bakarrik egin nituen, baina mintegiak bere bideari eutsi dio; beti ere Nerearen gidaritzapean ”¹⁷⁵

Haur Liburu Mintegiak, beraz, sorrera sorreratik argitaratzen du Irakur Gida (1988)¹⁷⁶. Euskaraz argitaratzen diren ia liburu guztiak irakurri ondoren, mintegi kideek baloratu eta sailkatu egiten dituzte. Beraz, guraso, irakasle eta liburuzaintzako lagungarri delakoan, Mintegiak bilduma bat eskaintzen du urtero Haur eta Gazte literaturan kaleratu diren euskarazko liburu onenekin¹⁷⁷. Esan behar da, 2001 urtetik aurrera urtero argitaratu direla gida hauek.

GALTZAGORRI ELKARTEA (Euskarazko Haur eta Gazte Literatura Elkartea), gaur egun oso ezaguna, garai berean sortzen da; Eskoriatzan, 1990ko urriaren 20an. Urte haietan, nahiz eta Galtzagorrik modu apalean funtzionatu, oinarritzako jarduera interesgarriak bezain aberatsak burutu ziren (azpiegiturazkoak) Eskoriatzako Haur Liburu Mintegiarekin elkarlanean. Hona ekimen horietako batzuk:

- 1990: Gasteizko liburuzaintzat Formazio saioak, Gasteizen.
- OEPLrekin (*Organización Española para el libro infantil y juvenil*) elkarlana sustatu, beste hiru elkarterekin batera: *Consell Català del Llibre per a Infants*, *Galix* eta *Sección de Madrid*.
- IBBY nazioarteko erakundearekin (*International Board on Books for Young People*) harremana lantzen hasi. Harreman horien bidez, Galtzagorrik euskal idazleen lanak ezagutarazten ditu mugaz kanpo; Mariasun Landa, esaterako.
- Saretan parte hartzen hasi.
- 1992: Irakurketaren animazioa ikastaroa, Beasaingo Udal liburutegian.

175. Jesus Garmendiaren aparteko oroimen idatziak.

176. Hasieran fotokopia eran baziren ere, ondoren liburuxka formatuan kaleratzen hasi ziren 1994tik. Adibide batzuk, hauek:
1994. ALZOLA, Nerea / AÑORGA, Pello. *Guía de libros para los más pequeños. Haur txikiakentzako liburu-gida*. Eskoriatzako Irakasle Estola. Eskoriatza
1997. ALZOLA, Nerea / AÑORGA, Pello. *Haur txikiakentzako liburu-gida. (0-7)*. Facultad de Humanidades y Educación. Universidad de Mondragón. Eskoriatza
1998. ALZOLA, Nerea / AÑORGA, Pello. *14 autores. Haur literatura infantil*. MONDRAGÓN UNIBERTSITATEA. Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. Eskoriatza
2001. ALZOLA, Nerea / AÑORGA, Pello. *Haur eta Gazte literatura 1989-2000*. MONDRAGON UNIBERTSITATEA. Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. Eskoriatza.

177. <http://www.mondragon.edu/eu/aktualitatea/aldizkariak/irakurgida> (Kontsulta: 2013/04/06).

- 1992: Irakurketa zaletasuna suspertzeko jardunaldiak, Zumaiako Foronda Kultur Etxean.
- 1992/96: KUKUMIRA Haur literaturari buruzko aldizkaria (Nerea Alzola/Pello Añorga). 12 ale argitaratu ziren.
- 1992: Irakurzaletasuna eta ipuin-kontaketari buruzko ikastaroa, Oñatiko Udal liburutegian.
- 1994: Poesia jarduerak Federico Martinekin Eskoriatzako Irakasle Eskolan.
- 1995: Idazketa tailerra Eskoriatzako Irakasle Eskolan
- 1996: Irakurketaren animazioa Deustuko Unibertsitatean.
- 1997/99: KUKULUMA Haur literaturari buruzko aldizkaria (Nerea Alzola/Pello Añorga). 6 ale argitaratu ziren.
- 1997: Argitalpena: *Haur txikientzako Liburu-gida (0-7 urte)*.
- 1997/98: Eskolako liburuzaintzako formazioa Haur eta Gazte literaturan: prestakuntza eta animazioa Arrasaten, Basaurin, Gasteizen, Donostian eta Bilbon.
- 1997/99: Biblioteken animazioa liburuzainei, Gasteizen
- 1998: Argitalpena: *14 autore*. Haur literatura unibertsaleko autoreak; album formatuan.

12.2.3. IPUIN TAILERRA, IPUIN ORDUA, OSPITALEKO JARDUERAK ETA ITSUENTZAKO GRABAKETAK

Eskoriatzako Irakasle Eskolak bere ibilbidean izan duen beste egitasmo indartsua ipuinaren mundua izan da. Dударik ez dago arestian aipatu dugun haur liburutegiaren zereginarekin harreman zuzena duela, baina, hala ere, hasieran proiektio autonomoa izan zuen. Honen arduraduna Pello Añorga izan zen.

Jesus Garmendiak eta Mariam Bilbatuak gonbidatu zuten Pello Añorga Oiertzungo ikastolan arrakasta handiz garatzen hasi zen ipuin tailerra Eskoriatzan ere lantzeraz. Urtebeteko eszedentzia ikastolan eskatuta "hasi nintzen laborategi gisa, modu esperimentalean, haurrentzako ipuin kontuak martxan jartzen Eskoriatzan. Hasieran ostiraletan etortzen nintzen autobusez Oiertzundik" diosku Pellok¹⁷⁸.

Intuizioz bazen ere, 1988an ipuin tailerra sortu zuen Pellok Irakasle Eskolan. Lehendabiziko klaseak haur-eskolako ikasleekin izan ziren; orain liburutegia dagoen espazioan egoerak marraztuz, txotxongiloak eta magia erabiliz ... Haur liburutegiarekin batera, hainbat eragileren formakuntzari begirako egitasmoa izan zen. Ikusi besterik ez dago,

178. Pello Añorgarekin elkarrizketa, 2014/06/06.

Irakasle Eskolan hizkuntza lantzeko baliabidearen aitzakiaz, 1989/1992 urte bitartean grabatu ziren ipuin kontaketari buruzko bideoak. Ikastetxe askotan erreferentziazko eredu bihurtu ziren¹⁷⁹.

Pello, urte haietan, zeharo murgilduta ibili zen Haur Liburu Mintegian. Aipatzen du zelan Eskoriatzako tailer haiek animatuta, eta Gipuzkoako beste liburuazain batzuekin batera sortu zuen hainbat liburutegitan Ipuin Ordua (1988) zeritzon egitasmo aitzindaria. Diputazioko beka bati esker, Paris eta Kataluniako hainbat Haur Biblioteka aztertzen aritu zen. Han ikusi eta ikasitako ideia haiek oinarri harturik, Ipuin Ordua, lehendabizi, Eskoriatzara zabaldu zen, gero Debagoienara eta ondoren Gipuzkoara eta azkenean Euskal Herri osora. Pello Añorgak diosku, esperientzia hartan oinarrituta, ikasleei transmititzen saiatu zela han bizi izandakoa: haurrak hunkitzen, entzuteko espazioa sortzen, irudimena lantzen...

2001/2005 bitartean, HUHEZIKo Haur eta Gazte Literatura mintegiaren eta Ospitalearen arteko lankidetzari esker Donostiako ospitalean burutu ziren kontaktak eta liburu animazioak. Nerea Alzola izan zen kudeatzailea eta Pello Añorga, berriz, dinamizatzailea. Ospitaleratuta zeuden haurrei liburuak irakurri eta ipuinak kontatzen zizkieten. Bi lekutan egiten ziren kontaktak. Lehena, Ospitaleko solairu urdineko Eskola-gelan. Adin eta jatorri desberdinetako haurrak biltzen ziren han. Bigarrena, gaixoen gela barruan, ohetik altxatu ezin ziren haurrentzat. Jarduerak honako izenburua izan zuen: Liburua ipuina eta hitza, eta, antza, arrakasta handia izan zuen.

Pello Añorgak bizirik mantentzen ditu garai hartakoak:

“*Mintegitik liburu batzuk aukeratu eta ospitalera joaten nintzen kontatzera. Esperientzia hark asko erakutsi zidan (zigun). Esaterako, liburu eta ipuina erabiltzen ez objektu bezala, baizik subjektu gisa; eta balore espiritual indartsuak zituzten ipuinak kontatzearen garrantzia, isiltasunetik abiatuta. Ospitaleko espazioa oso hauskorra da eta umiltasuna lantzea ezinbestekoa da*¹⁸⁰. Honela darraio: “Imajinazioa zela konturatu nintzen haur ezindu batzuegana iristeko modurik zuzenena zela. Behin, gogoratzen dut, mugitu ezin zen haur bat mugitzea lortu genuela ipuinaren bitartez; erizainak zur eta lur geratu ziren. Ez dago dudarik: ipuinak, hunkitzeko baliagarriak diren heinean, mugiarazteko ere gai dira”¹⁸¹

”

179. 1989. Hizkuntza lantzeko baliabideak-II. Ipuinak 1, 2. EIMA II. Programa. Ihardun ikus-entzunezkoak (Eskoriatzako Irakasle Eskola)
1990. Hizkuntza lantzeko baliabideak-III. Ipuinak 3, 4, 5, 6. EIMA II. Programa. Ihardun ikus-entzunezkoak (Eskoriatzako Irakasle Eskola. Eskoriatza)
1991. Hizkuntza lantzeko baliabideak-IV. Ipuinak 7tik 16ra. EIMA II. Programa. Ihardun ikus-entzunezkoak (Eskoriatzako Irakasle Eskola)
1991. Hizkuntza lantzeko baliabideak-V. Ipuinak 17tik 26ra. EIMA II. Programa. Ihardun ikus-entzunezkoak (Eskoriatzako Irakasle Eskola)
1992. Hizkuntza lantzeko baliabideak-VI. Ipuinak 27tik 36ra. EIMA II. Programa. Ihardun ikus-entzunezkoak (Eskoriatzako Irakasle Eskola)

180. Pello Añorgarekin elkarrizketa, 2014/06/06.

181. Pello Añorgarekin elkarrizketa, 2015/06/15.

2002/2004 urte bitartean ere, Gipukoako Foru Aldundiko “Euskara sustatzeko, garatzeko eta normalizaziorako diru-laguntzei” esker, ipuin grabazioak egin ziren, audio formatuan, Eskoriatzako Multimedia gelan. Helburua, ikusmen urritasuna zuten pertsonentzat erabilgarri egotea zen. Proiektuaren koordinatzailea Agurtzane Martínez izan zen; eta bi aholkulari bidelagun: Inma Arrieta, ONCE liburutegiko kudeatzailea eta Maria Uriarte, CRiko (Itsuentzako Baliategi Zentroko) irakaslea. Ipuinen alderdi teknikoa, mikrofonoa eta CABASE programaren erabileraz Beñat Azurmendi arduratu zen; IKT departamendukoa. Pello Añorga, “Liburu Mintegitik” liburuak aukeratu ondoren, ahotsa grabatzeaz ere arduratu zen. Egin behar zen lana ahal bezain egokien egiteko moduko formazio saioak eskaini zitzaizkien ikasleei, batez ere, ahots-gora ondo irakurtzen trebatzen joateko. Guztira 50 liburutik gora grabatu ziren, eta Haur Hezkuntzako 1. 2. eta 3. mailako ikasleek hartu zuten parte; 20 ikasle baino gehiagok, alegia. Pello Añorgak honela diosku: “Esperientzia aberasgarria izan zen guztiontzat. Gainera, zerbitzu sozial bikaina eskaini genion liburuak entzungai ipinita. CRikoek, bederen, asko eskertu ziguten ahalegina”¹⁸².

12.3. KONTSUMO

Arestian agerian laga dugun bezala, formazio eremuan, hainbat hezkuntza esparru landu ditu Irakasle Eskolak 80 hamarkadatik aurrera. Eta zelan ez, kontsumo hezkuntzari heltzeko garaia ere iritsi zen. Nondik nora sortu zen interes berritzaile hura?

“ Guk Berrizko ikastetxean kontsumo gaiak eta tailerrak ematen genituen. Gainera, une hartan, Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza sailean zegoen Fermin Barcelo-k hala eskatuta, ‘Centro de Apoyo y Recursos’ sortu genuen bertan. Bai kontsumoan eta baita irudi edo ikus-entzunezkoen inguruan ere bagenituen zenbait baliabide. Hala, Jesus Garmendiak, kontsumo eta ikus-entzunezkoetako aukerakoak emateko Irakasle Eskolara etortzera gonbidatu ninduen. Nik, berriz, pare bat egunetan zehar pentsatzen aritu ondoren, baiezkoa eman nion. Batzuk zorotzat hartu ninduten urrats berri hau ematearren, izan ere, oposizioak aterata, ordurako funtzionario publikoa nintzelako ”¹⁸³

182. Pello Añorgarekin elkarrizketa, 2015/06/15.

183. Luis Mari Alvarezekin elkarrizketa, 2014/05/16.

Hau da Luis Mari Alvarezek, irakasle eta lankide ohiak, bere etorreraz eta kontsumo hezkuntzaren hasieraz eman digun testigantza.

Kontuak kontu, 1985-1986 ikasturtean ekintza eta jardunaldiak antolatzen hasi zen Irakasle Eskola. Ondorengo urteetan bere zeregina guztiz egonkortu zen, bai hasierako formazioari dagokionean, zein formazio iraunkorrari dagokionean ere. Hitzarmena sinatu zen EROSKIrekin kontsumitzaileen heziketa garatzeko moduko ekimenak bultzatzeko.

Irakasle Eskolaren hasierako formazioan ere txertatu zen kontsumo gaia. Lehenengo mailan aukerako ikasgai gisa ezarri zen; eta hirugarren mailan, didaktika orokorreko eta didaktika zehatzetako programetan.

1988an Hezibideri igorritako txosten batean, irakasle ikasketen plangintzan arlo berri hau sartzea oso interesgarri eta estrategikotzat hartu zen Irakasle Eskolak (“tanto por su importancia y actualidad en el mundo de hoy como por las posibilidades que ofrece como integrador y como medio de transmisión de otro tipo de conocimientos... ha llevado a tratar la Didáctica de la Educación del Consumidor como asignatura específica”)¹⁸⁴. Are gehiago, formazio iraunkorrerako ere oso garrantzitsua zela ikusi zuten. Hiru faseko plangintza bat proposatu zen:

1. 1987-1988 ikasturtean burutzekoa. Talde eragile bat sortu: informazio elkar trukatzeko, kontsumitzaile-heziketa sartzeko, eskolan hausnartzeko eta bailarako eskola guztietan martxan jarriko den programa osatzeko.
2. 1988-1989 eta 1989-1990 ikasturteetan burutzeko. Bailarako 20/30 maisu maistrekin mintegi iraunkorra eratu.
3. 1990-1991 ikasturtea jarraipen, aholku eta laguntza puntaletarako.

1988-1989 ikasturtean Osasun eta Kontsumo Saileko Eusko Jaurlaritzak babestutako ekintzak antolatu ziren. Hiru ekimen izan ziren: ikastaroak irakasleentzat (Orioko aterpetxean), eskolei zuzendutako tailerrak (Bilbo, Donostia eta Gasteizen) eta gradu osteko ikastaro bat.

Ezin da alde batera laga urte haietan hainbat tokitan eta hainbat ikastetxetan antolatzen ziren kontsumo tailerrak. Gure ikasle ohiak kudeatzen zuten tailerra, eta garraiorako furgoneta batez baliatzen zirela esaten digu Luis Marik:

“*Eusko Jaurlaritzarekin harreman zuzena izan genuen, eta lan asko egin genuen batera, ekintza asko antolatu genituen, besteak beste helduen kontsumorako libururen bat edo beste kaleratzea. Bitxienetakoa, agian, ikastetxez ikastetxe ibiliko zen furgoneta ibiltaria izan zen. Furgoneta erosteko dirua eman zigun Jaurlaritzak. Bertan kargatzen*”

184. Gestio-Plana. 1988-89 ikasturtea. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.

genituen tailerrak emateko materialak. Tailerrak gure lau ikasle ohik (Marisa Biritxinaga, Marisa Rodriguez, Ana Garcia eta Inma Torre) kudeatzen zituzten ”¹⁸⁵

Esan bezala, kontsumo gaietan, Luis Mari Alvarez ibili zen koordinazio eta emaille lanetan:

“ *Proiektu eta diziplinartekoa ardatz hartuta, kontsumo-hezkuntza gaietan aitzindaria, lehena izan zen Eskoriatzako Irakasle Eskola eta ondorioz, erreferentziazko ikastetxe bihurtu zen* ”¹⁸⁶

12.4. ORDENAGAILUAK IKASTETXEETAN

1987-1988 ikasturtean, ikastetxeetan ordenagailuak ezartzeko plangintza sendoa –OSE/OIZ izenekoa– (*Ordenadores al Servicio de la Educación-Ordenadoreak Ikasketaren Zerbitzurako*) bideratu zen. Hezibide Elkarrekin bultzaturiko proiektua izan zen, eta Lovainako Unibertsitatearekin batera aritu ziren Donostiako Ingeniaritza Eskola, Arrasateko Eskola Politeknikoa eta Irakasle Eskola. Helburua, ordenagailua gai desberdinetarako tresna gisa erabiltzea zen; baita irakaskuntzarako ere. Talde koordinatzaile bat eratu zen hau martxan jartzeko; Lovainako esperientzia bildu zuen talde honek. Irakasle Eskolak gogotsu hartu zuen parte proiektu honetan, batik bat irakasleen prestakuntzarekin zerikusia zuen atalean. Finantzaketa bideak, berriz, Gizabide-tik etorri ziren batez ere.

1988-1989 ikasturtean irakasleria formatzen eta materiala prestatzen hasi ziren: 21 irakaslek hartu zuten parte.

Esan behar da, hasierako formazioa gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari zen diziplina berria zela, eta zegoeneko lehen mailako ikasle guztientzako oinarritzako formazio bezala ezartzeko borondate irmoa zegoela. Iñaki Pagonabarraga izan zen honen kudeatzailea, baita Eugenio Astigarraga ere.

185. Luis Mari Alvarezekin elkarrizketa, 2014/05/16.

186. Luis Mari Alvarezekin elkarrizketa, 2014/05/16.

12.5. INGURUMEN ARLOA

1988-1989 ikasturtetik aurrera, berriz, ingurumenarekin eta teknologiarekin zerikusia zeukaten ekimenak bultzatzen hasi zen Irakasle Eskola.

Ingurumen hezkuntzarekin lotutakoa esparru berri honen bultzada Arrasateko Udalak Udala auzoan eraiki nahi zuen Ingurumen Eskolaren eskutik etorri zen. Garai hartan ingurumenaren hezkuntzarako kontzientzia handitzen ari zen, eta han zein hemen hezkuntza ez formalarekin loturiko zerbitzuak ugaritu ziren, tartean eko-etxeak, eta ondoren "ingurumen eskolak".

1989an Arrasateko Udalak ere horren beharra ikusi zuen eta bere Hezkuntza sailak "Udalako Ingurugiro Eskola" bultzatu nahi izan zuen, beraz, proiektuaren planifikazio eta ekitaldien prestakuntzarako faseari ekin zion. Horretarako, aurreikusi zuen beharrezkoa izango zela Eskoriatzako Irakasle Eskola alboan izatea, bai kudeaketan eta baita zuzendaritza instituzional zein pedagogia arloan ere.

1990ean, Arrasateko Udala eta Irakasle Eskolaren arteko hitzarmena sinatu zen; horren arduraduna Xabier Arregi izan zen:

“*Une hartan, Arrasateko Udalean zinegotzia zen Aitor Orobengoa etorri zen Irakasle Eskolara ingurugiroarekin lotutako udal egitasmoak aurkeztera. Eugenio Astigarraga eta biok sartu ginen proiektuan. Garai honen bueltan, Segoviako 'Valsain' ingurugiro eskola zen guretzat erreferentziatzeko eredu. Bertan elkartzen ziren Espainiako ingurugiro eskola eta antzerako mugimenduak. Beste erreferentzia bat Jaume Sureda izan zen. Hemen, inguruan, ez zegoen erreferentziatzeko eredu egokirik, dena zegoen egiteko. Gero sortu zen CEIDA, Eusko Jaurlaritzaren babesarekin. Beraz, hutsetik abiatu ginen pedagogia ez formalean adituak bihurtzeko ahaleaginean, eta gure zeregina, nagusiki, ekipamenduari begira egon zen. Eugeniok bazuen ikuspegi zabalagoa eta prozesu osoa batera egin genuen; ekipamenduarekin batera espazioak-eta diseinatu genituen. Honek, Arrasateko Udalarekin harreman zuzena izatea ekarri zuen, batez ere arkitektoarekin. Bilera asko egin genituen. Proiektua inauguratu ondoren ere bertan jarraitu nuen lauzpabost urte. Gure ikasle batzuk ere hantxe hasi ziren orduak sartzen, eta euretako bat bertan sartu zen langile bezala*”¹⁸⁷

187. Xabier Arregirekin elkarrizketa, 2014/05/07.

1991ko urtarrilean inauguratu zen Arrasateko 'Udalako Ingurugiro Eskola'.

Dena dela, ingurumenaz eta bere hezkuntzaz zegoen kezka haratago zihoan. 1991 eta 1992an, "Hiri ekologia. Eskoriatza, bizitzeko inguru egokia" izeneko mintegia antolatu genuen. 2. eta 3. mailako ikasleek 100 orduko hainbat saio jaso zituzten.

Baina ez zen bakarra izan. Urte berean, Urola Garai Udal Elkartearekin batera 200 orduko "Ingurugiro Monitorea" izeneko ikastaroa eskaini zitzaizen Urretxun erdi eta goi mailako tituludun eta langabetuei.

12.6. TEKNOLOGIA ARLOA

1990an onartu zen LOGSE hezkuntza erreformarekin bat egite bidean, irakasleak 12-16 urte bitarteko ziklo berriari begirako arlo teknologikoan trebatzeko beharrak aurreikusten zen. Irakasle Eskolak hainbat gela egokitu zituen, eta aurre inbertsioak eginda proiektuan buru-belarri sartzea erabaki zuen. 1989-1990 ikasturtean 862.020 pezetako inbertsioa egin zuen zeuden beharretara gela bat. Gelaren hornikuntzarako, berriz, Arrasateko ALECOPEkin egin zuen akordioa, interes handia baitzeukaten prestakuntza hauen bidez euren produktu didaktikoak ikastetxeetan ere komertzializatzeko. Honen ardura, Eugenio Astigarragak izan zuen, nahiz eta Xabi Arregik ere bere zeregina izan:

“ALECOPEk ekipamendu eta formaziorako irakasle batzuk (Iñaki Pagona, Carlos Rodriguez, Eugenio Astigarraga bera...) jarri zituen; izan ere, beraien ekipamendua ikastetxeetan zabaltzea interesatzen zitzaien. Ikastaroak Eskoriatzan eta beste zenbait tokitan ere ematen ziren. Bartzuetan bi ikastaro batera ere bai. Baina beste fronte bat, lauzpabost urteetan zehar, Txiletik etorritako formatzaileekin 'pasantia' izan ziren. Hauen helburua formatzaileak formatzea zen, ondoren, Txilen ikastaroak emateko gai izan zitezten. Kolonbiatik ere etorri ziren beste ikastaro bat jasotzera”¹⁸⁸

Dena dela, teknologiaren aitzakiarekin ingurumenaz, zientziaren didaktikaz... formazioa jasotzeko aukera izan zuten 'pasantia' honetara zetozenak.

188. Xabier Arregirekin elkarrizketa, 2014/05/07.



1

Irakaslearen erreziklariako bide berriak urratzen. 1984 - 1985 ikasturtea.

2

Anaya-Haritz. Eskoriatzan eginiko testuliburuak.



3

Haur Literatura 1998.

4

Haur eta Gazte Literatura. Irakur Gidak (2003 - 2010).



5

Bergarako plangintza 1981.

6

Haur eta gazte literatura. Irakur Gida, 2014.



7

ESAIZU. Hizkuntza didaktikoari buruzko liburuak.

8

JAKINGARRIAK aldizkaria.

13. ‘IHARDUN’: IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA ARGITALETXEA

Ikus-entzunezko eremua Irakasle
Eskolaren beste zeregin bat izan zen.

Horren hastapena Jesus Garmendiak kontatuko digu:

“ *Udazkena izango zen munduko puntan dagoen Caicedo Yusora (Araba) abiatu nintzenean. Garai hartan (1980) ikusi-entzungailuak garrantzia handia ari ziren hartzen, baita tresna didaktiko gisa ere, eta pentsatu genuen zerbait egin behar genuela Eskolan. Caicedon zegoen zinemas gehien zekien euskaldunetarikoa bat: Koldo Larrañaga apaiz azkoitiarra, Burgos ondora erbesteratua izan zena arlo sozialean gotzainaren gustuko ez zen adierazpenen bat egin omen zuelako...*

Milaka zinema fitxa hainbat kaxatan, gero liburua – Lo vasco en el cine – ateratzeko erabiliko zituenak; eta filmak, bi-deotan grabatuta, ehunka... Zinema zen haren pasioa, euskararekin batera. Honenbestez, aukerako bat eskaini genion, eta baita pare bat urtetan eman ere... Baina klaseaz gain, zine-klub saio batzuk ere egin zituen. Eta izan zuen beste hirugarren zereginik. TP (Teleprograma) izeneko telebista programa erosten nuen zintzo-zintzo parroquia ondoko prentsa dendan, eta han markatzen genituen, nik neuk eta beste zenbait irakasleek, grabatzea nahi genituen saioak; Koldori helarazi eta honek hurrengo astean ekartzen zizkigun grabazioak, beharrezko gailuen jabe baitzen ordurako. Horrela ateratzen genion etekina gure klaseetan erosi berria genuen telebistari; horrela pasatu ditut urteetan zehar, nire literatur klaseetan, hainbat antzerki – Hamlet, El Tragaluz, A vivir que son dos días eta Pigmalión, besteak beste- eta zenbait dokumental interesgarri, adibidez Kafka eta Joyce-ri buruzkoak.

Inportanteena da, ikusi-entzungailuen kezka geureganatu genuela eta lanabes didaktiko gisa ere erabiltzen hasi girela ”¹⁸⁹

189. Jesus Garmendiaren aparteko oroimen idatziak.

13.1. 'IHARDUN' IKUS-ENTZUNEZKOA: MULTIMEDIA

Hasieran, bideoari gero eta garrantzi handiagoa ematea erabaki zen barneko produkzioa sustatu eta irakaskuntza piztu zein aberasteko. Horrela, Irakasle Eskolak grabatuta zeuzkan 160ren bat orduko materialak erabiltzen hasi ziren. Honen helburua bikoitza zen: ikasleekin ikusi-entzungailuen garrantzia partekatzea eta ikastetxei zerbitzu berri bat eskaintzea. Horretarako erabaki estrategiko bat ere hartu zen, betiere "gure diru apaltasunaren barnean"¹⁹⁰: erreproduzitzaila erosi zen materiala sailkatu, zabaldu eta ugaritzen saiatzeko.

Egindako inbertsioetan ere sumatu zitekeen interes hau; 1985-1986 ikasturteko finantza inbertsioetan, informatikarekin batera, ikus-entzunezkoen gelaren egokitasunaz (ondoren material didaktikoa argitaratzeko asmoarekin) hitz egiten da. Eta ikus-entzunezkoaren dinamika berri honetara gehitu zen, Koldok egindakoari zor, Luis Mari Alvarez.

Horrela kontatu digu Jesussek egin zuen "fitxajea":

“ *Ba omen zegoen Berrizen irakasle bat ikusi-entzungailuak gela barruan maisuki baliatzen zituena: gu haren atzetik genbiltzan. Ez zigun oztoporik jarri Luis Mari Alvarezek, eta bera hasi zen aukerakoa ematen. Gero plantilan sartu zen... Bideo didaktiko zoragarriak egin zituen - Pitiren bilduma, esate baterako - eta hainbat langile kontratatu genituen lan horiek guztiak egin ahal izateko* ”¹⁹¹

Hala, 1986-1987 ikasturterako¹⁹² sartu zen lehenengo aldiz produkzio audiobisualen arloan Irakasle Eskola. Bi ekintza aurkeztu ziren: 1) Eusko Jaurlaritzak bultzaturiko EIMA (ikastetxeentzat ikas materiala) proiektuan sartzea; bi pelikula-serie egingo ziren, bat Durangoko Aholku eta Baliabideen Taldearekin batera, inguruaren ezagutza eta azterketari buruz; eta bigarrena, hizkuntza lantzeko baliabideei buruz. 2) Kontsumitzailearen heziketari buruzko gaien inguruan EROSKIrako hamabi pelikula produzitzea.

Ikasturte berean euskaraz egindako "Kalakari" audio grabazioa ere azpimarratzekoa da, baliagarria izan baitzen sortu berri zegoen ikus-entzunezko produkzioa bailarako eskoletan sartu eta koordinazio lan egokiak egiteko.

190. *Plan de gestión. Curso 1982-83. Irakasle Eskola.HUHEZI Artxiboa*, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.12tik B.4.19ra.

191. Jesus Garmendiaren aparteko oroimen idatziak.

192. *Plan de gestión. Curso 1986-87. Irakasle Eskola.HUHEZI Artxiboa*, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.

Baina eman diezaioguna hitza ikus-entzunezko arduraduna izan zen Luis Mari Alvarez:

“ Zapatu goiz batean, Kanpanzar gaineko ‘Etxabe’ tabernan elkartu ginen Jesus eta biok, eta bertan gonbidatu ninduen Irakasle Eskolara etortzera. Baldintza batekin: bertan irudiaren inguruan departamendu bat sortzea (izan ere, informazio eta komunikaziorako teknologia berriez ez baitzen hitzik egiten). Esperientzia banuen; Berriko gure ikastetxean irudia, informazioaren erabilera... lantzen genuelako tailerretan. Baietza eman nion eta didaktika orokorrarekin batera, kontsumo eta hezkuntzan aplikatutako informazio eta komunikazio teknologiak ematen hasi nintzen. Ikasleekin izandako bizipenak oso politak izan ziren ”¹⁹³

Honek guztiak, baina, inbertsio garrantzitsuak eskatu zituen. Eta inbertsioek, emaitza onak eskatzen zituzten, hala-beharrez. 1987-1988 ikasturtean hiru bideo ekoitzi ziren EIMA programaren barruan: bat geometriari buruz; bigarrena ‘Maddiren abenturak’ deitutakoa; eta hirugarrena, ‘hizkuntza lantzeko baliabideak’ izeneko bideoaren jarraipena¹⁹⁴.

Beraz, ikus-entzunezkoak bitartekari edo baliabide hezitzaile moduan hartzen ziren neurrian, hauek curriculumean txertatzea gero eta beharrezkoagoa zela ikusten zen, helburua, finean, ikasleak ikus-entzunezkoen erabileran (diapositibak, audioa, irratia, bideoa) trebatzea baitzen. Aldi berean, eskoletan erabiltzeko eta ikasleen interesak pizteko ikus-entzunezko material didaktikoak ere ekoitzi ziren. Helburua ez zen, beraz, tresnak erabiltze hutsarekin konformatzea, baizik eta ikus-entzunezkoen teknikak ezagutu eta ikastea (filmatzea, muntaketa, gidoia ...): “otra área en la que se encuentra interesada Irakasle Eskola es el diseño del vídeo didáctico, con sus características (...) un vídeo que supere la simple función informativa de los documentales y reportajes y se inscriba dentro de una enseñanza activa y dinámica”¹⁹⁵.

Esan nahi da, irakasleentzat ere interesgarria zela ikerketetarako ikus-entzunezkoen erabilera sustatzea, batik batik hizkuntza eta euskaren didaktikarako.

1988-1989 ikasturterako Irakasle Eskolak, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako ikaste materialerako (EIMA) zuen programarako, hiru arloekin loturiko bideoak kaleratzeko asmoa zeukan: (1) ‘Ihauteriak’ (umeeekin batera lantzeko

193. Luis Mari Alvarezekin elkarrizketa, 2014/05/16.

194. *Plan de gestión. Curso 1987-88. Irakasle Eskola*.HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.

195. *Erakunde harremanak. Hezibide*: ‘La innovación en los Estudios Universitarios del Grupo HEZIBIDE’ dokumentua (Julio, 1988). Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa, C.1.1.1tik-C.1.2.3ra karpeta. C.1.2.1tik-C.1.2.3era.

erabilera didaktikoa); (2) 'Piti ogile', 'Piti gaztagile' eta 'Piti eztigile'¹⁹⁶; eta (3) geografiari lotuta, Durangaldeari buruzko atala; "Euskal Herrian zehar" bilduma. Azken hau, geroago burutuko ziren beste bideoetarako eredu bihurtu zen.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bultzatutako EIMA programa barruan ugariak izan ziren Irakasle Eskolak ikus-entzunezko esparrutik jasotako diru iturriak.

1989-1990 ikasturtean urrats garrantzitsua eman zen Irakasle Eskolan, eta 'IHARDUN' argitaletxea sortu zen. Bertan, ikus-entzunezko ekoizpenaz gain beste euskarri batzuen bidez landutako materialak ere sortuko ziren.

'IHARDUN AUDIOBISUAL'etik egindako produkzioa handia izan zen. Honatx lagin txiki bat; 1989ko EIMA II programarako emandako diru laguntzak tartean:

- Hizkuntza lantzeko baliabideak III.
- Euskal Herrian zehar¹⁹⁷: Arabako Lautada.
- Euskal Herrian zehar: Bilbo Handia.
- Euskal Herrian zehar: Arratia-Nerbioi.
- Euskal Herrian zehar: Bidaso Behera
- Euskal Herrian zehar: Debaldea.
- Euskal Herrian zehar: Erribera.

Zazpi bideo. Guztira: 5.552.480 pezeta.

196. Bideogintza pedagogikoa, eta haurrenganako hurbilketa errazago izan asmoz, bi panpin diseinatu eta erabili ziren: MADDI eta PITI. Bata zein bestea protagonista bihurtu ziren hainbat gai monografikotan.

197. 'Euskal Herrian zehar' bideogintza pedagogikoa, bilduma garrantzitsuenetakoa izan zen, bai kaleratutako kopuruagatik eta baita tratamendu pedagogikoagatik ere. Fermin Barcelo-ren helburu (Euskal Herria ezagutzea) eta materialetan oinarrituta hasi ziren kaleratzen bideoak. Bakoitza hiru ataletan banatu zen: lehen atalean, eskualdeko deskribapen orokorra; bigarreanean, ikastetxeetan erabiltzeko estrategia didaktikoaren azalpena; eta hirugarrenean, eskualdearekin loturiko gai monografiko bat. Luis Marik esaten duen bezala, "garai batean irakasle askorentzako material osagarri interesgarria" izan zen (Luis Mari Alvarezekin elkarriketa, 2014/05/16).

Ondorengo urteetan ere, EIMA II programaren barruan egitasmo eta diru sarrera esanguratsuak jaso ziren:

Taula, 15: EIMA programa eta diru laguntzak (1990-1992)

URTEA	BIDEOAK	LAGUNTZAK DIRUTAN
1990	15	12.201.280 pezeta.
1991-1992	16	7.167.564
1992-1993	12	9.978.900

Iturriak: *Gestio Planak, 1991-92, 92-93. Irakasle Eskola. HUHEZI Artxiboa. Antolakuntza, B.4.12tik B.4.19ra. Egileak egina.*

Dena dela, ekoizpena ez zen soilik didaktikoa izan; kanpoko erakunde eta enpresei zuzendutako enkarguak ere aintzat hartzen ziren. Horrela, adibide gisa, 1993-1994 ikasturtean, Alecop, Auzo Lagun, Debagoieneko Mankomunitatea, Asturiasko Kontsumo Zuzendaritza, Legazpiko Bellota izan ziren IHARDUNen bezeroak.

Honez gain, IHARDUNen beste ezaugarrietako bat jardueraren dibertsifikazioa izan zen, eta ildo horretan antolatuta ziren “formazio okupazionaerako” ikastaroak. Igor Tellituk, Aitor Lauzirikak eta Luis Mari berak eman zituzten ikastaroak. Beste hainbeste esan dezakegu informatika arloan ere; Teknologia Berrien ikerketan Gipuzkoako Foru Aldundia eta Debagoieneko Mankomunitatearekin egin zen ikastaroa.

Beraz, azken urteetan IHARDUNen zeregina bikoiztu egin zen eta negozio bolumena ere igo egin zen. Alde batetik bideogintza, eta bestetik informatika. Bi ildoen baitan garatu zen IHARDUN multimedia (“Se trata de la creación de una empresa dedicada a la explotación y aplicación de las Nuevas Tecnologías de la Información y la Comunicación en el campo de la Formación y Educación”)¹⁹⁸.

Informatikari ateak zabaldu zitzaizkionean, Aitor Lauzirikaren laguntzaz, eskari inportanteak eskuratu ziren – aipatzekoa *Cuadernos de Pedagogía* bilduma osoaren digitalizazioa – eta lan bolumena igo egin zen¹⁹⁹. Jende asko behar zen egiteko horietan aritzeko, eta beraz, aurrekontua ere handia zen; handiegia eskolaren txikitasuna ikusita:

198. Luis Mari Alvarez Gerediagak esandakoak dira, enpresa honen sortzailetakoa eta ikus-entzunezko eta informatikako arloaren buru izandakoak. Iturria: Erakunde Harremanak. Argitaletxea: Irakasle eskola. C.8.1.1.tik C.8.1.16ra.

199. “Jaume Carbonell (orduan Vic-en irakasle zena) ezagutu orduko sortu zen gure artean sintonia. Orduan ere hasi ziren Cd-rom bezala ezagutu ziren euskarriak kaleratzen, eta ‘Cuadernos de Pedagogía’k bere 21. urteurrena (1975-1996) ospatzeko aldizkariak digitalizatzeko erabakia hartu zen. Dena Eskoriatzako Irakasle Eskolan egin zen. Gure ikasle ohiak izan ziren Ana Heriz eta Aitor Lauzirika aritu ziren bertan lanean. Hartutako erabakia, ekoizpenaren gastuak eta sarrerak, erdibana egitea izan zen. Lanaren izenburua, “Cuadernos de Pedagogía. 21 años contigo” izan zen. Hainbat urtetan mozkinak eman zituen bere salmentak (lauzpabost urtetan 1, 2 eta 3 miloi pezeta). Une batean RBA editores enpresara pasatu zen ‘Cuadernos’. Hala ere, gutxira, Wolters Kluwer argitaletxeak ‘Cuadernos’ aldizkariaren Cd-rom eskubideak erosi nahi izan zituen, eta 9 miloi ordaindu zizkion Irakasle Eskolari hitzarmena etetearen”. (Luis Mari Alvarez, elkarrizketa, 2014/05/16). Beste iturri bat: http://elpais.com/diario/1998/04/14/sociedad/892504827_850215.html (Kontsultatuta: 2014/03/17).

“ Orduan proposatu nion Luismariri kooperatiba berezitua sortzea. Ados. Zuten material guztiaren tasazioa egin zuen Jose Antonio Villar-ek: 15 milioi. Kopuru hori kooperatibako beste bi kidek, Maristek eta Alecopek, jarriko zutena kapitalaren erdia osatzeko izango zen; beste erdia enpresa berriko - Ihardun jarri genion izena -bazkideek jarriko zuten. Denok pentsatzen genuen kooperatiba jaio berria MCCn sartuko zela goizago edo beranduago... Bazkideen artean Aitor Lauzurika eta Manu Izagirre joan ziren; Mikel Usabiega, aldiz, Eskolan geratu zen geuk horrela eskatuta ”²⁰⁰

1997a aldaketa urtea izan zen; IHARDUN Multimedia elkarte autonomo bat osatzeko erabakia hartu zen. Haste-ko, baina, ez zuen erakunde bien arteko etenik ekarriko, bai ordea, bien arteko zereginak argi eta garbi adierazi eta banatzea. Elkarte kooperatibo berri bat osatzeko, gainera, ALECOPEz gain AZTERLANen (hezkuntza eragile desberdinen) partaidetza ere baieztatu zen. Kontuak kontu, IHARDUN Multimediaren sorrera 1997ko uztailean onartu zen, eta 1998ko urtarrilaren 19an Irakasle Eskolako Errektore Kontseiluak IHARDUN Multimedia bermea ematea erabaki zuen Euskadiko Kutzarekin eginiko 10.000.000 pezetako kreditu-polizaren bidez.

Horrekin batera, jarduera berri honen kokapena ere eztabaidagai egon zen; Eskoriatzan ez zegoen-eta tokirik. Hainbat harreman egin ondoren Gatzagan, Santiago kalean eraikitako eraikin berri batean kokatzea erabaki zen. Batanaz beste zazpi bat langile izan zituen IHARDUN Multimedia Koop. Elk.-ak hasiera hartan. Ondoren, ALECOPEko egoitzan, Arrasaten, izan zuen jarraipena proiektuak.

Luis Mari Alvarezen oroitzapenak eta bizipenak arakatzerakoan, oso interesgarriak eta onuragarriak zirela dio garai hartako ikus-entzunezko arlorako egotzitako zereginak. Izan ere, “Irakasle Eskola, euskaraz ekoitzi ziren bideo didaktikoen erreferente bihurtu zen Euskadin”²⁰¹.

13.2. `IHARDUN` ARGITALETXEA

1989-1990 ikasturtean, Iñigo Ramirez de Okarizen zuzendaritzapean hartu zuen forma IHARDUN argitaletxeak. Helburua? Gizarte nahiz eskola mailan ikaste irakasterako materialgintzan hautematen ziren hainbat hutsuneri erantzun egokia ematea. Proiektu honetan ere Kataluniara jo zuen Irakasle Eskolak, lehendik ezagutzen genuen Vic-eko Irakasle Eskolara, zehazki. Bertan, ABRIL-EUMO izeneko argitaletxe bat zegoen. Eta interesgarria iruditu zitzaigun bertan hezkuntzarako argitaratzen ziren materialak.

200. Jesus Garmendiaren aparteko oroimen idatziak.

201. Luis Mari Alvarezekin elkarrizketa, 2014/05/16.

Horrela, hiru ildo garatuz ekin zion proiektuari Eskoriatzako Irakasle Eskolak:

1. Ko-edizioa. Beste argitaletxe batzuk (gure kasuan Abril-Eumo) hezkuntzari lotutako materialak kaleratzeko aukerak aztertu.
2. Barneko produkzioa. Irakasle Eskola material erabilgarriaren sortzaile zen bai hizkuntza, bai teknologia zein kontsumo mailan ere. Benetako erabilgarritasuna emateko ezinbestekoa zen inguruko ikastola eta ikastetxeekin lan bateratua egitea.
3. Epe luzerako egitasmoak. Lantaldeak osatu eta ikus-entzunezkoarekin bat egin. Hauek sartuz gero esparrua gehiago zabalduko zen, eta horrela, benetako enpresa egitura sortuko zen.

Koedizioan, beraz, ‘Lehen Ipuinak’ izeneko bilduma sortu zen. Guztira, lehen eta bigarren mailari zuzendutako 6 ipuin²⁰². Ondoren, 1990ean, ‘Lehen Ttanttak’ bilduma osatzen zuten 10 liburutxo-ipuin kaleratu ziren²⁰³. Bata zein bestea Mariam Bilbatuak diseinatutako gida didaktikoaren baitan landu ziren.

Hala ere, guztietan izarra, gaur egun oraindik berrargitaratzen eta eskoletara banatzen den ‘Lehen Hiztegia’ izan zen: 1991ko azaroan argitaratu eta urte bereko Durangoko Azokan aurkeztu zen. 1991ko urriaren 18an Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak egitasmoa onetsi egin zuen²⁰⁴. Hiru argitalpen izan ditu, oraingoz, hiztegi honek:

- Lehen argitalpena, 1991koa, EUMO argitaletxearekin (VIC Unibertsitatearekin) batera gauzatutakoa. Lehen argitalpen honek, Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen “Isaac López de Mendizabal” izeneko dibulgazioko liburu onenari saria jaso zuen, 1993an.
- 1998an (bigarren argitalpena), ANAYA-HARITZA (Madrid) argitaletxearen eskutik.
- 2011an (hirugarren argitalpena), berriz, VOX-LAROUSSE (Bartzelona) argitaletxearekin.

202. Lehen maila: ‘Marraskiloa’, Inorekin hitz egin ezin zuen atsotxo’ eta ‘Txanogorritxo’. Bigarren maila: ‘Lore erromania’, ‘Mari Errauskin’ eta ‘Hiru Gurariak’.

203. Lehenetik hamargarrenera, hurrenez hurren: ‘Zorionak, Ane!’, ‘Euria’, ‘Eskuan mina, hankan mina’, ‘Mikel eta Miren’, ‘Txontxongiloak, maitagarriak eta iratxoak’, ‘Baserrira goaz’, ‘Ai, Txairo, txairo’, ‘Xabiertxo jai da’, ‘Lehengusuekin jaietan’ eta ‘Udalekuak’.

204. Lehen Hezkuntzari (6-12 urte) zuzendutako hiztegia da. 9.487 hitzen esanahia, 1.010 marrazki eta 17 lamina ere aurki daitezke bertan. Katalunian, EUMO argitaletxeak katalanez argitaratutako hiztegien oinarrituta dago ‘Lehen Hiztegia’. Egileak Katalunian M.C. Bernal, F. Codina, A. Fargas eta J. Tió izan ziren. Euskal Herrian, berriz, Julia Marin arduratu zen erredakzioaz eta Xabier Mendiguren izan zen hiztegia gure hizkuntzara eta nortasunera egokitzeko aholkulari teknikoa. Lehen argitalpen hartan Donostiako Zabaltzenekin egin genuen tratua hiztegia zabaldu eta saltzeko. Aldi berean, Imanol Larrera, eskolaz eskola ibili zen produktua zabaltzen, baita dezente saldu ere.

Argitalpen jarduerari dagokionean, barneko ekoizpenari ere nahitaez erreparatu behar diogu. Izan ere, Lehen Hezkuntzara zuzendutako Ingurunearen Ezagutza eta Hizkuntza aintzat hartuko zituen testuliburuak kaleratu zirelako. Horren berri emateko Xabier Arregiri, materialaren sortzailetako bati, emango diogu hitza:

“*Hasiera batean Luis Mari Alvarez hasi zen multimedia materialak kaleratzen ANAYA argitaletxearekin, adibidez ‘El Principito’ Cd-rom-a. Lehen Hiztegia ere bai... Harreman honen harira testuliburuak egiteko aukera sortu zen. Lehenik, hizkuntzaren didaktikaren inguruan, baina berehala ikusi zen interesgarria izan zitekeela diziplinartekoan oinarritutako materiala kaleratzea; hau da, ingurunea eta hizkuntzan oinarritutakoa. Hasteko, hor zegoen Matildek-eta inguruko ikastetxeekin egindako mintegietatik eratorritako lana eta materiala. Mariam Bilbatua eta biok ekin genion lanari, baina ahozkoatasunari erreparatu nahian Arantza Ozaeta ere proiektuan sartu zen. Eraitza: lehen hezkuntzako lehen mailatik seigarren mailara doan materiala ekoitzi genuen; ondoren ikastetxeetan aurkezten zen sortutako materiala. Irakasle Eskolarentzat, gaur egun HUHEZIREntzat, materialgintzan ardatz bihurtu da*”²⁰⁵

205. Xabier Arregirekin elkarrizketa, 2014/05/07.



1



2



3

1

Ihardun argitaletxea. Anagrama.

2

IHARDUN Ekoizpenak:
Garai bateko ezkontza, 1991.

3

IHARDUN Ekoizpenak:
Segak. 1991.

4

IHARDUN Ekoizpenak:
Euskal Herrian zehar, 1992.

5

IHARDUN Ekoizpena.



4



5



13



14



15

6

Irakasle Eskola Durangoko azokan.

7

Lehen Hiztegia, 1991.

8

Ikus-entzunezko gela berria,
1989 - 1990.

9

Lehen Ipuinak, 1989.

10

Lehen Hiztegia, 2011.

11

Katalogoa, 1991.

12

Lehen Ttanttak, 1990.

13 14

Maddiren abenturak, 1987 - 1988

15

Pitiren abenturak, 1988 - 1989

14. EUSKARA SAILA: SOZIOLINGUISTIKA, HAEE-IVAP, MCC, ULIBARRI, EMUN, HERRIETAKO MONOGRAFIAK

HUHEZI-Irakasle Eskolaren Hezkuntza Proiektuan jasotzen den bezala, ardatza euskara eta euskal kulturaren sustapena eta transmisioa da.

Zeregin hau, baina, ez da eskola barrura, hezkuntza formalera soilik mugatu eta euskararen kasuan kanpoko hezkuntza ez formaleko hainbat erakunderekin lan hitzarmenak gauzatu eta proiektu berriak sortzeko balio izan du.

Sail honen sustatzailea Julen Arexolaleiba izan zen²⁰⁶.

14.1. SOZIOLINGUISTIKA

Irakasle Eskolaren beste esparru berritzaile bezain emankorra Soziolinguistika arloa izan zen. Emankorra diogu bere baitan emandako ikastaroak 90 hamarkadan han eta hemen sortutako euskara elkar-teen haziak izan zirelako; ikastaro haietatik elkarte hauetako sortzailerako asko pasatu ziren.

Julen Arexolaleibak ondo gogoratzen digu garai hura:

“ 1989 eta 1990 urteetan Bergarako UNEDen hasi nintzen, zapatuetan, soziolinguistikari buruzko klaseak ematen eta ondoren Eskoriatzan. Jose Maria Sanchez Carrion “Txepetx”-en teoria ardatz zeukaten ikastaroe-

206. Julen Arexolaleibak Irakasle Eskolan ikasi zuen. Bosgarren promozioakoa da, 1980-1981ekoa hain zuzen ere. Eta urte gutxi barru, 1986an, hasi zen euskarazko klaseak Irakasle Eskolan bertan ematen, Iñaki Mendiguren eta Jesus Garmendiari esker: “izan ere denok gabiltzan Arrasateko AED elkartearen bueltan”. Hala ere, gogoko ditu ikasle garaioko bizipenak: “Asignaturetan Euskal Herriko Historia, Euskal Herriko Geografia, Euskal Literatura, eta aukerakoetan Amuriza bertsolaritzaz, ondoren musikaz Lutxi Mantzizidor. Ondo gogoratzen naiz Mitxelek aditz taularen bueltan ematen zizkigun klaseak. Berarekin ondo ikasi eta kontzientziatu nintzen, eta gero guk makina bat aldiz errepikatu genuen han eta hemen gure saioetan... oso gai eta esperientzia interesgarriak izan ziren niretzat. Gero kanpoko ikasleekin hartu-emanak (Ondarroa, Durangaldea, Elgoibar eta gure bailarakoak batez ere), han eta hemengo afariak... Oso oroitzen gozoak bai irakasle bezala eta baita ikaskideekin izandakoak ere. Familia txiki bat zen gurea, gertukoa”.

tan euskara zerbitzuetan lanean arituko ziren lagun asko egon ziren. Bertatik abiatu zen “Adorez eta Atseginez” ize-neko mintegia. Azken honek, hezkuntza komunitateari forma ematea zuen helburu, eta bidenabar, garai hartan ematen ari ziren alderdi politikoen arteko talketatik alde egitea. Hemendik beste proiektu batzuk eratorri ziren, adibidez, EMUN kooperatiba ”²⁰⁷

14.2. HAEE-IVAP

Herri Administrazioaren Euskal Erakundearen (HAEE) barruan, administrazioiko langileentzako prestakuntza eskaintzan sakondu zen. 1992 urtean hasi ziren 4. Hizkuntza eskakizuna ateratzeko klaseak; eta 1995ean bukatu zen lehen plangintza aldia. Esan beharra dago hori oso gai eztabaidagarria izan zela alderdien artean, eta hauteskundeak hauteskunde, gobernu osaketak zekarren planteamenduei erabat lotuta zegoela. Esan, 1995erako, 65na orduko 40 modulu emanak zirela 14 taldetan. Bada zerbaite, beraz, hasteko. 1998-1999 ikasturtean ere, 14 talde eta 200 ikasle egon ziren.

Bederatzi irakasle aritu ziren ekinaldi hartan: 3 Irakasle Eskolakoak eta 6 kanpoko laguntzaileak. Klaseaz gain ikas-materiala argitaratzeko ere hitzarmena sinatu zen.

Julen Arexolaleibak ondo ezagutzen du Irakasle Eskolak garai hartan zeregin hau bereganatzeko emandako urratsak:

“ *Dionisio Amundarain, HAEE-IVAPen ari zen lanean garai hartan, eta laugarren hizkuntza eskakizuna zela eta ez zela gurekin jarri zen harremanetan, ea guk honen ardur hartzerik izango ote genuen galdetzeko. Baldintza ekonomikoak oso egokiak ziren eta Mitxel Kaltzakorta, Jesus Garmendia eta hirurok, nahiz kanpoko beste irakasle gutxi batzuk, hasi ginen ikastaro hau ematen. Ni neu, adibide bat jartzearen, han eta hemen ibili nintzen urtebetean honako ordutegiarekin: 8:00etatik 10:00ak arte, Bergaran; 11:30etatik 13:30ak arte Markinan, eta 16:00etatik 18:00ak arte Donostian. Garai hartan Irakasle Eskolak bizi zuen egoera ekonomiko apalerako ere diru iturri ona izan zen. Gero, gure lankidea den Asier Irizar sartu zen eta zenbait argitalpen ere egin ziren ”²⁰⁸*

207. Julen Arexolaleibarekin elkarrizketa, 2014/03/12.

208. Julen Arexolaleibarekin elkarrizketa, 2014/03/12.

Hala ere, aipatu behar da, laugarren hizkuntza eskakizunaz gain, hitzarmen honek bazeuzkala bestelako helburu batzuk ere: lehena, administrazioko hizkera eguneratzen laguntzea; eta, bigarrena, jarrera ere lantzea; hots, euskara erabiltzeko konfiantza eta joera sustatzea.

Ondorengo urteetan hauek izan ziren taldeak eta zereginak:

- 2004-2005 ikasturtean 13 talde izan ziren, 140 ikasle gutxi gorabehera. Ordura arte hiriburuetan ematen baziren ere saioak, zegoeneko Arrasaten, Gernikan, Lekeition eta Zumaian ere hasi ziren ematen.
- 2005-2006 ikasturtean, berriz, ohiko ikastaroaz gain, on-line ere eskaintzen hasi zen. Horretarako, lehendabizi, "gela birtual" bat eratu bazen ere, berehala ekin zitzaion Mudle plataforma eratzeari. Begi-bistakoak izan ziren hobekuntzak.
- 2007-2008 ikasturtean, 15 talde egon ziren (13 aurrez aurreko saioetan, eta beste bi talde on-line). Guztira, 150 ikasle gutxi gorabehera: Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Gernikan.
- 2008-2009 ikasturtean, 13 talde izan ziren (11 aurrez aurreko saioetan eta beste bi talde on-line): 150 ikasle gutxi gorabehera Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Arrasaten.
- 2009-2010 ikasturtean, 15 talde izan ziren (13 aurrez aurreko saioetan eta beste bi talde on-line): 180 ikasle gutxi gorabehera Bilbon, Donostian eta Gasteizen.

Aipatu den azken ikasturtean, eta HAEEK hala eskatuta, "Administrazioko testugintzan sakontzeko ikastaroa" izeneko liburua egin zuten HUHEZiko irakasleek.

14.3. MCC

Lan munduko esperientzietan ELHUYAR izan zen garai hartan enpresak euskalduntzeko prozesuan aitzindari. Horren hastapena bailaran Antzuolako ELAY enpresa izan zen 1990. hamarkadaren hasieran²⁰⁹. Negozio bide hau aprobetxatuz MCCrekin hitzarmena sinatzea aurreikusitua zen:

“ Horretarako ELIE Koop. E. izeneko enpresa sortu zen horretan esperientzia zuen Elhuyar enpresarekin batera. Baina dirudienez ez zuen jarraipenik izan, Elhuyarrek pentsaera aldatu zuelako ”²¹⁰

209. ELAY enpresak, *ELAY, 50 Urte (1965-2015)* argitaratutako liburutik.

210. Julen Arexolaleibarekin elkarrizketa, 2014/03/12.

14.4. `ULIBARRI´ PROIEKTUA

Irakasle Eskolaren sorrera printzipioekin bat egin eta hizkuntza normalizazioaren ildotik begiratuta, `Ulibarri´ proiektuarekin bat egin zen. Bertan, 1998-1999 ikasturtean, euskarari aurrerabidea ematen laguntzeko Euskadiko Autonomia Elkarteko 308 ikastetxetan aritu ziren Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza saila, hiru aholku elkarte (HUHEZI, UEU eta Ikastolen Elkartea), eta PATetako 22 hizkuntza normalizaziorako teknikari. Tokiko plangintzak diseinatu eta horren formazio-koordinazio eta ebaluazio-lanak egin ziren.

14.5. EMUN Koop. E.

Irakasle Eskolatik HUHEZlra pasatzeak bestelako aukerak zabaldu zituen; enpresa mundua hartu zen gogoetarako gai. Euskarari bide berriak zabaltze aldera, hartzaileak eta helburuak ugaritzen joan ziren eta enpresen euskalduntzean eragiteko sortu zen 1998an Emun Koop. E. Ez zen kasualitatea izan enpresa honen sorrera, izan ere, arestian aipatu dugun bezala, urte batzuk baziren Bergarako eta Eskoriatzako ikastaroen bidez soziolinguistika saioak-eta ematen zirena. Bertan ereindakoa fruitua ematen hasi zen.

Jesus Garmendiak, Irakasle Eskolako orduko dekanook, horrela arrazoitu digu erronka berri hura:

“ MONDRAGON UNIBERTSITATEAK, enpresarekin hain lotura estuak dituen erakundeak, aitortu behar dio bere buruari profesional euskaldunak sortzen dituen heinean enpresa mundu horretan hizkuntza normalizazioaren aitzindaritzaren bereganatzen ari dela. Eta honenbestez, konplexurik gabe, bide horren aldeko apustua egin behar du, garai batean Eskoriatzako Irakasle Eskolak irakaskuntza munduan egin zuen antzera ”²¹¹

14.6. Herrietako monografiak

Debagoieneko hainbat udalbatzarrek eta Mankomunitateak berak ere `Gure Herria´ monografiak kaleratzeko asmoa adierazi zuten. Alegia, bakoitzak bere herriko eta Debagoiena eskualdeko ezaugarriekin loturiko material didaktikoa, ondoren ikastetxeetara bideratzeko.

Arrasate, Oñati, Mankomunitateak eta Bergarako baiezkoa eman zuten, eta beraz, lanari ekin zitzaion. Lehendabizikoa `Arrasate Gure Herria´ izan zen, 1993an. Bi urte beranduago frantsesez eta ingelesez idatziriko eranskinekin kaleratu zen. Ondoren, “Oñati gure herria”, 1994ean. Kaleratu gabe gelditu ziren Debagoienekoa, 1992an, eta Bergarakoa, 1993an. Proiektu honetaz Iñigo Ramirez de Okariz arduratu zen.

211. Elkar lana (2002). *Kooperatibak eta euskara. Historia eta aro berri baten oinarriak*. Eskoriatza: LANKI Ikertegia (MONDRAGON UNIBERTSITATEA), 115 or.

15. IRAKASLE ESKOLA ETA LANBIDE HASTAPENA

1985ean OCDEk (Kooperazio eta Ekonomia Garapenerako Erakundeak) eginiko Coleman-Husen txostena kaleratu zuen. Bertan, gazteek gizarte hain aldakorrera integratzeko izan zitezaketen arazoez hausnartzen zen.

Horretan oinarrituta, urte batzuk beranduago, Debagoieneko Mankomunitatean *“El Comité Comarcal para la Formación Ocupacional Continua y el Reciclaje Profesional del Alto Deba”* sortu zen 1988ko irailean. Eskualdeko udal ordezkariak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, ADEGIk, Sindikatuek, Ikerlanek, Fagorrek eta Hezibidek osatu zuten. Helburua, enpleguaren garapena eta sustapenerako jarduerak bultzatzea.

Eusko Jaurlaritzaren industria sailak ere bazuen enpresa berriak sortzeko helburu zuen ikastaro programa zabala, eta Irakasle Eskolak hor ere muturra sartzea erabaki zuen. Koldo Azkoitia, garai hartako Mankomunitateko enplegu teknikaria, izan zen bide hori zabaldu ziguna. Horietako ikastaro bat itzulpengintza izan zen; Xabier Mendiguren eta Julia Marin-eri (Lehen Hiztegia ere katalanetik euskara egokitu zutenak) eman zitzaien aukera horri heltzeko. Hortik sortu zen ‘Belaxe’ itzulpen enpresa²¹²; Marije Lezetak, Irene Txurruka eta Nuria Fernandez de Arroiabek osatu zuten.

Beste zeregin bat, eskola eta enpresetan sozio-psikologoak birgaitzeko xedea zuen 600 orduko ikastaroa ematea izan zen. Oso hizlari onak izan ziren bertan: Pello Ayerbe, edota Saiolan-eko zuzendaria zen Armin Isasti.

Eta Jesus Garmendiaren esanetan:

“*Honekin guztiarekin enpresa mundura hurbildu ginen, eta Mankomunitatera ere bai, beti Koldo Azkoitiaren eskutik. Eta horrela etorri zitzaigun Arrasateko Lanbide Hastapenaren ardura osoa geureganatzeko eskaera. Hezkuntza mota honetan hartzen zuten parte sistematik kanpo zeuden 15-16 urteko ikasleek. Guretzat ezezaguna zen mundu hori, baina orduan Alecopen lanean zebilen Eugenio Astigarragaren laguntza izan genuen*”²¹³

212. <http://www.belaxe.com/eu/>. (Kontsulta: 2013/04/23)

213. Jesus Garmendiaren aparteko oroimen idatziak.

Lanbide Hastapenaren helburua gazteei lanbide baten tekniketari sarrera emateaz gain, beren auto-estimua indartu eta heziketa integralerantz jotzea zen; ondoren, integrazio sozial eta laboralerako prestakuntza ematen zen. 16-17 urteko neska-mutilentzat zuzendutako ikastaroak ziren. 1991ko ikastaroak, adibidez, sukaldaritza-gozogintza (Oñatin), zurgintza (Bergaran), jantzigintza (Arrasaten) eta igeltserotza (Bergaran) izan ziren.

Hala ere, programazioak izaera pedagogiko gabekoak ziren eta ez zegoen, beraz, material didaktikorik; ezta maila horretan klaseak emateko irakasle gaiturik ere. Orduan, eta Juanjo Otañoren hitzak dira:

“ *Hori zela eta, 1991ean jarri zen Mankomunitatea Irakasle Eskolarekin harremanetan pedagogia eta didaktika zeregin horretan aholkularitza eske: izaera pedagogikoa sendotzeko, material didaktikoa sortzeko, irakasleen gaitasuna handitzeko helburuekin. Ikasturtearen diseinua, antolakuntza, burutzapena eta administrazioa bere gain hartzeko eskaria egin zion Mankomunitateak Irakasle Eskolari* ”²¹⁴

1992an onartu zen Lanbide Hastapenerako Programa bideratzeko Mankomunitatea eta Irakasle Eskolaren arteko ituna. Aldi berean, irakasle sarea ere osatu zen: Dani Larrea izango zen zuzendaria; Beatriz Arregik, adierazpen artistikoa emango zuen; elektromekanika, Koldo Gaztañagak; zurgintza, J. Ignacio Irastortzak; matematika, Sabino Larrañagak; hizkuntza, Bittor Trebiñok eta sukaldaritza, Oskar Trebiñok. Hala ere ez zuen asko iraun gure esku proiektuak, eta Arizmendik hartu zuen bere gain programaren zuzendaritza.

Hasieran Arrasate, Bergara eta Oñatiko lokal desberdinetan gauzatzen bazen ere, gaur, Arrasaten du egoitza²¹⁵.

214. Juanjo Otañorekin elkarrizketa, 2014/10/13.

215. http://www.debagoiena.com/Garapen_Agentzia/Ingurumena/Prestakuntza/Lanbide (Kontsulta: 2013/05/12).

16. EKONOMIA

‘Liga de Educación y Cultura (L.E.C.)’ barruan kokatuta zeuden ikastetxeen interes publikoa aldarrikatu nahian, erakunde honen ordezkariak eta Debagoieneko alkateak Hezkuntza Ministroa zen Robles Piquer jaunarekin elkarrizketa bat izan zuten 1976an.

Helburua, zentro estatal eta pribatuen artean zegoen urruntasuna saihestu eta horretarako komunitatearentzat mesedegarriak ziren sinergiak aprobetxatzea. Egitasmo honek, baina, ez zuen emaitza onik izan ondorengo urteetan, eta azkenean, jakinda Eusko Jaurlaritzak beregain hartuko zituela Hezkuntza eskumenak, Espainiako Hezkuntza Ministerioak ez zuen deus egin. Harreman honen baitan zegoen gaietako bat ikastetxeen finantzaketa zen²¹⁶.

Hasiera hasieran Irakasle Eskolak (Hezibidek) bere gain hartu zituen konpromiso ekonomikoak²¹⁷. Konpromisoak bi ataletan banatu ziren. Lehenik eta behin, 1976an eraikuntza berrirako obrak eta egokitzapenak (14.000.000 pezeta), eta, bigarrenik, eremu ibilgetuak (“inmovilizado”) 15.709.504 pezetako balioa zuela aitortzea. Diru kopuru hauek ordaintzen joateko bi dohaintza izan zituen Irakasle Eskola proiektuak: Eskoriatzako Udalak, 1.800.000 pezeta, eta Juanito Zelaiak emandako 5.000.000 pezeta. Beraz, kontuak kontu, 9.000.000 milioiko epe luzerako kreditua eskatu zitzaion Aurrezki Kutxa Probintzialari falta zena ordaindu ahal izateko.

Irakasle Eskolaren 1977-1978 urteko gastuen aurrekontuari erreparatzen badiogu, dakusagu guztira 5.400.000 pezetakoa zela, eta horrela zegoela banatuta:

1. Zuzeneko pertsonala: 4.086.693 pezeta.
2. Zeharkakoa: 684.500 pezeta.
3. Gastu orokorrak: 628.807 pezeta.

Beraz, aurrekontuaren kopururik handiena soldatak ordaintzeko erabiltzen zen²¹⁸.

216. HEZIBIDE Artxiboa, 1-04. “P. Sebastián” karpeta.

217. Adierazi beharko litzateke eta argitu, Irakasle Eskolak ez zeukala bere laguntza propioak eskatzeko aukerarik izan hasiera batean, izan ere ez zeukan egitura juridiko ofizialik, eta horretarako Hezibide Elkartearen gestiopean zegoen. 1978ko uztailaren 8an, baina, egoera aldatu egin zen, eta ofizialtasuna lortuta burujabetasunaz baliatzeko finantzaketarako bide berriak ireki zitzaizkion.

218. Esan, 1978-79 ikasturterako, aurrekontu osoa 10.453.601 pezeta izan zela.

Ikasturte berean 30.000 pezeta ordaintzen zuen ikasle bakoitzak bere kuotagatik. 90 ikasle zirenez, guztira 2.700.000 pezeta jasotzen ziren. Beraz, sarrerako atalean beste partidarik egon barik, defizita 2.700.000 zen. Hasteko, bada, diru zulo handia zen. Ikasle kopuru osoa aintzat hartuta (90 ikasle), Irakasle Eskolarentzat ikasle bakoitzeko zenbateko erreala 60.000 pezeta zen.

Bide batez, "Luis Vives" ikastetxearen menpe zegoenez Irakasle Eskola, kanon baten bidez ordaindu behar izaten zitzaion bere babes akademikoa (matrikula, ikasketa-plangintza, programa eta azterketa). Hala, 1977-78 ikasturtean badakigu 6.500 pezeta ordaindu behar izaten zitzaiola lehen mailako ikasle bakoitzagatik Salamancako Irakasle Eskolari. Beraz, lehen mailan zeuden 51 ikasleengatik ($51 \times 6.500 = 331.500$ pezeta); bigarren mailakoengatik, ordea, 6.000 pezeta ordaindu behar izaten zen: $39 \text{ ikasle} \times 6.000 = 234.000$ pezeta.

Kontuak aterata, Irakasle Eskolaren sostenguan (1979-1980 ikasturtean) ikasleek diru sarreren erdia suposatzen zuten. Defizit horren aurrean neurriak hartu behar izan ziren, eta ikasleen kuotak igotzea eskatu zen behin baino gehiagotan; kontuan hartu behar da hiru unibertsiitate eskoletatik (Irakasle Eskola, Eskola Politeknikoa eta ETEO) Eskoriatzakoak zeukala kuotarik txikiena, 45.000 pezeta (Eskola Politeknikoak 48.500 eta ETEOk, berriz, 52.000 pezeta).

Egoera honi aurre egiteko, eta Irakasle Eskolaren etorkizuna ziurtatzeko, 1979-1980 ikasturterako ikasle kopuruari mugarik ez jartzea eskatu zen, uste baitzen Erakundeak izan zezakeen erabileraren azpitik zebilela. Horrela promozio bakoitzean 120 ikasle izatea aurre ikusi zen. Izan ere, "con el grupo actual de alumnos y especialidades, la Escuela no responde a lo que de ella tiene derecho a esperar el mundo educativo vasco. Irakasle Eskola de Eskoriatza es la primera Escuela del País que se ha planteado seriamente la preparación de maestros euskaldunes. Un equipo mínimo de profesoras busca afanosamente el camino hacia ese único objetivo"²¹⁹. Dena dela, aurreikuspena ez zen aurrera joan: lehen mailako ikasle kopurua 70era igotzea erabaki zen²²⁰.

1980ko abenduan eginiko Batzar Orokorreko datuak ere adierazgarriak dira; orduko defizita 808.581,11 pezetakoa zen (sarrerak, 10.704.156 eta irteerak, 11.512.737,11)²²¹. Langileen diru-kostuak zeraman aurrekontuaren %86²²², gainerrako %14 gastu orokorretarako zen. Hauei aurre egiteko, Irakasle Eskolaren finantzaketa irizpideen arabera, gastuak era paritarioan ordainduko zirela erabaki zen -ikasle (%50) eta elkarte laguntzaileen (%50) artean-. Azken laguntza hauek, gainera, bermatuta zeuden ULARCO-AMATEk Hezibide Elkarteen bidez ikastetxeei ematen zitzaaien laguntzarekin, F.O.S. (Fondo de Obra Social) izeneko fondoaren bidez, alegia.

Gastuak ere ugazituz zihoazen ikasturte batetik bestera. Ikasketak zenbat eta gehiago garatu, orduan eta irakasle berri gehiago eta zuzendaritza talde zabalagoa eskatzen zuen. Baina ez hori bakarrik, langileriaz gain desplazamenduetarako, dietetarako... diru asko behar izaten zen. Are gehiago, aukerako ikasgaiak gehitu ahala, gastuak ere handitu egin ziren²²³.

219. *Proyecto para el curso 1979-80 y perspectivas de futuro. Marzo de 1979.* Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.

220. *Plan de gestión, 1980-81.* Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.

221. *Batzar Orokorra, 1980.12.17.* Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa, B.3.1-3.5 dokumentua.

222. 2012-13an, %64,5.

223. *Plan de gestión. Curso 1978-79.* Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.

Egoerak hala behartuta, bailarako udalei diru laguntza eskatu zitzaizen, baina erantzuna (kasuren bat edo beste kenduta) antzua izan zen. 1980-1981 ikasturtean 697.112,75 pezetako defizita egin zen²²⁴.

Egoerak egoera, 1981-1982 ikasturterako, Kontseilu Errektoreak ikasleen matrikulak 13.000 pezeta eta 5.900 pezeta hileko (10 hilabete) kuotak igotzeko erabakia hartu zuen²²⁵. Guztira, 72.000 pezeta. Horrela, 1982-1983 ikasturterako, ikasleen kuotak aurrekontu osoaren %70 izatea lortu zen²²⁶.

Ondorengo ikasturteetan ikasleei atxikitzen zitzaizen tasa igoera handituz joan zen:

Taula, 16: Ikasleen matrikulak eta kuotak (1987-1988 eta 1988-1989)²²⁷

IKASTURTEA	MATRIKULA	IRAILA	9 HILABETE	GUZTIRA (PZTA)
1987-1988	25.000	7.600	7.800	102.800
1988-1989	25.000	7.800	9.500	118.300

Esan dezagun, beraz, hasiera haietan Irakasle Eskolaren egoera ekonomikoa ez zela batera oparoa. Esku artean izan ditugun dokumentuak hala aitortzen digute behintzat, eta ez dute aukerarik ematen baikorrak izateko. Iritzi berekoa da Arantza Aiastui, 1977an administrazio lanetarako hasi zen bazkide ohia²²⁸:

“ Subentzioak ez baziren etortzen garaiz, soldaten ordainketak ere sarri atzeratu egiten ziren. Baina bertako langileok mentalizatuta geunden egoeraz, eta jakin bagenekien berandu bada ere, jasoko genuela soldata. Defizita konstantea zen, eta behin irakasle batekin aurrez aurrekoa izan nuen, izan ere egoera honen aurrean ‘esto parece un chiringuito de playa’ esan zuen. Nik erantzun nion ‘gracias a que este chiringuito ha soportado todas las tormentas y tempestades tú estás en esta Escuela’. Urte txarrak izan ziren, baina aldi berean baita urte politak ere irakasle, ikasle eta langileen artean giroa ona zelako ”²²⁹

224. *Acta Junta Rectora*, 03.12.1981. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Errektore Kontseilua, B.3.1-3.5 dokumentua.

225. *Acta Junta Rectora*, 20.05.1981. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Errektore Kontseilua, B.3.1-3.5 dokumentua.

226. *Batzar Orokorreko Aktak* (1983.02.28). Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Ikasleen sarrerak betidanik izan dira oso garrantzitsuak, baita gaur ere. 2012-13ko ikasturtean, esate baterako, %65 suposatzen zuen.

227. *Antolakuntza, Gestio Plana*, B.4.12tik B.4.19ra. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak egina.

228. Arantza Aiastui 30 urte egin zituen gurekin guztira. 1977an sartu zen Irakasle Eskolan.

229. Arantza Aiastuirekin elkarrizketa, 2014/02/19.

Azpimarratu beharko litzatekeen beste aldagai bat, ikasle kopuru osoa aintzat hartuta, ikasle-kostu errearen zenbatekoa da.

Hala, 1978-1979 ikasturteko pertsonal gastuak kontuan hartuta, ikasle bakoitzaren diru-kostua 78.406 pezetakoa zen. Oñatiko Enpresagintza edo garai hartako ETEOrentzat, berriz, askoz txikiagoa: 50.622. Diru-kostu osoari erreparatu gero (orokorrak ere aintzat hartuta), Irakasle Eskolarena 89.348 pezetakoa bazen, ETEOrena, berriz, 57.272 pezetakoa zen²³⁰. Beraz, nabarmenak ziren pertsonal gastuei zegozkien aldeak.

Ikasle-kostuak, denboraren poderioz, gora egin zuen:

**Taula, 17: Ikasle kopuru osoa hartuta, ikasle kostua eta finantzaketa bideak
(1985-1986 ikasturtetik 1988-1989 ikasturtera)**

IKASTURTEA	IKASLE OSOA	IKASLE/KOSTUA	FINANTZAKETA
1985-1986	218	127.095	Ikasle kuotak: %69 Diru-laguntzak (E.J.): %23 Beste: %8
1986-1987	203	147.341	Ikasle kuotak: %65,15 Diru-laguntzak (E.J.): %25,94 Beste: %8,91
1987-1988	200	157.430	Ikasle kuotak: %65,29 Diru-laguntzak (E.J.): %22,54 Beste: %12,17
1988-1989	171	195.526	Ikasle kuotak: %60,61 Diru-laguntzak (E.J.): %21,23 Beste: %18,16.

Iturria: Plan de gestión. Curso 1987-1988. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra eta eta B.4.12tik B.4.19ra. Egileak egina.

Beraz, taulan hauteman daitekeen bezala, ikasturtez ikasturte ikasle kostuaren igoera eman zen (hiru urtetan, 127.000tik 195.000ra). Baina aldi berean, ikasle kopurua jaitsi egin zen (218tik 171ra). Beraz, ezinbestean, finantzaketa iturri berriak lortu behar ziren. Ikasle kuotek diru iturririk handienak (%60tik 69ra) suposatzen bazuten ere, adierazitako urteetan, Eusko Jauriaritzatik zetozen ekarpenak ez ziren izan txikiak (%21etik %26ra). Eta zer esanik ez Gizarte Funtsarenak; %8tik %18ra igo zen.

230. Comentarios a las consideraciones hechas por L.E.C al Plan de Gestión, 1978-79. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.

Defizita ia-ia “kronikoa” bihurtzen ari zen. Irakasle Eskolaren txikitasuna sendo-gune moduan hartzen zen, baina ahulune ere bihur zitekeen koiunturen arabera; batik bat diru sarreren ahuleziarengatik. Adibidez, 1982-1983ko gestio plangintzan Eskolaren egoera ekonomikoa “agonikotzat” jo zen²³¹. Datuak ez ziren batere oparoak:

Taulara, 18: Aurrekontuak hainbat ikasturtetan (1977-1993)²³²

IKASTURTEA	EMAITZAK (PZTA)
1977-1978	+ 380.331,37
1978-1979	- 2.313.444,63
1979-1980	- 808.581,11
1980-1981	- 697.112,75
1981-1982	- 598.444,61
1983-1984	- 576.678
1984-1985	- 42.062
1986-1987	- 7.513
1987-1988	- 163.042
1988-1989	- 116.100
1989-1990	- 258.430
1990-1991 (*)	- 14.714.264
1991-1992	- 504.496
1992-1993	- 712.712
1993-94 (**)	+ 13.426.638

(*) Hasierako formaziorako diru sarrera ez zen %20ra iristen. Kanpoko proiektuekiko dependentzia itzela zegoen. “Gestioan ikasi beharra” adierazten da 1992ko otsailaren 27ko Batzar Nagusiko aktan.

(**). Gizabideak emandako ekarpenari esker gainditu zen egoera.

Iturria: Batzar Orokoretako aktak. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak egina.

231. *Plan de gestión. Curso 1982-83 eta 87-88*. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra eta B.4.12tik B.4.19ra.

232. “sostenimiento”, inbertsiorik gabe.

Felix Ormaetxeak ondo adierazi digu zelakoak izan ziren garai hartako diru premiak:

“ Kooperatibek laguntzen zuten. Hezibidek jasotzen zuen dirua (gero GIZABIDEk) eta bertatik ondoren banatu²³³. Gertatzen da laguntzen kopuruak ez zirela denen gustukoak, eta eztabaidak egoten ziren horren inguruan. Ni neu Hezibideko zuzendaria nintzen, ikastetxe askotan ibiltzen nintzen, eta eskolakoak, adibidez, kexatzen ziren diru guztia Irakasle Eskolara zihoalako, eta alderantziz. Honen inguruan eztabaida beroak izan ditut bai Jesus zein Juanjorekin ere. Ekonomia “de guerra” izan zen hasiera hura; pobrezian oinarritutakoa. Hezkuntza iraunkorra eskaintzen hasi ginenean (Ikastoletako maisu maistrak titulua lortzeko,...) hasi zen egoera aldatzen. Ni orduan ez nintzen zuzendari ²³⁴”

Garai hartako dinamika ekonomikoaz jabetzeko, beste aldagai bati helduko diogu; diru sarrera eta irteerak. Honatx hainbat datu:

- 1978-1979 ikasturteko sarrerak 10.000.000 pezeta, eta irteerak 12.700.000 pezeta.
- 1983-1984 ikasturtean, 25.800.000 pezeta sarrerak eta 26.200.000 irteerak.
- 1988-1989 ikasturtean, 42 miloi pasatxo irakaskuntzan izandako sarrerak eta 50 miloi eta erdi pertsonal gastuak.
- 1994-1995 ikasturterako pertsonal gastuak 96.607.363 pezetakoak izango zirela aurreikusten zen, eta irakaskuntzan izandako sarrerak 46.661.000 pezeta izan ziren. Beraz, bestelako jarduera batzuen bidez 50 milioi gehiago lortu behar ziren.

Argi dago Irakasle Eskolan mugitzen ziren diru kopuruak gero eta handiagoak zirela.

Jesus Garmendiari emango diogu hitza bizi zen egoera trakets hark ezkututzen zituen bestelako errealitateei buruz hitz egiteko:

233. Esan beharra dago, Hezibide Elkarteko partaideen artean diru kontu hauen kudeaketa eta finantzaketa bideak istilu iturri izaten zirela sarri.

234. Felix Ormaetxearekin elkarrizketa, 2012/11/14.

“ Greba egin genuen batean, egoera politikoak eraginda, irakasleei soldatatik deus ez kentzea erabaki genuen. Alegia, bageneraman hiru hilabete kobratu gabe eta pentsatu nuen nahikoa zigor bazela hori. Ezin ordainduta ibiltzen ginen, Jaurlaritzako edo beste nonbaiteko ordainketa hilabete amaierarako etorriko zen zelatan, Arantxa eta biok... Kanpoan egindako lanek ziurtatzen baitzuten, urte batzuetan, aurrekontuaren %ko zati potoloa: %89a urte batean. Zabaltzen-ek, gure Lehen Hiztegia saltzen zuen banantzai-leak, ez zituen ordainketa epeak betetzen. Egoera hain larria zen urte haietan (89-95), behin, neure kabuz, Euskadiko Kutxako Lehendakari J. M. Otaegirekin sakon hitz egitera joatea erabaki nuela ... Hala ere, beti esan izan dut ez genuela ezer ordaindu gabe utzi, ez inori ere zegokiona baino gutxiagorik eman ”²³⁵

Beste aldagai bat Irakasle Eskolaren diru kontuak ulertzeko, sarrerren jatorria hautematea da. Aurretik zerbait azpimarratu badugu ere, aldagai honetan hiru negozio arlo bilduko dira: formakuntza, birziklatzea eta arlo soziokulturala. Horren bitartez jakingo dugu zein den, 80. hamarkadaren erdialdetik (1986-1987) 90. hamarkadaren hasierara (1991-1992), aurrekontuari atal bakoitzak egiten zion ekarpena.

Taula, 19: Irakasle Eskolaren negozio arloak eta diru sarrera ekarpenak (%etan adierazita) (1986-1991)

IKASTURTEA	1986-1987	1987-1988	1988-1989	1989-1990	1990-1991	1991-1992
HASIERA FORMAZIOA	75	69	51,9	36	18,85	24
BIRZIKLAPENA	18	21	30,2	30,7	31,25	39
ARLO SOZIOKUTURALA ²³⁶	7	10	17,9	33,3	49,90	37

Iturria: Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.12tik B.4.19ra. Egileak egina.

235. Jesus Garmendiaren aparteko oroimen idatziak.

236. Arlo Soziokulturean sartzan ditugu esparru hauek: bideogintza (Audiobisualak), ingurunea, ikerlanak, monografiak, informatika, plastika, IHARDUN, haur liburutegia ...

Nabaria da negozio arlo bakoitzaren bilakaera dinamika. Are harrigarriagoa eta kezkatragoa da, "hasierako formazioaren" beharrezko bilakaera (herena). Positiboagoak, berriz, birziklatze eta eremu soziokulturalari lotutakoak.

Egoera koiunturalek ez zuten sarri egoera ezkorri buelta emateko aukerarik ematen. Adibidez, 1986-1987 ikasturteko ikasle matrikulek ustekabeko jaitziera izan zuten. Bazirudien ekaitza baten iragarpena zela. Horretarako prestatu behar zegoen, bagenekielako titulurik gabeko irakasleen plangintza 1988-1989 ikasturtean bukatuko zela. Beraz, bertan parte hartzen zutenen arteko hausnarketa sakona egiteko garaiak zetozen, eta hala egin zen.

Hasteko, matrikulen behar kadaren ondorioz formazioaren ekarpenak izan zuen jaitziera nabaritzen da. Gainerako ekarpenetan igoerak izan ziren: irakasleriaren birziklatzeak, eta arlo soziokulturalak hartu zuten garrantzia handia; 1990-1991 ikasturtean hortik zetorren sarreren gehiengoa.

Azken bi negozio hauei dagokienean, zein zen Irakasle Eskolak urte hartan gizarteari egiten zion eskaintza? Diru kopuru hotzek ez digute, agian, proiektio handikoa den errealitate baikorra ikusten utzi: garai hartako langileek Irakasle Eskola aurrera ateratzeko egindako ekarpenak. Izan ere, arestian aipatutako birziklatze saioek eta arlo soziokulturalak (argitalpenak, ikus entzunezkoak...) hasierako formazioan sortzen zen defizita estaltzen zuten. Hori Erakunde honetako gizon eta emakumeen bizitasuna eta dinamismoa, grina, inplikazioa eta egokitzen jakiteko borondatearen adierazle da.

Har dezagun, eredu gisa hori baieztatzeko, 1989-1990 ikasturteko eskaintza:

Taulara, 20: Birziklatzea eta arlo soziokulturala, 1989-1990 ikasturtea

ESKAINITZA	KONTRATATZAILEAK	HARTZAILEAK
Teknologia ikastaroak (Galileo, 2000)	ALECOPI	Ikastetxeak
Arrasateko monografia	Arrasateko Udala	Ikastetxeak
Udalako Ingurumen Eskola	Arrasateko Udala	Ikastetxeak
Haur Liburutegi Mintegia	Gipuzkoako F.A. eta Debagoienerako Mankomunitatea	Bibliotekak eta ikastetxeak
Birziklatze ikastaroak	Eusko Jaurlaritza (Hezkuntza saila)	Ikastetxeak
Jakingarriak	Eusko Jaurlaritza	Ikastetxeak/PAT
Kontsumoa (Postgrado)	Eusko Jaurlaritza	Ikastetxeak
EIMA	Eusko Jaurlaritza (Kultura saila)	Ikastetxeak
OSE, Erreforma, Birziklatzea	Hezibide Elkarteak	Ikastetxeak
Begirale espezialista	HEZKIDE	Ikasleak
Ekoekintza	SAIOLAN	Ikasleak
Soziolinguistika (Postgrado)	UNED	Ikasle, irakasle.
Testu liburugintza	Eusko Jaurlaritza	Ikastetxeak
IHARDUN	EIMA (Eusko Jaurlaritza)	Ikastetxeak
Plastika ikastaroa	AED, Adarra ...	Irakasle, guraso ...

Antolakuntza, Gestio Plana, 1989-1990. B.4.12tik B.4.19ra. Iturria: Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak eginak.

Goiko taulan azaltzen diren kontratatzaileen zutabeari erreparatuz gero, argi ikusten da administrazio publikoaren ekarpena handia izan zela. 1989-1990 ikasturterako egindako kudeaketa plangintzan argi adierazten da administrazio publikoa zela hartzaile garrantzitsuena, eta baita diru sarreraren iturri nagusi ere. Hau berresteko, hona hemen azpiko taula:

Taula, 21: Diru sarrerak (%etan) eta emaitzak 1989-1990 ikasturtean

ADMINISTRAZIOAK	
%65.5	%40.5 EUSKO JAURLARITZA:
	%36 Hezkuntza saila
	%4 Osasun saila
	%0.5 Kultura saila
	%5 GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
	%20 UDALAK
%22	ERAKUNDE PRIBATUAK
%12.5	IKASLEAK

Antolakuntza, Gestio Plana, 1989-1990. B.4.12tik B.4.19ra. Iturria: Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak egina.

Taulan oso ondo agertzen da erakunde publikoak bezero oso garrantzitsuak zirela Irakasle Eskolarentzat. Baita erakunde pribatuak ere. Ikasleen ekarpenak, berriz, urriagoak izanda ere langileriarentzat ezinbestekoak izaten jarraitzen zuten.

17. IRAKASLE IKASKETAK: IKASLE PROMOZIOAK (1976-2002)


Lehenik, Irakasle Eskolaren hasieretako matrikulazioen gorabeherak (1976-2002) aztertu eta gero, Eskoriatzatik irakasle izanda irtendako promozioen datuei erreparatuko diegu.

Hasiera formaziokoak eta titulu gabekoen plangintza aintzat hartuta, hainbat ondorio atera ditugu.

Hasteko, hasiera formazioan, 1976tik 2002rako urteetan irtendako irakasleen kopuruari emango diogu begiratu: 1.527 irakasle irten ziren denbora tarte horretan Irakasle Eskolatik, ondoren HUHEZI Fakultatetik.

Promozioka hauek dira datuak:

Grafikoa, 10: Irakasle promozio kopuruak (1976-1999)




Oharra: Taula honetan ez dira titulu gabeko plangintza bereziko irakasleak sartzen.

Iturria: Matrikulazio datuak. Idazkaritza akademikoa: Marisa Pagonabarraga eta Iñigo Arriaran. Egileak egina.

Matrikulazioekin aipatu den bezala, inflexio guneak, alegia, irakasle irteera gutxiago gertatu ziren garaiak 90. hamarkadaren hasieran eman ziren. Indarberritzea, berriz, ez zen hamarkada horren bukaerara arte hautemango.

Probintziara jarrita, hauek dira irtendako irakasleen jatorriak:

Grafikoa, 11: Irakasle promozioak herrialdeka (1976-1999)



Iturria: Matrikulazio datuak. Idazkaritza akademikoa. Marisa Pagonabarraga. Egileak egina.

Ikus daitekeen bezala gipuzkoarrak ziren Irakasle Eskolatik irtendako irakasle gehientsuenak, %78; bizkaitarrak, %17; arabarrak, %5. Gainerakoak, sinbolikoak ziren.

Hala ere, badago beste datu bat ezkutatu ezin daitekeena; alegia, Gipuzkoatik etorritakoen artean debagoiendarrak zirela irakasle gehienak: % 68,2.

Taula, 22: Hasierako formazioaren ikasleen jatorria, herrialdeka (1976-1999).

PROMOZIOAK IKASTURTEAK	BUKATU	HERRIALDEKA JATORRIA
1976-1979	39	37 Gipuzkoa (32 Debagoiena). 1 Bizkaia (Elorrio). 1 Araba (Aramaio).
1977-1980	45	42 Gipuzkoa (27 Debagoiena). 2 Bizkaia (Markina eta Ondarroa). 1 Araba (Aramaio).
1978-1981	31	28 Gipuzkoa (21 Debagoiena). 2 Bizkaia (Ondarroa). 1 Araba (Gasteiz).
1979-1982	61	50 Gipuzkoa (36 Debagoiena). 8 Bizkaia. 3 Araba (Aramaio).
1980-1983	69	53 Gipuzkoa (40 Debagoiena: 21 Arrasate). 12 Bizkaia. 2 Araba (Aramaio).
1981-1984	70	54 Gipuzkoa (35 Debagoiena). 14 Bizkaia. 2 Araba (Aramaio).
1982-1985	70	50 Gipuzkoa (30 Debagoiena). 16 Bizkaia. 3 Araba (2 Aramaio/1 Gasteiz). 1 Nafarroa (Alli).
1983-1986	71	48 Gipuzkoa (30 Debagoiena). 20 Bizkaia. 3 Araba (2 Aramaio, 1 Gasteiz).
1984-1987	71	45 Gipuzkoa (34 Debagoiena). 19 Bizkaia. 7 Araba (Aramaio).
1985-1988	64	46 Gipuzkoa (31 Debagoiena). 17 Bizkaia. 1 Araba (Aramaio).
1986-1989	63	45 Gipuzkoa (35 Debagoiena, 22 Arrasate). 14 Bizkaia. 4 Araba (2 Aramaio, 1 Dulantzi, 1 Gasteiz).
1987-1990	52	38 Gipuzkoa (26 Debagoiena). 12 Bizkaia. 2 Araba.

>>>>

PROMOZIOAK IKASTURTEAK	BUKATU	HERRIALDEKA JATORRIA
1988-1991	51	40 Gipuzkoa (28 Debagoiena). 7 Bizkaia.
1989-1992	30	4 Araba (3 Aramaio, 1 Gasteiz). 25 Gipuzkoa (22 Debagoiena). 5 Bizkaia.
1990-1993	25	21 Gipuzkoa (14 Debagoiena). 4 Bizkaia.
1991-1994	100	70 Gipuzkoa (45 Debagoiena). 11 Bizkaia. 19 Araba.
1992-1995	33	29 Gipuzkoa (25 Debagoiena). 2 Bizkaia. 1 Araba (Aramaio). 1 Iparraldea (Hendaia).
1993-1996	40	37 Gipuzkoa (36 Debagoiena; 1 Zarautz). 2 Bizkaia (Berriz). 1 Ezkarai (Errioxa).
1994-1997	37	32 Gipuzkoa (29 Debagoiena). 4 Bizkaia. 1 Araba (Aramaio).
1995-1998	50	46 Gipuzkoa (37 Debagoiena). 2 Bizkaia (Berriz eta Elorrio). 2 Araba (Aramaio eta Lapuebla de Labarka).
1996-1999	92	84 Gipuzkoa (60 Debagoiena). 3 Bizkaia. 4 Araba (2 Aramaio eta 2 Gasteiz). 1 Iruña.
1997-2000	84	63 Gipuzkoa (36 Debagoiena). 18 Bizkaia. 3 Araba (2 Aramaio; 1 Gasteiz).
1998-2001	115	90 Gipuzkoa (53 Debagoiena). 19 Bizkaia. 5 Araba. 1 Nafarroa (Iruñea).
1999-2002	164	114 Gipuzkoa (50 Debagoiena). 41 Bizkaia. 8 Araba. 1 Nafarroa (Iruñea).
GUZTIRA	1527	DEBAGOIENA: 812 ikasle

Iturria: Idazkaritza akademikoa. Marisa Pagonabarraga. Egileak eginda.

Hasierako formazioaz gain, titulurik gabeko irakasleei zuzendutako plangintzetan ateratako irakasleak ere aintzat hartuz gero, hau da, Irakasle Eskolak Bergaran, Eskoriatzan eta Iruñean titulu gabeko irakasleentzat antolatutako kursoak batuz gero, hauek dira ateratako promozioen datuak:

Taula, 23: Titulu gabeko irakasleentzat zuzendutako plangintza (Bergara, Eskoriatza eta Iruñea). Bukatutako promozioak (1980-1987)

ESKAINITZA	BUKATUTAKO IKASTURTEA	IRAKASLE KOPURUA
BERGARA-ESKORIATZA	1980-1981	154
	1981-1982	74
	1982-1983	174
	1983-1984	67
	1984-1985	2
	1987-1988	69
	1988-1989	44
	IRUÑEA	1987-1988
GUZTIRA		624

Iturria: Matrikulazio datuak. Idazkaritza akademikoa: Marisa Pagonabarraga. Egileak egina.

Beraz, hasierako formazioa eta titulu gabekoen datuak batuta 2.151 irakasle irten ziren Irakasle Eskolatik 1976tik 2002ra bitartean.

Genero aldagaiari erreparatuz, eta hasierako formazioarekin bat eginda, badago azpimarratu beharko litzatekeen datu aipagarri bat, sarri esan baita karrera honen feminizazio tasa handia dela. Datu objektibo orokorrak kontuan hartuta, humanitate ikasketetan emakumeen presentzia nabaria zen garai haietan, eta neurri batean halaxe da gaur egun ere.


Horren lekuko da irakasle karrera. 1976tik 2001era doazen promozioak aintzat hartzen badira, eta kontuan izanda hasierako formazioan 1.363 irakasle irten zirela Eskoriatzatik, emakumezkoak 1.065 izan ziren; gizonezkoak, 298.

Taulara, 24: Hasiarako Formazioa eta Generoa (1976-1998)

IKASTURTEA	NESKA	MUTIL	GUZTIRA
1976-1979	28	11	39
1977-1980	38	7	45
1978-1981	21	10	31
1979-1982	46	15	61
1980-1983	51	18	69
1981-1984	55	15	70
1982-1985	56	14	70
1983-1986	59	12	71
1984-1987	52	19	71
1985-1988	47	17	64
1986-1989	44	19	63
1987-1990	44	8	52
1988-1991	34	17	51
1989-1992	16	14	30
1990-1993	20	5	25
1991-1994	83	17	100
1992-1995	27	6	33
1993-1996	32	8	40
1994-1997	26	11	37
1995-1998	40	10	50
1996-1999	64	28	92
1997-2000	77	7	84
1998-2001	105	10	115
GUZTIRA	1065	298	1363

Iturria: Matrikulazio datuak. Idazkaritza akademikoa. Marisa Pagonabarraga eta Iñigo Arriaran. Egileak egina.

Grafikoa, 12: Promozioak generoaren arabera (1976-1998).



Iturria: Matrikulazio datuak. Idazkaritza. Marisa Pagonabarraga eta Iñigo Arriaran. Egileak egina.

Especialitateen arloan, eta kontuan izanda Irakasle Eskolan konstantea izan dela espezialitate aldaketa, hona hemen datuak:


Taula, 25: Irakasle ikasketak eta Espezialitateak (1977-2002)²³⁷

ESKAINITZA	GUZTIRA IKASLEAK
GIZARTE ZIENTZIAK	192
HAUR HEZKUNTZA	486
EUSKAL FILOLOGIA	192
ZIENTZIAK	152
ATZERRIKO HIZKUNTZA	137
HEZKUNTZA BEREZIA	260

Iturria: Matrikulazio datuak. Idazkaritza akademikoa: Marisa Pagonabarraga. Egileak egina.

²³⁷ 1977-78 ikasturtean, Gizarte Zientzien adarra sortu zen. 1978-79an, Haur Hezkuntza. 1980-81ean, Euskal Filologia. 1981-82an, Zientziak. 1989-90ean, Gizarte Zientziak desagertu ziren. 1992-93an, Atzerriko Hizkuntza (Ingelesa) sortu zen. 1993-94 ikasturteetik aurrera, eta ikasketak aldaketak medio, Haur Hezkuntza eta Atzerriko Hizkuntza (Ingelesa) izan ziren espezialitate berriak, gainerakoak desagertu egin ziren. 1996-97 ikasturtean, berriz, Hezkuntza Berezia jarri zen martxan.

Grafikoa, 13: Espezialitateak (1977-2002)



Iturria: Matrikulazio datuak. Idazkaritza akademikoa: Marisa Pagonabarraga. Egileak egina.

18. OSPAKIZUN GARAIK

Atal honetan bi ospakizun ekarriko dugu gogora: Irakasle Eskolaren hamargarren urtebetetzea (1976-1986), eta zilarrezko ezteiak edo 25 urteko ospakizuna (1976-2001).

18.1. HAMARGARREN URTEBETETZEA (1976-1986)

“10 urte igaro dira hor alboko etxe handi horretan, San Viatorreko klaustroan, bakarti samar abiatu ginenetik: hor kanpaiak adierazten zigun noiz hasi lanean, hor zutabe edo kolumna handi horien babespean hasi ginen hitz egiten, hasi ginen lanean, hasi ginen ‘geu’ izaten”.

Horrela eman zion hasiera Juanjo Otaño zuzendariak Irakasle Eskolaren hamargarren urtebetetzearen (1976-1986) ekitaldi ofizialeko diskurtsoari. Erakunde honen sorrerako helburua ere argi adierazi zuen zuzendariak: “euskaraz irakats zezaketen maisu-andereñoak sortzea, betiere gure Herria zerbitzatzeko asmoz”²³⁸.

Ospakizun ekitaldia 1986ko maiatzaren 7tik 19ra luzatu zen; hainbat egunetan antolatu ziren saioak.

Hamar urte hauetan (1976-1986) 848 irakasle atera ziren Irakasle Eskolatik. Hauetatik 377 hasierako formaziotik, eta 471 titulu gabeko irakasleentzako plangintza berezitik²³⁹.

Baina ospakizun garaia izateaz gain, ez zen lotan egoteko unea, zelan ez, erronka berriak zeuden eta:

1. Garai berriek beharizan berriak ekartzen dituzte; orduan ere, gizar-tean etengabeko aldaketak ematen ari ziren. Irakasle Eskolako kontzientzia osoa zeukan etorkizunerako pertsonak eta hezitzaileak prestatzen ari zela. Helburu hori lortzeko, ezinbestekoa zen curriculum-a edo ikasketa-plana aberastu eta garai hartan emergenteak ziren gaiei ateak zabaltzea.
2. Honek guztiak zera eskatzen zuen: balio anitzekoa den irakaslea edo irakasle polibalentea, malgua, irekia, errealitatea ezagutzen eta irakurtzen zekiena, eta teknologia berriak ondo ezagutuko zituen prestatzea.

238. Juanjo Otañorekin elkarrizketa, 204/02/14.

239. *Hamargarren urtebetzea*, 16/05/1986 dokumentua. Baita ospakizunak karpetatik ere, J-1tik J-ra, dokumentu ugari dago ospakizun honen inguruan. HEZIBIDE Artxiboa: 1-05 karpeta.

3. Irakaskuntzaren kalitate hobea helburu izanik, irakasleen birziklatzea bultzatu behar zen.
4. Euskararen aldeko apustua mantentzeaz gain, indartu ere egin behar zen, adierazpen normaletik haratago jakintza zientifikoan ere murgil zitezen.
5. Ikerkuntza eta aplikazio didaktikoez ere arduratu behar zen.
6. Ikasleari begira, parte-hartzeko bide berriak jorratu behar ziren. Ezinbestekoa, beharrezkoa baitzen haien garapen pertsonala sustatu nahi bazen.

“ Azken batean, guk nahi dugun Irakasle Eskolak honelakoa izan beharko luke: inguruko hezkuntza errealitatearekin konprometitutakoa, soluziobideak, pistak eta alternatibak eskaintzeko gai izango dena, gizarte gizatiarragoaren oinarriak jarriko dituen”²⁴⁰

Urteurren hau ospatzeko zenbait ekintza antolatu ziren. Aipagarrienak “Hezkuntza Frankismo garaian” izeneko erakusketaren bueltan antolatutakoak izan ziren Gatzaga, Eskoriatza eta Aretxabaletako Udalen laguntzarekin. Testuliburuetan oinarritutako erakusketa izan zen eta Bartzelonako Udaleko Hezkuntza Batzordean zeukan jatorria, berak sortu eta antolatu baitzuen erakusketa Bartzelonan²⁴¹. Hala, hango baliabideak erabiliz eta hemengoekin moldatuz antolatu zen erakusketa. Horretarako, Frankismo garaian erabiltzen ziren lehen mailako irakaskuntzarako testuliburuekin (1939-1960 bitartekoak) hornitu zen erakusketa. Arrakastatsua izan zen; ondoren Leioara ere eraman zen.

Honekin batera, hitzaldi sorta antolatu zen. Hasiera (maiatzak 7) Jaume Carbonellek eman zion, eta aipatutako erakusketaren inguruan oinarritu zen. Ondoren (maiatzak 12), Joan Mari Torrealdaiak “Euskararen zapalkuntza Frankoren Diktadurapeko Hezkuntza Sistemari” hitzaldia eman zuen. Maiatzaren 15ean, Ignasi Vilak, “Bilingüismo y Educación”. Bukatzeko, hurrengo egunean, Itziar Idiazabalek “Euskal gobernuaren hizkuntza politika heziketa barnean” izeneko hitzaldia eman zuen.

Aldi berean, Irakasle Eskolak maisu-maistren formazio edo birziklatze alorrean egiten zen lanari buruzko erakusketa bat ere egin zuen. Bertara, besteak beste, Pilar Valiente, Hezkuntza Saileko Formazio burua etorri zen.

240. Juanjo Otañorekin elkarrizketa, 2014/02/14.

241. Garai hartan Montjuichen zegoen egoitza, eta bertan erakusketa ere. Iturria: IME (Instituto Municipal de Educación): <http://w110.bcn.cat/portal/site/Educacio/>. (Kontsulta: 2014/01/29).

Maiatzaren 16an izan zen hamargarren urtemugaren ekintza akademikoa eta Juanjo Otañok Irakasle Eskolaren hamar urteko historia laburra eskaini zuen. Aipatutako Itziarren hitzaldiaz gain Juan Txurrukak, Hezkuntza sailburuak (1985-1987), egin zuen azken agurra.

Jesus Garmendiak pasartetxo hau kontatu digu:

“ *Esan beharra dago, Juan Txurrukak euskaraz ematen zuen lehendabiziko hitzaldia izan zela hura. Ondoren, Eskoria-tzako Gorosarri abesbatzak kontzertutxoa eskaini zigun. Beste bi sailburu ere bazeuden; alegia, dagoeneko gure artean ez dagoen kultura sailburua zen Juan Mari Bandres, eta Jabier Retegi, garai hartan industria sailburua* ”²⁴²

Beste ospakizun hunkigarri bat, larunbatean (maiatzaren 17an) Arrasateko kiroldegian ikasle eta irakasle ohien artean egindako bazkaria izan zen.

Hunkigarria bezain esanguratsua izan zen Xabier Amurizak, bertsolaria eta irakasle ohiak, idatzitako bertsoa:

.....
*Hamar urte sortu zela
 Irakasle Eskola
 jakintzaren etxe eta
 euskararen etxola.
 Etxe hontan sartzen denak
 ez ahaztu inola
 herri baten bizitzari
 hitz ematen diola.*

242. Jesus Garmendiaren aparteko oroimen idatziak.

18.2. URTETAN “IRAKASTEN IRAKATSIZ”: IRAKASLE ESKOLAREN ZILARREZKO EZTEIAK (1976-2001)

.....
“Egun senti hartan argia besterik ez zen.
Bidea ez zegoen, bidea egin behar zen.
Hasi ginen jarraipenik zeukan jakin gabe.
Atzera begira, poza sentitzen dugu,
Bidea eraikiz
Bidea lagunez beterik ikusiz.
Aurrera begira
Argiarekin batera
Erronkak ikusten ditugu:
Berriro eraiki,
Berriro lagunez osatu bide hori
Zuek zarete amets horren lekuko
Eta zuek izango duzue hitza”.

.....

Juanjo Otañok idatzitako olerki polit eta eder honetan, ondo asko laburbiltzen dira Irakasle Eskolak egindako 25 urteak. Behar bezala ospatu ziren, eta gainera, Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultate (HUHEZI) bezala. Izan ere, 1997an MONDRAGON UNIBERTSITATEAren babesean Eskola izatetik Fakultate izatera pasatu ginen.

Hasierako sorrera egitasmoek bizirik zirauten; hots, “euskararekiko, euskal kulturarekiko, hezkuntzaren berrikuntzekiko, gizartearekiko” eragile aktibo bat izaten jarraitzea zen, orduan ere, HUHEZI-Irakasle Eskolaren egitasmoa²⁴³.

Jesus Garmendia Fakultateko orduko dekanok dioskun bezala, urteurren hura ospatzeko arrazoi asko baldin ba zeuden ere, honakoa izan zen arrazoirik potoloena: “bazirela gutxi gorabehera 1.500 gazte irakasle diploma Irakasle Eskolan lortutakoak. Horiez gain, ikastoletan edo herri eskoletan titulurik gabe ziharduten beste 600dik gora irakaslek ere eskuratu zuten titulua eskola honetan”²⁴⁴.

Gertaera handi hura antolatzeke hainbat saio antolatu zien 2001eko martxotik hasi eta maiatzera arte²⁴⁵.

- Martxoaren 29 eta 30ean, “Mundu eleanitza” eta “Hezkuntzaren Funtzio Soziala” izenburuekin jardunaldi pedagogikoak antolatu ziren. Lehendabiziko gaiarekin, bertako nahiz kanpoko adituen hitzaldi eta komunikazioak izan ziren nagusi, bereziki Irakasle Eskolako irakasleak diren Mariam Bilbatua eta Matilde Sainzek eskainitakoa:

243. 25 urteren buruan, zer? Karmele Perez, in: www.argia.com (Kontsulta: 2007/06/01).

244. Jesus Garmendiaren aparteko oroimen idatziak.

245. Juanjo Otañorekin elkarrizketa, 2014/02/14 eta *Ospakizunak* karpetatik ere: J-1tik J-ra, Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa.

“Bigarren hizkuntzaren ikaste-prozesua edukien bidez. Diziplinarreko proiektuak”. Hizkuntzaren arloari “Hezkuntza eleaniztasunaren erronkak XXI. Mendean” mahai inguruarekin eman zitzaion bukaera.

Bigarren interesguneari, berriz, CSICen ikerlari lanetan ari zen Jose Maria Mardonesek eman zion hasiera. Oso interesgarria izan zen Xabier Garagorrik eta Felix Basurkok eskainitako “Euskal Herrian hezi: sistema eta curriculum propioak?” izeneko mahai ingurua.

- Martxoaren 30ean, ekintza instituzionala egin zen eta Irakasle Eskolan ibilitakoei omenalditxo bat eskaini zitzaion: Juan Mari Otaegi, Irakasle Eskolako lehen lehendakariari; Felix Ormaetxeari, lehen zuzendariari; Mertxe Bolinagari, lehen erretiratuari eta Antxon Markaideri, era postumoan, Irakasle Eskolako errektore kontseiluko lehendakari izandakoari. Bukatzeko, Baionako “Aritzak” taldeak kantu emanaldia “a capella” eskaini zuen.
- Maiatzaren 10 eta 11n, “Etika eta Enpresa” jardunaldiak ospatu ziren. Gaiaren ikuspegi orokorrari ezarri zitzaion arreta, batik batik Arrasateko Esperientziari. Hala, lehen egunean, David P. Ellerman (ekonomista eta Mondragon kooperatiben estiloa Ameriketara eta Europako ekialdean zabaltzen aitzindaria) eta Race Mathews (pentsamendu kooperatibo eta sozial-kristauan aditua) izan ziren protagonista nagusiak. Hurrengo egunean, Antonio Cancelo eta Joseba Azkarragak etika-enpresa eta ekonomiaren inguruko beste bi hitzaldi eskaini zituzten. Juanjo Otañok moderatutako mahai inguruarekin bukatu zen saioa; Alfonso Vazquezek, Julio Cantonek, Joseba Ugaldek, Luxio Ugartek eta Jon Sarasuak parte hartu zuten mahai inguruan.
- Bukatzeko, apirilaren 5ean “Kristautasuna XXI. Mendean” hitzaldia eskaini zuten Donostiako Elizbarrutiko Gotzain zen Jose Maria Setienek, eta Jacques Gaillot, Evreux-eko elizbarrutiko (Frantzia) Gotzain zenak.
- Beste ospakizun goragarria maiatzaren 26koa izan zen. Irakasle Eskolatik pasatutako ikasleekin bilkura egin zen, bazkaria, trikitilari, bertsolariak; Blanca Gomez de Segurak egindako buztinezko plater edo oroigarriak ere banatu ziren. Egun horretan 100 bat ikasle ohik hartu zuen parte.

114 ikasleri emandako karrera amaierako orlak jasota amaitu zen urteurren ospakizuna.





1

Hamargarren urteurrenaren ospakizunen egitaraua.



2

25. urteurrena, Etika eta Enpresa jardunaldia: 2001/05/11

3 4 5 6 7

25. urteurrena ospakizuna ikasle ohiekin: 2001/05/26



8

Hezkuntza Frankismo garaian izeneko erakusketa, 1986 urtea.

9

Irakasle Eskolak bete ditu bere lehen 25 urteak, 2001 urtea.

II. ATALA
HUMANITATEAK ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA (HUHEZI)
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
(1997 URTETIK GAUR ARTE)



19. HUHEZI ETA MONDRAGON UNIBERTSITATEA

1990 hamarkada bukaeran, gure bailaran hezkuntza-haize berritzaileak ari ziren zabaltzen.

Eta garai bateko ametsa egia bihurtu zen 1997an Debagoiena eskualdean “Mondragon” izeneko Unibertsitatea (MU) sortu zenean. MONDRAGON UNIBERTSITATEAK hiru hezkuntza gune edo ikasketa mota barne-bildu zituen: Arrasateko Eskola Politeknikoan (GOI ESKOLA POLITEKNIKOA), ingeniari eta industria arloa; Oñatiko Eskola Tekniko Enpresarialean (ENPRESAGINTZA), enpresagintza arloa; eta Eskoriatzako Irakasle Eskolan (HUHEZI), humanitatea eta hezkuntza arloak.

Unibertsitatea sortzeak gure zabalkundea ahalbidetu zuen, aberastasuna eta identitatea sendotu eta gizarteari begira jarri gintuen²⁴⁶.

Prozesuaren hasieran hiru eskolek osatutako taldea eratu zen. Irakasle Eskolaren izenean Matilde Sainz eta Jesus Garmendiak hartu zuten parte. Adrian Zelaiak, Irakasle Eskolako lehendakariak, hartu zuen bere gain Jaurlaritzan aurkeztuko zen dokumentuaren erredakzioa. Bitartean, Legebiltzarreko alderdi guztiekin jarri ziren harremanetan Unibertsitate berriaren aurkezpena egin eta haien babesa jasotzeko. Irakasle Eskolari Herri Batasunarekin hitz egitea egokitu zitzaion.

Hunkigarria izan zen unibertsitate berria onartu zen Legebiltzarreko saioa. Hala gogoratzen du Jesus Garmendiak egun hura:

“*Izquierda Unidak eta Partido Popularrak eze-tza eman zioten proiektuari; Euzko Alkartasunak, Partido Sozialista de Euskadik eta Euzko Alderdi Jeltzaleak (Joseba Arregiren ahotik), baietza. Herri Batasunaren aldetik, Tasio Erki-ziak Unibertsitate berriari buruz zer esan zuen ez dakit, baina ez dauzkat ahanzteko Irakasle Eskolari bota zizkion loreak. Munduko onenak ginen, bere ustez*”²⁴⁷

246. Beraz, Sozietatea MONDRAGON UNIBERTSITATEARI atxikita dago, eta Mondragon taldeko kidea ere bada. Helburua, alde batetik, esperientzia kooperatiboa zaintzea, hobetzea eta sustatzea da, eta bestetik, MONDRAGON korporazioaren garapen harmoniatsua bideratzea eta sustatzea. Euskal Herrian eta munduko hainbat saretan ezagutza eragitea da garatzen ditugun esparruetan: hizkuntzan, giza zientzietan, kooperatibismoan eta komunikazioan. Gure balioetan oinarritutako jarduera etikoan erreferentzia izatea: irakaskuntza arautuan, etengabeko irakaskuntzan, ikerketan eta gizarte-eragiletzan. Aldi berean, MONDRAGON UNIBERTSITATEAN ere erreferentzia eta eragile izatea.

247. Jesus Garmendiaren aparteko oroimen idatziak.

Irakasle Eskola izatetik Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI) izatera pasatzeak aldaketa handiak ekarri zizkion Eskoriatzari. Izenaz gain, jarduna bera ere aldatu egin zen. Hezkuntzarekin loturiko proiektu berritzaileak haratago, -Mendeberrri-, Humanitateak-Enpresa lizentzia ere eskuratu zuen. Beraz, abian zegoen Irakasle Eskoaren historiako lehendabiziko lizentziatura izango zena. Handik gutxira, Psikopedagogia lizentzia iritsi zen.

Egoera berri honek gizartearen aurrean ezagutzera emateko aukera apartak zabaldu zituen, eta sinesgarritasunean irabazi genuen asko. Berehala egin zuten gora ikasle matrikulek, eta aldi berean, zelan ez, espazio zabalago baten beharra azaleratu zen: jatorrizko eraikuntza, Dorleta auzokoa, txikiegia zen.

Hala, 1998an, espazio falta horri erantzuna eman asmoz XVII. mendeko San Viator eraikina ("Hospital del Santísimo Rosario")²⁴⁸ erosi zuen Gizabide Fundazioak. 1999ko azaroaren 25ean inauguratu zen²⁴⁹.

Aldaketaz aldaketa, gure fakultateak gero eta erro sakonagoak zituen: ekipamendu telematikoari atea zabaldu zitzaion, Psikopedagogia karrera sortu zen, LANKI sortu zen, masterrak antolatu ziren, gradu berriak (IKO) diseinatu ziren ...

Beraz, esan genezake, 1976an Irakasle Eskola sortu zeneko etapa atzean laga, eta beste berri bati ekin zitzaiola.

Zetozen urteetan, berriz, unibertsitatea osatzen zutenen arteko elkar ezagutza eta lana areagotuz joan zen. Kontuan izan behar da, ikasketa teknikoak eta ekonomikoak zirela nagusi, eta humanistikoak maila xumeagoan eskaintzen zirela.

248. "En 1587, don Juan de Mondragón y Azcarretazabal testaba en la villa imperial de Potosí, en el Reino de Perú, nombrando heredero universal de sus bienes a su hijo don Pedro de Mondragón... y en el dicho lugar compre las casas e sitio que fuese necesario... donde se haga un hospital... La obra comenzó el año 1603 ... pero 1624 sufrió un grave incendio que dejó todo en las cuatro paredes... En 1660 el Hospital estaba en funcionamiento ... Fue desamortizado en 1798 ... pero en 1921 llegaron los religiosos de San Viator...". Iturria: Letona, Jose eta Leibar, Juan (1975). *Valle de Léniz (segunda parte). Arechavaleta y Escoriaza*. Donostia: Donosti Aurrezki Kutxa.

Beste informazio iturri interesgarri bat: http://www.euskosare.org/komunitateak/ikertzaileak/ehmg/4/ponentziak/ikerlari_gazteak/ugalde (Kontsultatuta: 2014/07/05).

Aldi berean, 1875ean, Benito Mennik ("Aita Mennik") gaixotasun mentala zutenentzat, gerrako zaurituak eta gerraren ondorioz bakarrik geratu ziren haurrentzako ospitalea eraiki zuen. 1872 eta 1876 urteen artean Hirugarren Karlistada lehertu zen. Benito Menniren lehen zentro psikiatrikoa izango zen, eta 1875eko azaroaren 28an inauguratu zen. Hartu zuten lehendabiziko pazienteak Eskoriatzako bizilaguna izan zen: Anselmo Alay. Arrazoi politikoak tarteko, ospitaleak 1876ko maiatzaren 30ean itxi zituen ateak. Hori dela eta, Arrasateko Aita Menni ospitalea Benito Menni fundatzailearen heriotzaren 100. Urteurren ospakizuna egin zen Eskoriatzako Campuseko Eraiki Nagusian (Kaperan) 2014ko martxoaren 25ean.

Aipatu beharko litzateke ere, hasteko, eraikuntza bezain garrantzitsua dela kaperan aurkitzen den erretroula eta albo batean ikusten den Arrosario Amari eskaintako eskultura. Biak pizkunde garaikoak. Erretroula kasuan, Aretxabaletako parrokiara eramateko urratsak eman baziren ere, ustez bertan hobeto-edo zainduko zutelakoan, HUHEZiren Kontseilu Errektoreak, Eskoriatzako hainbat eragileren eskariz, dagoen tokian gelditu zedila erabaki zuen. Bigarrenik, lurtean aurkitzen diren lurperatzeak, bertan hilobiratuta daudelako Diaz de Arkaia baroiak, garai batean etxe honen jabeak eta bertan hilobiratzeko eta mantentzeko eskubide historikoak zituztenak.

249. S. Ceciaga arkitektoak tokia eginkizun berrietara egokitzeko, urtebete behar izan zuen zaharberritzeak. Asmo nagusia, espazioak ahalik eta erabilgarrienak ateratzeko gain eraikinak zituen bereizgarri artistikoak nabarmentzea izan zen, eta esan daiteke, gaur, lortu zuela. Klaustroari berari zurruntasuna eta sendotasuna eman zion; sabaietako egur egiturak ere bistarazi zituen.



1 2

Ate irekiak eskoriatzarroi 1999ko urriaren 21ean kultur zinegotzia zen David Arrieta eta Juanjo Otaño, zuzendaria.

3


Eraikuntza berriaren inaugurazioa, 1999/11/25.

4

San Benito Menniri eskainitako sarrera oroigarria.

5

Berregokitutako kapera.



6




6

6

4/1997 Legea, maiatzaren 30ekoa, MONDRAGON UNIBERTSITATEA aitortzen duena.

7

Real Decreto 1352/1998, de 26 de junio, por el que se homologan diversos títulos de la Universidad «MONDRAGON UNIBERTSITATEA»



7

20. HUHEZiren HEZKUNTZA PROIEKTUAREN ARDATZ BERRITZAILEAK ETA 'MENDEBERRI' PROIEKTUA

XX. mendearen bukaeran gizartea nozitzen ari zen aldaketetara moldatu nahian, Delors-ek UNESCOren bidez kaleratutako bere txostenean (1996) argi adierazten du hezkuntza eredu berri baten beharra zegoela, hau da, gaitasunetan oinarritutako hezkuntza eredu garatu behar zela.

Lau gaitasun azpimarratu zituen: "ezagutzen ikastea", "egiten ikastea", "elkarrekin bizitzen ikastea" eta "izaten ikastea". Lau zutabe hauek martxan jartzeak eskatzen zuen estrategia didaktiko berriak diseinatu eta abian jarri behar ziren. MONDRAGON UNIBERTSITATEA (MU) berehala hasi zen egiteko horretan; eta parte-hartze edo ikasketa kooperatiboan oinarritutako eredu bultzatzeko asmoekin ikerketa bat abiatu zuen²⁵⁰.

1980eko gestio planean *partaidetza*, *heziketa integrala*, *irakaskuntza pertsonalizatua*, *bizia eta aktiboa* gaitasunak aipatzen ziren. Beraz, esan genezake, ondoren MENDEBERRI hezkuntza proiektu moduan ezagutuko zenak era zehatzean jaso zituela hasierako intuizioak. Koherentzia osoz eta inongo oztoporik gabe sartu zen HUHEZI erronka pedagogiko berrian.

Hasieran, irakasle ikasketei dagokienean, etorkizunari begirako lau ardatz nagusi izan zuen 1997-1998 ikasturteko gestio planak: kalitatea, eskola izatetik Fakultate izatera, kultura kooperatiboa eta gizartearekiko sentsibilitatea.

Hasierako formazioari dagokionean, ildo estrategiko berriak ezarri ziren hezkuntza proiektuan; irakaslearen profila hirukoitza hartu zen aintzat: pertsonaren izatea bera(1), pertsonala soziala (2) eta profesionala (3). Hiru esparru hauen baitan eskainiko zitzaion formazioa ikasleari²⁵¹.

- Pertsona den heinean, eta eskaintzen den ezagutza akademikoaz gain, helburua zen bere burua hobeto ezagutzea eta auto-estimua garatzea. Hori garatzeko, talde lan kooperatiboetan oinarritutako alderdi metodologikoari erreparatu zitzaion. Horrela, ikasleak partaide-

250. Bilbatua, M. (2001). *Escuela de Magisterio de Eskoriatza, 25 años*. DEIA, viernes 25 de mayo de 2001.

251. *Gestio-Plana. 1997-98 ikasturtea*. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra.

tza aktiboagoa eta bere buruarenganako konfiantza handiagoa izango zuen. Gutxienez, bi tutoretza-saio eskainiko ziren ikasturtean zehar.

- Irakaslea gizartean bizi den pertsona da, testuinguru sozial eta linguistiko jakin bati itsatsita dagoena. Irakasle Eskolak (HUHEZI) kokapen eta izaera zehatza zuen. Horregatik, eta kooperatiba zenez, horrekiko koherentzia mantendu beharra zeukan; ikasleen partaidetza aktiboa bultzatu behar zuen.
- Irakaslea irakaskuntzako profesional. Hori lortzeko bi formazio-eskaintza egin zituen Fakultateak: formazio epistemologikoa (curriculumeko arlo bakoitzarekin loturikoa) eta didaktikoa (irakasteko metodologiaren printzipioak).

Teknologia berriak gero eta garrantzia handiagoa hartzen ari ziren. 1997-1998 ikasturtetik aurrera matrikulatuta zeuden ikasle guztiek zuten Internet zerbitzua, posta elektronikoa propioa eta txanok nahiz edozein lekutan kontsultak egin ahal izateko, beharren arabera lekua bertako zerbitzarietako disko gogorretan, ordenagailua, inprimagailua, eskanerra, info-gela, maileguan erabiltzeko ikus-entzunezko ekipamenduak... Aipatutako bitartekoez gain ikasle zein irakasleei laguntza emateko, informazioa eta komunikazio teknologietan adituak ziren trebatzaileak ere bazeuden. Beraz, garaian garaiko teknologia egokitzapenak egin ziren Fakultatean.

Esan dugun bezala, hausnarketa globala zen egin beharrekoa eta MONDRAGON UNIBERTSITATEko hezkuntza proiektuaren ildo estrategikoak aztertu eta diseinatu behar ziren. Iritsi zen lanean hasteko ordua.

MENDEBERRI proiektuan buru-belarri aritu zen Mariam Bilbatuari emango diogu hitza:

“ MONDRAGON UNIBERTSITATEaren hausnarketa estrategikoan ikusi zen gure bereizgarri bat hezkuntza kalitatea izan behar zela. Alegia, nola prestatu ikasleak XXI. mendeari begira. Errektoretzatik, bereziki Jabier Retegik, apustu handia egin zen egitasmo hau aurrera ateratzeko. Taldeka elkartu eta antolatu ginen. Hasteko, aurreikusi zen kompetentzietan garatu behar zela hezkuntza ereduak; ez ezagutza soiletan, baizik eta ikasleen profil profesionalari lotuta prestatu behar genituela ikasleak. Diagnostiko bat egin zen titulazio bakoitzarekin eta beraiei zegozkien profil profesionalarekin lotutako kompetentzien inguruan. Gaur ohikoa dena, garai hartan ikuspegi berritzailea izan zen. Kompetentziak, metodologia aktiboa baliatuz landu nahi izan ziren (arazo, kasu eta proiektuetan). Bide honetan, Europako esperientziak izan ziren erreferente, batez ere Maastricht (Holanda) eta Alborg (Danimarka) unibertsitateak. Ameriketakoak ere hartzen genituen aintzat: Monterreyko (Mexiko) Unibertsitatea, hain zuzen ere²⁵². Beraz, Estatu mailan aitzindari izan ginen ”²⁵³

252. <http://www.maastrichtuniversity.nl/> (Maastricht); <http://www.en.aau.dk/> (Alborg); www.udem.edu. (Monterrey). (Kontsultatuta: 2014/09/15).

253. Mariam Bilbatuarekin elkarrizketa, 2014/02/14.

Talde teknikoa sortu zen Mendeberrri proiektua HUHEZIn martxan jartzeko: Mariam Bilbatua, Maite Garcia, Mariam Iriundo, Pili Sagasta, Matilde Sainz, Xabier Arregi, Nerea Alzola eta Jesus Garmendia.

Proiektu honi dagokionean, bi aldi bereiziko ditugu: inplementazio aurrekoa, eta ondorengoa. Bien arteko mugarrria 2003ko urtea izan zen; orduan ezarri zen HUHEZIn proiektua.

Lehen fasean, inplementazio aurrekoan, bi data hauek aipatu behar dira:

- 2000-2001 ikasturtea. Haur Hezkuntzako irakaslearen profil profesionala eraiki zen. Konpetentziei eta diziplinarte-kotasunari jaramon berezia egin zitzaien, eta estrategia metodologikoe (kasuen azterketak, arazoan ebazpenak eta proiektuak) presentzia handia izan zuten.
- 2001-2002 ikasturtean, ostera, profil horretara egokitzen zen curriculum lortzea izan zen helburu.

Bigarren fasean:

- 2002-2003 ikasturtean Mendeberrri proiektua ezarri eta inplementatzen hasi ginen. Honek zenbait aldaketa eragin zituen curriculumean (hainbat ikasgai mailaz aldatu eta berriak sortu). Berezioki aukera askeko kredituetan izan zuen eragina. Lau multzotan banatu ziren: informazioa eta komunikazioa, gorputza, artistikoa eta esku-hartze psikopedagogikoa.
- 2003-2004 ikasturtean metodologia aldaketa egin zen, hots, "arazotan oinarritutako irakaskuntza (AOI)" izango zena prestatzeari ekin zitzaion: moduluak definitu ziren, arazoak zehaztu, irakurketak bilatu, egitura finkatu, azpiegitura garatu... Mendeberriren beste bi ardatzei buruzko hausnarketak ere aurrera zihoazen: konpetentziak eta baloreak.

Hezkuntza Proiektu berri honek eragin handia izan zuen bai irakasleengan eta baita ikasleengan ere. Irakasleengan, jakintza desberdinetako irakasleak elkartu eta modulu komunak diseinatu beharra zekarrelako. Elkarrekin aritzeak, diziplinartekotasuna posible zela erakutsi zuen. Eta ikasleengan, garatu behar zituen jakintzak anitzak zirelako: *jakitea* (ikaskuntza-irakaskuntzari dagozkion edukiak, esaterako); *egiten jakitea* (horiek praktikara nola eraman); *besteekin aritzen jakitea* (talde lanean aritzea, adibidez) eta izaten jakitea (norbere izatearekin zerikusia zuena). Eta kalifikazioetan, ikaslearen jakintzaz gain, arestian aipatutako beste alderdiak ere ebaluatzen hasi ziren: jarrera, parte-hartzea, eta abar.

Xabier Arregik, arestian aipatutako Mendeberriko taldekideak, horrela gogoratzen du garai hura:

“*Irakasle Eskolaren beste ito bat izan zen Mendeberrri. Gure taldean bazeuden batzuk kanpora begira lan egiten zutenak, Maastricht eta Aalborg unibertsitateekin harremanetan; beste batzuk, berriz, kompetentzien araberako barruko curriculuma eratzen jardun genuen. Horrela sortu ziren, irakasle profil berriak (hezitzaile, kudeatzaile eta ikertzaile) aintzat hartuta, eremuak. Horrekin batera, lehendabizi, diziplinartekoan oinarritutako moduluak eratu ziren, eta ondoren, metodologiak: Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza -AOI- (lehen mailan), Kasuetan Oinarritutako Ikaskuntza -KOI- (bigarren mailan) eta Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (hirugarren mailan)*”²⁵⁴

2003ko irailaren 29an hasi zen aplikatzen Mendeberrri; “Arazoetan Oinarritutako Irakaskuntza (AOI-PBL)” deituriko ikaste-irakaste prozesua martxan jarri zen. Egun historikoa, zalantzarik gabe, HUHEZlren historian. Lehendabiziko modulua, “Eskola eta Gizartea” (didaktikak, eleaniztasuna eta hezkuntzak eta Euskal Herriko Errealitateak osaturikoa) izan zen. 1.mailako ikasgai komunetan eta Haur Hezkuntzako espezialitateko ikasgaietan ezarri zen.

Berrikuntza honen beste ezaugarrietako bat ikasle taldearen egituraketa izan zen: 12ko zortzi talde antolatu ziren.

Ondorengo ikasturteetan beste mailetara (2. eta 3. mailara) zabaldu zen; eta 2005-2006 ikasturtean ikasgai komunetara eta Haur Hezkuntzako espezialitate guztira. 2005-2006ko promozioa izan zen Mendeberrri Hezkuntza Proiektuaren baitan ikasitako lehendabizikoa.

2006an, lehendabiziko begirada kritikoa eman zitzaion proiektu berriari, bi ahulune identifikatu ziren: (1) ikasleei asko kostatzen ari zitzairen euren jokamolde berrira egokitzea, eta bazirudien (2) irakasleen aldetik-edo ez zitzaiela ikasleei bide berria egiteko nahiko laguntza ematen. Horretarako esku-hartzezko bi ardatz martxan jartzea erabaki zen: (1) trebakuntza eta segimendu pertsonalean gehiago arduratzea, eta (2) ikasleen autonomian gehiago sakontzeko estrategiak diseinatzea.

2006-2007 ikasturtean bukatu zuen bigarren promozioak. Ikasleen proposamen eta iradokizunak jaso ziren (eta kon-tuan hartu) hurrengo ikasturteetarako berrikuntzak eta egokitzapenak egiteko. Egia esan, ikasleek asetasun galdekete-tan oso ondo baloratu zuten Mendeberriren bidez proposatzen zitzairen hezkuntza eredia.

254. Xabier Arregirekin elkarrizketa, 2014/05/07.

Atal honi bi iritzirekin emango diogu amaiera. Lehenik, denbora perspektibaren jabe, Mendeberriren sendotasunak eta ahuluneak identifikatu ditu Matilde Sainzek:

“ Gaur, gure metodologia berriek gure ikasleengan izan duten eragin ona azpimarratuko nuke. Zertan oinarritzen naizen? Adibidez, askoz gehiago parte-hartzen dute, kritikoagoak dira, jende aurrean badakite hitz egiten... Guztion artean lortu dugulakoan nago; lehen mailatik laugarren mailara. Nik neuk laugarren mailan ematen ditut klaseak, eta harritzen nau zelako nortasunarekin hitz egiten duten ikasleek. Beste alderdi bat da Mendeberririk irakasleon formazioa nola bultzatu eta bermatzen duen; gehiago sakondu behar den gaia da hau. Irakasleon arteko koordinazio beharrak bultzatu du transferentzia edo transmisioa era naturalean ematea. Hala ere hutsuneak baditugu; materieta eta gaietan sakondu behar dugu ”²⁵⁵

Bigarrenik, Irakasle Eskolak-HUHEZIK ildo pedagogikoan egindako bilakaera historikoa laburtzeko, zera azpimarratzen digu Mariam Bilbatuak:

“ Irakasle izateko modu berri bat irakatsi dugulakoan nago, zuzeneko komunikazioan oinarrituta, parte-hartze zuzenean, pertsona gisa hartuz ikaslea. Uste dut balore garrantzitsuak direla ikasleentzat, eta jadanik formalizatuta ikusten ditut gaur. Denok ikuspegi bateratua izan dugu horretan, nahiz eta batzuetan intuizio hutsez baliatu. Gure hezkuntza eredu horrela eraiki dugu. Gainera, ardatza euskara eta euskal kultura izanik, gertuko testuinguruarekin eta bertako erronkekin bat egiten jakin dugu ”²⁵⁶

255. Matilde Sainzekin elkarrizketa, 2014/03/13.

256. Mariam Bilbatuarekin elkarrizketa, 2014/02/14.

Metodologia berri honen inguruan bizi izandako ikasleren baten iritzia jaso gabe atal hau bukatzea, seguruenik, ez litzateke dotoreegia izango:

“ Bizitzan oinarrituriko irakaskuntza, ikaskuntza. Arazoak ardatz, bizitzan aditu egiten gaituen eraikinaren oinarri; arazoei irtenbidea topatu; arazoibidez eta koherentziaz, gure ahoetatik irteten diren proposamenak errealitate bihurtu; errealitate ulergarria eta praktikoa garatu, guk geuk moldaturiko errealitatea, alegia. Praktikara eraman berri den ikaskuntza-irakaskuntza era honen helburu nagusia pentsamendua entrenatzea da, arazoibidearen maratoian guztiok parte har dezagun ”²⁵⁷

257. Ainara Suarez Sautuk, irakasle ikasketetako 1.mailako ikasleak esandakoa. Iturria: *Mendeberrikaria*, 7. Alea, 2004ko maiatza. Esan behar da, *Mendeberrikaria* HUHEZIn argitaratu zen boletina zela. Aitzakia? Mendeberrri proiekturen berri ematea. Guztira 8 ale kaleratu ziren, 2004ko urrira arte hain zuzen ere.

21. IRAKASLE IKASKETAK: GRADUEN INPLEMENTAZIOA ETA 'BLENDED' SISTEMA (1998-2013)

Garai berri honek eragina izan zuen irakasle ikasketetan ere.

Besteak beste, espezialitate berriak izateaz gain (hasteko, Hezkuntza Berezia), bigarren diplomatura bat lortzeko aukera ere eskaini zitzaielako irakasle diplomadunei.

Horren aitortza berresteko, 1998tik 2001era lehen mailan izandako matrikulak gainbegiratu ditugu.

Taula, 26: Ikasle matrikulazioa. Lehen maila (1998-2001)

IKASTURTEKA	1998 1999	1999 2000	2000 2001	2001 2002
Haur Hezkuntza	23	25+3	29+26	52+27
Atzerriko Hizkuntza	15+4	14+6	16+5	12+4
Hezkuntza Berezia	49+11	39+20	35+44	34+35
Guztira	102	107	155	164

Oharrak: '+' ondoren azaltzen diren kopuruak bigarren diplomaturako matrikulak dira. 1995-96 ikasturtetik aurrera espezialitatekoak lehen mailatik hasi ziren ematen. Eta 1998-1999tik aurrera, 2. diplomaturako ikasle berriak 2. mailan sartu ziren.

Iturria: Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak egina.

Taulan hautematen den bezala, matrikula kopuruak gora zihoazen. Ikasleengan espektatiba berriak sortu zituen Hezkuntza Bereziak –espezialitate berria²⁵⁸, eta Bigarren Diplomaturak.

258. "Gertaera historikoa izan da hau Fakultateko barne historiarako, espezialitate honen ezarpenak suspertu baitzuen Eskolaren jardura". Iturria: *Ikasturteko memoria (1998-99)*. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa.

Hezkuntza Berezirako matrikulak 1996-1997 ikasturtean zabaldu ziren. Lehendabiziko promozioan 54 matrikula egon ziren (beste 8 ikaslek Bigarren Diplomatura aukeratu zuten). 1997-1998 ikasturtean, berriz, beste 40 matrikula berri egon ziren (beste 12 Bigarren Diplomaturan). Hala, lehendabiziko promozioa 1999ko ekainean atera zen. Guztira, 50 ikasle.

Taulan azaltzen diren gainerako ikasturteetan, hezkuntza bereziko matrikula kopurua mantendu egin zen. Batez ere, 2000-2001 ikasturteko matrikula igoera izan zen adierazgarria. Gainerakoetan, Haur Hezkuntzaren gorakada da gehien nabarmentzen dena; eta Atzerriko Hizkuntzarena, berriz, gehien moteltzen dena.

21.1. HEZKUNTZA FISIKOA

Arestian esan bezala, 1996-1997 ikasturtean ikusi zuen argia irakasle ikasketetan azken ikaste adarrak: Hezkuntza Berezia. Hala ere, Irakasle izateko aukera desberdinak zabaltze aldera, 2002-2003 ikasturtean Hezkuntza Fisikoa abian jartzeko bideragarritasun plana jarri zen martxan. Hiru arlo hartu ziren aintzat: aisialdia, kirola eta osasuna. Hezitzaile profilarekin, eta ikastetxeetan hezkuntza fisikoari zegokion zereginetan lan egiteko aukera jarri zen martxan..

Egitasmo hauek aurrera eramateko ezinbesteko aholkularitza jaso zen ATHLOn enpresatik, eta Eskoriatzako Udale-txetik herriko kirol instalazioak erabiltzeko aukera eskaini ziguten.

Hezkuntza Fisikoa ikaste adarra 2003-2004 ikasturtean jarri zen martxan, 33 ikaslerekin. Azpimarratzeko pare bat datu: gizonezko gehiago etorri zen fakultatera, eta ordura arte ohikoak ez ziren profiletakoak, gainera.

Aldi berean, Arizmendi Ikastolarekin batera Hezkuntza Fisikoko hezitzaile balioaniztuna (lau urtetan egiteko titulazioa) diseinatzeko aritu ondoren, 2004-2005 ikasturtean titulazio bikoitzeko eskaintza akademikoa egin zen: Hezkuntza Fisikoan Irakasle Diplomatua, eta Jarduera Fisikoan zein Kirolaren Animazioan Goi mailako Teknikaria ("Balioanitza").

2004-2005 ikasturtean 2. Mailara zabaldu zen Hezkuntza Fisikoa. Aipatzekoa da, ikasturte horretan Arizmendirekin egindako akordioaren ondoren, "Hezkuntza Fisiko irakasle balioanitza" proiektua jarri zela martxan. Ikasleek 4 urtean bi titulu jasoko zuten: Irakasle titulua, eta Goi mailako Ziklo Formatiboaren titulua. Hala, 2004-2005 ikasturtean matrikulatutako 35 ikasletik 19k hautatu zuten Irakasle "Balioanitza" egitea.

2005-2006 ikasturtean, lehendabiziko promozioak bukatu zuen espezialitate hau; guztira 31 ikaslek.

2007-2008 ikasturtean, berriz, "balioanitzeko" lehendabiziko promozioak bukatu zuen.

2009-2010 ikasturtean, bosgarren promozioak bukatu zuen; eta Balioanitzeko hirugarrenak.

Esperientzia aberatsa izan zen espezialitate hau martxan jarri eta "balioanitzeko" aukera zabaltzea. Honek aukera ona zabaldu zuen beste zenbait erakunderekin elkarlanean aritzeko, Athlonekin eta Arizmendirekin, bereziki, baina baita Eskoriatzako Udalarekin ere.

21.2. HEZKUNTZA LERROAREN GORAKADA

Esan genezake, beraz, Irakasle Eskola-HUHEZLren garai berriak ikasle matrikulazio kopuruaren igoerarekin batera zetoze. Eta jakina, joera on honek egoera ekonomikoari ere era positiboan eragin zion. Ikusi besterik ez dago ondorengo taulan adierazten den ikasle kopurua:

Taula, 27: Irakasle ikasketak. Ikasle kopurua ikasturteka eta espezialitateka (2000-2003)

IKASTURTEAK	2000 2001	2001 2002	2002 2003	2003 2004
Haur Hezkuntza	120	156	177	191
Hezkuntza Berezia	186	188	176	146
Atzerriko Hizkuntza	49	47	46	42
Heziketa Fisikoa				33
Guztira	355	391	399	412


Iturria: *Ikasturteko memoriak eta Kontseilu Errektoreko aktak. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak eginda.*

Gorantz bai, baina ez espezialitate guztiak. Bereziki Haur Hezkuntza izan zen gorakada nabarmena izan zuena mendeko hasiera hartan; Hezkuntza Bereziak eta Atzerriko Hizkuntzak, ordea, beherako joera izan zuten.

Esan dugu 2003-2004 beste espezialitate berri bat ezarri zela: Heziketa Fisikoa. Guztira 33 ikasle matrikulatu ziren. Ikasturte berean Mendeberriko Hezkuntza Proiektua lehen mailan hasi zen inplementatzen.

Hala ere, hezkuntza lerro osoari begiratuta, erraz konturatuko gara ondorengo ikasturteetan izandako ikasleen igoera nabarmentzeko modukoa izan zela:

Grafikoa, 14: Hezkuntza lerroan ikasle kopuru osoa (2005-2008)



Iturria: *Ikasturteko memoriak*. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak eginda.

- 2005-2006 ikasturtean, 587 ikasle egon ziren Hezkuntza lerro osoan: Irakasle Ikasketetan 488; eta Psikopedagogian 99. Aurreko ikasturtearekin alderatuz, eta karrera biak aintzat hartuz, 13 ikasle gehiago. Beraz, indartuz zihon Hezkuntza lerroa. Ikasturte horretan, 242 ikaslek bukatu zituzten ikasketak: 208 Irakasle Ikasketak eta 34k Psikopedagogia ikasketak.
- 2006-2007 ikasturtean 693 ikasle izan ziren Hezkuntza lerro osoan: Irakasle Ikasketetan 601; eta Psikopedagogian 92. 2005-2006 ikasturteko matrikulekin alderatuz, guztira 106 ikasle gehiago. Matrikulazio datuen arabera, esan zitekeen irakasle ikasketei esker Hezkuntza lerroa indartzen zihola. Haur Hezkuntza eta Hezkuntza Fisikoa espezialitateak ziren ugarienak: Irakasle Ikasketen %46 eta % 22,12, hain zuzen ere. Egresatuei dagokienez, ikasturte honetan 208 ikaslek bukatu zituzten ikasketak: 185ek Irakasle Ikasketak eta 23k Psikopedagogia ikasketak. Ikasturte hau, gainera, berezia zen titulazio berrietara egokitu beharra zegoelako hurrengo ikasturterako. Horixe zen erronkarik handiena. Unibertsitate mailako ikasketak berrien atarian geunden une hartan, eta, horren harira, zenbait forotan ari zen parte hartzen HUHEZI: Hezkuntza Lerroko Espainiako foroan eta Eusko Jaurlaritzak antolatutako foroan, hain zuzen ere.
- 2007-2008 ikasturtean 749 ikasle zituen Hezkuntza lerro osoak. Irakasle Ikasketetan 655; eta psikopedagogian 109. Aurreko urtean baino 56 ikasle gehiago. Haur Hezkuntza (%46,7) eta Hezkuntza Fisikoa (%25,3) espezialitateak ziren jendetsuenak.

- 2008-2009 ikasturtean 845 ikasle izan ziren Hezkuntza lerro osoan: Irakasle Ikasketetan, 746; eta Psikopedagogian 99. 2007-2008 matrikularekin alderatuz, guztira 96 ikasle gehiago. Matrikulazio datuen arabera, esan zitekeen Irakasle Ikasketei esker Hezkuntza lerroa indartzen zihoala. Haur Hezkuntza eta Hezkuntza Fisikoa espezialitateak ziren ugariak: Irakasle Ikasketen %41,8 eta %22,2, hurrenez hurren. Egresatuei zegokienez, ikasturte hartan 257 ikaslek bukatu zituzten ikasketak: 240k Irakasle Ikasketak eta 17k Psikopedagogia Ikasketak. Espezialitateka banatutako azken ikasturtea izan zen; hurrengo ikasturtean graduko ikasketak ezarri ziren: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza.

Taula, 28: Irakasle ikasketak. Lehen mailako matrikulak ikasturteka eta espezialitateka (2006-2008)

IKASTURTEAK	2006 2007	2007 2008	2008 2009
Haur Hezkuntza	74	88	88
Hezkuntza Berezia	26	18	30
Atzerriko Hizkuntza	22	15	30
Heziketa Fisikoa	74	74	51
Guztira	196	195	199

Iturria: Idazkaritza akademikoa. Iñigo Arriaran. Egileak eginda.

21.3. BIGARREN DIPLOMATURA


HUHEZlren garapenaren ondorioz, eskaintza zabaltzeko asmoz eta inguruko beharrei erantzun ahal izateko Bigarren Diplomatura arratsaldez ere ematen hasi zen. Hasiera hasieratik osatu ziren Haur Hezkuntza eta Hezkuntza Berezia ikasteko prest zeuden bi talde. Ikasle gehiengoaren lan-egoera zein zen ikusita -lanean ari ziren irakasleak ziren-, haiei egokitutako curriculum eskaini zitzaizkien: bi urtetan zehar bi arratsaldez astero. Faltako zitzaizkien kredituak uztailean jasoko zituzten ikastaro trinkoen bitartez. Hala hasi zen programa hau, eta poliki-poliki lehen-dabiziko promozioak bukatzen hasi ziren:

- 2001-2002 ikasturtean amaitu zen Haur Hezkuntzako lehen promozioa; guztira 66 diplomatu berri.
- 2002-2003 ikasturtean, berriz, 58 diplomatu berri: Haur Hezkuntzan 28 ikasle eta Hezkuntza Berezian 30 ikasle.
- 2003-2004 ikasturtean, 60 diplomatu berri: Haur Hezkuntzan 27, eta Hezkuntza Berezian 33.

Bigarren Diplomaturako beste erreferente garrantzitsu bat 2004-2005 ikasturtean martxan jarri zen Entzumena eta Mintzaira espezialitatea izan zen. Guztira, 48 ikasle. Espezialitate honekin lotutako saioak emateko, eta kalitatea bermatzeko, kanpoko eragileekin hitzarmenak egin ziren: Aita Meni; Aransgi; Gautena, Aspace.

Goazen, atal honekin lotutako hainbat datu eskaintzera:

- 2004-2005 ikasturteko datuen arabera, Bigarren Diplomaturan 109 ikasle matrikulatu ziren: 27 haur Hezkuntzan, 34 Hezkuntza Berezia eta 48 Entzumena eta Mintzairan.
- 2005-2006 ikasturtean 203 ikasle matrikulatu ziren Bigarren Diplomaturako maila desberdinetan. Bigarren mailako 96 ikaslek bukatu zituzten ikasketak: 32 ikaslek Haur Hezkuntza, eta 22 ikaslek Hezkuntza Berezia. Ikasturte honetan amaitu zen ere Entzumena eta Mintzaira espezialitatearen lehendabiziko promozioa. Guztira, 42 ikasle.
- 2006-2007 ikasturtean 175 ikasle matrikulatu ziren Bigarren Diplomaturako maila desberdinetan. Bigarren mailako 98 ikaslek bukatu zituzten ikasketak. Gainera, berrikuntza bezala, ikasturte hartan ERASMUS programetan parte hartzeko aukera izan zuten.
- 2007-2008 ikasturtean 156 ikasle matrikulatu ziren. Bigarren mailako 78 ikaslek bukatu zituzten ikasketak.
- 2008-2009 ikasturtean 157 matrikula zeuden maila guztietan. Bigarren mailako 75 ikaslek bukatu zituzten ikasketak.
- 2009-2010 ikasturtean matrikulatu zen HUHEZIn Bigarren Diplomaturako azken promozioa (2010-11 ikasturtean bukatuko zutenak). Izan ere, graduko ikasketa berriak hastean, diplomaturako ikasketak agortu egin ziren. Beraz, bigarren diplomaturako azken ikasleak izango zirenak ikasturte horretan hasi ziren: 184 ikasle guztira, 1. eta 2. urteko ikasleak batuta. Bigarren mailako 77 ikaslek bukatu zituzten ikasketak hiru espezialitatetan: Haur Hezkuntza, Hezkuntza Berezia eta Entzumena eta Mintzaira.
- 2010-2011 ikasturtean, bigarren diplomaturaren hondarrean, 107 ikaslek bukatu zituzten ikasketak.

Grafikoa, 15: Bigarren diplomatura: Matrikulak (2005-2009)


Iturria: Kontseilu Errektorea. Egileak eginda

- 2010-2011 ikasturtean, HUHEZIn ikasitako ikasleei soilik, urtebetean zehar goizero bigarren diplomatura bat ateratzeko aukera eskaini zitzaion. Arrakasta handia izan zuen: 36 ikasle Haur Hezkuntzan; 36 ikasle Hezkuntza Berezian eta 23 ikasle Atzerriko Hizkuntzan.

21.4. GRADUEN INPLEMENTAZIOA²⁵⁹

Argi dago egokitzapen asko egin behar izan dituela Irakasle Eskolak-HUHEZIk bere historian zehar. Baina erronketan erronka izan zen abenduaren 21eko Unibertsitatei buruzko 6/2001 Lege Organikoko 37. artikuluan (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak eraldaturik) xedatutakoari egoki eustea. Izan ere unibertsitate-ikasketa ofizialak hiru ziklotan egituraturako ziren, hots: gradua, masterra eta doktoretza.

Horrek zera esan nahi zuen: irakasle ikasketak hiru urtekoak beharrez, dekretu honen arabera, lau ikasturte akademikotako gradua izango zela; 240 ECTS kredituz osatutakoa,²⁶⁰ alegia.

259. Arautegi Akademikoa. *Gradu Ikasketak, 2013-2014 ikasturtea*. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa.

260. ECTS (European Credit Transfer System) kreditua, Ikasketa plan jakin batean programaturik dauden helburuak erdiesteko ikasleek egin behar duten guztirako lan-karga edo -bolumena neurtzeko onartu den neurria da. ECTS bat 25 lanorduren pareko da ikaslearentzat; ikasturte akademiko bakoitzak 60 ECTS dituenek, ikaslearen 1500 lanordu dira; ordu horietarik batzuk presentzialak izango dira, eta beste batzuk, ez-presentzialak.

HUHEZIK, 2008-2009 ikasturteko Hezkuntza lerroko ikasketen mapari dagokionez, honako erabakia hartu zuen: Irakasle Graduak bi titulu jartzea; Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza. Horietako bakoitzaren barnean ibilbideak eskainiko ziren; ibilbide bakoitza 30 ECTSkoa. Haur Hezkuntzako titulazioak bi ibilbide izango zituen: bata Zaintzaren eta Autonomiaren pedagogia, eta bestea, Atzerriko Hizkuntzako. Lehen Hezkuntzako titulazioan, berriz, sei ibilbide diseinatu ziren: Zaintzaren eta Autonomiaren pedagogia, Hezkuntza Fisikoa, Hezkuntza Berezia, Atzerriko Hizkuntza, Entzumena eta Mintzaira eta Hezkuntza Artistikoa, azken hau berria zen. Erabaki horiek hartzeko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Foroak hobetsitako orientabideak izan ziren kontuan.

Arestian esan bezala, Fakultate honek 2009-2010 ikasturtean ekin zion Graduak ikasketak Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokiturik ezartzeko prozesuari, eta 2012-2013 ikasturtean kaleratu zen lehendabiziko promozioa.


Graduko beste ezaugarrietako bat, lehen aipatu den bezala, Gradu Bukaerako Lanak (GBL) dira; graduan ikasitakoa laburbildu eta beraien lanbide-profila eraikitzea zuzendutako ikasketen amaierako jarduerak. Ikasleek beren praktiketan ikusitako egoera, behar eta abarretatik abiatuta Gradu Bukaerako Lana egiten dute, orokorrean hiruko taldeetan. 32 GBL aurkeztu dira Haur Hezkuntzako graduan, eta 35, berriz, Lehen Hezkuntzako graduan. 2012-2013 ikasturtean gaitutakoak %91,4 Haur Hezkuntzan, eta %95,8 Lehen Hezkuntzako graduan.

Hasi eta bukatu zutenen graduazio tasak zenbatekoak izan ziren gainbegiraturaz gero, esan daiteke kopuruak pozik egoteko modukoak direla: graduak hasi zirenetik gaitutakoak Haur Hezkuntzan % 83,3, eta Lehen Hezkuntzan % 81,4.

Beste datu batzuk:

- 2009-2010 ikasturtean jarri zen lehendabizi Gradu ikasketa, 215 ikasle izan ziren Hezkuntza Gradu berrietan: 102 Haur Hezkuntzakoan, eta beste 113 Lehen Hezkuntzako Graduan.
- 2010-2011 ikasturtean 201 ikasle matrikulatu ziren: 98 Haur Hezkuntzan eta 103 Lehen Hezkuntzan.
- 2011-2012 ikasturtean, ostera, 237 ikasle izan ziren Hezkuntza Graduan: 102 Haur Hezkuntzakoan, eta 135 Lehen Hezkuntzakoan.
- 2012-2013 ikasturtean jaitziera eman zen, 188 ikasle matrikulatu ziren: Haur Hezkuntzan 78, eta 110 Lehen Hezkuntzan.
- 2013-2014 ikasturtean 161 ikasle berri matrikulatu ziren Hezkuntzako graduetan: 56 Haur Hezkuntzako Graduan, eta 105 Lehen Hezkuntzako Graduan.
- 2014-2015 ikasturtean 168 ikasle berri matrikulatu ziren: Haur Hezkuntzan 49, eta Lehen Hezkuntzan 119.


Grafikoa, 16: Graduak matrikulak (2009-2014)



Iturria: *Ikasturteko materialak*. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak eginda.

Bi graduak aintzat hartuta, hauek izan ziren titulua lortutako ikasleak 2012-13 eta 2013-14 ikasturteetan:

Grafikoa, 17: Graduak bukatutakoak (2012-2013 eta 2013-2014)



Iturria: Idazkaritza akademikoa. Iñigo Arriaran. Egileak eginda.

Bukatzeko, esan dezagun, goi-mailako Hezkuntzaren Europar Eremura egokitzeko bidean Mondragon Unibertsitatea izan zela Euskal Herri osoan egokitzen lehena. HUHEZlri dagokionez, ANECAk (Agencia Nacional de Evaluación de la Calidad y Acreditación) aurkeztutako hiru gradu berriak onartu zitzaion: Haur Hezkuntzako Gradua (HHG), Lehen Hezkuntzako Gradua (LHG) eta Ikus-Entzunezko Komunikazioko Gradua (IKO). Aipaturiko ebaluazio agenzia titulazio hauetan egindako berrikuntza metodologikoa nabarmendu zuen²⁶¹.

ANECAREN eskutik, AUDIT Unibertsitate-prestakuntzaren Kalitatearen Barne Bermeko Sistemaren Diseinu eta Garapenaren ziurtagiria ere jaso zuen.

21.5. HEZKUNTZA (` BLENDED ´ MODALITATEA)

2012-2013 ikasturtea beste nobedade batekin zetorren: Egokitze-ikastaroen lehenengo edizioa antolatu zen. Helburua: aurretik diplomatuak zirenei gradu-titulua lortzeko aukera ematea. Gradu ikasketek gradu-ondokoa egitea ahalbidetzen zuten, eta, ondoren, doktorego-ikasketak. Beste alde batetik, lan-merkatuari begirako aukerak zabaltzen zituzten. Hartzaileak irakasleak ziren: zuela gutxi diplomatura-ikasketak bukatu zituztenak, zein urteetan irakaskuntzan aritutakoak. Norberak zituen helburuen arabera hainbat aukera eskaini ziren:

1. Jatorrizko diplomaturaren espezialitatean gradua lortzea.
2. LHko jatorrizko diplomatura aldatu eta beste espezialitate batean gradua lortzea.
3. Edozein dela ere jatorrizko diplomatura (HH edo LH), beste gradu bat lortzea.

Helburua, prestakuntzan sakontzea eta on-line ereduaren trebatzea zen. Lehenengo edizio hartan 123 ikasle eta 35 irakasle hartu zuten parte. Aldi berean, 22 Practicum eta Gradu Bukaerako 57 lan bideratu ziren.

Hala ere, egokitze modalitatez gain, hezkuntza gradu on-line sistemak ere gorakada handia izan du azken urteetan. Honako ezaugarri hauek dituztenei ere eskaini zitzaizkien: aurretik goi-mailako ikasketak eginda zituztenei (diplomatu, lizentziatu, ingeniari edo arkitektoei); helduentzako unibertsitateko sarrera-proba gainditu zutenei; lanbide heziketako goi-mailako moduluak (hezkuntza alorrekoak) gehi 5 urteko lan eskarmentua zutenei; goi mailako kirolariei.

²⁶¹ 2004-2005 ikasturtean (2005eko apirilaren 25etik 27ra) ANECAREN ebaluazioa jaso zuen irakasle ikasketen titulazioak. Alderdi indartsuetan aintzat hartu ziren ikasleentzako asetasun maila, kolektiboaren inplikazioa, ikasleekiko hurbiltasuna eta hezkuntza proiektuaren koherentzia eta sendotasuna. Ahulunetan, ostera, ikerketa, beste unibertsitateekiko harremanak eta prozesuaren sistematizazioa.

2013-2014 ikasturteari begira, aurrez diplomatuak zirenei graduak titulua lortzeko aukera eman zitzaenez, 135 ikasle matrikulatu ziren. Bestalde, lehenengoz eskaini zen bigarren gradua edo aipamena, eta gradu osoa on-line egiteko aukera: hurrenez urren, 38 ikasle eta 19 ikasle matrikulatu ziren. Hiru modalitateetako datuak aintzat hartuta, honakoak izan ziren 2013-2014 eta 2014-2015 ikasturteetako emaitzak:

Taula, 29: Hezkuntza graduak online (2013-14 eta 2014-15)


MODALITATEAK	IKASLE KOPURUA	
	2013 - 2014	2014 - 2015
Egokitze	135 (LH-94; HH-41)	57 (LH-38; HH-19)
Bigarren Gradua/Aipamena	38 (LH-31; HH-7)	106 (LH-76; HH-30)
Graduak Online	19 (LH-16; HH-3)	24 (LH-15; HH-9)

Iturria: *Ikasturteetako memoriak*. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak eginda.

21.6. MATRIKULATUEN JATORRIA

Saiatu gara irakasle ikasketei dagokienez, gure irakasleriaren jatorria hautematen. Honetan, berriz, 2015-2016ko graduak matrikulazioak masterretan izandakoekin batuz, ikasleen jatorriaren aldaketa nabarmena hauteman daiteke:

Grafikoa, 18: Matrikulak herrialdeka (2015-2016)



Iturria: *Idazkaritza*. Egileak eginda.

Gaur egun, Gasteiz ingurutik datorren ikasle kopurua gainditzen da aise. Datu absolutuei begiratuta Gasteizkoak dira matrikulatutako 189 ikasle, Donostia aldekoak, 77, eta arrasatearrak, berriz, 67. Bergara eta Oñatitik ere ikasle asko dator.


Eskualdeka, baina, Debagoiena da nagusi. Guztira, 245 ikasle zeuden matrikulatuta 2015-2016an.

21.7. IKASLE PROMOZIOAK: IRAKASLE IKASKETAK (1997-2014) ETA BESTE TITULUDUNAK

Azpi atala honen helburua da antzinako diplomatura, oraingo gradu eta dagozkion espezialitate ikasketak eginda-ko zenbat ikasle atera diren 1997-98 ikasturtetik 2014-15 ikasturteraino ezagutzea, alde batetik. Bestetik, zenbat tituludun atera diren Erakundetik 1976tik hasi eta 2014-2015 ikasturteraino.

Has gaitezen, bada, 1997tik 2014ko ikasturtera bukatutakoak adierazten.

Grafikoa, 19: 1997-1998 ikasturtetik 2014-2015 ikasturtera bukatutako irakasle ikasketak, espezialitateka




* Hemen HH eta LH graduak ere txertatu dira.

Iturria: Idazkaritza akademikoa. Iñigo Arriaran. Egileak eginda.

Beraz, 1997-1998 ikasturtean hasita 2014-2015 ikasturtera arte espezialitateak burutu dituzten ikasleak 3.215 dira. Hona hemen espezialitateka:

- Atzerriko Hizkuntza ... 261 ikasle.
- Haur Hezkuntza ... 1.044 ikasle.
- Hezkuntza Berezia ... 696 ikasle.
- Hezkuntza Fisikoa ... 250 ikasle.
- Entzumena eta mintzaira ... 125 ikasle.
- Lehen Hezkuntza Gradua ... 512 ikasle.
- Haur Hezkuntza Gradua ... 327 ikasle.

Grafikoa, 20: Irakasle ikasketak espezialitateka (1997-2014)



Iturria: Idazkaritza akademikoa. Iñigo Arriaran. Egileak eginda.

Generoari dagokionez, eta esandako urtemugak zein irtendako ikasleak aintzat hartuta, emakumeak dira nagusi, %80; gizonezkoak, nahikoa gutxiago, %20.

Herrialdeka, gipuzkoarrak dira % 68,5; bizkaitarrak % 21,5; arabarrak, % 8; nafarrak: % 1,5; eta bestelako jatorria daukatenak %0,5.

Kopuruak kopuru, eta 2014-2015 ikasturteraino, 4.861 irakasle kaleratu dira Irakasle Eskola-HUHEZI fakultateak bere ibilbidea 1976an hasi zuenetik. Kontuan izanez gero 1997tik Fakultatean beste titulu batzuk ere ematen direla²⁶², kopuru horri beste 1.913 tituludun gehiago gehitu behar dizkiogu. Biak batuta, beraz, 6.774 ikasle atara dira titulu batekin Eskoriatza nahiz Aretxabaletatik. Hau da, beraz, 40 urtean Eskoriatzan sortutako Erakundeak euskal gizarteari eskainitako benetako zerbitzu publikoa.

262. Titulu hauek: *Humanitateak Enpresa lizentziatura. Psikopedagogia lizentziatura. Pertsonen garapena eta kudeaketa estrategikoan masterra. Hizkuntzan kudeaketa aditua. Informazio eta Komunikaziorako teknologiak formazioan masterra. Prestakuntza pedagogikoa aditua. Entzumena eta mintzaira espezializazio ikastaroa. Pedagogia terapeutikoan espezializazio ikastaroa. Norbere garapena eta taldeen lidergoan masterra. Etengabeko prestakuntza. IKTak formazioan aditua. Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziatura. Euskal kultur gintza. Norbere garapena aditua. Doktoregoa. Kooperatibagintza aditua. Kulturgintza aditua. DBH masterra. EKOMU masterra. ADITUKOM aditua. BERRIMET masterra. IKO Gradua.*



1 2 3 4 5 6 7

Hainbat urtetako orla banaketa.

8

Irakasletza Hezkuntza Berezia, 1996 - 1999 promozioa.



8

9

Humanitateak - Enpresa lizentzia. Lehen promozioa, 1997 - 2001.



9



10



11



12



13

10

Heziketa Fisikoko ikasleak.

11 12 13

Hainbat urtetako ikasle ohien harrera

14

Education Video Challenge, 2015.



14

22. HUMANITATEAK ETA ENPRESA (HUEN)

Humanitate eta Enpresa²⁶³
lizentziatura hau²⁶⁴, enpresa nahiz
hezkuntza munduko hainbat
pertsonek hausnarketa prozesuaren
emaitza izan zen.

Une hartan (1997an), enpresetan gero eta gehiago ari zen azpimarratzen giza eragileak zeukan garrantzia. 1997-1998 ikasturterako, Humanitateak eta Hezkuntza Zientzia Fakultateak (HUHEZI) karrera berri bat sortzea erabaki zuen. Zertarako? Pertsona ardatz harturik, "enpresen gestiorako" berezitasunez eta kalitate osoz, enpresetan eta, oro har, gizarte erakundeetan pertsonen kudeaketak eskatzen zuen gaitasunari erantzuteko. Bestalde, bestelako bidea bat zabaltea ere bilatzen zen: MUren eta beste Fakultate bien ezaugarri nagusia zen enpresa mundura hurbiltzea hiru Fakultateen arteko kohesioa indartzeko eta HUHEZIlren zilegitasuna, batez ere MCCren aurrean, areagotzeko.

Karrerak helburu estrategikoak hauek jarraitu zituen: 1) Enpresen eta erakundeen beharrei erantzungo zizkien ezagutzak irakastea. 2) Ekimena, ikasteko eta erabakiak hartzeko ahalmena agertzea. 3) Ahoz eta idatziz komunikatzeko trebetasuna lortzea. 4) Harremanak izateko gaitasuna, eta talde lanean jarduteko zein lidergotza adierazteko joera frogatzea.

Helburuak ondo definituta, ondorengo arloei buruzko ikasgaiak sartu ziren ikasketa planean: 1) Enpresa eta gizarte-erakundeei buruzko gai orokorrak: Ekonomia, kontabilitatea, marketin, Zuzenbidea, Zuzendaritza estrategikoa, Finantza kudeaketa, Ekoizpenaren kudeaketa ... 2) Antolamendu eta pertsonen kudeaketari buruzko gai bereziak: Pertsonen kudeaketa, Kudeaketaren trebetasunak, Prestakuntzako beharren diagnostikoa eta planak, Soziologia, Psikologia, Pertsonen kudeaketari aplikatutako teknologia berriak 3) Gizarte, Historia, Kultur eta Ekonomia mailako mugimendu eta fenomenoak azterketa²⁶⁵.

Hauek lantzeko estilo berri eta propioa garatu nahi izan zen ("eredu tradizionaletik kalitate osoaren eredura"), eta ildo hauetan oinarritu zen:

263. *Gestio-Plana*. 1997-1998 ikasturtea. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4. 1tik B.4. 11ra.

264. Hauek izan ziren karrera hau ezartzeko hausnarketan parte hartu zutenak: Jesus Goienetxe (MCC), Felix Ormaetxea (HEZIBIDE), Pello Urtasun (Fagor-Luzuriaga), Jose Mari Larrañaga (Otalora), Patxi Lazkano (Copreci), Luis Mari Alvarez (Irakasle Eskola), Txema Gisasola (Fagor), Fermin Belzunegi (Euskadiko Kutxa), Juanjo Otaño (Irakasle Eskola), Julio Cantón (Otalora), Antonio Sainz (Eroski), Gurutz Txopeitia (LKS). Esan, karrera berri hau kaleratu aurretik, merkatu azterketa bat ere egin zela.

265. Juanjo Otañorekin elkarrizketa: 2014/02/14.

Taula, 30: Humanitateak-Enpresa: Hezkuntza ereduaren aldaketa

EREDU TRADIZIONALETIK	KALITATE OSORA
Ezagutzen transmisioetik	Kontzeptuen jabeakuntza eta gestio ahalmenean garapenera.
Asignaturen helburuetatik	Helburu estrategikoen hedapenera.
Irakaslea, irakaskuntzaren ardatza izatetik	Ikasleak beren ikasketa kudeatzera.
Banakako lanetik	Banako lana eta taldekora.
Gai espezializatuetatik	Ezagutzen integrazioa eta enpresaren ikuspegi globalera.
Ikaslearekiko ikuspegi negatiboa izatetik	Laguntza eta babes, ahaleginaz hobetzeko eskaintzara.
Irakasle-ikasle gatazkatik	Helburu estrategikoak lortzeko elkarlanera.

Iturria: *Gestio-Plana. 1997-98 ikasturtea. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa, Antolakuntza, Gestio Plana, B.4.1tik B.4.11ra. Egileak eginda.*

Taulan ikusten den bezala, ikasleen profilak hartzen zuen jitea oso dinamikoa eta parte-hartzailea zen. Hori bermatzeko, banakakorako zein taldean aritzeko tutoretza sistema solido bat eskaini behar zen.

Lizentziatura berri honen hasierako zuzendaritza partekatua hirukoa izan zen: Jose Antonio Mendikute zuzendaritzaren koordinatzailea edo zuzendaria. Juan Jose Otaño, hasiera hasieratik diseinua koordinatu zuena, esperientzia handikoa jardura akademikoan, eta esan daiteke, proiektuaren aita. Eta Luzio Ugarte, ikasleen praktikez arduratuko zena; gero, Praktiker izeneko ikerkuntza berrikuntza eta erakunde eraldaketarako zentroa izango zena. Erakunde honen helburu nagusia erakunde berrikuntza, ikerketa eta eraldaketa ziren, eta ikerketa ildoan enpresa kudeaketaren ikerketa aplikatzen oinarritzen zen. Lanak ezagutza, erreminta, teoria eta metodoen garapenean ekarpen garrantzitsuak egiten ziren bai hezkuntza akademikoari baita enpresen berrikuntzari ere.

2001-2002 ikasturtetik aurrera Juanjo Otañok hartu zuen zuzendaritza. Jose Antonio Mendikute HUHEZiko Dekano izateko aukeratua izan zen.

Modu honetara kontatu digu Jose Antonio Mendikutek HUHEZira etorri zeneko garaia:

“ 1997an iritsi nintzen Eskoriatzara, zazpi urteetan (1990-1997) Otoran zuzendari izan ondoren. Bertan, batez ere, formazioaz arduratzen nintzen, beraz ez zen niretzat arrotza hezkuntza mundua. Gainera, aurretik, zuzendaria eta irakaslea ere izan nintzen ETEOn. Ordutik ezagutzen nuen Jesus Garmendia. Hala, bera etorri zitzaidan eskaintza egitera Otorara esanez Humanitateak Enpresa (HUEN) karrera berrirako banuela nik neuk irakasle profila, eta behar ninduela. Halaxe joan nintzen Eskoriatzara. Hasteko irakasle izateko asmoarekin, baina Juanjok diseinatutako HUEN karreraren zuzendaria izateko uko egin zionez, orduan neuri eskaini zidaten zuzendari izatea. Handik lau urteetara Jesusek esan zidan ni nintzela dekanu izateko pertsona aproposena, eta baietza eman ondoren, 2006ra arte, jubilatuta hain zuzen, izan nintzen HUHEZiko dekanua ”²⁶⁶

Baina hasierako egitasmo haiek nola gauzatu ziren matrikuletan? Profil berria zuen karrera berri hark zelako arrakasta izan zuen ikasle kopuruari dagokionez?

Karrera honek interes handia piztu zuen, argi dago, eta arrakastaz abiatu zituen hasierako urteak. Unerik gorenean, 1999-2000 ikasturtean, 91 ikasle berri (58 neska eta 33 mutil) matrikulatu ziren. Ondorengo urteetan, ordea, beherako joera nabarmena izan zen.

266. Eibartarra dugun Jose Antonio Mendikutek historia oparota du, eta ez da erraza bi hitzetan laburtzea. Bere kabuz atera zituen aurrera ikasketak, doktoretza barne; enpresa askotan ibilitakoa dugu bera: Eibar eta Plaentzia inguruko tailerrak, EROSKI, ETEO, EUSKADIKO KUTXA, OTALORA eta HUHEZI. EROSKIren sortzailetako eta lehendakaria izan zen, eta ETEOn egindakoa azpimarratu beharko litzateke, batez ere 1973an lortu baitzuten “Escuela de Técnica Empresarial” tituluak, eta bera izan zen zuzendari akademikoa. Oso positibotzat jotzen du MU sortzea. Irakasle Eskolan eta gero HUHEZIn Jesus Garmendiak eta Juanjo Otañok izandako lidergoa goraiatzat digu. Aldi berean, HUHEZIn etorri zenean harrituta geratu zela irakasleen arteko harreman onarekin, baina baita irakasleek ikasleekin zizuten harreman gozoekin: “niretzat oso inportanteak ziren”. (Jose Antonio Mendikuterekin elkarrizketa, 2014/02/11).

Taula, 31: Humanitateak-Enpresa: Matrikulak (1997-2001)


MAILA	1997 1998	1998 1999	1999 2000	2000 2001	2001 2002
1. maila	72 n.: 46 m.: 26	89 n.: 55 m.: 34	91 n.: 58 m.: 33	56 n.: 38 m.: 18	58 n.: 46 m.: 12
2. maila		54 n.: 17 m.: 37	76 n.: 44 m.: 32	64 n.: 48 m.: 16	63 n.: 39 m.: 24
3. maila			64 n.: 44 m.: 20	86 n.: 52 m.: 34	70 n.: 48 m.: 22
4. maila				59 n.: 40 m.: 19	77 n.: 48 m.: 29
Egokitze		25 n.: 15 m.: 10	21 n.: 12 m.: 9	12 n.: 6 m.: 616	8 n.: 8 m.: 0

* (n) neskek; (m) mutilak.

Iturria: Irakasle Eskola. Idazkaritza akademikoa. Marisa Pagonabarraga. Egileak eginda.

Lehendabiziko promozioa, beraz, 2000-2001 urtean atera zen. Guztira, 48 lizentziadun berri. Jatorriari dagokionez, ia gehiengoa (%81,25) gipuzkoarra; euretatik % 56,7 debagoiendarrak. Goierrikoak (%12,5), Debarrenekoak (%10,5) eta bizkaitarrak (%10,5)... Generoari dagokionez, hamarretik ia zazpi (%64,5) emakumeak ziren.

2001-2002 ikasturteko matrikulatuen datuei begiratuta jakingo dugu ikasleriaren jatorria, herrialdeka, zein izan den:

Grafikoa, 21: Ikasleriaren jatorria herrialdeka (2001-2002)

Iturria: *Ikasleen estatistikak*. Marisa Pagonabarraga. Egileak eginda.

Gipuzkoarren nagusitasuna nabaria zen, hamarretik zazpi, nahiz eta Bizkaitik zetozen kopurua ere garrantzitsua izan (%22).

Ondorengo urratsa, lizentziatu berriak lan-munduratzeko izan zen. 2002 ikasturteko promozioaren datuak honakoak ziren: 45 ikasle lanean, %80 karreraren ikasitakoarekin lotutako eremu eta departamenduarekin; 11 ikasle, bestelako ikasketak egiten eta, 3, (%5) langabezian. Lehen hiru promozioak hartuz gero kontuan, emaitzak hauexek: karrera amaitu zutenak, 178 ikasle; okupazio tasa, %87. Horietako %60k zioen, ikasketak eta lanaren artean lotura handia edo nahikoa zegoela.

Hona hemen, 2002 ikasturtetik aurrerako ikasle kopuru orokorrak:

Taula, 32: Humanitateak-Enpresa: Ikasle kopurua (2002-2003 eta 2003/2004)


IKASTURTEA	IKASLE KOPURUA
2002-2003	269
2003-2004	221

Iturria: *Ikasturteko memoria (2002-2003; 2003-2004)*. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa.

2003-2004 ikasturtean ere, lizentziatura ikasketen baitan, ikasleei espezializatzeko aukera eman zitzaien. Horrela, giza zientzien arloko esparruari zabaldu zitzaion atea: enpresako komunikazioan, kudeatzeko trebezian eta garapeneko ekonomian. Aukera libreko kredituen eskaintza bigarren ziklo osora zabaldu zen.

Beraz, ikasturte honetan bi aukera eskaini zitzaizkien ikasleei: bat, enpresan aplikatutako humanitateak (HUEN: Humanitateak-Enpresa) eta bestea, informazioari eta komunikazioari aplikatutako humanitateak (HUKO: Humanitateak-Komunikazioa).

Grafikoa, 22: Humanitateak-Enpresa lizentzia ateratako ikasleak (2000-2012)




Iturria: *Idazkaritza akademikoa*. Iñigo Arriaran. Egileak eginda.

Jose Antonio Mendikutek horrela adierazi digu karrera honen bilakaera:

“ 1997tik 2001era arte, hau da, lehen promozioak bukatu zuenera arte, ikasle kopurua ondo joan zen, baina orduan hasi zen jaisten. Eta ez genuen jakin izan jaitsieraren arrazoiak zein izan zen, izan ere ez genekien zein zen lehendabiziko promozioak lan merkatuan izandako txertaketa. Egia esanda, enpresetan ere ez zuten ulertu profila, eta 2003an 18 ikasle sartu ziren soilik. Horrek ekarri zuen MUREN barne hausnarketa; fakultate bakoitzaren zeregina ondo definitu behar zen. Hala erabaki zen fakultate bat enpresara begira egongo zela (ETEO-Enpresagintza), beste bat ingeniarietara (ESKOLA) eta hirugarrenak hezkuntza eta humanitateak (HUHEZI) arloak jorratuko zituela ”²⁶⁷

2003ko azaroan, hirugarren ikasturteko hiru ikasleak (Amaia Goxenzia, Alazne Landa eta Maria Ugartek), Fakultatetik etxera zihoazela bizia galdu zuten kotxe istripu batean, Elorrio inguruan. Horren oroitzapenaren lekuko dira Fakultatean egin zitzaizen omenaldia eta Dorleta eraikuntzaren ate aurrean ezarritako oroigarria eta haritza.

267. Jose Antonio Mendikuterekin elkarrizketa, 2014/02/11.



- 1 2 3 4 5 6


Garai desberdinetako katalogoak.

7 8 9 10 11

Garai desberdinetako katalogoak.

12

Hildako ikasleen oroigarria:
Amaia Goxenzia, Alazne Landa eta
Maria Ugarte.



23. IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA (IKO) ETA ARETXABALETAKO CAMPUSA

Aldaketa garaia zen. Humanitateak eta Enpresa lizentziaturaren eskutik arlo berri bat ireki zen: komunikazioa.

Halaxe sortu zen Ikus-entzunezko Komunikazioa (IKO) lizentziatura. Lehendabiziko urratsak Humanitateak eta Enpresa lizentziaturarekin lotuta eman zituen; eta ondoren, ibilbide propioa egin eta ikus-entzunezkoetara lotu zen.

HUHEZIK, berriro ere, aurretik erakutsitako dinamismoa eta egokitzen jakiteko gaitasuna zeukala berretsi zuen. Honen inguruan, zera diosku Jose Antonio Mendikutek:

“*MONDRAGON UNIBERTSITATEA barruan fakultate bakoitzaren zereginak definitu zirenean, orduan ikusi zen komunikazioarekin lotutako karrera bat diseinatu eta martxan jartzea HUHEZIn. Has-teko, eztabaida bat sortu zen, izan ere batzuk “Humanidades Comunicación” bultzatu nahi zutelako; alegia, humanitate kontzeptua mantentzea. Errektore ordea zen Eizagak, baina, ikus-entzunezko komunikazioari proiektio handiagoa ikusten zion. Eztabaidak eztabaida, azkenean ikus-entzunezkoa martxan jartzea erabaki zen*”²⁶⁸

23.1. MATRIKULAK ETA BILAKAERA

Humanitateak eta Enpresak, bi ibilbide eskaini ziren: enpresari aplikatutako giza zientziak, eta informazio eta komunikazioari aplikatutakoak. Azken honetatik sortu zen Ikus-entzunezko komunikazioa (IKO) lizentzia, Aitor Zuberogoitiak lideratu eta koordinatu zuena; IKOko lehendabiziko zuzendaria izan zen.

268. Jose Antonio Mendikuterekin elkarrizketa, 2014/02/11.

Hona hemen karrera berri honetan izandako bilakaera datuak:


- 2004-2005 ikasturtean ekin zion bideari Informazio eta Komunikazioari Aplikaturako Giza Zientzietako lehen-dabiziko promozioak. Guztira, 37 ikaslek hasi zuten karrera. Gehienak, bigarren zikloan, IKO egitera pasatu ziren.
- Ikasturte bat beranduago, 2005-2006an, lizentziatura bikoitzaren (IKO-HUEN) aukera eskaini zitzaizkien ikasleei, eta IKOko ikasleek urtebete gehiago eginda HUENeko lizentzia ere eskuratzeko aukera izan zuten. 2008-2009 ikasturtean, 29 ikaslek aprobetxatu zuten aukera hau.
- Ikasturte berean (2005-2006) hau zen IKOn ikasten ari ziren ikasleen erradiografia: lehen mailan 33 ikasle, eta bigarren mailan 37.
- 2006-2007 ikasturtea ere aldaketa urtea izan zen. Aldaketa bikoitza eman zen: IKO 4. mailara egokitzea eta, hurrengo ikasturterako Mendeberrira begira jartzea.
- 2007-2008 ikasturtean 172 ikasle izan ziren lerro osoan: 140 IKOn. Beraz, ikasketa eskaeren merkatua nola zihoan ikusita -ikus-entzunezkoak gero eta garrantzia handia hartzen ari zen-, zabaltzen ari zen eremu berri hori sakon lantzen hastea deliberatu zen: gradu ikasketa berria (“komunikazioa”) garatu zen, mundu profesionalarekin harremanak sendotu eta ikasle eta irakasleen mugikortasuna ere sustatu zen. Esate baterako, Erasmus egitasmoa garatu zen eta KAPa bideratzeko helburuarekin, ikasleak praktikaldi edo egonaldiak atzerrian egiten hasi ziren²⁶⁹.
- 2008-2009 ikasturtean, Humanitateak-Enpresan, 45 ikaslek burutu zituzten 2. zikloko ikasketak. Ikus-entzunezko Komunikazioari dagokionez, lau mailatan 161 lagun matrikulatu ziren; 32 izan ziren lehen mailan matrikulaturakoak.
- 2008ko udazkenean aurkeztu zen ANECAn Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua. Ikus-entzunezko Komunikazioa, Kazetaritza eta Komunikazio Korporatiboa uztartzen zituen titulua diseinatu zen, Giza Zientzien presentzia handiarekin eta, kompetentziei dagokionez, *European Journalism Training Association* (EJTA) erakundearen kompetentzien mapan oinarrituta. Ondoren, 2009ko otsailean heldutako ANECaren behin-behineko erantzunean jasotako iradokizunak, gehi Espainiako Komunikazio Ikasketen Liburu Zuriaren irizpideak aintzat hartuta (bertako kompetentzien mapan oinarritu, Giza Zientzietako ikasgaien presentzia urritu, kazetaritza eta komunikazio korporatiboaren pisua murriztu eta ikus-entzunezkoetan espezializatu), eragozpen barik onartu zuten ANECAk diseinu berria. 2009ko irailean abiatu zen Graduak lehen maila.
- 2009-2010 ikasturtean, Humanitateak Enpresa ikasketetan (HUEN) 28 ikaslek egin zituzten bigarren zikloko ikasketak; horietatik 6 ikaslek IKO-HUEN lizentzia bikoitzean. 9 ikaslek amaitu zituzten Humanitate-Enpresa ikasketak. Ikus-entzunezko Komunikazioa graduan 34 ikasle matrikulatu ziren lehen urtean, eta lizentziaturan

269. 2007-08ko ikasturtean IKOko 3. Mailako lau ikaslek egin zuten ERASMUS; beste 6 praktikak (AEB, 2, Kuba 2 eta Nikaragua, 2).KAPa bideratzeko bi lagunek Indian (Bollywood-en) egin zuten.

125 lagun. 2009-2010 ikasturtean ikus-entzunezko Komunikazio ikasketak 31 ikaslek amaitu zituzten. Esan bezala, 2009ko udaberrian ikus-entzunezko komunikazio gradurako memoria onartu zuen ANECAk. 2009ko irailean, 34 ikasle matriculatu ziren lehen ekinaldi honetan.

- Haatik, komunikazioa eta enpresa uztartzen dituzten ikasketetarako eskaria egon zitekeela ikusita, erabaki zen *Komunikazioa Erakundeetan* aditu tituluaren diseinuarekin jarraitzea. Beraz, guztira 187 ikasle izan genituen Giza Zientzien lerro osoan (159 IKOn eta 28 Humanitateetan). Ikus-entzunezkoetan matriculakopurua berdintsu mantendu zen: 161 ikasle 2008-2009 ikasturtean, eta 159 ikasle 2009-2010 ikasturtean.
- IKOn, berriz, 2010-2011 ikasturtean, 41 ikasle izan genituen lehen mailan, eta beraz, bigarren maila inplementatu zen.
- Ondorengo ikasturtean (2011-2012) hirugarren maila jarri zen martxan.
- 2012-2013 ikasturtean, matriculak igo egin ziren IKOn: aurreko urtean izandako 33 matriculetatik 42ra. 2013-2014 ikasturtea ere oparoa izan zen lehen matriculazioari begirako ikasle berri kopurua: 51 ikasle berri etorri ziren. Bukatzeko, 2014-2015 ikasturtean, ostera, jaitsiera nabaritu zen: 47 ikasle berri matriculatu ziren.

Grafikoa, 23: IKO matricula berriak (2006-2014)



Iturria: *Ikasturteko memoriak*. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak eginda.

23.2. ARETXABALETAKO CAMPUSA

Aretxabaletako campusa HUHEZlren egitasmo berritzaileen zabalkundearekin lotutako emaitza izan zen, batez ere IKOren espektatibak gizartean gero eta handiagoak zirelako. Horren lekuko zen Eskoriatzako egoitzan gertatzen ari zen irakasle ikasketen matrikulazio igoerak sortutako espazio arazoa. Egoera horren aurrean, espazio berri bat bilatu zen, eta Aretxabaletako Udalaren onespina eta laguntza osoarekin hutsik zegoen lantoki batean campus berria ezartzea erabaki zen. 2009an hasi zen gauzatzen Aretxabaletako proiektua. Aretxabaletako Udalaren inplikazioaz gain, GOIENA (Debagoieneko Komunikazio Taldea) ere prest agertu zen, HUHEZlrekin batera, proiektu komuna martxan jartzera.

Honi guztiari forma ematen hasi zitzaionean, nahiz eta FEPItik (“Fondo de Educación y Promoción Intercooperativa”) 1.200.000€ etorriko zirela ziurtatu egon, aurrekontua ere ikaragarri igo zen. Ezinbestekoa zen finantzaketa iturri berriak bilatzea, eta hasteko, 2.000.000€ko kreditu eskaera negoziatu zen.

Lor zitekeen diruarekin, agertoki ezberdinak irudikatzeke simulazio bat egitea eskatu zitzaion LKSri. Era berean, HUHEZlko bazkideen iritzia ezagutzeko asmoz, kontsulta bat egitea ere adostu zen. Gauzak argitu zirenean, erai-kuntzaren egokitzapenari ekin zitzaion eta 2013ko maiatzaren 22a egun historikoa izan zen HUHEZlirako: Cristina Uriartek –Hezkuntza sailburuak-, Nekane Arratibelek –HUHEZlko dekanok-, Iosu Zabalak –MONDRAGON UNIBERTSITATEko erretoreak, eta Martin Garitanok –Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusiak- Aretxabaletako campusa ofizialki inauguratu zuten²⁷⁰. Hala ere, ikasleak arinago hasi ziren eraikuntza berria erabiltzen, 2012-2013 ikasturtea, ohi bezala irailean hasi zelako.

Ikasturte hartan, lehen hiru mailez gain laugarren maila ere inplementatu egin zen. Beraz, Aretxabaletako campusetik irtengo zen lehendabiziko promozioa izan zen. Horretarako, baina, Gradu Bukaerako Lana ere gainditu behar izan zuten. Amaieran, gradu-bukaerako 11 lan aurkeztu ziren. Esan beharrik ez dago une historikoa bizi zela Eskoriatza eta Aretxabaletan.

23.3. HUHEZINEMA ETA KOMUNIKALDIAK

Ikus-entzunezko 4. mailako ikasleek eta irakasleek antolatutako lehendabiziko zinemaldia 2007-2008 ikasturtekoa izan zen. Lehendabiziko edizioan 41 film labur eta dokumental aurkeztu ziren²⁷¹. Harrez gero, urtez urte, aberasten joan den zinemaldia izan da; gaur egun ere osasuntsu mantentzen da, eta gizarte proiektio handia lortu du.

Horren lekuko 2012ko edizioa izan zen. Inoizko diru-sari handiena banatu zen (6.000 euro), eta inoiz baino film gehiago aurkeztu ziren (140 film labur).

270. <http://www.mondragon.edu/eu/ikasketak/graduak/gradua-ikus-entzunezko-komunikazioa/> (Aretxabaleta). (Kontsultatuta: 2015/11/15).

271. <http://huhezinemajaldia.wordpress.com/aurreko-edizioakotras-ediciones/edo> <http://www.huhezinema.com/> (Kontsultatuta: 2015/11/15).

Hiru eguneko programazioa eskaini zen, horietako bat HUHEZIn eta, beste biak, Aretxabaletako Arkupe Kultur Etxean.

2013 urtean, seigarren ekitaldia antolatu zen. Guztira, 147 lan aurkeztu ziren, horien artean, 3. eta 4. mailako ikasleek dokumentalgintza eta film laburra proiektuetan egindakoak. Esan behar da, sekulako oihartzuna izan zuela ekitaldiak, inoizko handiena, eta ikasleek beraiek parte hartu zutela jaialdiaren antolaketan, komunikazio eginkizunetan, produkzioan eta finantzaketa bilaketan.

Ondoren, 2014ean, “Amama” filmarekin hain ospetsua bihurtu den Asier Altunak irabazi zuen euskarazko film labur onena; ZEALA TROVKE izeneko lanarekin.

2015ean (zortzigarren edizioa) euskarazko film labur onena ZARAUTZEN EROSI ZUEN lanarekin Aretxabaletako kanpusean irakaslea den Aitor Arregik irabazi zuen. Aitorrek “Loreak” filmaren produktore eta ko-gidoilari lanak egin ditu, baita bigarren grabazio unitatearen arduradun lanak ere, eta Oscar sarietara iristear egon den lehen-dabiziko euskarazko filma izan da²⁷².

2016 urtean ere, azken urteetan emandako hiru saileko sariak hartuko dira kontuan: atal ofiziala, Basque Culinary eta MONDRAGON UNIBERTSITATEko ikasleen lehiaketa.

Aldi berean, informazio eta komunikazio arloa indarrez ari zen bide egiten eta 2005-2006 ikasturtean Fakultatean lehen komunikazio-jardunaldiak (“Komunikaldiak”) antolatu ziren. Lanketa gai nagusia, *komunikazio korporatiboa* izan zen²⁷³. Ondorengoek honako gaiak izan zituzten hizpide: *tokiko telebista digitala euskaraz (2007); etorkizuneko komunikatzaileak (2008); Gur zinema, gaur (2009); Telebista interneten (2010); Egile eskubideak (2011); Bideo jokoak eta Hezkuntza (2012)*. 2012-2013 ikasturteko ardatz nagusia, campusean abian jarriko zen Ideia Laborategia (GOIKOLAB) gaiaren ingurukoa izan zen (*Ideia laborategiak, 2013*), eta, aurreneko aldiz, Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean egin ziren. 2014-2015 ikasturteko gai ardatza, berriz, *porrota, arrakastaren ernamuina* gaia izan zen.

23.4. EUSPOT

2012an jaio zen Euspot euskarazko spot lehiaketa. Lehiaketaren asmoa da euskaraz sortutako publizitatea suspertu, eta bereziki, euskarazko ikus-entzunezko iragarkien ekoizpena handitu. Aretxabaletako Udala eta Arteman Komunikazioarekin batera, 2012. urtetik ari dira xede horretan MONDRAGON UNIBERTSITATEko Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako Fakultateko Komunikazio Departamentua.

272. “Loreak”, Aitor Arregi MONDRAGON UNIBERTSITATEko irakasle eta filmaren gidoilari eta produktorean filma, Oscarretarako bidean. Iturria:<http://www.mondragon.edu/eu/huhezi/aktualitatea/albisteak/loreak-oscarretara> (Kontsultatuta: 2016/01/15).

273. Helburua, komunikazioaren inguruko gai bat ardatz hartuta, Unibertsitatea eta mundu profesionala hurbiltzea. Lehen jardunaldi honen gaia “Komunikazio Korporatiboa” izan zen. 2006-2007koa, “Tokiko telebista digitala euskaraz”. Honez gain, topaketak egiteko aukera ere zabaldu zen, eta ikasturte berean “euskarazko bikoizketaren inguruko jardunaldia” ospatu zen 2006ko azaroan. Iturria: <http://www.mondragon.edu/eu/huhezi/aktualitatea/jardunaldiak/komunikaldiak> (Kontsultatuta: 2016/01/15).

Lehiaketa irekia da. Bertan esku hartzen ohi dute MONDRAGON UNIBERTSITATEko ikasleek eta kanpotik etorritako lehiakideek²⁷⁴.

23.5. GOIKOLAB LABORATEGIA

Aipatu den bezala, 2012-2013 ikasturteko berrikuntza nagusia Aretxabaletako egoitza berria inauguratzea izan zen. Eraikin berria -GOIENA eta MUren bitariko batzordean markaturiko irizpideei jarraiki-, Goikolab laborategiaren oinarriak jarri ziren: Leicester eta Kaliforniara eginiko bisitetan eta Komunikaldietan bildutako informazioaz baliatuta egin zen laborategiaren diseinu nagusia. Proiektua EITBri, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari aurkeztu zitzairen, eta haien babes ekonomikoa lortu zen. MUko fakultate guztiei eta errektore orde akademikoari ere aurkeztu zitzairen Goikolab, eta BCCk (Basque Culinary Center. Donostia) eta Leinn-ek (Enpresagintza. Oñati) egitasmotik eratorri zitezkeen proiektuetan kolaboratzekotan konpromisoa hartu zuten. 2013-2014 ikasturterako 13 enpresa eta erakunderekin lotu ziren Gradu Bukaerako Lanak (GBL).

274. Lehiaketaren webgune ofiziala: www.euspot.eus



1



2



3



4



5



6

1

Aretxabaletako campusa.

2

Campusaren inaugurazioa
(2013/05/22).

3

4

5

6

Aretxabaletako campusa.





7

Huhezinema kartela, 2016.

8

Huhezinema antolatzaileak, 2016.

9

Huhezinema sariak.

10

Huhezinema kartela, 2013.

11

Euspot. 2015eko irabazleak.

12

Euspot. 2016ko kartela.

13

Komunikaldiak, 2014.

14

Komunikaldiak, 2015.

15

Goikolab.

24. PSIKOPEDAGOGIA LIZENTZIA

Diplomaturara mugatutako irakasle ikasketak, akademikoki, motz gelditzen ziren ezagutza mailan handiagoa zuten ikasleentzat.

Eta ildo beretik, irakasleen ikerketa ildoari ere ez zion asko laguntzen diplomatura soil izateak. Orduan erabaki zen urratsa ematea eta Hizkuntzen Psikopedagogiari arreta ezartzea. Horrela zioen Matilde Sainz-ek, 2001eko apirilaren hasieran lizentzia berri honen bultzatzaile eta zuzendariak:

“ *Helburua euskal gizarteak bizi duen eleaniztasun egoera, erabilera soziala eta etorkizun hurbilera aurreikusten diren migrazio, globalizazio prozesuek eta teknologia berriek hizkuntzengan eragingo dituzten aldaketei erantzun egokia ematen dakiten profesionalak prestatzea da* ”²⁷⁵

Hizkuntzen psikopedagogiari dagokionean, ezin da Ignasi Vila aipatu gabe utzi. Bera izan zen lehendabiziko erreferentzia eta Irakasle Eskola-HUHEZlrekin harreman historiko estuak mantendu zituen²⁷⁶. Horrela adierazten digu Matilde Sainzek:

“ *Bartzelonan egon ginen pare bat aldiz lizentziatura bat martxan jarri nahi genuelako. Helburua zen euskal filologian lantzen ez zen esparru bat garatzea; alegia, hezkuntzaren didaktikari lotutakoa eta egoera soziolinguistikoari erantzuteko helburua zuena. Curriculumaren eraikuntza jende askoren esku-hartzearekin egin zen: Nekane Arratibel, orduan ez zen gure irakaslea; Juanba Bergara, HABA; Josu Sierra, Eusko Jaurlaritza; Pili Arin eta ni neu. Karrera berri hau, hezkuntza sailburua zen Inazio Oliveriri eta Kultura sailburua zen Mari Karmen Garmendiari ere aurkeztu genien* ”²⁷⁷

275. Argia, 2001-04-01

276. Matilde Sainzekin elkarrizketa: 2014/03/13

277. Matilde Sainzekin elkarrizketa: 2014/03/13.

Bigarren zikloko lizentzia eskeman kokatuta, bi ibilbide eskaintzea zuen helburu: hizkuntzak, eta esku-hartze psikopedagogikoa. Lan eremuari dagokionez, irakaskuntzan helduekin, eskolan haurrekin, gizartean, lan munduan, teknologia berrien esparruan... lan egiteko profesionalak sortu nahi ziren.

2000-2001 ikasturtean hasi zen martxan lizentzia hau. Hasieran ibilbide bakarra eskaini zen: hizkuntzak. Berritzailea izan zen, zalantzarik gabe. Estatuan aitzindari izan zen, besteak beste pedagogia, psikologia eta soziologiatik abiatuta hizkuntzen gestioa prestatu eta herri bakoitzaren egoeraren araberrako plangintzak osatzeko balio zuelako.

33 ikasle matrikulatu ziren lehendabiziko ikasturtean, eta ikasketak bi erritmotan (A eta B: azkar eta motelagoa) egiteko aukera eskaini zitzaion ikasleei. Ikaslea zen karreraren ardatza eta protagonista. Beraz, berak kudeatzen zuen karrera egiteko modua eta erritmoa. Ondoren ezarriko zen on-line sistema ere klabea izan zen.

Irakasleei dagokionez, esan behar da, nahiz eta hasiera honetan irakasle gehienak HUHEZIKoak izan, bigarren ibilbidea jartzearekin batera (Esku-hartze psikopedagogikoa) kanpoko irakasleak gehitu zirela.

Ondorengo ikasturtea ere (2001-2002) oso garrantzitsua izan zen; erabaki estrategikoak hartu ziren eta egitasmoak garatzen hasi ziren:

- Lizentzia bermatu zen; curriculumaren bigarren urtea praktikara eraman zen.
- Bigarren ibilbidea martxan jartzea erabaki zen: Esku-hartze Psikopedagogiakoa.
- Ikasturte berean, on-line eta erdi-presentziako modalitateari eman zitzaion hasiera. Horretarako, 9 ikasgai prestatu eta eman ziren, guztiak 1. mailan. Modu horretan, lehen mailako B erritmokoek ikasgai guztiak on-line eta erdi presentziakoak izan zituzten. Beraz, honetan ere Irakasle Eskola aitzindari izan zen.
- Ikasturte berean, hedapen geografikoari zegozkion erabakiak hartu ziren: Eskoriatzan eta Bilbon eskainiko zen karrera (azken honetan, astean behingo presentzialitateaz, asteazkenetan).

Halaxe, 2002-2003 ikasturtean 57 ikasle berri matrikulatu ziren. Esku-hartze psikopedagogiakoa zen nagusi Eskoriatzan; Bilbon bi ibilbideek ikasle kopuru bera zeukaten.

Aipatu behar da, bigarren zikloko ikasketak zirenez -lan egitearekin bateragarriak izan zitezkeenak- lan beka bereziak esleitzea erabaki zela. Hala, 2002-2003 ikasturtean, 7 bekadun aritu ziren lanean. Beste lau ikasle HUHEZIK bultzatutako proiektuetan aritu ziren: Mendeberrri, MacArthur, Kulturantzitasuna eta 0-3 urteko proiektuan. Hurrengo ikasturteetan egonkortuz joan zen egitasmoa.

Psikopedagogia esparruan, Hizkuntzak Kudeatzeko Unibertsitate Aditu-Titulua ere eskaintzen hasi zen Fakultatea. 6 ikaslerekin hasi zen martxan aditu-titulu hau, 2002-2003 ikasturtean.

Psikopedagogia Lizentziaren beste ezaugarri bat, karrera bukaerako proiektuak izan ziren. 2003-2004 ikasturtean, -laugarren ikasturtea Hizkuntza psikopedagogian eta bigarrena Esku-hartzen Psikopedagogiakoaren ibilbiderako-, 35 karrera bukaerako proiektu irakurri ziren (Hezkuntza Eleaniztasuna; On-line ikaskuntza eta e-learninga; Autoikaskuntza; Kulturantzitasuna; Helduen ikaskuntza; Gatazken kudeaketa...). Eta aurreko ikasturtekoekin batuta, zegoeneko 56 ikasle ziren Psikopedagogia ikasketak bukatu zituztenak. Aipatzekoa da, sarri, karrera amaierako proiektuak (KAP) ikastetxe eta erakundeen eskaerez sortutakoak izaten zirela.

2004-2005 ikasturtean “on line eta erdi presentziala” modalitatea egonkortua ziren. 31 ikasle berri matrikulatu ziren: 17 Hizkuntzetan, eta 14 Esku-hartze ibilbidean.

2005-2006 ikasturtean (Psikopedagogiako Hizkuntza ibilbidearen seigarrena, eta Esku-hartzearen laugarrena), 36 ikaslek egin zuten matrikula, eta, ikasturte berean, 34 ikaslek bukatu zuten Psikopedagogia.

Ikasturte horretan bertan amaitu zen ANECAko auto-ebaluazioa eta kanpo-ebaluazioa, eta Psikopedagogia lizentzian ANECAko akreditazioa lortu zen.

2006-2007 ikasturtean (Psikopedagogiako Hizkuntza ibilbidearen zazpigarrena, eta esku-hartzearen bosgarrena), 92 ikasle ziren Psikopedagogian guztira, eta 27 ikasle berri matrikulatu ziren. Aldi berean, ikasleek ERASMUS programean parte hartzeko aukera izan zuten lehen ikasturtea izan zen.

2007-2008 ikasturtea Psikopedagogia lizentziaren zortzigarren ikasturtea izan zen. Zehatzago esanda, Hizkuntza ibilbidearen zortzigarrena eta Esku-hartzearen seigarrena. 42 matrikula berri egin ziren: Esku-hartzean 36 ikasle (25 Eskoriatzan eta 11 Bilbon) eta 6 Hizkuntza ibilbidean. Guztira, 109 ikasle zeuden matrikulatuta.


Taula, 33: Psikopedagogia lizentzia. Ikasle kopurua (2000-2007)

IKASTURTEAK	2000 2001	2001 2002	2002 2003	2003 2004	2006 2007	2007 2008
PSIKOPEDAGOGIA	33	58	112	112	92	109
Hizkuntzena	33	58	74	65	-	-
Esku hartzea	0	0	38	47	-	-

Iturria: *Ikasturteko memoria: 2003, 2004, 2005, 2006, 2007, 2008*. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak eginda.

Lizentzia honetako beste atal interesgarria praktikak ziren; hainbat eremutan egiten zituztenak ikasleek: eskolan, aisialdian, erakundeak euskalduntzeko enpresetan... Ikasturte bereko (2007-2008) praktiketako datuei erreparatuta, honakoak dira ikasturte hartako praktiketan ikasleek parte hartu zituzten eremuak:

Grafikoa, 24: Praktikak Psikopedagogian (2007-2008 ikasturtea)




Iturria: 2007-2008ko ikasturteko memoria. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak eginda.

2008-2009 ikasturtean 33 ikasle berri matrikulatu ziren: Esku-hartze ibilbidean 29 ikasle eta Hizkuntzetakoan 4. Guztiak Eskoriatzako taldekoak izan ziren; Bilbon ez zen talderik sortu. Klase presentzial guztiak Eskoriatzan emango ziren.

Psikopedagogia lizentziaren hamargarren ikasturtea izan zen 2009-2010koa: hamargarrena Hizkuntzen Psikopedagogiaren ibilbidean eta zortzigarrena Esku-hartze Psikopedagogiaren ibilbidean.

Igoera handia izan zen 2011-2012 ikasturtean. Guztira, 80 ikasle berri matrikulatu ziren. Berrikuntza batekin zetorren ikasturte hura: titulazio bikoitza eskaini zitzaizen ikasleei, masterrak arautzen zituen legediaren aldaketetara egokitzeko.


Grafikoa, 25: Psikopedagogia lizentzia eta matrikula berriak (2000-2011)



Iturria: *Ikasturteko memoriak*. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak eginda.

Nahiz eta 2013an bukatu zen psikopedagogia eskaintza, azken tituludunak 2014-2015 ikasturtean eman ziren. Irakasle guztiak atera ziren psikopedagogia tituluarekin:

Grafikoa, 26: Psikopedagogia tituludunak (2001-2013)



Iturria: Idazkaritza Akademikoa. Iñigo Arriaran. Egileak eginda.

25. IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA LERROAK HUHEZIn

Lerro honek hasiera-hasieratik hartu du indar handia. Irakasle Eskolaren helbururik behinena ikerketa lerroari behar den sakontasunarekin eustea izan da.

Sortze beretik ekin dio bide horri: espezialitateak ezarri (aurre-eskola), jarduera lerroak diseinatu (titulu gabekoen irakasleen plangintza...), materiak garatu (ikus-entzunezkoa, informatika, kontsumoa ...), guneak sortu (haur liburutegia, Jakingarriak, testu-liburugintza...), eraldaketa-rako prestutasunak izan eta egindakoa sozializatzeko bidea egin. Adibidez, Nerea Alzolak, Mariam Bilbatuak eta Juanjo Otañok 1980-1981 ikasturtean honako txostena aurkeztu zuten Bilboko Unibertsitateko ICEk bultzaturiko "IX Plan de Investigación" delakoan: "Programa de formación del profesorado de la especialidad de preescolar de la carrera de magisterio".

Unibertsitate bat osatzeak doktore tesiak garatzea eskatzen zuen –gutxieneko doktore kopurura iritsi behar zen Fakultatea- eta, honenbestez, hirugarren ziklorako eskaintza zabaldu zen.²⁷⁸ Horren baitan sortu zen "hezkuntza berrikuntza aniztasunari erantzuteko iker lerroa". Helburua: hezkuntza arloko hainbat beharri erantzutea; didaktikoak, psikologikoak, metodologikoak, antolaketari dagozkionak eta abar. Hala, 2002 urtean bost proiektu garatu ziren: *Hazitegi proiektua*, *MacArthur proiektua*, *Etorkinak gure eskoletan*, *Hizkuntzan curriculum bateratuak eta TICAP proiektua*²⁷⁹.

2003-2004 ikasturtean lau arlo ziren nagusi; eta hauekin lotutako hainbat proiektu sortu ziren: Eleaniztasuna eta Kultur Aniztasuna (*Esku-hartze didaktikoa testuinguru multikulturaletan*, *Training of school education staff*, *Hizkuntzen curriculum bateratua eta Hizkuntza ikasteko eta irakasteko irakaskuntzari begirako edukien bitartezko metodologia*); Haur Hezkuntza 0-3 urte; trebezia eta balioen garapena eta berrikuntza metodologikoa justifikatu, praktikan jarri eta balioztatzea (*Mendeberriren ebaluazioa*).

Hezkuntza berrikuntza aniztasunari erantzuteko ikerlerroaren barnean, hainbat proiektu ari ziren garatzen 2000. hamarkadaren hasieratik:

278. <http://www.mondragon.edu/eu/huhezi/ikerketa/ikerlerroak-1> eta (Kontsultatuta: 2016/01/17) eta <http://www.mondragon.edu/eu/huhezi/ikerketa/ikerketa-taldeak> (Kontsultatuta: 2016/01/17).

279. Teknologia berriak erabiliz zeharkako kompetentziak (ikuspegi orokorra, lanean inplikazioa, gatazken konponketa, talde lana, antolaketa eta plangintza, informazioa eta komunikazioa) garatu.

- *Eleaniztasuna eta kulturartekotasuna*, 2001-2002 ikasturtean kulturartekotasuna lantzeko mintegia (ELEA taldea) abiatu zen. Bigarrenik, Comenius 2.1. "Terra- Inter Cultural Curriculum" eta hizkuntzen kudeaketa bateratua hizkuntza gutxituaren testuinguruan mintegia garatu zen.
- *Haur hezkuntzan (0-3 urte)*, MacArthur proiektua, eta Hazitegi.
- Trebezia eta balioen garapena; "Balioak haur literaturan" ikerketa proiektua oinarri hartuta.
- *Berrikuntza metodologikoa*, Mendeberriren ebaluazioarekin batera, "indagazioa: tutore-ikasle arteko elkarrekintza-aren azterketa", "School Science Teaching by Project Orientation" eta "idatzizko hizkuntzaren apendizaiaren baldintzak" izan ziren hasierako proiektu nagusiak²⁸⁰. 5) *Ezagutzaren kudeaketa*, "E-lema proiektua", software askea, euskara eta jakintzaren kudeaketa uztartu nahi zituen.

Esan daiteke, Fakultatean, ikerketa jarduerak egonkortzen ari zirela. Horren lekuko dira idatzitako artikuluak eta parte-hartze zabalak; nazioartekoak barne.

Ikerlerro hauek hezkuntza-ikuspegi zabaletik eta diziplinartekotasunetik erantzun nahi zieten eskoletako beharrei. Zertxobait beranduago, 2009-2010 ikasturtean, lau arlo jorratu ziren; batzuk lehendik zetozen:

- Eleaniztasuna, hizkuntzaren didaktika eta kulturartekotasuna
- Haurtzaroaren garapena eta bere ongizatea
- Berrikuntza pedagogikoa
- Euskal nortasuna eta kultura

Eleaniztasuna, hizkuntzaren didaktika eta kulturartekotasuna Ikerketa-lerroak lotura zuzena zeukan hizkuntzen ikaskuntza/irakaskuntzari erreferentzia egiten zioten fenomenoekin, batez ere, transposizio didaktikoa eta kulturartekotasunarekin. Ikerketa lerro honek hiru talde biltzen zituen: ELEA (2005ean, kultur aniztasunaren trataera inklusiboa hezkuntza sisteman, kultur arteko hezkuntza, balioen hezkuntza eta herritartasunerako hezkuntza), MIKER (2006an sortua; Hizkuntzen eta literaturaren didaktikaren eremua) eta BAHI-IHALE (2008an, ezagutza arloko edukietan zentratua eta hizkuntzaren ikaskuntza integratua)²⁸¹.

²⁸⁰. Bi azken hauek 2006-2007an garatutakoak.

²⁸¹. <http://www.mondragon.edu/eu/huhezi/ikerketa/ikerketa-taldeak> (Kontsultatuta: 2014/11/14).

2014-2015 ikasturtean izandako dekanu eta zuzendaritza aldaketak, Ikerketa eta Transferentzia arloan ere aldaketak ekarri ditu. Hiru eremu sortu dira: (1) Berrikuntza eta Esku-hartzea Gizarte Kulturantzeta eta Eleanitzeta (GIKER); (2) Berrikuntza eta Esku-hartzea Hezkuntza Inklusiboan (HEZI) eta (3) Lankideta (LANKI).

Ilustrazioa, 1: Ikerketa eta transferentzia gestio unitateko antolaketa (2014-2015)

HUHEZIKO IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA GESTIO UNITATEKO ZUZENDARIA							
HUHEZIKO IKERLERROAK ETA IKERTALDE NAGUSIAK							
Berrikuntza eta Esku-hartzea Gizarte Kulturantzeta eta Eleanitzeta			Berrikuntza eta Esku-hartzea Hezkuntza Inklusiboan			Lankideta	
Ikertalde nagusiko koordinatzailea			Ikertalde nagusiko koordinatzailea			Ikertalde nagusiko koordinatzailea	
TALDEAK ETA PROIEKTUAK							
Elea	Bahiale	Miker	Sorguneak	Hezikom	Hazitegi	Beta	Lankideta
Ikertalde edota proiektuaren buru	Ikertalde edota proiektuaren buru	Ikertalde edota proiektuaren buru	Ikertalde edota proiektuaren buru	Ikertalde edota proiektuaren buru	Ikertalde edota proiektuaren buru	Ikertalde edota proiektuaren buru	Ikertalde edota proiektuaren buru

Iturria: Zuzendaritza.

Ikerketa talde hauek ibili ziren eremu bakoitzean lanean:

1. *Berrikuntza eta Esku-Hartzea Gizarte Kulturantzeta eta Eleanitzeta (GIKER)*: ELEA, BAHIALE, MIKER, SORGUNEAK eta HEZIKOM.
2. *Berrikuntza eta Esku-Hartzea Hezkuntza Inklusiboan (HEZI)*: HAZITEGI eta BETA.
3. *Lankideta (LANKI)*: LANKIDETA.

Ezagutu ditzagun bakoitzaren ezaugarriak:

1. **ELEA (2005)** ikasle etorkinen eskolatzearekin eta kulturartekotasunarekin lotutako egoerak jorrazteko sortu zen: eskolako hizkuntza(k) ikas/irakastea, aniztasunaren kudeaketa, alderdi kulturalen trataera, gatazken kudeaketa, erronka metodologikoa aniztasunaren aurrean, identitatearen eraikuntza eta abar. Taldea, bestalde, hiritartasunerako hezkuntzarekin erlazionatutako alderdiez interesatuko da: genero berdintasuna eta balioen hezkuntza, besteak beste.

Gaur egun, taldearen lan-arloak, honako hauek dira:

- Atzeritar jatorriko ikasleak eta hizkuntzaren ikaskuntza eskolan.
 - Aniztasunaren kudeaketa etorkinekiko hezkuntzan.
 - Genero-berdintasunerako hezkuntza.
 - Irakasle-ikasketetako ikasleen eta irakasleen errepresentazioak aniztasunaren inguruan.
 - Arrazakeriaren kontrako hezkuntza.
 - Euskal diaspora eta identitatea.
 - Balio etikoak haur-literaturan.
2. **BAHI-IALE (2008)** helburu bikoitzarekin sortu zen: alde batetik, kompetentzia eleaniztuna sustatzea eskola-testuinguruan; eta, bestetik, atzerriko hizkuntzaren zein hizkuntza gehigarrien ikaste-irakaste prozesuetara bideratutako proposamen berritzaileak aztertzea eta ikertzea. Taldeko kide batzuk beste iker-talde batzuetatik etorri dira; ibilbide profesionalean zehar egindako zenbait argitalpen, komunikazio eta ikerketa-proiektuk horrela adierazten dute. Beraz, ezagutza-esparru askotatik (filologia, psikopedagogia, psikodidaktika eta ikus-entzunezko komunikaziotik) datozen ikertzaileek osatzen dute taldea.

Aniztasun horrek ikerketa-objektuarekiko hurbilpena ikuspegi askotatik egitea ahalbidetzen du.

Gaur egun hiru lan-esparru ditu taldeak:

- Irakaslearen esku-hartzeak duen eraginaren azterketa jakintza-arloa eta hizkuntza era bateratuan lantzen diren testuinguruetan, derrigorrezko hezkuntzan zein goi-mailako hezkuntzan.
- Etorkizuneko irakasleen eleaniztasunarekiko (euskara, gaztelera eta ingelesarekiko) jarrerak eta horiek kompetentzia eleaniztunaren garapenean duten eragina ikertzea.
- Teknologien eraginaren eta potentzialaren azterketa ikasleen kompetentzia eleaniztunaren garapenean.

3. **MIKER (2006)** Taldearen helburu nagusia testuinguru eleaniztunetan, hizkuntzaren (ahozko zein idatzizkoaren) eta literaturaren ikaskuntza-irakaskuntza jorratzea da; Haur Hezkuntzan hasi eta Unibertsitatean bukatu. Horretarako, hiruki didaktikoarekin bat egiten duten hiru lan-ildoren bueltan ari da taldea:
- Esperientzia luzeko zein esperientzia laburreko irakasleen profesionalizazioaren azterketa.
 - Ahozko eta idatzizko hizkuntzen (euskara, gaztelania eta zeinu bidezkoaren) eta literaturaren didaktika.
 - Corpusaren testu- eta diskurtso-azterketa, bai ikasleen ahozko zein idatzizko ekoizpenetan, zein erreferentziazko testu sozialetan ere.
4. Euskal nortasunean eta kulturaren, **SORGUNEA**. 2007-2008 ikasturtean hasita, "Euskal Kulturgintzaren Transmisioa" graduondoa eskaintzen du, eta 2009-2010 ikasturtean Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara sailak eskatuta, beste bi ikerketa abiatu zituen: Gipuzkoako lurraldean eskualdekako kultura-bizitzaren azterketa kualitatiboa egin; eta ekimenen ugaritasunak eragiten duen gain-produkzioa aztertu eta horrek sor dezakeen kolapsoa eta atomizazioak zekarren arriskua ikertu. Ikerketa hauen transmisio-ekarpenak bi gunetan aurkeztu ziren: 1. Gipuzkoako Foru Aldundian, Kultura eta Euskara saileko politikariei eta goi-teknikariei. 2. Mintzola Fundazioan: ikerketa bideratzeko elkarrizketatu genituen pertsoneri eta eztabaida taldeetan parte hartu zutenei.

Horra SORGUNEAren egitasmoak:

- Sorkuntzak euskararen biziberritzean duen ekarpenaz eta bete beharreko funtzioaz gehiago jakin.
 - Euskal sortzaileez gehiago jakin, beren problematika sozial eta ekonomikoa, oroimena, testigantzak...
 - Euskal sorkuntzak gure hezkuntza arautuan izan behar duen tokiaz sakondu. Euskal sorkuntzaren desfioak egoki kokatzeko, berau baldintzatzen duten gizarte- eta teknologia-aldaketak ezagutu.
 - Euskal sorkuntzaren inguruko egiturak eta politika publikoak ezagutu.
5. 2011n ezarritako oinarriak kontuan hartuta, Gizartean berebiziko eragina duten bi ezagutza-arlotan egiten du lan **HEZIKOM** ikerketa-taldeak: Hezkuntza eta Komunikazioa batzen diren arloetan, hain zuzen. Horien garapena funtsezkoa da gizarte garaikidearen aurrerabidea eraikitzeko.

Talde honen helburua honako hauek ikertzea da:

- Ikasle eta nerabeen elkarreagin edo interakzioa komunikabide digitalekin eta Internetekin.
- Ikasleen konpetentzia digitalak eta informazio-konpetentziak.
- Ikasleen bideo-produkzioa: ikaskuntza esanguratsua garatzeko tresna.

- Ikus-entzunezkoen erabilera ikasi eta irakasteko prozesuetan.
 - Ikasi eta irakasteko metodologia egokiak Komunikazioko ikasketetan.
 - Hedabideen eta Interneten proiektio soziala eta horien eragina hezkuntza-eragile bezala.
6. Haurtzaroaren garapena eta bere ongizatearen ikerlerroa, berriz, ezagutzen dugu dagoeneko: **HAZITEGI**. Ikerketa-talde hau 2001. urtetik ari da, 0-6 adin tarteko haurren garapenaren eta garapen honetan haur-hezkuntzako ikastetxeen eraginaren azterketan murgilduta.

Iker-talde honen osaketa ere esanguratsua da; izan ere, ezagutza-esparru askotariko (psikologia ebolutiboa, psikopedagogia, musika psikodidaktika eta hezkuntza artistikoko) espezialistak biltzen dira bertan. Horiek guztiek ikerketa-lerroaren ezagutza, aplikazio zein garapenari ikuspegi orokor eta osoa ematen diote. Bertako ikertzaile-espezialista bakoitzaren ekarpen eta esperientziek iker-taldeko ikuspegi orokorrak zein zeharkakoak aberastea eta helburuak lortzea ahalbidetzen dute.

7. **BETA** taldea 2001ean abiatu zen, Mondragon Unibertsitateko Hezkuntza Zientzien Institutuaren (HEZI) babesean, eta Didaktika eta Metodologiaren berrikuntza du langai, betiere hezkuntza-paradigmaren aldaketari lotuta. 2003. urteaz geroztik, eta 2009an egindako berregituratzearen ondoren, talde honen helburua da oinarrizko gaitasunen garapenari begira ager daitezkeen alderdiak ikertzea, horien artean, bereziki, ikasteko eta irakasteko prozesuen azalpena, antolaketa eta hobekuntza.

Gaur egun hauexek dira taldeak dituen lan-esparruak:

- Ikasleek beraien ikasketa prozesuaren ikuspegia landu; nola irudikatzen dituzten ikaste/ irakaste prozesuak eta lortutako emaitzak.
- Irakasleak: ikasteko eta irakasteko prozesuen gainean zein esku-hartze prozesuan daukaten eragina.
- Irakasle ikasketako ikasleek eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek kompetentzia zientifikoari eta matematikei buruz dituzten pertzepzioak, eta ikasteko eta irakasteko prozesuan horiek duten eragina.
- Baliabide metodologikoak eta horien eragina prozesuaren antolaketan eta emaitzetan.
- Kalitatezko hezkuntzaren garapenean herri/hiritako komunitatearen testuinguruak eta parte hartzeko prozesuak.
- Hezkuntza-testuinguruetan hobekuntza eta berrikuntza errazten dituzten aholkularitza-prozesuak.

8. LANKI institutuaren baitan iker-taldeak eta proiektuak **LANKIDETZA**n oinarritzen dira, eta hiru gune hartzen ditu aintzat²⁸²:

1. Kooperatibagintza: gune honen helburua da Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren —baita oro har, kooperatibagintzaren— irakasgaiak aztertzea. Jorrotutako ikerkuntza/ekintza bideek esperientziaren identitate kooperatiboa indartzea dute xede, eta proiektu kooperatiboa biziberritzeko estrategia integralak formulatzea. Hezkuntza kooperatibo eraberritua eta berritzailea da biziberritzearen ardatz estrategiko nagusia (hezkuntza parte-hartzailea, eraldatzailea, iraunkorra eta etengabe eguneratua).
2. Gizarte berrikuntza eta komunitate garapena: gaurko gizarte aldaketen analisia eta analisi prospektiboa abiapuntu hartuz, gune honen helburua da garapen komunitarioa sustatzea, herritarren parte hartze prozesuak dinamizatzea eta giza garapen iraunkorra ikertzea (beharrezko trantsizio sozioekologikoa eragin asmoz). Herritarren protagonismoan oinarrituriko herrigintza ikertzea eta sustatzea da xede.
3. Lankidetzako Kooperatiboa: gune honen helburua da munduan zehar ekonomia sozial eta solidarioan oinarritzen diren beste esperientzia batzuekin lankidetzako garatzea, esperientzia komunitarioak eta sozio-enpresarialak partekatzea.

Honako ikergai hauek eratortzen dira:

- Arrasateko kooperatibagintza.
- Ekonomia Sozial eta Solidarioa.
- Herrigintza eta garapen komunitarioa.
- Trantsizio sozioekologikoa.
- Portaera kooperatiboa eta taldeen autoeraketa / lidergoa / kultura.

282. <http://www.mondragon.edu/eu/huhezi/ikerketa/ikerketa-taldeak/lanki/iker-eremuak-eta-ikergaiak> (Kontsultatuta: 2014/11/14).





7

1

Ikaskide taldeak
(Hezkuntza-Berrikuntza).



8

2 3

Hezikom-Gertukom jardunaldia,
2013.

4 5 6

KoopTopaketa, 2015.

7 8

Berrikuntza jardunaldia, 2016.



9

9

ETEN topaketa, 2015.

10 11

Hazitegik argitaratutako liburuak.



10



11

26. HIRUGARREN ZIKLOA

1997an, HUHEZI Fakultatea sortu zenean, erronka garrantzitsua izan zen hirugarren zikloa ezartzea.

Gutxira, 2003-2004 ikasturtean jarri zen abian *Humanitateak eta Hezkuntza Etorkizuneko Erakundeetan* izeneko doktorego programa; gero eta aldakorragoa eta konplexuagoa den errealitatearen aurrean etorkizuneko erakundeetan (enpresa, hezkuntza arloko enpresetan ...) arituko ziren pertsona eta ikertzaileak prestatu nahi ziren. Eta astiro-astiro ekin zion zeregin horri.

2003-2004 ikasturtean, 7 ikaslek egin zuten bi urtetako doktorego programa.

2004-2005 ikasturtean lau ikaslek egin zuten doktoregoaren bigarren ikasturtea, eta lauk aurkeztu zuten nahikotasunerako ikerketa proiektua. Horrez gainera, beste sei ikasle matrikulatu ziren.

2005-2006 ikasturtean zortzi ikaslek egin zuten doktorego ikasturtearen lehenengo maila. Ikasturte berean lau tesi matrikula ere egin ziren.

2006-2007 ikasturtean, berriz, zazpi tesirako matrikula egin ziren, eta 16 ikasle ziren, jadanik, doktoretzako urratsak ematen ari zirenak.

2007-2008 ikasturtea oso emankorra izan zen. Izan ere, bost urte ziren HUHEZIKo doktoretza programa abian jarri zenetik. 22 ikasle matrikulatu ziren. Azpimarratzekoa da ikasturte hartan defendatu zela HUHEZIn aurreneko tesia. Beste hamar tesi zeuden matrikulatuta, ikastaroetako bigarren mailan eta ikertzeko nahikotasun titulua lortu zuten hiru ikasle izan genituen, eta lehenengo mailan zortzi ikaslek eman zuten izena. Bestalde, HUHEZIKo doktorego programatik kanpo hamaika lankide ari ziren tesia edo doktorego ikastaroak egiten.

2008-2009 ikasturtean 23 ikasle matrikulatu ziren HUHEZIKo doktorego programan. HUHEZIKo bost lankidek defendatu zuten tesia; horietatik bik HUHEZIKo doktorego programan. Horrela, HUHEZIk, jadanik, 26 doktore zituen eta beste 34 lankide doktoretzarako bidean. Aipatzekoa da, une hartatik aurrera doktorego-programek aldaketak izan zituztela; izan ere, 3. zikloa beste modu batez arautuko zen, eta tesia egin aurretiko formazioa (lehenengo doktoretza-ikastaroak) master ofizialen bidez eman go zen. Horregatik, HUHEZIKo master ofizialetan doktoretza-programari bide egingo zion ikerketa-ibilbide bat txertatu zen.

2009-2010 ikasturtean 26 ikasle matrikulatu ziren HUHEZiko doktorego-programan. HUHEZiko bi lankidek defendatu zuten tesia; horietako batek HUHEZiko doktorego-programan, eta besteak EHU. Horrez gain, HUHEZiko programan beste tesi bat aurkeztu zen. Horrela, HUHEZIn jadanik 28 doktore zeuden eta doktoretza bidean 43 lankide. Aipatzekoa da ordutik aurrera doktorego-programak izango zuen aldetara egokitzen ari zela Fakultatea; horrela, lehengo doktorego-ikastaroen orde, master ofizialak ziren doktorego-programari sarbidea emango ziotenak.

2010-2011 ikasturtean 25 ikasle matrikulatu ziren HUHEZiko doktorego-programan. HUHEZiko bi lankidek defendatu zuten tesia; horietatik batek HUHEZiko doktorego-programan, eta besteak EHU. Horrela, HUHEZIn jadanik 33 doktore zeuden, eta 47 lankide doktoretza bidean (horietatik 37 ikaslek tesia matrikulatuta zuten: 25 ikaslek HUHEZIn, eta 12 ikaslek HUHEZItik kanpo; beste 10 lankide master ofizialen bat egiten ari ziren).

2011-2012 ikasturtean 25 ikasle matrikulatu ziren doktorego-programan. HUHEZiko lau lankidek defendatu zuten tesia. Beraz, 38 doktore zituen garai hartan Fakultateak.

Aipatzekoa da, programa hau amortizazio-prozesuan zegoela (horregatik ez zen ikasle berririk onartzen), eta 2011-2012 ikasturtean ANECara eta UNIBASQera bidaliko zela doktorego-programa berriaren memoria: "Hezkuntza esku-hartze eta berrikuntza", hain zuzen ere. Programa berria unibertsitate artekoa izango zen eta VICeko Unibertsitatearekin batera diseinatu zen. Programazio honen inplementazioa 2012-2013 ikasturtean izan zen. Horrekin batera, "Berrikuntza eta esku-hartzea gizarte kulturantz eta eleaniztunetan" ikerlerroa ere gauzatu zen. Lerro hau, beraz, UVICeko unibertsitatearekin partekatzen da. Guztira, hasieran, 6 doktoregai matrikulatu ziren.


2012-2013 ikasturtean, berriz, 23 ikasle matrikulatu ziren HUHEZiko "Humanitateak eta Hezkuntza Etorbizuneko Erakundeetan" doktorego programan. HUHEZiko hiru lankidek defendatu zuten tesia ikasturte horretan. Horrela, HUHEZIK jadanik 40 doktore zituen (langileriaren %53,2), 33 lankide doktoretzarako bidean zeuden, eta beste 10 lankide master ofizialen bat egiten ari ziren.

2013-2014 ikasturtean 24 ikasle matrikulatu ziren bi doktorego-programetan: 17 Humanitateak eta Hezkuntza Etorbizuneko Erakundeetan, eta beste 7 Berrikuntza eta Esku Hartzea Hezkuntzan.

2014-2015 ikasturtean 24 ikasle matrikulatu ziren HUHEZiko hiru doktorego programetan. Horietatik 17 Berrikuntza eta Esku hartzea Hezkuntzan; beste 5 Humanitateak eta Hezkuntza Etorbizuneko Erakundeetan; eta beste bat Ekin-tzailetasuna, Kooperatibismoa eta Berrikuntzaren Kudeaketa. Esan behar da, gainera, UVIC-UCC Universitat de Vic – Universitat de Catalunyaarekin batera Berrikuntza eta Esku Hartzea Hezkuntzan doktorego programa berria garatu zela. Aipatutako programa, 99/2011 Errege dekretu berriaren logikan eratu zen.

2014n aurkeztu zen lehendabiziko doktorego tesia Aretxabaletako campusean.

Aldi berean, 2014-2015 ikasturtean lau lankidek defendatu zuten tesia, eta ondorioz, HUHEZIK 42 doktore zituen (%57,5); horietatik 25 akreditatuak (%59,5). Horretaz gain 25 lankide doktoretza egiteko bidean zeuden, eta beste 7 lankide master ofizialen bat egiten ari ziren.

Grafikoa, 27: Hirugarren zikloan ikasle kopurua (2003-2014)

Iturria: *Ikasturteko memoriak*. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak eginda.

Esan dezagun, baina, 2016ko ekainaren 23an defendatu dela HUHEZIn hamabostgarren tesia. Aurkeztutako guztien zerrenda dator ondorengo taulan:

Taula, 34: HUHEZIn aurkeztutako tesiak (2007-2016)

TESI EGILEA	GAIA	EMAITZA	DATA
Iñaki Larrea Hermida	0-3 Urteko Haurren Garapena eta Eskola	Bikain Cum Laude	2007-12-05
Ainhoa Larrañaga Elorza	Brasilgo Kooperatibismoaren Garapenerako Oinarriak: Begiratu Kritikoa Euskal Herriko Legedi eta Errealitate Instituzional Kooperatibotik	Bikain Cum Laude	2009-07-01
Ariane Kareaga Irazabalbeitia	Diskurtso Kooperatiboak Langile-Kolektiboan. Kooperatibagintzari Buruzko Sentipenak Fagor Arrasaten	Bikain Cum Laude	2009-07-08
Jose Maria Egaña Osa	Nola Bilatzen, Ebaluatzen eta Aukeratzen dute Informazioa Unibertsitate-Ikaskolek?"	Bikain Cum Laude	2010-07-05
Jose Ignacio Irastorza Madariaga	Lan Munduko Euskara Planetako Langile Euskaldunen Jarrera, Portaera eta Motibazioak: Pentsamendua Garatzetik Helburuak Lortzera	Bikain Cum Laude	2010-07-05

TESI EGILEA	GAIA	EMAITZA	DATA
Maria Teresa Garcia Martín	Enfoque de Aprendizaje y otras Variables Cognitivomotivacionales en Alumnos Universitarios de Primer Curso	Bikain Cum Laude	2011-07-01
Elena Lopez De Arana Prado	Umeek Familia eta Haur Eskola Testuinguruetan Erakus ditzaketen Kortisol Patroien Arteko Ezberdintasunen Azterketa	Bikain Cum Laude	2011-12-16
Leire Uriarte Zabala	Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren Ekarpena Ekonomia Solidarioari	Bikain Cum Laude	2012-07-20
Nagore Ipiña Larrañaga	Wikiaren Erabilera Lankidetzazko Idazketaren Garapenerako Clil-Poi Testuinguruetan. Jarrerren Eragina	Bikain Cum Laude. Doctor Europeus aipamena	2012-12-04
Iñigo Ramirez De Ocariz Telleria	Gertuko Kultura Ondarearen Transmisioa eta Hezkuntza Eragileak Lehen Hezkuntzan	Bikain Cum Laude	2013-07-17
Amaia Pavon Rodriguez	Nerabeen eta Lagun-Taldearen Ikus-Entzunezko Kontsumoa 2011N. Gipuzkoako Kasu Azterketa	Bikain Cum Laude eta Doctor Europeus aipamena (Lehena, Aretxabaletako Campusean)	2014-06-13
Karmele Perez	Irakasleen Prestakuntza Ahozko Hizkuntzaren Lanketa Eskolan Sustatzeko. Praktika Gogoetatsuan Oinarritutako Prozesu Baten	Bikain Cum Laude	2014-12-09
Xabier Arregi	Azterketa Modelo Pedagógico de Antzuola Herri Eskola	Bikain Cum Laude	2015-07-09
Andres Gostin	XX. Mendē Erditik Aurrerako Indarkeria Politikoaren Errepresentazioa Euskarazko Fikziozko Ikus-Entzunezkoetan	Bikain Cum Laude	2015-07-17
Eugenio Astigarraga	Escenarios para Mondragon Unibertsitatea al 2025	Bikain Cum Laude Nazioarteko aipamenarekin	2016-06-23

Iturria: [Idazkaritza akademikoa](#). [Marisa Pagonabarraga](#), [Agurtzane Leibar](#). Egileak eginda.

Doktore kopuru osoari begiratuz gero, 2015-6 ikasturtean 38 doktore daude HUHEZIn (%48,7). Horietatik 24 doktore akreditatuak (%63,2) eta 14 akreditazio prozesuan. Bide batez, 24 doktoregai²⁸³.

Taulan hautematen den bezala, ekaina-uztailean eta abenduan egin ziren tesi aurkezpenak.

²⁸³. Iturria: Jose Ramon Vitoria, Ikerketa eta Transferentzia Leroko Zuzendaria.



1 2 3 4 5 6 7 8

Tesi aurkezpenak.





9 10 11

Doktorego programen
aurkezpenak.



27. INSTITUTUAK

Mondragon Unibertsitatearen baitan sortu ziren gerora HUHEZIK bere gain hartuko zituen bi institutu: bata, kooperatibismoaren ildo garatuko zuena (KUI/LANKI) eta bestea, berriz, hezkuntza zientziari dagokion arloa landuko duena: HEZI-ICE.

27.1. KUI/LANKI

1998ko apirilaren 21ean MONDRAGON UNIBERTSITATEko Errektore Kontseiluak hartutako erabakiaren arabera sortu zen "Kooperatibismoaren Unibertsitate Institutua (KUI)". Hau Irakasle Eskolan 1998ko martxoaren 16an idatzitako dokumentuan dago oinarrituta.

Institutuaren lehendabiziko jarduna, Jose Mari Larrañagaren zuzendaritzapean, urte bereko azaroaren 26an Arizmendiarietari buruz antolatutako jardunaldia izan zen.

Hala ere, zereginak proiektio handiko izan zezakeelakoan, berehala etorri zen institutua finkatzeko beharra, eta, halaxe, etorkizuna erabaki bitartean, institutuaren geldiune taktikoa eman zen. Zer gertatu zen ondoren? KUI institutuak LANKI forma hartu zuen:

“ LANKIren ernamuina Kooperatibismoaren Unibertsitate Institutua (KUI) izan zen. Javier Regiren aginte aldiaren eskatu zitzaizkien Jon Sarasuari eta Joseba Azkarragari proiektu bat formulatzea, eta hori aprobetxatuz, izena aldatu eta LANKI sortu zen. Izan ere, “testigantza” izeneko proiektua aurrez landuta bildu zituzten Arrasateko kooperatiban esperientzia izandako 45 ahots esanguratsuenak. Konturatu ziren hutsune handiak zeudela hezkuntza eta sozial arloetan, eta ikusmira urrunago jarri behar zela. Jon Sarasuak, orduko Lanki Ikertegiko zuzendariak dioen bezala: “Bigarren intuizioa izan zen kooperatibismotik harago jo behar genuela, eta auto-eraketa hautatu genuen bigarren ardatz moduan ikertegirako. Horregatik begiratzen dugu MCCra ez ezik, euskal gizartera eta mundura ere; bereziki Hirugarren Mundura, Mundukiderekina batera ”²⁸⁴

284. <http://www.mondragon.edu/eu/aktualitatea/aldizkariak/muniversitas/muniversitas3/erakundeak-lanki> (Kontsulta: 2013/05/18).

Testuingurua jarriko diogu jaiotza horri. 2000. urtearen bueltan eman zituen lehendabiziko urratsak, baina detonantea-edo 2001eko maiatzaren 10 eta 11n “Etika eta Enpresa” jardunaldiaren baitan Race Mathews-ek emandako hitzaldia (pentsamendu kooperatiboa eta sozial-kristaua) izan zen. Jardunaldi horretan, Mondragon Kooperatiben urtetako esperientzia aintzat hartuta, kooperatibismoaren inguruan nazioarte mailako institutu baten beharraz jardun zuten. Ideia hau berehala gauzatu nahi izan zen, eta urte hartan MONDRAGON UNIBERTSITATEko Errektorea zen Jabier Retegik egitasmoa bere gain hartu eta kudeatu nahi izan zuen. LANKI *ikertergi* bezala sortu zen, eta ikerlerroen lehentasuna honakoa izan zen: kooperatibagintzak etorkizunera abiatzeko zituen behar eta hutsuneen inguruko gogoeta garatzea. Kooperatibagintzaren alde sozial eta hezkuntzazkoetan jarri zuen arreta LANKIk. Baina horretaz gain, munduko Hegoaldeko kooperatibagintza herrikoiarekiko interkooperazio fluxua eta kooperatiben dimentsio juridiko-ekonomikoak ere aztertzen ditu. Hauek ziren, bada, hasierako ikerlerroak:

1. Kooperatiben dimentsio soziala.
2. Lankidetzaren hezkuntzari buruzko ikerketa.
3. HEKI lerroa. Herri Ekonomietako Kooperatibekiko Interkooperazioa.

Ildo honetan, 2004-2005 ikasturtean, *MCCKo Kooperatiba Esperientziaren Zentzuen Gogoeta* prozesua kudeatzen hasi zen (2005eko abenduan bukatu zen). Ikasturte berean, Hezkuntza Kooperatiben Federazioak eskatuta eta bigarren hezkuntzara zuzenduta, kooperatibismoari buruzko unitate didaktikoa sortu zen.

2006-2007 ikasturtean hamar ikertzailek osatzen zuten ikerketa gunea; hauek, irakasle ziren aldi berean.

Zereginetako nagusi bat kooperatibismoaren gaineko formazio saioak eskaintzea izan zen. Helburu horrekin, lan bolumen handia hartu zuen ikertergiak, eta 2007-2008 ikasturtean, Otalorarekin elkarlanean, kooperatibetako organoentzako 16 orduko formazio saioak antolatu ziren (guztira 55 saio); 700 bat kooperatibistek hartu zuten parte. Ondorengo ikasturtean (2008-2009an) lan bolumena ere handia zen, eta formazio organoekin lotutako saioetatik beste 650 kooperatibista pasatu ziren; 360, bazkideei zuzendutakoak.

Aldi berean, HEKI ikerlerroaren baitan, 2007ko udazkenean Garabide elkartearekin elkarlanean lehenengo *Hizkuntza eta Herrien arteko truke* programa antolatu zen. Azken urtetako dinamikari jarraituz martxoan, Mundukide Fundazioarekin batera²⁸⁵, “Ekonomia solidarioko auto-eraketa esperientziei jarraipena” seminarioa eta “Ekonomia solidarioa, auto-eraketa eta kooperatibismoa” kongresua ospatu ziren. Ikasturte hasieratik halaber, Mundukideekin eta Lurrik Gabeko Mugimenduekin elkarlanean, Brasilgo Parana estatuan kooperatibagintza ardatz duen proiektua zegoen martxan.

Ikasturte berean, liburugintzan, *Mondragón ante la globalización* Lanki koadernoaren bigarren alea argitaratu zen, eta *La experiencia Cooperativa de Mondragón. Una síntesis general* liburuaren idazketa lanak burutu ziren.

285. MUNDUKIDE, 1999ko ekainaren 11n Kongresu Kontseiluko Iraunkorren akordio baten bidez, MCCK sortu zuen Fundazio bat da. HUHEZIK, MONDRAGON UNIBERTSITATEko ordezkari bezala, Jesus Garmendia izendatu zuen ordezkari. Informazio gehiago: <http://www.mundukide.org/nortzuk-gara/>.

2008-2009 ikasturtean, gizarte berrikuntzari dagokion proiektu bati ekin zion BAGARA elkartearekin batera; “Bailara Proiektua” abian jarri zuen. Esan behar da, Gizartea humanizatzeko norabide integratua zela (eta dela) ‘Bailara proiektua’, bailarako eragile kooperatibo eta sozialek bultzatukoa, alegia. Elkartasuna, euskaltasuna eta iraunkortasuna ditu ipar nagusi, auto-eraketa hartzen du bide, eta hiru adar nagusi aintzat hartzen ditu: kooperatiben sendotzea, hezkuntza eta gizarte-sustapena.

Ikasturte berean, bi doktore-tesi aurkeztu ziren: “Brasilgo kooperatibismoaren garapenerako oinarriak: begirada kritikoa Euskal Herriko legedi eta errealitate instituzional kooperatibotik” eta “Diskurtso kooperatiboak langile-kolectiboan. Kooperatibagintzari buruzko sentipenak Fagor Arrasaten”.

Aipatu ere, komunitate esperientzien barnean (“Garapen komunitarioko esperientzien truke-programa”), Garabiderekkin batera egiten zen Truke Programa gauzatzen duela ikertegi honek. 2008-2009 ikasturtekoa hamargarren edizioa izan zen²⁸⁶.

Gaur, beraz, ikerketa gaien esparrua hiru multzotan barne-biltzen da: kooperatibismoa, berrikuntza soziala eta lankidetzako kooperatiboa. Hala, lerro honetako ikerketa-eremuak honako hauek dira: Arrasateko kooperatibigintza; Ekonomia Sozial-Solidarioa (ESS) eta Garapenerako Lankidetzako; Herrigintza eta garapen komunitarioa; Trantsizio sozio-ekologikoa; Taldeen auto-eraketa, lidergoa, kultura.

Esandakoak esanda, LANKik eskaintzen dituen zerbitzuetatik indartsuena Kooperatibismo gainerako prestakuntza-saioak dira. Alegia, Mondragon Taldeko Gestio Sozial sailarekin lankidetzan egiten dena. 2001ko udazkenean hasi ziren hezkuntza-dinamika honetan, dagoeneko, 7.000 lagun baino gehiagok hartu dute parte saioetan. 2013-2014 ikasturtean 105 saio eman ziren, eta 1.635 kooperatibista baino gehiago bertaratu ziren.

2013ko ekainean “Kooperatibagintza Topaketa I” ekitaldia antolatu zuen LANKI Ikertegiak Garaia Berrikuntza Gunean. 103 lagunek hartu zuten parte lehen topaketa horretan. Hirugarren topaketan (2015), berriz, 78k.

Tinko jarraitzen du LANKI ikertegiak kooperatibismoaren gainerako prestakuntza-saioak eskaintzen. Hala, 2014-2015 ikasturtean zehar 339 lagunek hartu dute parte formazio kooperatiboko saioetan. Aldi berean, Fagor Etxetresnak-en itxieraren harira egindako ikerketaren ondorioak sozializatzeko asmoz, 27 saio eman ditu han eta hemen.

Ikasturte berean, Bergarako Udala eta Olatukoop-ekin batera, eraldaketa sozialaren bueltan, *Berregin berrekin: ekintzailetasun soziala sustatzeko* programa jarri du martxan lehendabiziko aldiz. 19 ikaslek hartu zuten parte.

27.2. HEZI-ICE

1998-1999 ikasturtean hasi ziren Hezkuntza Zientzien Institutuaren ildo estrategikoak izango ziren oinarriak definitu eta proiektua martxan jarriko zuen taldea eratzen.

²⁸⁶. <http://www.garabide.org/euskara/truke-programak> (Kontsulta: 2013/05/18).

Funtsean, Institutuaren helburua bikoitza zen: batetik, MONDRAGON UNIBERTSITATEko hezkuntza proiektuaren garapena eta hobekuntza iraunkorra, eta bestetik, hobekuntza horri zuzendutako baliabide metodologiko eta teknikoaren garapena.

Hori lortzeko, hiru jarduerak nagusiri heldu zitzaion: 1) Formazioa: barrura eta kanpoari begira. 2) Ikerketa: batez ere hezkuntza ereduari zuzenduta. 3) Argitalpenak: barne garapena lortu eta proiektua kanporatzeko.

Zuzendaria, Mariam Bilbatua izan zen.

2001-2002 ikasturtean, HUHEZIK hartu zuen Hezkuntza Zientzien Institutua (HEZI) kudeatzeko ardura. Ikasturte honetatik aurrera MONDRAGON UNIBERTSITATEak eta HUHEZIK partekatuko zuten Institutua garatzeko ardura.

Institutuak bere sorreran definitutako bi lan eremuekin erlazionatutako proiektuak garatu zituen, bereziki ikerketa eta formazio alorretan:

1. Eremu unibertsitarioari zegokionez, ondoko proiektuak gauzatu zituen HEZIK:

- MONDRAGON UNIBERTSITATEko irakasleen formazio didaktikoen beharren diagnostikoa eta irakasleen formazioa bideratzeko ildoaren proposamena.
- On-line gela eta on-line formazio moduluak.
- HEZIKIDE berri papera (gero 'Mendeberriak' izango zena).
- 'Mendeberri' proiektuaren aholkularitza teknikoa.

2. Eremu ez unibertsitarioari dagokionez Institutuak ondoko proiektuetan hartu zuen parte:

- HAZITEGI Ikerketa Proiektua. Proiektu honen bidez 0-3 urteko haurren hezkuntza prozesuak ikertu nahi ziren eta haurren garapenerako egokienak ziren baldintzak identifikatu. Proiektuak bi fase izan zituen: hezkuntza prozesuak ikertuko zituen taldearen formazioa, eta ikerketa bera. 2001-2002 ikasturtean formazio fasearen lehen urratsa burutu zen. Proiektu honetan hainbat erakunde ari ziren parte hartzen: HEZI, Hezkuntza Prozesuen Departamentua eta Arizmendi kooperatibak.
- Formazio iraunkorra. HEZI Institutuak hartu zuen ardura HUHEZIK unibertsitatez kanpo eskaintzen zuen hezkuntza arloko formazioa kudeatzeko (GARATU...), eta 2001-2002 ikasturtean departamentu eta gestio unitateek eskainitakoaren katalogoa prestatu zuen.

Berehala hasi zen HEZIKren garapena, eta 2002-2003 ikasturterako bi eremu lantzen zituen:

1. Unibertsitate eremua: ikerketa, formazioa eta dibulgazioa. Arreta jarri zitzaion ezarri nahi zen Mendeberrri proiektuari, irakasleen formazio didaktikoari eta HEZIKIDE berri paperari.
2. Hezkuntza ez unibertsitarioan: Hazitegi proiektua (0-3 urteari begira), formazio iraunkorra (IVAP), eta dibulgazioa: dagoeneko ezagutzen ditugun `Jakingarriak` aldizkaria, eta `Haur Liburu Mintegia eta Irakur Gidak`. 2002ko azaroaren 22-23an antolatu eta sona handia izan zuen nazioarteko lehendabiziko jardunaldia antolatu zen: `Haur eskola (0-3 urte) jakintza zientifikoaren argitan`; nazioarteko aditu esanguratsuak etorri ziren (Marinus van Ijendoorn, Karin Grossmann ...). Esan behar da ere, jardunaldi hauek Hazitegi bera eta MacArthur proiektuak²⁸⁷ sozializatzeko baliatu zirela. 2003an 2. Jardunaldia antolatu zen: "haurra eskolaren eta familiaren artean". Saio hautetan 300 bat ikaslek hartu zuten parte.

Garapen honetan ezin dira ahaztu, Hazitegik 0-3 adin tarteko haur eskoletan ari ziren langileentzat emandako 500 orduko Gaikuntza Ikastaroak. Horien bidez, ikasleek aukera izan zuten Estatuko 0-3 urteko edozein haur eskoletan lan egiteko. Hala, 2004ko otsailean hasi ziren formazioa jasotzen lehendabiziko taldeak (ikastoletakoak eta haur eskola munizipalak zein pribatuak); Donostian, Durangon eta Bergaran egin ziren ikastaroak. Taldeak talde, baina, 2005eko abenduan eman zitzaion bukaera formazio ikastaro arrakastatsu honi. Zera diosku Nerea Alzolak:

“ Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak eskatu zigun 0-3 urte zikloari begira gaikuntza (ez titulua, beraz) formazioa antolatzea. Bi epealdi izan zituen. Hasierako aldian Izaskun Madariaga izan zen arduraduna, eta bigarrean, -Partzuegoaren izenean antolaturik-, Alex Barandiaranek hartu zuen bere gain kudeaketa. Eskoriatzan eta Bilbon egin zen ”²⁸⁸

Hemendik aurrera, unibertsitate eremua eta unibertsitate eremua ez dena ere aintzat hartuta, hainbat ikerketa proiektu kaleratu zituen HEZIK. Hiru jarduera hartu zituen bere gain: ikerketa, formazioa eta zabalkundea.

Unibertsitate eremua: ikerketan; barneko formazioa (Mendeberrri eta gaitasunen ezarpenaren inguruan batik bat). Kanpora begira (eremu ez unibertsitarioan), (1) Hazitegik indar handia hartu zuen, (2) formazio iraunkorra kanpoko erakunde eta eragileei zuzendutakoa zen, (3) dibulgazioak ere garrantzia handia zeukan (Jakingarriak, jardunaldien antolaketa eta haur liburu eta mintegia eta irakur gidak), eta hasiera batean pertsona eta talde garapena ere landu zen.

287. Proiektu honen helburu nagusia MacArthur fundazioak sortutako *Communicative Development Inventory* tresnaren euskarazko egokitzapena egitea zen. Tresna honen helburua, berriz, 8 hilabete eta 30 hilabete bitarteko haurren komunikazio garapen goiztiarra neurtzea eta garapen horretan sor zitezkeen atzerapen posibleak detektatzea.

288. Nerea Alzolarekin elkarrizketa: 201/06/06.

Honatz labur bilduta azken urteetako ekitaldiak:

Taula, 35: HEZI-ICE. Hainbat ekitaldi (2006-2007 eta 2007-2008)

IKASTURTEA	UNIBERTSITATE EREMUA	EREMU EZ UNIBERTSITARIOA
2006-2007	<p>Ikerketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • “Life learn” proiektua (esparru ez formaletan garatutako jakintzak sistematizatzea eta jakintza horiek kreditatzea). • Indagazio tutoreen eta ikasleen arteko elkarrekintzaren azterketa. • “Mendeberri” Proiektuaren ebaluazioa. <p>Zabalkundea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • “Mendeberriak” argitalpena • Berrikuntza metodologikoarekin lotutako komunikazioak. • Mendeberri proiektua ezagutzeko eskaerak. <p>Formazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza berrikuntzarekin lotuta. 	<p>Ikerketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hazitegi proiektua (Ikerketa konparatiboa Herbehereko Leidengo Unibertsitatearekin) <p>Zabalkundea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jakingarriak aldizkariaren “familia eta eskola” eta “Heziketa eskolan”. • Haur liburu mintegia eta irakur-gidak <p>Formazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • HETEL eta hainbat ikastetxeri. • HAEE-IVAP (4. Hizkuntza eskakizuneko ikastaroa).
2007-2008	<p>Ikerketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • “Life learn” Proiektua. • Indagazio tutoreen eta ikasleen arteko elkarrekintzaren azterketa. • “Mendeberri” Proiektuaren ebaluazioa. • Hezkuntzaren ikerketa metodologikoa. <p>Zabalkundea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • “Mendeberriak” argitalpena: (zeharkako kompetentziak eta Moodle moot jardunaldiak. • Berrikuntza metodologikoaren inguruko komunikazioak. 	<p>Ikerketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hazitegi proiektua <p>Zabalkundea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Rafael Cristobalek idatzitako “Fundamentos del ser humano. Una psicología para educadores” eta “Hezkuntzari begira psikologiaren eskutik” jardunaldia. • Jakingarriak (“Heziketa Fisikoa Eskolan (I eta II) eta “landa-eremuko eskolak, eskola txikiak”. • Jardunaldia: “Hezkuntzarik ez, heziketa fisikorik gabe”. <p>Formazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Berrikuntza metodologikoa.

Iturria: *Ikasturteko memoriak. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak eginda.*

2004tik 2008ra aldizkaritxo propioa kaleratu zuen institutu honek: MENDEBERRIAK²⁸⁹.

Mariam Bilbatuak dioskun bezala²⁹⁰, une honetan barne hausnarketaren premian dago Institutua. Eta hausnarketa HUHEZlri larregi atxiki gabe, MONDRAGON UNIBERTSITATE osoari begiratuta egin behar da.

289. <http://www.mondragon.edu/eu/aktualitatea/aldizkariak/mendeberriak/mendeberriak> (Kontsulta: 2013/04/20).

290. Mariam Bilbatuarekin elkarrizketa: 2014/02/14.



1



2



3



4



5



6



1

MUNDUKIDE 2000 maiatza.

2 3 4 5 6

LANKI eta egonaldiak.

7

Mendeberriak-HEZI, 2006 uztaila, 7. zenbakia.

8 9 10

LANKI eta argitalpenak.

28. INTERNAZIONALIZAZIOA ETA ERASMUS

Nazioartean saretzearen garapena azken urteetako bada ere, ezin ditugu hasierak ahaztu, eta horretarako Jesus Garmendiaren oroitzapenak erabiliz:

“ *Birminghameko Unibertsitatearekin egindako hitzarmena, hango irakaslea zen James Bray-rekin egin zen. Bertan sartzeko hizkuntza maila eta maila akademiko jakina eskatzen zen, eta Birminghameko zenbait ikasgaian matrikulaturik jarraitu behar zuten. Ondoren, txostena egiten zuen ikasle bakoitzari buruz eta notak ere jartzen zituen. Esperientzia hau zuzen-zuzen jarraitu zuten Arantza Mongelos eta Julia Barnes-ek* ”²⁹¹

Nazioartekotzeren garapenean, 2006-2007 ikasturtetik aurrera oinarri bilakatuko ziren hiru ildo zehaztu ziren. Honen sustatzaileak Joxe Aranzabal eta Txema Egaña izan ziren. Ildoak, berriz, hauek:

- Sareetan parte hartzea. HUHEZiren egitura sendotu ahala, kanpo harremanetarako sarea ere zabaltzen zihoan poliki-poliki. 2006-2007 ikasturtea izan zen horren isla; nazioarterako abiapuntu izango zen. Ikasturtearekin batera, ETEN (*European teacher Education Network*)²⁹² sareko kide formal gisa onartua izan zen Fakultatea Silkeborg (Danimarka) egindako bilkuran. 1988an sortutako sare honetan Europako 52 Hezkuntza fakultate zeuden. Helburuak: ikasleen eta irakasleen arteko elkarlana suspertzea, mugikortasuna bultzatzea eta ikerkuntzan elkarlana sustatzea.

Ikasturte bereko ekainaren 16an, berriz, EJTA elkarteak (*European Journalism Training Association*)²⁹³, Europako Kazetaritza Fakultate eta Eskolen Elkarteak, HUHEZI Fakultatea onartu zuen kide gisa Parisen egindako urteroko bilkuran. 1990an sortu zen elkarte hau Bruse-

291. Jesus Garmendiaren aparteko oroimen idatziak.

292. http://www.eten-online.org/modules/sjt_events/ (Kontsulta: 2013/04/20).

293. <http://ejta.eu/members/> (Kontsulta: 2013/04/20).

lan. Helburuak: ikasle eta irakasleen mugikortasuna suspertu, ikerketa kooperazioa indartu eta partaideen interesak babestu. 20 herrialdetako 50 unibertsitatetik gora biltzen ziren.

- Mugikortasuna. Erasmus programa ere txertatzen ari zen poliki-poliki, eta lehendabiziko ikasleak irten ziren, hezkuntza eta komunikaziokoak, egonaldiak egitera. Horretarako, Europako 15 unibertsitateekin zeuden akordioak sinatuta²⁹⁴. 2006-2007 eta 2007-2008 ikasturteetan, bakoitzean, 7 ikasle atera ziren Erasmus egonaldiak egitera. Gero eta ugariagoak ziren kanpoko egonaldiak egitera joaten ziren ikasleak (Ingalaterra, Norvegia, Herbeheretan eta Estonian). Hurrengo ikasturtean, 6 joan ziren (Norvegia, Danimarka eta Herbehera). 2008-2009 ikasturtean, 14 joan ziren (Estonia, Herbehera, Finlandia, Danimarka, Norvegia).

Azkeneko ikasturteetan, berriz, 30 ikasle izan dira kanpora joan direnak. 2012-2013 egonaldi akademikoan, adibidez: 28, Europara eta 2, Mexikora. Horietatik 19, Hezkuntza graduetaoak eta 11, Ikus-entzunezko Komunikazioa graduetaoak. Eta 2013-2014 ikasturtean, 33 Europara eta 2 Mexikora joan ziren.

Taula, 36: ERASMUS programa. Atzerriratutako ikasleak (2006-2013)

IKASTURTEA	IKASLE KOPURUA
2006-2007	7
2007-2008	7
2008-2009	14
2009-2010	23
2010-2011	30
2011-2012	30
2012-2013	30
2013-2014	35

Iturria: *Ikasturteko memoriak*. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak eginda.

- Fakultatea nazioartekotzen. Ipar Europako herrialde txikiek (Norvegiak, Danimarkak, Finlandiak eta Holandak) eza-ritako ereduie jarraituta, ingelesez eta Erasmusera begira, bi ikastaro antolatu zituen HUHEZIk: bat, 'Media and Minority Languages' (Hedabideak eta Hizkuntza Gutxiak), komunikazio ikasleei zuzendutakoa; eta bi, 'Education and Minority Languages' (Hezkuntza eta Hizkuntza Gutxiak) hezkuntza alorreko ikasleei zuzendutakoa.

294. Saint Patrick's College, Irlanda; Saint Mary's University College, Ipar Irlanda; Mustafa Kemal University, Turkia; CVU- Midt Vest University College, Danimarka; KHL Limburg, Flandes, Belgika; University College West Flanders (Howest), Flandes, Belgika; Fontys University, Herbeherak; The Hague University College, Herbeherak; Rotterdam Hogeschool, Herbeherak; Windesheim University of Applied Sciences, Herbeherak; Hanze University Groningen, Herbeherak; Oslo University College, Norvegia; Tallinn University, Estonia.

Honen bitartez, hauek izan dira Eskoriatzara etorritakoak:

Taulara, 37: ERASMUS. Kanpotik etorritakoak (2007-2014)

IKASTURTEA	ZENBAT IKASLE	JATORRIA
2007-2008	7	Turkia, Herbehera, Belgika eta Estonia
2008-2009	5	Herbehera, Belgika, Danimarka
2009-2010	14	Herbehera, Belgika, Danimarka eta Suedia
2010-2011	12	Herbehera, Belgika, Estonia eta Finlandia
2011-2012	15	Herbehera, Belgika, Estonia, Hungaria, Finlandia eta Suitza
2012-2013	6	Belgika, Estonia, Letonia eta Hungaria
2013-2014	21	
2014-2015	27	Estonia, Turkia, Suitza, Belgika, Hungaria, Herbehereak eta Lituaniatik

Iturria: *Ikasturteko memoriak*. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak eginda.

Azken urteetan, nazioartera zabaltzeko beste formula batzuk ari dira errotzen, eta 2013-2014ko datuak begiratu gero, eta ikasleen mugikortasuna kontuan hartuta, 82 ikasle joan ziren atzerrira ikasketak edo curriculum-praktikak egitera. Horietatik 35 ikaslek sei hileko bat egin zuten nazioarteko unibertsitate batean (Europar batez ere), 12k praktikak egin dituzte Europan, eta 35 ikaslek Latinoamerikan. Bestalde, 18 ikaslek hartu du parte masterretan eta aditu tituluetan. Eta HUHEZIKO irakasle nahiz ikertzaileen kanpoko egonaldia 9 izan ziren. Esan beharrik ez dago, nazioartera zabaltzea erronka garrantzitsua bihurtu dela HUHEZIlentzat.

1 2 3 4 5 6

Erasmus 2010-2016.



29. FORMAZIO IRAUNKORRA: MASTERRAK, GRADUONDOAK, ADITU TITULU ETA BESTELAKO IKASTAROAK


HUHEZIK ez dio uko egin graduatuen konpetentzia akademikoa areagotzeko aukerari. Ikasketak, gainera, kasu askotan ikasleen lan jardueran txertatzen direnez, emankorra goak bihurtzen dira.

Hala, masterrak, gradu-ondoak, aditu tituluak eta beste ikastaro propio batzuk antolatzen beharraz jabetu zen.

Gaitegiari begira, berriz, zabala izan zen eskaintza; betiere HUHEZIK bere-bereak dituen gaien ingurukoak: hezkuntza, hizkuntza, ekonomia solidarioa, komunikazioa, euskal kulturgintza ...

Azken urteetan, graduondoak aintzat hartuta, MUko Errektoretzak emandako datuei esker (2002-2003 ikasturtetik 2010-2011ra) ikasleen eboluzioa zein izan den jakin ahalko dugu:

Grafikoa, 28: Graduondoko ikasleen bilakaera guztira (2002-2010)



Iturria: MONDRAGON UNIBERTSITATEko Errektoradutza.

Oro har, 2013-2014 ikasturtean HUHEZIn 144 ikasle izan ditugu unibertsitate-master eta aditu-tituluetan.

Taula, 38: HUHEZI Graduondoko ikasleak guztira (2002-2013)

IKASTURTEAK	2002 2003	2003 2004	2004 2005	2005 2006	2006 2007	2007 2008	2008 2009	2009 2010	2010 2011	2013 2014
IKASLEAK	119	146	133	77	43	149	113	88	176	144

Iturria: *MUko Errektoradutza eta 13-14 ikasturteko memoria*. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa.

29.1. ENPRESA PROIEKTUEN ZUZENDARITZAN MASTERRA

Master hau 2000-2001 ikasturtean hasi zen. Helburua: formazio iraunkorraren bidez, titulu propioak edo gradu-ondoko ikasketetan, eta *Mondragon Corporación Cooperativak* (MCC) sustatuta, ingeniariak eta lizentziatuak hainbat proiekturen kudeaketan trebatzea.

MONDRAGON UNIBERTSITATEko hiru Fakultateek parte hartu zuten master honetan; HUHEZIk koordinatu zuen.

Masterraren helburua laukoitza zen: 1) Enpresaren ikuspegi globala ematea; 2) Ikaskuntza pragmatikoa eskaintzea; 3) nazioarteko orientazioan laguntzea; 4) Enpresarekin lotura estua izatea.

Lau fasetan banatu zen: 1) aurreko formazioa osatu eta homogeneizatzea, eta enpresa-erakunde bat kudeatzeko oinarritzko elementuen sakontzea; 2) enpresa-egoeren azterketa eta zuzendarien laguntza eta ezagutzen transferentzia; 3) negozio-aukerak identifikatu, deskribatu eta ikertu, eta horretarako bideragarritasun tekniko, ekonomiko zein finantzarioa aztertzea; 4) azken proiektua lantzea, eta hori egiteko hamar hilabeteko egonaldia eskaintzea MCCren enpresa batean.

Taula, 39: Enpresa proiektuen zuzendaritza. Ikasle kopurua ikasturteka (2000-2003)

IKASTURTEA	IKASLEAK
2000-2001	40
2001-2002	40
2002-2003	38
2003-2004	38

Iturria: *Ikasturteko memoriak*. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak eginda.

29.2. PERTSONEN GARAPEN ETA KUDEAKETA ESTRATEGIKOAN MASTERRA

Master honen hartzaileak unibertsitate-tituludunak zein titulurik gabeko profesionalak izan ziren; alegia, pertsonen kudeaketaren eremuan esperientzia zabala zutenak.

Masterrak orokorrean enpresaren ikuspegi estrategikoa eskaini nahi zuen, zehatzago esanda, pertsonen kudeaketarena. Esparru egokia eskaintzen zuen oinarritzko kontzeptu, trebetasun eta jarrerak ikasi eta garatzeko, baita erakunde baten barruan pertsonen garapena bera bultzatzeko ere.

Edukiak lau ezagutza-eremutan egituratu ziren:

- Enpresa eta bere ingurunea. Enpresa testuinguruaren eta funtsezko elementuen azterketa.
- Ikerketa aplikatuko metodoak: 'Action learning'.
- Auto-garapena edo garapen profesional pertsonala.
- Pertsonen garapen eta kudeaketa estrategikoa. Pertsonen kudeaketaren ikuspegi estrategiko eta prospektibaren planteamendua.

2001-2002 ikasturtean, lehen promozioan, 16 ikasle aritu ziren masterrean; bai eremu akademikoan, bai gidaritza prozesuaren bidezko garapen-programan. 2002-2003 ikasturtean 13, eta ondorengo ikasturtean 12 ikaslek hartu zuten parte.

Taula, 40: PGKE: Ikasle kopurua ikasturteka (2001-2003)

IKASTURTEA	IKASLEAK
2001-2002	16
2002-2003	13
2003-2004	12

Iturria: *Ikasturteko memoriak*. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak eginda.

Esan, master honek beste zeregin batzuetan ere parte-hartzeko aukera eman zuela, alegia: ETEOko irakasleentzat 'Gidaritza Programa'-ren antolaketa, Otoran antolatutako hainbat saio edo MCCrako talde lanean aritzeko kompetentzien inguruko programa.

Ildo beretik, 2003 urtean sortu zen HUHEZIn `Pertsona eta Taldeen garapena Erakundeetan´ Gestio Unitatea (PTG). Kontseilu Errektoreak 2004an onartuta, eta MUko berregituraketa prozesuaren ondorioz, Errektoretzaren esku gelditu zen egitasmoa. Unitate honen jarduera, erakunde eta enpresetan kompetentzia eta baloreen garapenean ikerketa lanak egitea zen. 2005-2006 ikasturtean, PTGk eskaintza akademiko berria kaleratu zuen: `Norbere Garapena eta Taldeen Lidergoa´ aditu titulua; 2007ko urtarrilean kaleratu zen.

29.2.1. NORBERE GARAPENA ETA TALDEEN LIDERGOA

Esan bezala, 2007ko urtarrilean jarri zen abian eta 15 ikaslek hartu zuten parte. Gasteizko Merkataritza Ganbara eta Newfield Consulting izan zituen kolaboratzaile, eta ezaugarrietako bat, ikasleek euren erakundeetan egin beharreko proiektua zen.

29.3. INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIORAKO TEKNOLOGIAK FORMAZIOAN MASTERRA

Master hau hezkuntza zentroi ez ezik, edozein erakundetako profesionali ere bazegoen zuzenduta, hau da, zegokien erakundeetan Informaziorako eta Komunikaziorako Teknologien (IKTen) erabilera pedagogikoaren dinamizatzaile ziren edo izango ziren profesionali, finean, IKTek beraien hezkuntza lana hobe dezaketela uste zuten profesional edo formatzaileei. Guztira, bi urtetan egiteko 650 formazio ordu.

2002an banatu ziren lehenengo promozioiko ikasleen diplomak: Informaziorako eta Komunikaziorako Teknologiak Formazioan adituak ziren 42 profesional irten ziren. Urte berean, Sao Pauloko Unibertsitatearekin (Brasil) hitzartutako promozioiko 9 ikaslek bukatu zuten masterra.

2002-2003 ikasturtean, berriz, 24 ikasle aritu ziren bigarren urtea egiten, eta beste 20 ikasle hasi ziren lehenengo ikasturtean.

2003-2004 ikasturtean 18 ikasle zeuden bigarren urtean, eta 19 lehenengoan.

2004-2005 ikasturterako Masterraz gain, urte bakarreko `Aditu-Titulua´ ere eskaini zen. Aditu-titulua masterraren lehen maila amaitutakoan lortzen zen, hau da, lehen hiru moduluak osatutakoan. 10 ikasle aritu ziren aditu-titulua ateratzen, eta beste 15 masterraren bigarren mailan. Beraz, guztira 25 ikasle.

Taula, 41: IKTF: Ikasle kopuru osoa ikasturteka (2001-2005)

IKASTURTEA	IKASLEAK
2001-2002	51
2002-2003	44
2003-2004	37
2004-2005	25
2005-2006	11

Iturria: *Ikasturteko memoriak*. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak eginda.

29.4. HEZKUNTZA ZENTROEN ZUZENDARITZA MASTERRA

Master honen helburua, ikastetxeen funtzionamendu eta kudeaketa prozesuetan beharrezkoak ziren arduradunei formazio espezializatu egokia eskaintzea zen. Horretarako, bost arlotan banatuta, hezkuntza eta enpresa arloetako gaiak uztartu zituen: hezkuntza, hezkuntza legedia, eraketa eta barne komunikazioa, kanpo harremanak eta komunikazioa eta, azkenik, enpresa antolaketa.

Astean egun oso batez saio presentzialak izaten ziren; beste guztia on-line. Masterraren iraupena 510 ordukoa izan zen: 280 ordu presentzialak; 140 ordu on-line eta 90 ordu amaierako proiektua egiteko.

Guztira, 22 ikaslek burutu zuten HUHEZIK IKASGUrekin (Ikastolen Federazioarekin) elkarlanean antolatutako bi urteko masterra (11+11), denak ari ziren ikastolaren batean kudeaketa lanetan.

Taula, 42: HZZ: Ikasle kopurua ikasturteka (2001-2002 eta 2002-2003)

IKASTURTEA	IKASLEAK
2001-2002	11
2002-2003	11

Iturria: *Ikasturteko memoriak*. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak eginda.

29.5. ENTZUMENA ETA MINTZAIRA GRADU-ONDOA

Gure hezkuntza sisteman gero eta zerbitzu hobeak eskaintzeko sortu zen Entzumena eta Mintzaira gradu-ondoa. 2003-2004 ikasturtean jarri zen abian, arratsalde, irakasle tituludunentzat; ikastetxeetan zegoen eskaerari erantzun egokia eman nahi zitzaion. Honakoak izan ziren landutako kompetentziak: ikaslearen hizkuntzaren garapenean zailtasunak identifikatu; diagnostiko psikopedagogikoa egin; ikaslearen esku-hartze planaren jarraipena egin; curriculum egokitzapena egiteko gaitasuna izan; programa aurrera eraman eta eremu eleaniztunean aritzeko prestakuntza garatu.

Ikastaroaren egitura: %60 presentziala; %20 on line; %10 hitzaldiak; %10 practicum.

Arrakasta handikoa izan zen, bai irakasle kopuruari begira (guztira 41 matrikula egon ziren) eta baita curriculum antolaketari eta metodologiari dagokionean ere. Hori zela eta, Madrilen baimen-eskaria egitea erabaki zen Irakasle Ikasketetan diplomatura titulazio berri bezala onartzeko.

29.6. BIGARREN HEZKUNTZA ESPEZIALIZAZIOTIK MASTERRERA²⁹⁵

Beste berrikuntza bat iritsi zen 2004-2005 ikasturtean: “Derrigorrezko Bigarren hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan eskolak eman ahal izateko prestakuntza” sortu zen.

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko 1/1990 Lege Organikoak —urriaren 3koak— ezartzen zenez, eta Eusko Jaurlaritzak emandako 250/2002 Dekretua kontuan hartuta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta Lanbide Heziketa espezifikoa irakasteko, nahitaezkoa izango da, besteak beste, espezializazio didaktikoko lanbide-tituluaren jabe izatea.

Titulu hau lortzeko, prestakuntza pedagogikoko ikastaroa gainditu behar da —ikastaro hori ofiziala da eta estatu osorako balio du—. Prestakuntza pedagogikoko ikasketak, irakasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta Lanbide Heziketa espezifikoa irakasteko beharrezko prestakuntza izan dezaten ezarri zen. Helburuak:

- Bigarren Hezkuntzako irakasleen lan eremua ezagutzea eta lan eremu horretan profesional gisa aritzeko garatu beharreko oinarrizko gaitasunak eskuratzea.
- Bigarren Hezkuntzako ikasleen ezaugarriak eta murgilduta aurkitzen diren egoerak ezagutzea.
- Irakasle lanbidearen garapenerako beharrezkoak diren tresnen ezagutza eta erabilera: curriculumaren antolaketaketa, gelaren kudeaketa, aniztasunaren trataera.

295. <http://www.mondragon.edu/eu/ikasketak/masterra/dbh-master-ofiziala/> (Kontsulta: 2013/04/20).

- Irakaste-ikaste prozesua ulertzeaz gain, bere optimizaziorako beharrezkoak diren estrategi egokiak garatzea.
- Aipatutako helburu desberdinak lortzeko baliabideak ezagutu eta diseinatzea.
- Gelaren dinamika eta irakaste-ikaste prozesuaren kudeaketaren inguruan irakasleen trebetasunak garatzea.

Ikasketa horiek, gutxienez, 60 kreditu izango ditu, bi zatitan banatuta: irakaskuntza teoriko eta praktikoa, eta practicum-a.

Ikasgai teoriko eta praktikoa ere bi ataletan banatuta daude: ikasgai komunak (espezialitate guztiek burutu behar zituztenak), eta lan arloen arabera antolatutako didaktika espezifikoa.

Bigarren Hezkuntza etapari dagokionez, 2009-2010 ikasturtera arte, urtez urte *Irakasleen Espezializazio Didaktikoa* eskaintzen bazen ere –derrigorrezkoa irakaskuntzan aritzeko -, orduan aurrera aipatutako masterra hasi zen eskaintzen. Abian jarri zen masterrak, azken urteetan sortu ziren heziketa-premia berriak hartu zituen aintzat. Horri begira diseinatu zen masterra; eta honako helburuak ezarri ziren:

- Bizitza profesionalean izango dituzten funtzioak modu ahalik eta eraginkorrean betetzeko, irakats-fo- kua irakasle izango direnek behar dituzten ezagutza eta gaitasunetan ezarri.
- Irakasle izango direnek irakaskuntzan aritzeko beharrezkoak dituzten konpetentzia pertsonalak eta sozia- lak garatu: ikasle-taldeak kudeatzeko gai izan eta beren praktikaz hausnartzeko zein taldeetan lan egiteko gaitasuna.


2010-2011 ikasturtean 29 ikasle matrikulatu ziren. Lau izan ziren eskaintako espezialitateak: Hizkuntza eta Literatura, Heziketa Teknologikoa, Zientzia Esperimentalak eta Gizarte Zientziak. 2011-2012 ikasturtean, 34 ikasle matrikulatu ziren. 2012-2013 ikasturtean 30 ikasle. 2013-2014 ikasturtean, 33 ikasle, eta 2014-2015ean, 34 ikasle.

Taula, 43: BH Masterra eta ikasle matrikulak ikasturteka (2010-2014)

IKASTURTEA	IKASLEAK
2010-2011	29
2011-2012	34
2012-2013	30
2013-2014	33
2014-2015	34

Iturria: *Ikasturteko memoriak*. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak eginda.

Grafikoa, 29: BH Materreko ikasle tituludunak (2004-2014)



* Prestakuntza Pedagogiko bezala hasieran; 2009-2010 ikasturtetik aurrera BH master bezala. Aldi berean, 2011-2012 eta 2012-2013 ikasturteetan Psikopedagogiako taldeari ere masterra ateratzeko aukera eman zitzaionez, bertatik dator berariaz masterrera matrikulatu zirenen eta azkenean ikasle tituludunen arteko aldea.

Iturria: Idazkaritza akademikoa. Iñigo Arriaran. Egileak eginda.

Horrekin batera, HUHEZIK 2014 urtean titulazioaren egiaztatgiri-prozesuan hartu zuen parte, eta emaitzak ezin hobegoak izan ziren; masterrak UNIBASQen ebaluazioa eta, beraz, akreditazioa lortu zuen.

29.7. Berrikuntza Didaktiko Metodologikoko Proiektuen garapena eta Kudeaketa Hezkuntza erakundeetan (BERRIMET)²⁹⁶

Unibertsitate Master honen lehen edizioa 2011ko urtarrilean hasi zen. Hiru materia-bloketan dago antolatuta: materia komunak eta ibilbideko materiak (Ikerketa ibilbidea eta profesionala), eta praktikak eta proiektua. 15 ikasle matrikulatu ziren; bi erritmotan: urte betean egiteko, eta bi urtetan egiteko.

Hamar ikaslek euskara hautatu zuten ikasketa-hizkuntza gisa, beste bostek gaztelania. Gaztelaniaz egiten ari zirenetatik lau atzerriko ikasleak ziren. Ikasle guztiek ikerketa ibilbidea hautatu zuten.

2011-2012 ikasturtea berrikuntzekin iritsi zen. Bi aldaketa garrantzitsu egon ziren: egutegia aldatu zen, eta erdi-presentzial izatetik %100 on-line izatera igaro zen.

Ikasleei dagokienez, 19 matrikulatu ziren Masterrean: 12 ikaslek bigarren urtea egin zuten, eta 8 ikaslek lehenengo urtea. 4 ikaslek Master Amaierako proiektua (MAP) aurkeztu zuten, guztiak ikerketa ibilbidekoak.

2012-2013 ikasturtean 21 ikasle matrikulatu ziren masterrean: 10 ikaslek bigarren urtea egin zuten, eta 11 ikaslek lehenengo urtea. Bi ikaslek Master Amaierako Proiektua (MAP) aurkeztu zuten: bat ikerketa-ibilbidekoa eta bestea ibilbide profesionala.

2013-2014 ikasturtean, masterraren 4. edizioa, 29 ikaslerekin hasi zen: 15 lehen urtekoak eta 14 bigarrenekoak. 16 ikaslek ikerketa ibilbidea hautatu zuten, eta 13 ikaslek ibilbide profesionala. Guztira, master amaierako 9 proiektu aurkeztu ziren.

Masterrak eskaintzen zituen ikasgai komunak ardatz hartuta, Bogotako Unipanamericana Unibertsitatearekin batera aditu-tituluaren diseinua egin zen: "Diseño y desarrollo de Proyectos de Innovación metodológica en centros educativos". 2013-2014 ikasturtean jarri zen martxan.

Taula, 44: BERRIMET Matrikulatutakoak (2011-2014)

IKASTURTEA	IKASLEAK
2011	15
2011-2012	19
2012-2013	21
2013-2014	15
2014-2015	13

Iturria: *Ikasturteko memoriak*. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak eginda.

296. <http://www.mondragon.edu/eu/ikasketak/masterra/berrimet/> (Kontsultatua: 2016/02/15).

Master honetatik irtendako ikasleak:

Taula, 45: BERRIMET bukatutako ikasleak (2011-2014)

IKASTURTEA	IKASLEAK
2011-2012	8
2012-2013	2
2013-2014	8
2014-2015	15

Iturria: Idazkaritza akademikoa. Iñigo Arriaran. Egileak eginda.

Honen baitan, ezin da aipatu gabe laga, 2014ko maiatzean Unipanamericana unibertsitatearekin elkarlanean eta Kolonbiako Hezkuntza Ministerioak onartutako egitasmoa: "Programa de especialización en Diseño y Gestión de Prácticas Educativas Innovadoras".

2014-2015 ikasturtean memoriaren berrikuspina aurkeztu zen UNIBASQen, eta onartu egin zen. Horren harira, 2015ean egiaztatzea lortu zuen.

29.8. Hezkuntza testuinguru Multikultural eta Eleanitzetan (EKOMU)²⁹⁷

2010-2011 ikasturtean EKOMU Unibertsitate Master ofiziala antolatu zen. Bere helburu nagusia, %100 on-line izatea oztupo izan gabe, masterrean hezkuntza proiektu eta eredu pedagogiko koherentea bermatzea zen.

Masterrean 13 ikasle izan ziren: 7 ikerketa-ibilbidean eta 6 ibilbide profesionalean; bi ikaslek gaztelaniaz egin zuten eta osterantzekoek, euskaraz. Ikerketa ibilbideko ikasleen lanak iker-taldeetan txertatu eta, doktorego-programari begirako estrategia marraztu zen. Tutore-taldeari dagokionez, HUHEZIKo tutoreekin batera, Ignasi Vila Gironako unibertsitateko irakaslea ere taldekide izan zen. Ignasi Vilak eta Elizabeth Coelhok diseinatutako materialak balio gehigarria ematen zioten masterrari.

Bigarren edizioan, 2011-2012 ikasturtean, bederatzi ikasle izan ziren: 2 ikasle ikerketa ibilbidean, eta 7 ibilbide profesionalean. Bitxikeria bat; matrikulatu zen lehenengo atzerritarra Andorrakoa izan zen.

Master amaierako hiru proiektu aurkeztu ziren; hirurak ikerketa ibilbidekoak.

2012-2013 ikasturtean Masterraren hirugarren edizioa egin zen; 30 ikasle egon ziren: 15 ikasle lehenengo urtekoak, eta beste 15 bigarren urtekoak. Matrikulak ikerketa ibilbidean eta ibilbide profesionalean banatu ziren, 4 eta 11 ikasle, hurrenez hurren. Orotara, hirugarren edizio honetan 22 ikasle izan ziren ibilbide profesionalean,

297. <http://www.mondragon.edu/eu/ikasketak/masterra/hezkuntza-testuinguru-multikultural-eta-eleanitzunetan-master-ofiziala/> (Kontsulta: 2013/04/20).

eta 8 ikerketakoan. Soilik hiru ikasle matrikulatu ziren gaztelaniazko ibilbidean (katalan bat, Andorrako bat eta kolonbiar bat).

Guztira 12 Master Amaierako Proiektu (MAP) defendatu ziren uztaileko eta iraileko deialdietan (4 ikerketa-ibilbidean eta 8 profesionalean).

Aldi berean, bi jarraipen-txosten idatzi ziren Unibasquerako (2010-2011 eta 2011-2012 ikasturteei zegozkienak).

Masterraren kudeaketan honako atal hauek azpimarratuko ditugu: kanpoko bi irakasle esanguratsuk parte-hartu zutela (dagoeneko ezaguna dugun Ignasi Vila, Gironako Unibertsitateko kulturarteko aditua; eta Amaia Sesma, Berritzeguneko langile profesionala); Master batzordea eraberritu egin zela; praktikak eta MAP prozesuak sendotu zirela; eta kanpo-komunikazioa indartzeko ahalegina.

Taula, 46: EKOMU ikasle matrikulatuak (2010-2014)

IKASTURTEA	IKASLEAK
2010-2011	13
2011-2012	9
2012-2013	15
2013-2014	15
2014-2015	14

Iturria: *Ikasturteko memoriak*. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak eginda.

2014-2015 ikasturtea, masterraren bosgarrena, 25 ikaslerekin (14 lehenengo urtekoak, eta 11 bigarren urtekoak) hasi zen. Guztira, master amaierako 8 proiektu defendatu ziren (6 ikerketa ibilbidean, eta 2 profesionalean).

Esan behar da, EKOMUn 30 ECTS ingelesez egiteko aukera zabaldu zela.

Hauek bukatu zuten masterra:

Taula, 47: EKOMU bukatutako ikasleak (2010-2014)

IKASTURTEA	IKASLEAK
2010-2011	1
2011-2012	3
2012-2013	11
2013-2014	11
2014-2015	14

Iturria: *Idazkaritza akademikoa*. Iñigo Arriaran. Egileak eginda.

Hemen ere, 2015eko egiaztatze-prozesuko prestatze lanak egin ziren, eta urte bereko abenduaren 17an Unibas-
quen ordezkarien bisita izan zuten.

29.9. EKONOMIA SOLIDARIOAN MASTERRA (SARE. Garapenerako zubigintza)

Munduko Hegoaldeko herrialdeekin elkarlanean dauden proiektuetan urrats garrantzitsua eman zen 2009-2010 ikasturtean. Azken 10 urteetan, Mundukiderekin batera ikusi eta ikasitakoak abiapuntu hartuta, Ekonomia solidarioaren masterra eskaini zen lehenengoz. Master honetan, Latinoamerikako 16 esperientzia sozioekonomikoetako ordezkariak hartu zuten parte. Eskoriatzan egon ziren hiru hilabeteetan zehar, kudeaketa ekonomiko eta sozialari buruzko formazioa jaso zuten, esperientzia kooperatibo eta autoeratuak bertatik bertara ezagutu zituzten eta Hegoaldeko eta Iparraldeko esperientziak eta ezagutzak trukatzeko espazioak antolatu ziren. Master honek ikasleen jatorrizko herrialdeetan izan zuen jarraipena, parte-hartzaileek martxan jarri zituzten-eta Euskal Herriko egonaldian landutako enpresa proiektuak.

2012ko apirilean eta uztailen egin zen masterraren bigarren edizioa; Latinoamerikako 11 herrialdeetako 17 lagunek hartu zuten parte.

29.10. MCOOP. GIZARTE EKONOMIA ETA ENPRESA KOOPERATIBA UNIBERTSITATE-MASTERRA

MONDRAGON UNIBERTSITATEko Enpresagintza Fakultatearekin batera on-line eskainitako unibertsitate-master ofizial honek 11 ikasle izan ditu 2014-2015 ikasturtean. Ikasleria anitza izan da, Euskal Herria eta Espainiakoez gain Latinoamerika, Estatu Batuak eta Japoniakoak ere bertan izan direlako.

Master honen xede nagusia enpresa kooperatiboak eta oro har gizarte-ekonomiako enpresak kudeatzeko eta lidertzeko gaitasunak eta ezagutzak garatzea da; eta horretarako, kooperatibismoaren arlo ekonomikoa eta soziala lantzen da.

29.11. HIZKUNTZA KUDEATZEKO ADITU TITULUA

Hizkuntzaren garrantzia testuinguru formal eta ez-formaletan hain nabaria izanik, aditu-titulu honen bidez hizkuntza erakundeetan kudeatzeko irizpideak eman eta estrategiak diseinatzen ikasteko aukera eman nahi izan zen.

2002-2003 ikasturtean 6 ikaslerekin hasi zen martxan aditu-titulu hau. 2003-2004 ikasturtean, 4 ikasle egon ziren. 2004-2005 ikasturtean, matrikulatuta zeuden 12 ikasletik 7 ikaslek eskuratu zuten aditu-titulua, eta gainerakoek 2005-2006 ikasturtean bukatu zuten. Orduan amaitu zen aditu-titulua bera ere.

29.12. `EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOAN` (EKT) UNIBERTSITATE ADITU TITULUA

“ Hainbat urtez euskal kulturaren inguruan elkarrekin hausnartu ondoren, 2007an Arteola Egitasmoak eta Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateak erabaki zuten Euskal Kulturgintzaren Transmisioaz graduondo bat prestatzeko garaia zela. Jon Sarasuak azaldu zuen euskal eragileen artean zabalduriko kezka: “Nora goaz euskal kulturgintza moduan? Ez al daude hainbat krisi sintoma inportante? Ez al dugu asmatu gure hezkuntzan gure kulturgintzak eman duen ondarea transmititzeko bideetan? Hainbat gabezia ikusten ditugu geure kulturgintzan; oro har, ez daukagu plazarik, ez daukagu gogoeta gunerik, ez daukagu geure hezkuntzan transmisioa egiteko estrategiarik...” Ekimen horrek bi berrikuntza ekarri zituen: gogoeta gune hezitzailea sortzea, euskal kulturgintzaren inguruan aurrekaririk ez zuena, eta estatus akademikoa ematea euskal kulturgintzaren transmisioari ”²⁹⁸

XXI. mendeak zekarren aldaketa zein erronken aurrean, euskal kulturgintzaren transmisioa ipar duen formazio eskaintza sortu zuen HUHEZIK, lehenbizi, 2007-2008 ikasturtean (“gure kulturgintza modernoaren protagonistek, aditu eta arituek pilatutako esperientziaren transmisioa antolatu dugu”)²⁹⁹.

Zera diosku Julen Arexolaleibak, aditu tituluaren koordinatzaile nagusiak:

“ 2007-2008 ikasturtean eskaini zen, lehenbizi, Euskal Kulturgintzaren Transmisioa (EKT) aditu-titulua. Aurretiaz, Mondragon Unibertsitateko (MU) Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien fakultatean (HUHEZI) hitz egiten hasiak geunden euskal kulturgintzaren harira formazioa antolatzeko premiaz eta geneuzkan aukerez. Antzeko premiak antzematen hasiak zeuden, bestalde, Bilboko `ZENBAT GARA` elkarteak

298. <http://www.mondragon.edu/eu/ekt/aurreko-edizioak/ekt-1> (Kontsulta: 2014/11/14).

299. <http://www.mondragon.edu/eu/ekt>. (Kontsulta: 2013/04/20).

ren ingurumarian osatutako ARTEOLA fundaziokoak ere. Hala, bada, HUHEZiko eta Arteola-ko bulkadek bat egin eta abian jarri zen EKT, MUren Eskoriatzako campusean. MUren aditu-titulua izateaz gain, Eusko Jaurlaritzak 'Unibertsitateaz kanpoko irakasleentzako etengabeko prestakuntza-jarduerak' atalean dauka onartuta ”³⁰⁰

Ikasketa planari buruz, esan, aditu tituluaren iraupena 15 ECTSkoa zela (350 ordu) eta 4 bloke zituela: 1) Formazio teorikoa (adituak mintzo). 2) Testigantzen bidezko formazioa (arituak mintzo). 3) Tutore-mintegia (ikasleak mintzo). 4) Oldozpena eta ekoizpena (oro mintzo).

Aditu tituluari 60 ikaslek hartu zuen parte lehen saiakera hartan, eta horietako 45 ikaslek osatu zuten ikasturte amaierako proiektua.

Taula, 48: EKT: Ikasle kopurua (2007-2014)

IKASTURTEA	IKASLEAK
2007-2008	60
2008-2009	30
2010-2011	36
2012-2013	24
2014-2015	39

Iturria: *Ikasturteko memoriak*. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak eginda.

Azken urteetan, bi urtetik behin antolatzen da aditu-titulu hau. Azken aurreko ikasturtean (2012-2013), matrikula-tuen artean 11 emakume eta 13 gizon zeuden. Gehienak gipuzkoarrak, 16; bizkaitarrak 6 eta, arabarrak 2.

2014-2015 ikasturtea ere, aldaketekin iritsi zen: lehenengo aldiz egingo ziren saioak asteburuetan, hilean behin, larunbat goizetik igande eguerdira bitartean. Asteazkenean ezin zirenei atea zabaltzeko apustua egin zen.

29.13. KOOPERATIBAGINTZAN UNIBERTSITATE ADITU TITULUA

2008ko maiatzaren 16an abiatu zen Kooperatibagintzan Unibertsitate Aditu-tituluaren lehen edizioa. Graduondoko honek norabide bikoitzean egin nahi zuen ekarpena: batetik, ikuspegi sozial eta ideologikotik kooperatiba-

300. http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1348817616 (Julen Arexolaleiba).

gintzaren gaineko hausnarketa burutu eta kooperatibagintza biziberritzeko elementuak eskura jarri; eta bestetik, gure kooperatibetan ideia kooperatiboaren trakzio eta hedatze lanean jardungo zuten pertsonak prestatzeko baliabideak eskaini.

Oro har, ondoko hauek ziren Kooperatibagintzan Unibertsitate Aditu-tituluak erdietsi nahi zituen helburuak:

- Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren ezaugarrien inguruko ezagutza zabala eta sakona eskaintzea.
- Egungo gizartearen gaineko irakurketa gaurkotua eskaintzea kooperatibagintzaz hausnartzeko abiapuntu gisa.
- Kooperatibagintzaren barne dimentsioari begira, ikasleak parte hartze eta enpresa demokrasiaren eremuan trebatzea.
- Lankidetzaren psikologiatik erakunde eta pertsona kooperatiboaren gaineko irakurketa burutzea.
- Parte hartzaileak hezkuntza kooperatiboaren kudeaketan trebatzea.
- Etorkizunera begira kooperatibagintzaren galdegai eta erronken inguruko hausnarketa bultzatzea eta aterabide posibleak marrazteko baliabideak eskaintzea.

Hasieran, guztira, 28 ikasle matrikulatu ziren; Mondragon Taldeko kooperatibetako ordezkariak denak. 2009ko otsailean, proiektuen aurkezpenekin, bukatu zen lehen edizioa. Bigarren edizioan, 2009an, 17 ikasle egon ziren, gehienak Mondragon Taldeko kooperatibetako ordezkariak. Eta hirugarren edizioan, 2010-2011, 16 ikaslek.

2011-2012 ikasturtean laugarren edizioa eskaini zen. Bertan, 20 ikaslek hartu zuten parte, guztiak Mondragon Taldeko kooperatibetako erreferentziazko kideak. Aditu-titulu honen eraginez, 2012ko urtarrilean martxan jartzea erabaki zen "Komunikazioa Erakundeetan" aditu-titulua.

2012-2013 eta 2013-2014 ikasturteetan, berriz, 19 ikaslek, guztiak Mondragon taldeko kooperatibetako ordezkariak.

2014-2015 ikasturteko master honen zazpigarren edizioa egin zen. Guztira, Mondragon Taldeko kooperatibetako 15 ordezkari edo ikaslek hartu zuten parte.

Taula, 49: Kooperatibigintza: Matrikulatutakoak (2008-2014)

IKASTURTEA	IKASLEAK
2008-2009	28
2009-2010	17
2010-2011	16
2011-2012	20
2012-2013	19
2013-2014	19
2014-2015	15

Iturria: *Ikasturteko memoriak*. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak eginda.

Taula, 50: Kooperatibagintza: irtendako ikasle kopurua (2008-2012)

IKASTURTEA	IKASLEAK
2008-2009	26
2009-2010	16
2010-2011	17
2011-2012	20
2012-2013	17

Iturria: *Idazkaritza akademikoa*. Iñigo Arriaran. Egileak eginda.

29.14. KOMUNIKAZIO ERAKUNDEETAN ADITU TITULUA (ADITUKOM)

Arestian aipatu dugun bezala 2012 urtean zehar eskaini zen, lehenbizi, Blended erako aditu-titulua: ostegunero eskola presentzialak eta gainerakoa on-line bidez³⁰¹. Aditu-titulu hau proposatzeko arrazoia honako hau da: erakundeetan ere komunikazio fluxu berrien kudeaketa oso garrantzitsua bihurtu da, eta beraz, hori erakundeei jakinarazi eta duten eragina hautemateaz gain, ikasleak erakundeetako komunikazio jariora bideratzeko prestatu behar dira.

Guztira 12 ikasle matrikulatu ziren lehengo edizio honetan (2012-2013 ikasturtean). Bat izan ezik, bizkaitarra bera, gainerakoak gipuzkoarrak ziren. Euskaraz eskaini zen, eta ikastez gain lan ere egiten zuten. 2013-2014 ikasturtean, bigarren edizioan, 13 matrikulatu ziren.

301. <http://www.mondragon.edu/muplus/enpresen-zuzendaritza-eta-kudeaketa/marketinga/komunikazioa-erakundeetan-aditu-titulua/> (Kontsulta: 2013/04/20).

29.15. HIZKUNTZA PROIEKTUEN AHOLKULARIAK FORMATZEKO IKASTAROA

Ikastaro hau Kristau Eskolako kolektiboari zegoen zuzenduta. Erakunde honek HUHEZlri egindako eskaerari erantzun zion bere 2007-2008 ikasturteko lehen edizioan. Helburua, ikastetxeko Hizkuntza Proiektuaren garrantziaz, izaeraz eta prozesuaz jabetu eta bere eraikuntza prozesuan lider izateko gai izatea. Guztira, lehen saiakera honetan, 11 eskoletatik etorritako 13 arduradunek hartu zuten parte. Bigarrenean, 2008-2009 ikasturtean, 10 irakasle etorri ziren 10 eskolatik. 2009-2010 ikasturtean kopuruak mantendu egin ziren: 10 eskola, eta 10 irakasle.

Ikastaro honen testuingurua honakoa zen: Europatik zetozen markoak aintzat hartu behar ziren, eta Eskolak Eusko Jaurlaritzak hizkuntzen ikaskuntzaz markatzen zituen eskakizunei erantzun behar zien. Irizpide horien arabera, ikasleek gaitasun komunikatibo jakin batzuk lortu beharko zituzten DBH ikasketak bukatzen zituztenean. Eskola bakoitzak, beraz, bere hizkuntza proiektu propioa izan beharko zuen. Eta horri aurre egingo zion profesionala formatzea izan zen ikastaro honen helburua.

Ikastaroak urtebeteko iraupena zuen, eta modu honetan zegoen antolatuta:

1. Prestakuntza teoriko eta praktikoa: 120 ordu (zuzeneko prestakuntzarako 70 ordu, eta taldekako edo bakarkako lanetarako 50 ordu). Hamalau zuzeneko saio. Era berean, parte-hartzaileek astean 2 ordu ematen zituzten irakurketak, saiakerak, hausnarketak eta landa-lana egiten. Horrez gain, ikastetxeko talde batekin zenbait lan egiten zituzten.
2. Proiektua: tutoretzapeko bakarkako lanetarako 30 ordu izaten zituen ikasleak.

Prestakuntza teoriko eta praktikoarekin batera, parte-hartzaileek aholkularitza-proiektu praktikoa egiten zuten ge-roago eskoletan abian jartzeko. Horretarako, erakunde emailearen tutoretza izaten zuten.

29.16. JATORRIZKO HIZKUNTZEN ETA IDENTITATEEN BERRESKURAPENERAKO ADITU TITULUA

2010-2011 ikasturtean, HUHEZIk Garabide elkartearekin batera munduko Hegoaldeko komunitate indigenekin abian zituen prozesuetan urrats garrantzitsua egin zen: jatorrizko hizkuntzen eta identitateen berreskurapenerako aditu-tituluaren lehenengo edizioaren antolatu zuten. HUHEZIn Garapenerako lankidetzan eta Kultura eta euskararen normalizazioan ziharduten guneen zein Garabide Elkartearen artean garatutako aditu-titulu honetan, hizkuntza gutxituak zituzten Latinoamerikako 18 komunitate indigenetako ordezkariak hartu zuten parte. Euskal Herrian egon ziren hilabetetan zehar hizkuntzen ekologia eta soziolinguistikaz erlazionatutako gaiak zein hizkuntzen berreskurapenerako estrategia eta erremintak landu zituzten, baita euskalgintzako eragileekin esperientziak eta ezagutzak trukatu ere. Aditu-titulu honek ikasleen jatorrizko herrialdeetan izan du jarraipena, parte-hartzaileek haien herrialdeetan jarri baitzituzten martxan Euskal Herriko egonaldian landutako proiektuak.

Hala, 2014ko irailetik abendura egin zen 2. edizioa, eta 14 ikaslek hartu zuten parte: Guatemalatik (1), Mexikotik (2), Ekuadorretik (6), Kolonbiatik (3) eta, lehenengo aldiz Kurdistandik (1) eta Libiatik (1).

29.17. IKASKIDE TALDEAK FORMAZIO SAIOAK

“Ikaskide Taldeak” proiektua, ERKIDE-Irakaskuntza kooperatiba elkartearekin elkarlanean ari da egiten³⁰². Proiektu honen helburua da “elkarrekin bizitzen ikasi”, “elkarrekin ikasi” eta “elkarrekin egiten eta ekiten ikasi” kompetentzia orokorrak garatzea, eta hori lortzeko “Ikaskide Taldeen” metodologia erabiliko da.

2009an martxan jarri zen “Elkarrekin bizitzen ikasi: ikaskide taldeak”; proiektuan 14 ikastetxek hartu zuten parte. Metodologia hau ezartzera zuzendutako proposamenak lantzeko, esperimatzeko eta elkarrekin trukatzeko konpromisoa hartu zuten eta horretarako, formazioa eta aholkularitza jaso zuten HUHEZI fakultatetik. Formazio hau ikerketa-jarduera ildo metodologikoan zegoen oinarrituta, hots, gelako jardueren azterketan, hausnarketan eta hobetzeko proposamenetan. Esperientzia eta arlo desberdinetan garatu ziren proiektuak: Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Ziklo Formatiboetan.

Proiektuaren lehen fasea 2009-2010 eta 2010-2011 ikasturteetan izan zen.

2009-2010 ikasturtean bi faseekin lotutako jarduerak burutu ziren: batetik, esperientzian parte hartuko zuten irakasleei formazioa eman zitzaien (24 ordu); eta bestetik, ikastetxe bakoitzean esperimatzeko ziren Sekuentzia Didaktikoak diseinatu ziren. 9 ikastetxetan ari ziren esperientzia lantzen eta ordura arte esperimazio eremuan zegoena 2010-2011 ikasturtean egikaritu egin zen.

2012ko martxoaren 23an antolatu zuen IKASKIDE Taldeak bigarren jardunaldia. Jardunaldiaren gai nagusia Motibazioa izan zen. 80 pertsonak hartu zuten parte eta ondokoa izan zen gai-ardatza: “Elkarrekin ikasiz ikastearen atsegina eta gogoia sustatuz”.

2012-2013 ikasturtean 11 ikastetxek hartu zuten parte proiektuan. Proiektuari lotutako ikerketa-lan batek Gipuzkoako Foru Aldundiko laguntza jaso zuen “Ikaskidetzan oinarrituta eta sarean eraikiz, bizitza osorako eta guztiontzako ikaskuntzarako eredu metodologiko integratzailea (ikasare)” lanarekin. Ikerketa honen helburu nagusia ondokoa zen: Ikaskide Sarea eraikitzen erabilitako estrategia metodologikoen ezarpena dokumentatu eta ebaluatzea.

Hirugarren jardunaldia, 2013ko apirilaren 19an, ikastetxeetan garatutako proiektuen berri eman eta adituekin trukatzeko antolatu zen. “Ikaskide Taldeak Saretzen” izenburuarekin, 75 ikaslek hartu zuten parte jardunaldietan.

Mariam Bilbatuak, ikastaro honen koordinatzaileak, hitz egin digu formazio saio hauetaz:



IKASKIDE mintegia indartsu dago HUHEZIn eta erreferenteak izan gaitzke gure eremuan: nola indartu kooperazioa irakaste-ikaste prozesuan, alegia, elkarrekin ikasten, bizi-

302. <http://www.erkide.coop/index.php?id=eu> (Kontsulta: 2013/04/20).

tzen, gatazkak konpontzen... nola ikasi. Oso proiektu koherentea egiten ari gara. Beste kultura bat sortu nahi dugu, elkarrekin ikasten duen komunitate bat sortu; etorkizunean oso garrantzitsua izango da hori ”³⁰³

29.18. ZEHARKAKO KOMPETENTZIAK GARATZEN LANBIDE HEZIKETAKO ZENTROETAN

Bi dira elementu aipagarrienak testuinguru honetan. Alde batetik, HUHEZI fakultateak Tknika-rekin akordio orokor bat sinatu zuela. Akordio horren bidez, erakunde bien elkarlana bultzatu nahi zen: Lanbide Heziketaren esparruan kokatu, Formazio eta Ikerkuntza inguruko lanak aztertu eta garatzeko³⁰⁴. Beste aldetik, lortutako akordioaren ildo beretik, hiru urteko proiektu batean ari zirela lanean.

Honakoak izan ziren, 2009-2010 ikasturtean, talde eragileak landu zituen gain nagusiak: proiektuaren diseinua eta zehaztapenak, zeharkako kompetentzien azterketa eta konkretzioa, metodologia eta teknika desberdinen azterketa. Hortik abiatuta, 2010-2011 ikasturterako irakasleen formazioa izan zen ardatz nagusia: “ekintzan hezi” (*formación en la acción*) delako ikuspuntutik abiatuta, ahal den neurrian, ikastetxe eta geletan aplikazioak egiten joatea.

Proiektua bideratzen duen taldean Tknika eta HUHEZiko adituez gain, KEI-IVACEkoak³⁰⁵ eta Lanbide Heziketako bi ikastetxetakoak (Durangoko Maristak eta IMH³⁰⁶) ere badaude, ikuspegi zabal, anitza eta berritzailea eskaintzeko Lanbide Heziketako irakasleei.

29.19. HERRI HOBEAK GUZTIONTZAT: KOMUNITATEAREN PARTAIDETZA KALITATEZKO HEZKUNTZARAKO GILTZA

HUHEZIn antolatutako Topaketa Hezitzaileen helburua, topagune izatea eta esperientziak partekatuz ibilbideak aberastea izan zen. Elkarlanean antolatutako topaketak izan ziren -Mondragon Unibertsitateak (HUHEZiko BETA eta Heldu Ikerketa-Taldeak) eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismoko departamentuak-. Interes-gunea edo gai nagusia, eskolatik haratago, auzoan, herrian gertatzen diren ikaste-esperientziei leku eta bide emango dieten hezkuntza-egitasmoetan pentsatzen hastea izan zen. Jardunaldietan 42 parte-hartzaile izan ziren. Harrera eta aurkezpen instituzionalak egin ostean, Heldu Ikerketa-Taldeak egindako lanaren eta HUHEZiko ikerlerroen arteko loturak zeintzuk ziren adierazi zuten.

303. Mariam Bilbatuarekin elkarrizketa: 2014/02/14.


304. Tknika Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzak bultzatutako zentroa da. <http://www.tknika.net/liferay/> (Kontsulta: 2013/04/20).

305. 119/1998 Dekretuak, ekainaren 23koak, (EHAAren 130 zk., uztailaren 13koa) KUALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTUA sortu zuen. (Kontsultatua: 2014/11/14).

306. IMH (Makina Erramienta Institutua): <http://www.imh.es/eu> (Kontsultatua: 2014/11/14).

2011-2013 ikasturtean zehar egindako ikerketa-proiektuen emaitzak partekatu ziren: "Herri eta hiri hezitzaileak Gipuzkoan: kohesiorako agertokiak azterketa eta proposamen ildoak" eta "Herri hobeak guztiontzat: komunitatearen partaidetza kalitatezko hezkuntzarako giltza". Bideokonferentzia bidez, Mireia Cívís doktoreak Pedagogia Komunitarioaren esparruan kokatu zituen egitasmo hauek, eta ostean, esperientzia eta praktika on edo jardunbide egokiak partekatu ziren (Ordizia Hiri Hezitzailea, Estella-Lizarra Hiri Hezitzailea eta Arrasateko Haurrasate egitasmoa). Hezkuntza proiektu komunitarioetan eragileek (erakundeek, hezkuntza-eragileek, ikastetxeek, unibertsitateak...) jokatu beharreko paperaz hausnarketa eginez amaitu zen jardunaldia³⁰⁷.

307. Ildo beretik sortu zen HUHEZIn "Herrien Europa" mintegia 2000. hamarkadaren hasieran. Eta hezkuntza sistema osoan Herrien Europaren berri izatea haur eta gazteek xede zuela sinatu zuten martxoaren 5ean proiektua Europako Herrien Fundazioak, HUHEZIK eta Ihardun Multimendiak. Bost urte iraun zuen hitzarmenak.



1

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa (EKT). Aditu tituluko 5. edizioko partaideak.

2

Aditukom 2013.

3

Kooperatibigintzan Aditu titulua.

4

EKT-GARABIDE argitalpena.

30. HIZKUNTZA POLITIKA

Arestian aipatu dugu Irakasle Eskola hasiera hasieratik izan zela gai euskararen defentsan (eta euskal kulturarekiko) atxikimendua adierazteko, kontzientziazioan eragiteko eta hori dena ikasketa plangintzan jaso eta martxan jartzeko.

Baina, zer esan dezakegu MONDRAGON UNIBERTSITATEaren testuinguru berria kontuan hartzen badugu? Nola kokatzen da hor HUHEZI? MONDRAGON UNIBERTSITATEAk bere egin zuen euskara hedatzearen erantzukizuna eta euskara haien jardunaren ardatz bilakatzea; hala zioen, behintzat, Unibertsitatearen 97/98ko Plan Estrategikoak.

Euskararen erabilerari dagokionez, hau zen HUHEZIn zegoen egoera 1998-1999 ikasturtean:

“*Irakasleen arteko zein ikasle eta irakasleen arteko harremanak, nagusiki, euskaraz dira. Edozein kasutan, ahozko harremanen arlo honetan badago zer hobetua. Azken honen adierazletzat har daiteke langileen %70ak euskara fakultatean erabiltzen dena baino gehiago erabili daitekeela pentsatzea. Halere, ikasleen %80 inguru eta langileen %76,5 konforme dago euskararen alorrean fakultatearen aldetik jaso duenarekin*”³⁰⁸

Hori euskararen erabilerara sustatzeko eginiko diagnostikoa bazen ere, 2006an Emun kooperatibari eskatu zitzaion HUHEZIn diagnostiko zehatz egiteko eta laguntzeko euskara plan egoki bat diseinatzen. Emun-ek egindako diagnostikoan agertzen denez, gure fakultatean euskararen ezagutza %100ekoa izanda ere, erabilera %82koa zen. Eta ikusi zen bazirela eremu batzuk bereziki landu beharrekoak. Beraz, hutsune horiek konpontze aldera eratu zen Euskara Batzordea. Hizkuntzari dagokionez, bi zutabetan oinarritu zen hizkuntza plangintza: nolako hezkuntza eredu nahi genuen, eta zein zen gure harremana hizkuntzarekin.

308. EMUN, Koop. (1997): Euskararen egoeraren diagnostia MONDRAGON UNIBERTSITATEAn. Dokumentu soltea (105 or.).

Egindako diagnosia aintzat hartuta, gestio planean hainbat helburu planteatu ziren eta horren arabera egitasmoak gauzatu ziren. Hona hemen batzuk:

1. Inplikatu langileak eta ikasleak euskararen normalizazioan.
2. Hobetu langileon hizkuntza kalitatea.
3. Bermatu hizkuntzaren kalitatea fakultatean.
4. Adostu eta garatu MONDRAGON UNIBERTSITATEko euskara planen markoa.
5. Lortu finantzabideak euskara plana kudeatzeko.

Ikasleei begira, 2007-2008 ikasturtean jarri zen abian Euskara Protokoloa; 2008-2009 ikasturtean beste izen bat eman zitzaion: LANDUIZU laguntza-zerbitzua. Kontuan hartuta ikasleen profil soziolinguistikoa zertxobait aldatu egin zela, eta ikusita bazela ikasle multzo bat hizkuntza-baliabideen premia zuena, horiei zuzendutako ekimen gisa sortu zen Euskara Protokoloa. Estreinaldian, 50 ikasle egon ziren lanean 2009-2010 ikasturtean laguntza-zerbitzu honetan. 2010-2011 ikasturtean, 43 ikasle.

Hala ere, ikasketen arabera hizkuntza-jomuga ezarri zitzaizkien ikasleei. Irakasle Ikasketetan Hizkuntzen Portfolio Europarrean proposatutako C1 mailarako hizkuntza-helburuak ezarri ziren. Ikus-entzunezko komunikazioan C2 mailako helburuak ezarri ziren.

2008-2009 ikasturteko lana, berriz, bi egitasmo nagusiren inguruan gauzatu zen: BIKAIN ziurtagiria lortzea eta langileei hizkuntza-formazioa eskaintzea. Ildo horretan, BIKAINen urrezko ziurtagiria lortu zuen HUHEZIK, eta hainbat formazio-saio antolatu zituen.

2010-2011 ikasturtean, berriz, HUHEZI gero eta eleaniztunagoa zela kontuan hartuta, estatutuak berrikusi eta bertsio gaurkotua onartu zuen Batzarrak. Estatutu horietan honako berrikuntza hau gehitu zen: "5. Artikulua. Euskara da lan -eta erabilera-hizkuntza ofiziala. Gaztelania eta ingelesa ere badira erabilera-hizkuntzak". Eta hala, HUHEZIK definitu zuen bere curriculumean abiapuntuko hizkuntza-irizpidea: % 80 egingo zen euskaraz, %10 gaztelaniaz eta %10 ingelesez.

30.1. EUSKARA TALDEA

Ezaguna da, euskararen ezagutza gure artean nabarmen igota ere, erabilera gero eta murriztagoa dela. Horren isla dira Eskoriatzako eta Aretxabaletako Fakultateak ere, batean zein bestean gaztelania bihurtu delako ikasleen arteko komunikazio ez formalean hizkuntza nagusia. Horri begira sortzen da Euskara Taldea 2014-2015 ikasturtean; euskararen erabilera sustatzeko eta HUHEZIKo kultur dimentsioa sendotzeko. Talde hau, ekintza plan bati atxikita, hainbat ekimen ari da martxan jartzen.

31. EKONOMIA ETA LANGILERIA

Ekonomia eta langileria kontzeptuak, edozein erakundetan, elkarrekintzan ari diren bi aldagai garrantzitsu dira.


Enpresa baten bilakaera neurtzeko erabiltzen diren adierazle garrantzitsuak dira diru sarrerak eta irteerak, zenbat langilek lan egiten duten jakitea... datu horiek guztiak adierazten digute enpresa baten negozio handitasuna zenbatekoa den. Gurea ere enpresa bat da, nahiz eta gure helburu soziala irabazi asmorik gabeko erakunde batena izan, eta horregatik begiratzen diogu arretaz sartu eta irteten den diruari, eta zelan ez, baita langile kopuruaren bilakaerari ere.

Zein izan da, ekonomia eta langileriarri dagokienez, HUHEZIren azken ikasturteetako bilakaera?

31.1. EKONOMIA (1997-1998 ikasturtetik 2013-2014 ikasturtera)

Saiatu gara lan honetako lehenbiziko atalean, Irakasle Eskolaren hasierako urteetako egoera ekonomikoa ezagutu eta ulertzen. Orain, 1997an MONDRAGON UNIBERTSITATEA sortu eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultate bihurtzeak arlo ekonomikoari zer ekarri dion jakitea ere interesgarria delakoan, lehenik, azken ikasturteetako (1998/1999tik 2012/2013ra doazen) diru sarrera eta irteeren emaitzak zeintzuk izan diren adieraziko ditugu, eta bigarrenik, egindako inbertsioei eta finantzaketari erreparatu diegu.

Grafikoa, 30: Diru sarrerak eta gastuak (1998-2013)




Iturria: Finantza burua. Ainhoa Leturiaga. Egileak eginda.

Grafikoan argi agertzen den lehendabiziko ardatza, negozio bolumena urtez urte igo dela da. Esku artean dabilgun diru kopurua gero eta handiagoa da. Diru sarreretan ikus daiteke igoera hori: 1998/1999 ikasturtean 1.667.178 euro, 2012/2013 ikasturtekoan igoera benetan nabarmena da: 8.230.640 eurokoa. Apur bat gehiago 2013/2014 ikasturtean, 8.250.606.

Gastuei erreparatuz gero, beste hainbeste esan genezake. 1998/1999 ikasturtean 1.637.653 euroko gastuak izan ziren, 2012/2013 ikasturtekoak, berriz, 7.877.655 eurokoak. 2012/2014 ikasturtekoak nahikoa antzekoak izan ziren, 7.937.790.

Baina gastuak zeintzuk dira? Zeri atxikita, eta zein kopurutan? Galdera hauei erantzuteko 2014-2015 ikasturtekoak hartuko ditugu aintzat:




Iturria: *Finantza burua*. Ainhoa Leturiaga. Egileak eginda.

Grafiko honetan antzeman daitekeen bezala, pertsonal gastuak (%72) dira handienak.

Ikasturte bateko sarrera eta gastuak zedarrantzea, izandako irabaziak edo galerak argitzeko bidea da. Arestian behatutako 30. grafikoan ondorioztatu daiteke, beraz, aipatutako ikasturteetako balantzea oso positiboa izan dela. Hona hemen aipatzen ari garen ikasturteei begirako emaitzak:

Grafikoa, 32: Emaitzak (1998-2014)



Iturria: [Finantza burua](#). Ainhoa Leturiaga. Egileak eginda.

Esanguratsua da 2006-2007 ikasturteak irabaziek hartzen duten joera positiboa, batez ere ondorengo bi ikasturteetan: 2009-2010ean 318.375 eurokoa, eta 2012-2013an 352.985 eurokoa. Bide batez, 2013-2014 ikasturteko emaitzetan jaitsiera txiki bat sumatzen bada ere, balantzea oso positiboa da. Gradu berrien ezarpenak eragindako ikasleen matrikulazio igoerak, nahiz kanpoko zerbitzuen ugalketak eta unibertsitate planak eragindako diru sarre-
rek ere badute egoera honetan zerikusirik.

Egiten ari garen alderaketa honen bi muturrak aurrez aurre jarrita, honela banatzen dira ehunekoetan 1998-1999 eta 2012-2013 ikasturteetako sarreraren jatorriak:

Taulara, 51: 1998-1999 ikasturteko SARREREN JATORRIA

SARREREN JATORRIA	%
Gradu eta gradu-ondoko aktibitateak	% 57
Sarrera osagarriak	% 37
Ustiapen diru-laguntzak	% 1
Emaitzari transferitutako kapital diru-laguntzak	% 5

Iturria: [Finantza burua](#). Ainhoa Leturiaga. Egileak eginda.

Taula, 52: 2012-2013 ikasturteko SARREREN JATORRIA

SARREREN JATORRIA	%
Gradu eta gradu-ondoko aktibitateak	% 65
Kanpoko zerbitzuak	% 12
Ikerketa eta transferentzia	% 6
Kontratu programa	% 13
Emaitzari transferitutako kapital diru-laguntzak	% 4

Iturria: [Finantza burua. Ainhoa Leturiaga. Egileak eginda.](#)

Azaltzen diren kopuruak alderatuz gero, eta 2012-2013 ikasturteko gradu eta gradu-ondoko sarrerak aintzat hartuta, hamarretik 6,5 suposatzen du. 1998-1999an 5,7 suposatzen zuen. 2013-2014 ikasturteko datuen arabera, aipatutako sarrerak %70 suposatzen du, hamarretik 7. Beraz, ikasleek gaur ordaintzen dituzten kuotak sarrera estrategikoak dira Erakundearentzat, eta finean, ikasle-matrikulen gorabeherek eragin handia izan dezakete gure azken kontu emaitzetan. Dena dela, azken urteetako matrikula kopuruaren bilakaera onak eragin oso positiboa izan du aurrekontuetan.

Sarrera osagarrietan, berriz, non kanpoko zerbitzuak eta ikerketa zein transferentzia ere biltzen diren, sarreraren beherakada hautematen da. 1998-1999 ikasturtean %37ko beherakada izan zuen, eta 2012-2013 ikasturtean %18koa³⁰⁹. Beraz, atal honetan, ia 20 puntuko jaitsiera eman da.

Datu garrantzitsua da ere ustiapen diru-laguntzei dagokien atala. Eusko Jaurlaritzak sustaturiko Kontratu Programatik diru-laguntzak jasotzen dira (Unibertsitate Plana). Programa hau 2006an hasi zen martxan eta 2010era arte iraun zuen. Bigarrena oraintxe bukatzeaz dagoena da (2010-2014). Eta azken hau bukatu aurretik, hirugarren plana (2015-2018) hastear dagoenez, Eusko Jaurlaritzarekin negoziatzen ari gara. Datuak begiratu gero, 1998-1999 ikasturteko ustiapen diru-laguntzak aurrekontu orokorraren %1 suposatu zuen, eta 2012-2013ko sarreretako kontratu programa, berriz, %13koa izan zen.

Ezin bukatu atal hau, inbertsioen finantzaketarako erakundeek eskainitako laguntzak aipatu barik. Hiru erakunde ekarriko ditugu gogora: MCC-Fepi³¹⁰, Administrazio Publikoak eta Gizabideak emandakoak.

- Hala, 1998-1999 ikasturtetik 2012-2013 ikasturtera arte, MCC-FEPIk 3.834.639 eman dizkio HUHEZlri hainbat inbertsio egiteko. Kopururik handiena, 2010-2011 ikasturtean emandakoa izan zen: 905.702 euro. Hemendik, 782.534 euro, Aretxabaletako campuserako izan zen³¹¹.

309. Kopuru hau era honetan banatzen da: %12 kanpoko zerbitzuak, eta %6 ikerketa eta transferentzia.


310. FEPI (Fondo de Educación y Promoción Intercooperativa). Bere helburua hezkuntza eta kooperatiba nahiz enpresa formazioa sustatzea da. Korporazioko hezkuntza zentrueri, ikerketa eta garapen teknologiko egitasmoeri ere laguntzeko sortutakoa da. Euskadi Kutxak baliabideen %50 eskaintzen dio funtsari, eta gainontzeko kooperatibak %20ekin. 1997tik 2005ra muga hartuz, 56 miloi euro baino gehiago erabili dira funts horretatik MONDRAGON UNIBERTSITATEko eta beste kooperatibetako inbertsio beharrak asetzeko. Iturria: Cuadernos de Principios Cooperativos. *Intercooperación*, nº 7, mayo, 2005.

311. Hala ere, Aretxabaletako Campus berria eraikitzeko izan zen bestelako diru-laguntza garrantzitsu bat aipatu behar da: Mondragon Taldeak 2011-2012ko ikasturtean eskainitakoa. Guztira, 490.888 eurotakoa.

- Administrazio publikoak inbertsioetarako emandako laguntza, guztira, 435.593 eurokoa izan zen.
- Gizabideak hasieran emandako laguntza, guztira, 75.802 euro.

Hauak dira, atalez atal 2011tik 2013-2014 ikasturtera izandako diru-sarrera nagusiak ehunekoetan:


Grafikoa, 34: Sarrera iturriak ehunekoetan (2011-2013)



Iturria: [Finantza burua](#). Ainhoa Leturiaga. Egileak eginda.

Zehatzagoak, berriz, 2014-2015 ikasturtekoak:


Grafikoa, 35: Sarrerak ehunekoetan (2014-2015)



Iturria: [Finantza burua](#). Ainhoa Leturiaga. Egileak eginda.

Dena dela, HUHEZiren berezko funtsak ere garrantzitsuak izan dira inbertsioei erantzuteko. Hauek dira berezko funtsen diru erabilera kopuruak 1998-1999 ikasturteetik aurrera:

Grafikoa, 33: Inbertsioak eta Finantzaketa: Berezko Fondoak (1998-2012)



Iturria: *Finantza burua*. Ainhoa Leturiaga. Egileak eginda.

Beraz, HUHEZIK, aipatutako urteetan berezko funtsetatik inbertsioetarako jarritako diru kopurua 4.554.435 eurokoa izan da: funtsaren erabilerarik handiena Aretxabaletako campusa martxan jartzeko izan zen (2010-2011 ikasturtean 757.643 euro eta 2011-2012an, berriz, 809.784 euro)³¹².

31.2. LANGILERIA

MONDRAGON UNIBERTSITATEA sortzeak langileen kopuruan ere aldaketa ekarri zuen. Ezinbestekoa zen HUHEZIK aurrean zituen egitasmoei erantzun ahal izateko. Langileei dagokienean, ordea, irakasleez gain administrazio eta beste zerbitzuetako langileak ere aintzat hartu behar dira:


Taula, 53: Langileria HUHEZIn (1999-2014)

IKASTURTEA	LANGILE BAZKIDEAK	LANGILE KONTRATATUAK	BEKADUNAK	GUZTIRA
1999/00	24	7	12	43
2002/03	34	27	10	71
2003/04	37	24	11	72
2004/05	48	15	11	74
2005/06	51	13	10	74
2007/08	47	28	8	83
2009/10	53	43	7	103
2010/11	57	50	5	112
2011/12	66	37	7	110
2012/13	72	27	11	110
2013/14	74	21	11	106
2014/15	78	31	11	120

Iturria: *Ikasturteetako memoriak*. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak eginda.

312. Esan behar da, 2011-2012 ikasturtean 1.800.000 eurotako kreditu poliza bat eskatu zela eraikuntza berriari aurre egiteko.

Grafikoa, 36: Langileria HUHEZIn: bazkideak, kontratatatuak eta bekadunak



Iturria: *Ikasturteetako memoriak*. Irakasle Eskola-HUHEZI Artxiboa. Egileak eginda.


Kopuru hauetatik bi ondorio ateratzen ditugu: lehenik, bazkideak direla langileri osoaren %65; bigarrenik, bazkide kopurua (eta ia langileri osoa bera ere) hirukoiztu egin dela 1999tik 2012ra bitartean. Dena dela, HUHEZIn proiektuan ezinbestekoak dira kolaboratzaileak; 52 izan direnak 2015-2016 ikasturtean. Argi dago, beraz, azken urteetan HUHEZIK bizi duen oparotasunaren aldagaiak direla.

32. GESTIO UNITATE BERRIA

2009-2010 ikasturtean aurreko ikasturtean diseinatutako antolaketa berria jarri genuen abian.

Antolaketa-eredu honen abiapuntuan konfiantza, parte-hartzea, komunikazio gardena, autonomia maila handiagoa eta horizontaltasuna daude. Azpiko organigraman ikusten den bezala, gure interesguneak kontuan harturik, hiru gestio-unitate zituen HUHEZik: Hezkuntza, Komunikazioa eta Lankidetzaz.

Ilustrazioa, 2: Gestio unitate zaharra




Iturria: Zuzendaritza.

Gestio-unitate hauek guneetan antolatuta zeuden, eta HUHEZiko langileak ezagutza-arloen arabera biltzen ziren guneetara. Gestio-unitate bakoitzeko koordinatzaileek osatzen zuten zuzendaritza. Eta gestio-unitate bakoitzeko koordinatzaile orokorra HUHEZiko Zuzendaritza Kontseilu Hedatuan zegoen.

2010-2011 ikasturtea antolaketari buruzko hausnarketarekin abiatu genuen. Antolaketa eredu berriaren ondorioz, sei gune eratu ziren Hezkuntza Gestio-Unitatean. Egoera aztertu ondoren, erabaki zen sei gune horiek lau gunetara murriztea; horrenbestez, honako lau gune hauek osatzen dute gestio-unitatea: Ikaste-irakaste Prozesuak, Haurtzaroaren Ongizatea, Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika eta, azkenik, Kulturaren eta Euskararen Normalizazioa.

2014-15 ikasturtean berriz, dekanu berria aukeratu zen, eta horrek zuzendaritza eta antolaketa berria ekarri zuen. Hona hemen antolaketa eta zuzendaritza kontseilu berriaren organigrama eta osaketa:

Ilustrazioa, 3: Gestio unitate berria



Iturria: Zuzendaritza 2014

Taulan hautematen den bezala lau lerrotan (*Lankidetzeta; Berrikuntza eta Esku-Hartzea Testuinguru Kulturantz eta Eleanitzetan; Berrikuntza eta Esku-Hartzea Hezkuntza Inklusiboan; eta Komunikazioa*) egituratzen da gestio-unitate berria.

Zuzendaritza Kontseilua, berriz, pertsona hauek osatzen dute: Begoña Pedrosa: Dekanoa; Arantza Ozaeta: Zuzendari Akademikoa; Eneritz Garro: Berrikuntza eta Esku-hartze testuinguru eta kulturantz eta eleanitzetan lerroko zuzendaria; Agurtzane Martinez: Berrikuntza eta Esku-hartzea hezkuntza inklusiboan lerroko zuzendaria; Joserra Vitoria: Ikerketa eta Transferentziako zuzendaria; Andres Gostin: Komunikazio lerroko zuzendaria; Ainara Udaondo: Lankidetzeta lerroko eta Etengabeko Prestakuntzako zuzendaria; Ainhoa Leturiaga: Finantza zuzendaria.

33. BESTE EKINTZA AIPAGARRI BATZUK

Bata zein bestea hezigarriak, hezkuntza formala eta ez-formala ahalik eta ongien uztartzen saiatu da historian zehar IE-HUHEZI.

Eta ez-formalari begira, makina bat ekintza solte edota finkoak antolatu edo antolatzen dira. Hemen dagoeneko aspalditik errotuta dauden hiruzpalaurekin bat egingo dugu: Literatura astea edo topaketak, kirol zerbitzua eta ekintzak, eta Fakultatearen jai-eguna nahiz urteroko txangoa.

33.1. LITERATURA ASTEA (LITERATURA TOPAKETAK)

Ekintza aipagarrienetakoa Literatura Astea (gaur topaketa) da. Bere hasierako helburu nagusiak honakoak ziren: (1) idazleen eta gizartearen arteko loturak sendotzea, (2) kontaktu zuzena sustatzea, (3) literaturarekiko (bereziki euskal) ezagutza handitzea eta (4) gehiago irakurtzen duen gizarte bat, gizarte jantziagoa, bultzatzea. Oinarri oinarrian, ordea, (5) euskara eta gozamina uztartu eta euskararekiko atxikimendua handitzea zen.

1997-1998 ikasturtean HUHEZIn sortutako proiektuaren bultzatzaile nagusia Arantza Ozaeta izan zen. 2001 urterako egonak ziren gurean Joxe Anton Artze, Andoni Egaña, Bernardo Atxaga, Arantxa Iturbe..., baita gaztelaniaz idazten zuen Espido Freire ere.

Hasieran autofinantzatzeko helburuarekin sortu bazen ere, bailarako enpresen laguntza jasotzen hasi zen.

Lehendabiziko bi urteetan landutako gaiak orokorrak izan ziren; gainerakoetan gai monografikoak aztertzen hasi zen Literatura Astea. Hauek gaiak:

Taula, 54: Literatura astea eta gaitegia (1997-2015)

EDIZIOAK (IKASTURTEAK)	GAITEGIA
1997-1998	Literatura astea
1998-1999	Literatura astea
1999-2000	Errealitatea idazlearen esku artean
2000-2001	Literatura eta umorea
2002-2003	Literatura eta erotismoa
2003-2004	Literatura eta filosofia
2004-2005	Literatura eta bidaia
2005-2006	7 Bekatu nagusiak
2006-2007	Literatura eta itzulpena
2007-2008	Play-stationaren belaunaldia? Xxi. Mendeko gazteak eta poesia
2008-2009	Literatura eta idazle sekretuak
2009-2010	Far westeko euskal ahotsak
2010-2011	Haur literatura: helduentzako literatura
2012-2013	Pre(nt)sa(n)ko literatura
2013-2014	Literatura eta kazetaritza
2014-2015	Herri ipuinak eta mitologia
2015-2016	Zergatik irakurri klasikoak?

Iturria: Arantza Ozaeta. Egileak eginda.

Lehenengo 11 edizioak astebetekoak izan ziren, 12.ediziotik aurrera literatura topaketak egun bakarrean egiten dira.

33.2. KIROL ZERBITZUA ETA EKINTZAK

Hala ere, “mens sana in corpore sano” leloa jarraitu nahian edo, makina bat ekintza ere antolatzen saiatu da azken urteetan aisialdiari eta kirolari arreta jarritz.

1998ko Kirol Legea aintzat hartuta³¹³ Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordea eratu zen, eta ordutik hona MONDRAGON UNIBERTSITATEA batzorde horretako kide da. Egitasmo honetatik sortu zen MUra begirako kirol zerbitzua. Hauek helburuak:

313. <http://www.euskadi.net/bopv2/datos/1998/06/9802891a.pdf>. (Kontsulta: 2013/04/20).

1. Jarduera fisikoa, kirola eta osasun jardueren bitartez bizi unibertsitarioa garatzen laguntzea.
2. Jarduera fisikoa, kirola eta osasun jardueren bitartez langileen arteko eta ikasleen arteko harremanak gauzatu eta hobetzeko bideak ematea.
3. Mendeberrri hezkuntza proiektuak jasotzen dituen balioak kirolaren eta gorputz ekintzen bidez garatzeko bidea ematea.
4. MONDRAGON UNIBERTSITATEAn bizimodu aktiboaren kultura hedatzea.
5. Unibertsitate ezberdinen arteko erlazioa garatzea Unibertsitate Kirolaren bitartez.

Harrez geroztik makina bat kirol jarduera antolatu dira MUko Fakultateetan:

1. Ikasleei zuzendutakoak. Txapelketak (1)³¹⁴, irteerak eta ikastaroak (2), hobetzeko atal saioak (3) eta ekintza osagarriak (4).
2. Langileei zuzendutakoak. Osasun programa edo mantentze gimnasia, eta ikastaroak.

Estrategikoa izan zen Eskoriatzako udalarekin izandako harremana eta honen bidez lortutako aukerak, besteak beste sarreretan lortutako beherapenak.

33.3. TXOMIN “TXAPEL” EGUNA

Ezin esan garai bateko Irakasle Eskolak, hezkuntza erakunde hainbatetan ohikoa den urteroko jaia ospatzeko ohiturarik izan duenik. Hala aitortu digu, behintzat, Jesus Garmendiak. Hala ere, Mondragon Unibertsitatearen sorrerarekin batera iritsi zitzaion HUHEZI fakultate berriari jaia egin eta ospakizunerako eguna -Arrasateko Goi Eskola Politeknikoan (*San Pankrazio*) edota Oñatiko Enpresagintzan (*Lore Festa*) maiatzean zehar ospatzen ziren (eta diren) bezala-. Azterketak iritsi aurretik indarrak hartu nahian edo, maiatzaren hirugarren ostegunean egun osoko jaia antolatzeari ekin zion Eskoriatzako Fakultateak.

1997-1998 ikasturtean Irakasle Ikasketa eta Humanitateak eta Enpresa (HUEN) karrera egiten ari ziren ikasleei sor zaie ekimen hori. Ikasturte hartan irakasle ikasketetako hirugarren eta azken ikasturtea egiten ari zen Jon Ander Loidik

314. Barne txapelketak; MONDRAGON UNIBERTSITATEko kirol txapelketa; Euskadiko Unibertsitate kirol txapelketa; estatuko unibertsitate-kirol txapelketa; Gipuzkoako unibertsitateen arte Herri Kirolen txapelketa.

ondo gogoratzen du lehendabiziko antolaketa hartan nola aritu ziren, bera eta bere ikaskidea zen Jose Ramon Eskibel, jai eguneko 'Txomin' jaisteko tirolina prestatzen. Ondoren, HUEN lizentziaturaren bigarren promozio-koa izan zen Beñat Azurmendik adierazten digu eurei -etorri berriei- 1998ko irailean egin zitzaien 'nobatada' edo ongi etorrian ere sumatu zutela denon artean elkarrekin zerbait egiteko eguna iritsi zela, eta "jai honen bidez, HUEN karrerak sustatu nahi izan zituen talde lana, elkartu beharra, ikasle aktiboa izatea ... bezalako gaitasunak martxan jarri".

Lehendabiziko ospakizuna eta ondorengoak antolatzeko, Aste Santuetako oporren ondoren egiten omen ziren lehendabiziko bilerak; horretarako beren-beregi antolatutako ikasleen komisioko aurrekontua diseinatzen zuten eta dekanuari jakinarazten zion. Oniritzia ere berehala jasotzen zuten ikasleek, zuzendaritzatik begirunez ikusten zutelako horrelako egitasmo bat Eskoriatzan ere martxan jartzea.

Ekintza esanguratsuen kable baten bidez jaisten zen panpina izan zen, Gasteizko Zeledonekin urtero egiten den bezala. Panpinari izena jarri behar zitzaionez, hasiera batean 'Txomin' jarri zitzaion. Panpinena ez zen arrotza Fakultate berriarentzat, Irakasle Eskolan oso ospetsuak izan zirelako 'Maddi' eta 'Piti' izeneko panpinak ere; bata zein bestea bideo didaktikoak animatzeko erabili ziren. 'Txomin' izena zergatik jarri zitzaion ez dakigun arren, badirudi 'txapel' jendeak buruan musu zapi bat edota txapel edo kapela bat jartzeko ohituragatik izan zela. Arrazoa, batez ere, bazkalorduan maiatzeko eguzki berotik babestea izan zen, nahiz eta batzuetan, euriaren beldur, bazkaria klaustroaren ondoko espazioetan egin behar izan.

Behin panpina jaitsita, pregoia irakurtzen zuten pregoilari batek. Lehenengotako pregoilaria, lehenengoa ez bada, Julen Arexolaleiba izan zen. Gero etorri ziren Jesus Garmendiak iraurritako pregoiak. Pregoilari lanak, baina, ez ziren doinu gabekoak izaten, eta hor aritu ziren hasiera hartan Xabier Arregi eta Pello Añorga Julenen, eta ondoren Jesusen hitzak musikaz alaitzen. Aldi berean literatura lehiaketa ere antolatzen hasi zen Arantza Ozaeta, eta jai egun berean komikia, poesia eta bertso onenak saritzen ziren. Sari banaketarako, gainera, Xabi Arregik, Pello Añorgak, Amelia Barquinek eta Arantza Ozaetak performance bat prestatzen zuten musika jo bitartean testu irabazleak erreztatuz. Giro magikoa sortzen zen!

Beste hainbat ekintzen artean kalejira ere izaten zen, eta herrian zehar, edo hobeto esanda bertako tabernetan zehar, alaitzen zuten eguna bazkalordua iritsi arte. Bazkaria kanpotik ekartzen zen, Auzolagunetik, eta ondoren hainbat ekimen egiten ziren; iluntze aldera musika talderen baten aktuazioarekin amaitzen zen jai eguna. Hasiera haietan jo zuten musika taldetako bat 'Enebada' izan omen zen, baita 'Lorelei' edota Hernaniko 'Trikitake' taldea ere. Kalejiretako triki-poteoak ere egiten ziren.

1998ko urteko jaiak, lehendabizikoa, oraindik egokitzeke zegoen Eraikuntza Nagusiko klaustroan egin zen. Eskoriatzan kaleratzen zen *Ze Barri?* herri aldizkarian 1998ko maiatzean ospatutako jaiaren berri ematen da eta argazkiak ere ageri dira. Hala dio albisteak:

“*Maiatzaren 22an Eskoriatzan magisterioko ikasle eta irakasleek beren eguna ospatu zuten. Goizean 3. mailakoei agurra egin zieten eta Txominen jeitsierarekin (Celedon jeitsieraren antzera) hasi zen festa, gero irakasle batek pregoia irakurri zuen, jinkana jokarekin jarraitu zuten eta trikipoteoarekin alaitu zituzten Eskoriatzako kaleak. 3retan bazkaltzera joan ziren San Viatorrera, bertan 100 eta piko pertsona elkartu ziren, ondoren karaokearekin hasi ziren txozna ttiki bat ere ipini zuten. 19:30etan musika talde batek jo zuen magisterioko aparkalekuan, taldea ENEBADA zen. Han ere txozna bat zeukaten ipinita gure lagunek. Gavean Eskoriatza San Pedro jaietan bezala zegoen. Egun osoan giro polita egon zen kalean*”³¹⁵

Karaokeak, bazkaltzeko txotx egiteko kupelak, herriko tabernariei diru laguntza eskatzea, ekintzak autofinantziazteko barra edo tabernatxo bat jartzea... gauza asko ziren antolatatu eta prestatu beharrekoak.

Hala ere, Beñatek aitortzen digu belaunaldien arteko transmisioan zertxobait huts egin zutela, eta ez zirela gai izan euren hasierako grina hori etorri berriei pasatzeko.

Gaur, berriz, eta garian garaiko gorabeherekin, bizirik dirau urteroko jaiak maiatzeko hirugarren ostegunean, eta Fakultateko irakasle, ikasle eta langileek parte hartzen dute bertan antolatzen diren ekintzetan; alderdi ludikoari ematen zaio garrantzia. Beñatek aipatu digu, hezkuntza komunitatean eragile desberdinen arteko elkarrekintza informalagoak sustatzea oso onuragarria dela ikaslearentzat.

Eraikuntza Nagusian obrak hasi eta bukatu arte Dorleta eraikuntza aurrean zegoen aparkalekuan, herriko udalak jarritako oholztan, gauzatzen ziren ia ekintza guztiak. Orduan ere, Dorleta eraikuntzaren hirugarren pisutik jaisten zen ‘Txomin’. Behin obrak bukatuta, Eraikuntza Nagusiak hartu zuen protagonismoa, bai klaustroak zein bere aurrean dagoen aparkalekuak: “barra” jarri, ekintzak garatu eta bazkaria hantxe egiten ziren.

Lehen eta gaur, ‘Txomin txapel’ da protagonista, panpina klaustrotik jaisten da eta denon arteko ekintzak antolatzen dira. Beraz, bejondeiela lehengo eta oraingo ikasleei!

33.4. TXANGOIA

Baina aisialdiarekin loturiko jai egun hau aipatu eta gero, irakasleek urtero egiten duten udako opor aurreko txangoa adierazi barik ezin egon. Sustrai sakonak ditu honek, eta Irakasle Eskola sortu zenetik egiten den ekintza da. Hasieretan Frantziako Dordoñaraino ere joaten ziren, baina gehienetan hona ingurura egiten dute bidaiatxoak. Fakultateak pairatzen zuen egoera ekonomikoaren adierazle da bakoitzak bere poltsikotik ordaintzen zituela bai txangoa eta baita bazkaria ere. Gaur egun ere ikasturte bukaerako txangoak egiten dira, eta txango hauetan alderdi kulturala eta gastronomikoa uztartzen dira.

315. *Magisterioren eguna*. Iturria: *Ze Barri?* aldizkaria, 3. zenbakia, 1998ko maiatza.

Beste iturri batzuk: Jesus Garmendia, Arantza Ozaeta, Julen Arexolaleiba, Xabier Arregi, Pello Añorga, Beñat Azurmendi, Joan Ander Loidi.

Zergatik irakurri klasikoak?

Literatur Topaketa
(Mondragoan Unibertsitatearen eskutik)
Eskoriatzan,
2016ko maiatzaren 18an

ZALDIBAR ANTZOKIAN
9:00 Agurra

9:05-10:00 Juan Karlos Alonso
- Ipuin klasikoaren garraitza haurrazen garapen pikoafektiboa

10:00-10:45 Ibon Egeña
- Irakurtzea berrinkurtzea denean. Haur eta gazte literatura klasikoa

10:45-11:15 atsedena

11:15-12:00 Anjel Erro
- Zergatik irakurri klasikoak (33 arrazoi)

12:00-13:00 Lekutiak
Escola Publikoa



1



6



3



7



4



5



8

1 Orientazio saioa.

2 Literatur Topaketa, 2016ko kartela.

3 4 5

Literatur Topaketa 2013, 2015,
2016.



9

6

Lapeluca-de-Luca-2014.

7

Kapulana eta Miren Amuriza.

8 9

Euskara Eguneko performancea,
2015.



10

10

Kirol Osasun Astea, 2016.





21



22



23



24



25

11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21
22 23 24 25

Hainbat urtetako Txomin txapel
eguna.

26 27 28 29

Unibertsitateko bizitza: korrika, ikasleen errebeindikazioak.

30

Kirol zerbitzuak eta ekintzak.

31

Txangoa: Amaiur, 2014.

32

Txangoa: Iruñea, 2008.



34. AMIAERA GISA

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoa ohia den Nekane Arratibelek bi agintaldi eman ditu jarraian dekanoko lanetan: 2006tik 2010era lehen, eta 2010etik 2014ra bigarrena (unibertsitateko arduraren goreneko postuek lau urteko iraunaldia izaten dute). Dekanotza utzi ondoren, irakasle eta ikertzaile lanetan jarraitzen du³¹⁶.

Egin duen ibilbidea aintzat hartuta, iruditu zaigu bera dela eragilerik esanguratsuen HUHEZIREN azken urteetako gorabeherak adierazi eta gutxiengo prospektiba bat eginez datozen urteetarako erronkak identifikatzeko.

Hasiera batean Donostiako Euskal Herriko Unibertsitatean lanean jarraitzeko asmoarekin bazebilen ere, gehiegi ezagutzen ez zuen MONDRAGON UNIBERTSITATEKO HUHEZIREN prentsa ohar batek aldatu zuen bere bizitza profesionala. Hizkuntza arloarekin erlazioaturiko gaietan doktoreak nahi zituen Fakultateak.

Jesus Garmendia (dekanoa) eta Matilde Sainz (psikopedagogia karrerako koordinatzailea) aurrean zituela, une hartan martxan zegoen psikopedagogian aritzeko aukera eskaini zioten. Halaxe, 2000ko urriaren 1ean iritsi zen HUHEZI Fakultatera.

Etorri eta berehala ekin zion lanari, egun osoz. Eta nahiz eta psikopedagogian lau materia ematen hasi, berehala etorri ziren beste eskaintza batzuk: 2001ean hizkuntza departamenduaren buru izatea edota ondorengo urteetan (2003tik 2005era) psikopedagogia karreraren koordinatzailea izateko aukera. Are gehiago, une hartan dekanoa zen Jose Antonio Mendikutek hala eskatuta, doktorego programaren edo hirugarren zikloaren diseinuaren arduraren bere gain hartu zuen. Aldi berean, zuzendaritza taldean³¹⁷ sartzeko aukera ere izan zuen.

Jose Antonio Mendikuteri erretiroa hartzeko ordua iritsi zitzaionean, dekanoa berria nor izango ote zen eztabaida hasi zen. HUHEZIK zeuzkan erronkei aurre egiteko Nekaneraren profila ikusi zen egokiena. Ausardiarekin heldu zion beste erronka pertsonal eta profesional berriari.

Lehen urtean, eta zatorren kudeaketa arlo akademikoari, finantzarioari, eta pertsonalari profesionalki aurre hartzeko, enpresagintzako 'MBA Executive' masterrari ekin zion, Oñatin. Hala ere, hainbeste aldaketekin, pare bat urte behar izan zituen egoera berri horretara egoki moldatzeko.

316. Nekane Arratibelekin elkarrizketa: 2014/07/15.

317. Hauek osatzen zuten, Nekanekin batera, zuzendaritza: Jose Antonio Mendikute (Dekanoa), Jon Sarasua (Lanki), Mariam Bilbatua (Hezi), Matilde Sainz (Hezkuntza), Ainhoa Leturiaga (Kontu-hartzailea), Juanjo Otaño (HUEN) eta Luxio Ugarte (Praktiker).

Lehenbiziko gai delikatua: 'Ihardun' multimediako bazkideak ziren langileen gaiari heltzea. Jesus Garmendia eta Jose Antonio Mendikute ordurako erretiratuta zeuden, eta Nekanek gaiarekin lotutako erreferentzia historiko gutxirekin lortu zuen afera konpontzea.

Aitortzen du, hala ere, garai onak ere izan dituela, besteak beste ikasle-matrikulen bilakaera ona. Ikasleriaren igoera nabaria izan da azken urteetan, eta horrek esan nahi du zenbait diru sarrera garrantzitsu bermatuta daudela. Horrek, ezbaierik gabe, asko laguntzen du gestioan, baita langileriaren ongizatean ere.

Beste ito garrantzitsua, HUHEZIK MONDRAGON UNIBERTSITATEAn egin beharreko egokitzapen prozesua izan zen. In-darren korrelazioa kudeatzen ikasteko testuinguru ona izan zen. Elkar ezagutzaren behar eta borondatean oinarrituta, Fakultateak posizio estatus bat irabazi du MUren barruan. Eta esan daiteke, dagoeneko, baduela sinesgarritasuna eta zeresana haren etorkizuneko egitasmoetan.

Zeregin akademikoari dagokionean, MONDRAGON UNIBERTSITATEtik zetozen eskaera eta erronkei begira egindako lana handia izan da: graduak egokitu, master ofizialak sortu eta garatu... Boloniak ekarritako berrikuntzei aurre egin.

Illo beretik, kalitatearen esparruan ere hobekuntza nabariak egon dira: egin beharreko egiaztagiriak, jarraipen sistematik... gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari diren atalak dira hauek. Master eta ikerketa garapenean ere aurrera urratsak eman dira. Eta ikerketaren esparruak itzelezko gorakada izan du azken urteotan.

Finantza zereginari erreparatuta ere, ona izan da aipatutako dekanok garaia. Izan ere, hasieran ikasturte bakarrekoa zen Eusko Jaurlaritzarekin hitzartutako 'Contrato-Programa', hainbat urtetarako bihurtu da, eta zelan ez, diru iturri aparta eskaini die MONDRAGON UNIBERTSITATEari eta bertako fakultateei. Honi guztiari esker, HUHEZiren aitortza esplizitua lortu da. Aitortu behar da, iturri hauek lortzeko ahaleginean errektoreak egindako lana handia izan dela.

Bestetik, 2008an, MCC Korporaziotik irakasleek tesiak egiteko liberazioak eskaintzeko lortutako diru laguntzak ere oso garrantzitsuak izan ziren. Makina bat tesi egin dira diru horri esker.

Oso garrantzitsuak izan ziren ere FEPIren bidez kooperatibek emandako azpiegitura eta eraikuntzarako diru-laguntzak. Hauek erabakigarriak izan ziren Aretxabaletako campus berriaren eraikuntzan.

Aretxabaletako campusa inauguratzeak etorkizunari harrotasunez begiratzeko aukera zabala ematen digu.

Beste kudeaketa batzuei dagokienean, ezin ahaztu daiteke langileriaren atala. Adibidez, langileriaren lan-zama izan da gaketako bat, eta ez da erraza izan horren jarraipena eta kudeaketa. Hala ere, esan daiteke HUHEZiren langileria inplikaturik, konprometitua, sinesgarria eta kolektibo bezala paregabea dela, eta horri esker egiten diegula aurre egitasmo berriei. Eskerrak horri, Fakultate bezala sinesgarritasuna irabazi dugu; ezagunak gara. Giza sare hau bere horretan mantentzeko, langileen ongizatea bermatu beharra dago. Eta hori da erronka garrantzitsuena. Izan ere, etengabeko zalantza da noraino haz gaitzkeen, noraino iritsi gaitzkeen, non dagoen gure jasangarritasuna...

Une honetan nazioartekotzeaz hitz egiten ari gara. Ez hutsetik abiatuta, oso urrats garrantzitsuak eman dira-eta aurretik: atzerriko praktikak, kanpoko eragile eta erakundeekin elkar trukaketak, elkargoak..., edo azken garai honetan MEI ('Mondragón Estudios Internacionales') erakundearen sorrera.

Zortzi urte hauetan bikoiztu egin da langile kopurua. Bazkideak, kontratatuak, ordukakoak, bekadunak, hau da, irakasleak eta irakasle ez direnen kopurua gora doa.

Kontziente gara arriskuak hartu egin behar direla. Proiektu sozio-enpresariala da gurea, eta hori ezin da ahaztu. Nola ez, emaitza ekonomikoek zeresana dute edozein enpresatan; baita gurean ere. Etekinik ez balego, proiektu sozialak ere huts egingo luke.

Beraz, une honetan komeni zaigu egindakoa sistematizatu eta egonkortzea, baina aldi berean bide berriak urratu behar ditugu. Ekintzailetasuna egon badagoela demostratu dugu, orain non gauden eta nora jo nahi dugun birpentsatu behar dugu. Hori guztiagatik, ezin dugu lorik hartu.

Hala, etorkizun hurbilari begira, HUHEZIren erronkak hauek izan daitezkeela dio Nekane Arratibelek:

1. Kanpoko eskakizunei erantzutea. Azken urte hauetan gero eta zorrotzagoak dira kanpotik datozen eskakizunak: gradu eta master ofizialetako egiaztagiri prozesuak, irakasle eta doktoreen egiaztagiriak, doktore kopuruak titulazioetan eta unibertsitatean, barne-kalitate sistemaren egiaztagiria... Eskaera hauei guztiei erantzuteko, hobekuntza eta berrikuntza prozesuetan buru-belarri aritu behar gara.
2. Finantzaketa. Gure kasuan diru sarrerarik handiena ikasleengandik dator, eta ona litzateke eredu hori orekatzen saiatzea. Horrek zera eskatzen du: ikerketa eta transferentzia arloa indartu eta bertako diru sarrerak handitzea, deialdi konpetitiboetatik sarrera gehiago ekartzea eta aldi berean kanpoko diru laguntzak ere handitzea (Unibertsitate Plana bereziki).
3. Ikasle, lankide eta titulazioen nazioartekotzea. Gero eta globalizatuagoa den gizarte honetan garrantzitsua da guretik mundurako jauzia egitea, sareetan parte hartzea, aliantzak erakunde ezberdinekin, elkarlana. Kanpoko eskakizunekin ere oso lotuta dago atal hau.
4. Titulazio berrien eskaintza. Egungo titulazioetatik haratago, hurrengo urteetarako titulazio berriak diseinatzen hastea. Egungo ikasle kopuruak mantendu nahi baditugu, eta bazkideentzat lana bermatu, beste titulazio batzuk jarri beharko dira abian.
5. Baina aldi berean, alderdi sozialari erreparatu beharko diogu, agian azken urteetan baztertua izan dugun gure kultura kooperatiboari arreta gehiago jarri beharko diogu. Barrura begira, proiektuan sinetsi eta balio kooperatiboekin koherentzian aritu behar dugu. Fakultatea asko hazi da azken urte hauetan, eta formazio eta balio kooperatiboak ez ditugu gehiegi landu. Balio horiekin koherentzian dauden jarrera eta portaerak bultzatu behar dira. Gero eta gehiago dira gurekin batera lanean ari diren langile berriak. Gure kooperatiba izaerarekin bat egin dezaten lan egin behar dugu, eta horretarako formazioa ere eskaini behar da.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean 2015-2016 ikasturteko langileria:

LANGILE BAZKIDEAK

1. Nerea Agirre 2. Idurre Alonso 3. Nerea Alzola 4. Naiara Amezua 5. Marikarmen Apraiz 6. Goio Arana 7. Julen Arexolaleiba 8. Jon Aristi 9. Larraitz Ariznabarreta 10. Nekane Arratibel 11. Itziar Arregi 12. Aitziber Arregi 13. Xabier Arregi 14. Beatriz Arregi 15. Gotzone Arrese 16. Iñigo Arriaran 17. Ainara Artetxe 18. Idoia Astigarraga 19. Eugenio Astigarraga 20. Iker Azkue 21. Agurtzane Azpeitia 22. Alexander Barandiaran 23. Julia Barnes 24. Amelia Barquín 25. Loredi Beitia 26. Onintza Belategi 27. Agurtzane Bikuña 28. Mariam Bilbatua 29. Mari Carmen Bonilla 30. Txema Egaña 31. Diego Egizabal 32. Andoni Eizagirre 33. Eunat Escandon 34. Edurne Galindez 35. Maite Garcia 36. Eneritz Garro 37. Nekane Goikoetxea 38. Andres Gostin 39. Nagore Iñurrategi 40. Nagore Ipiña 41. Asier Irizar 42. Xanti Isasmendi 43. Olaia Jimenez 44. Ariane Kareaga 45. Ainhoa Larrañaga 46. Mireia Larrea 47. Iñaki Larrea 48. Leire Laskurain 49. Ainhoa Leturiaga 50. Aitzol Loyola 51. Monika Madinabeitia 52. Agurtzane Martinez 53. Oihana Mata 54. Arantza Mongelos 55. Igor Ortega 56. Arantza Ozaeta 57. Eneritz Pagalday 58. Marisa Pagonabarraga 59. Amaia Pavón 60. Begoña Pedrosa 61. Karnele Perez 62. Iñigo Ramirez De Okariz 63. Edurne Ruiz De Azua 64. Pilar Sagasta 65. Eider Salegi 66. Yera Sanchez 67. Jon Sarasua 68. Aitziber Sarobe 69. Ainara Udaondo 70. Leire Uriarte 71. Ane Urizar 72. Eneko Bidegain 73. Jose Ramon Vitoria 74. Ane Miren Zabala 75. Aitor Zuberogoitia 76. Nerea Zubia 77. Mirene Zufiaurre

LANGILE KONTRATATUAK


Meltxor Artetxe · Josu Barbadillo · Leire Garay · Agurtzane Leibar · Saioa Altuna · Aritz Kanpandegi · Ion Lezeta · Jone Rodriguez · Eunat Arebitorre · Idurre Gas-tañazatorre · Naiara Zia · Miren Ormazabal · Ane Urroz · Asier Lauzurika · Nagore Ozerinjauregi · Ana Ribaguda · Jaione Urbieta · Ezotzi Zuluaga · Ainara Imaz · Maialen Arnedo · Eneritz Alkorta · Nerea Lopez · Maite Goñi · Amaia Martiartu · Joanes Igeregi · Beñat Flores · Ihintza Basterretxea · Ana Belen Carpintero · Asier Ibarrodo · Maider Iriarte · Marta Konpiska · Ane Agirreurreta · Joseba Frutos

LANGILE KOLABORATZAILEAK

Asier Manso · Jaione Agiriano · Joanes Irizar · Miren Amuriza · Pello Añorga · Iñaki Biain · Ander Bolibar · Marina Elosetgi · Mikel Errazkin · Mikel Etxaburu · Mary Sinead Fallon · Haizea Galarraga · Daniel Irazola · Ana Perez · Marta Quintas · Leire San Vicente · Myriam Txintxurreta · Argi Urizar · Iñaki Urruzola · Ixone Akarregi · Neritzel Albisua · Ixone Aroma · Andrea Basabe · Juan José Corcuera · Oihana Elorza · Rosa Maria Galparsoro · Marta Gastelu-Iturri · Itziar Imaz · Ion Larrañaga · Olatz Manuel · Alex Muela · Juan Cruz Polentinos · Beñat Ralla · María Antonia Regue · Ixiar Rozas · Jaione Uriarte · Izaskun Uribesalgo · Amaia Urzain · Aitor Arregi · Iban Del Campo · Iñaki Edroso · Iban Garate · Rebeca Garay · Iñigo Olasagasti · Haimar Olaskoaga · Xabier Urzelai · Joseba Azkarraga · Antonia Nogueiras · Itxaso Pagoaga

UDALAITZ ETA EMUN-EKO BAZKIDEAK

Imanol Gartzia · Joxe Inazio Irastortza · Oihana Otaduy





III. ATALA
ERANSKINAK



- **INFORMAZIO ITURRIAK**

Lehen eskuko informazioan oinarritu da eskuartean daukazun dokumentu hau: ahozko informatzaileak, Irakasle Eskola-HUHEZI esperientzia honen zuzeneko lekukoak, eta urte hauetan guztietan Erakunde hau aberasten joan den artxibo historikoa nahiz administratiboa. Gogoratu behar da, artxibo historikoa nahiz administratiboa katalogatuta daudela. Adierazitako informazio iturri guztien aipamenak orri bakoitzeko oinetan aurki daitezke. Horien bidez jo daiteke jatorrizko dokumentura.

- **TAULAK**

Taula, 1: Irakasle Eskolako Hasierako Bazkideak (1980)

Taula, 2: Irakasle Eskolaren irakasleria, 1978-1979 ikasturtean

Taula, 3: Irakasle Eskolaren irakasleria, 1980-1981 ikasturtean

Taula, 4: Irakasle Eskolaren irakasleria, 1989-1990 ikasturtean

Taula, 5: Lehen mailan, hasierako formazioan, matrikulatutakoen kopuruak (1976-1986)

Taula, 6: Bigarren eta hirugarren mailan, hasierako formazioan, espezialitateka banatutako ikasle kopuruak (1977-1986)

Taula, 7: Lehen mailan, hasierako formazioan, matrikulatutakoen kopuruak (1987-1997)

Taula, 8: Matrikulatutakoen kopuruak espezialitateka (1987-1997)

Taula, 9: Espezialitateen ezarpena eta bilakaera (1977-1981)

Taula, 10: Ikasleriaren bilakaera, mailaka eta espezialitateka (1976-1985)

Taula, 11: Titulu-gabekoen Bergarako Plangintza Berezia. Bukatutakoak (1980-1984)

Taula, 12: Titulu-gabekoen Eskoriatzako Plangintza Berezia eta Matrikulak (1985-86 eta 1986-87)

Taula, 13: Irakasleriaren prestakuntzarako plangintza (‘Iraprest’ eta ‘Garatu’ programak): 1983-2004

Taula, 14: Irakasleriaren birziklapena (1984-85 eta 1986-87)

Taula, 15: EIMA programa eta diru laguntzak (1990-1992)

Taula, 16: Ikasleen matrikulak eta kuotak (1987-1988 eta 1988-1989)

Taula, 17: Ikasle kopuru osoa hartuta, ikasle kostua eta finantzaketa bideak (1985-1986 ikasturtetik 1988-1989ra)

Taula, 18: Aurrekontuak hainbat ikasturtetan (1977-1993)

Taula, 19: Irakasle Eskolaren negozio arloak eta diru sarrera ekarpenak (%etan adierazita) (1986-1991)

Taula, 20: Birziklapena eta arlo soziokulturala, 1989-1990 ikasturtea

Taula, 21 : Diru sarrerak (%etan) eta emaitzak 1989-1990 ikasturtean

Taula, 22: Hasierako formazioaren ikasleen jatorria, herrialdeka (1976-1999).

Taula, 23: Titulu gabeko irakasleentzat zuzendutako plangintza (Bergara, Eskoriatza eta Iruñea). Bukatutako promozioak (1980-1987)

Taula, 24: Hasierako Formazioa eta Generoa (1976-1998)

Taula, 25: Irakasle ikasketak eta Espezialitateak (1977-2002)

Taula, 26: Ikasle matrikulazioa. Lehen maila (1998-2001)

Taula, 27: Irakasle ikasketak. Ikasle kopurua ikasturteka eta espezialitateka (2000-2003)

Taula, 28: Irakasle ikasketak. Lehen mailako matrikulak ikasturteka eta espezialitateka (2006-2008)

Taula, 29: Hezkuntza graduak online (2013-14 eta 2014-2015)

Taula, 30: Humanitateak-Enpresa: Hezkuntza ereduaren aldaketa

Taula, 31: Humanitateak-Enpresa: Matrikulak (1997-2001)

Taula, 32: Humanitateak-Enpresa: Ikasle kopurua (2002/2003 eta 2003/2004)

Taula, 33: Psikopedagogia lizentzia. Ikasle kopurua (2000-2007)

Taula, 34: HUHEZIn aurkeztutako tesiak (2007-2016)

- Taula, 35: HEZI-ICE. Hainbat ekitaldi (2006-2007 eta 2007-2008)
- Taula, 36: ERASMUS programa. Atzerriratutako ikasleak (2006-2013)
- Taula, 37: ERASMUS. Kanpotik etorritakoak (2007-2014)
- Taula, 38: HUHEZI Graduondoko ikasleak guztira (2002-2013)
- Taula, 39: Enpresa proiektuen zuzendaritza. Ikasle kopurua ikasturteka (2002-2003)
- Taula, 40: PGKE: Ikasle kopurua ikasturteka (2001-2003)
- Taula, 41: IKTF: Ikasle kopuru osoa ikasturteka (2001-2005)
- Taula, 42: HZZ: Ikasle kopurua ikasturteka (2001-2002 eta 2002-2003)
- Taula, 43: BH Masterra eta ikasle matrikulak ikasturteka (2010-2014)
- Taula, 44: BERRIMET Matrikulatutakoak (2011-2014)
- Taula, 45: BERRIMET bukatutako ikasleak (2011-2014)
- Taula, 46: EKOMU Ikasle matrikulatuak (2010-2014)
- Taula, 47: EKOMU bukatutako ikasleak (2010-2014)
- Taula, 48: EKT: Ikasle kopurua (2007-2014)
- Taula, 49: Kooperatibagintza: Matrikulatutakoak (2008-2014)
- Taula, 50: Kooperatibagintza: Irtendako ikasle kopurua (2008-2012)
- Taula, 51: 1998-1999ko sarreren jatorria
- Taula, 52: 2012-2013ko sarreren jatorria
- Taula, 53: Langileria HUHEZIn (1999-2014)
- Taula, 54: Literatura astea eta gaitegia (1997-2013)

- **GRAFIKOAK**

Grafikoa, 1: Maisuen jatorria eta kopurua Gipuzkoan, 1975ean

Grafikoa, 2: Maistren jatorria eta kopurua Gipuzkoan, 1975ean

Grafikoa, 3: Lan ordutegiak (1978-2015)

Grafikoa, 4: Matrikulak lehen mailan: Hasierako formazioa. Ikasleriaren eboluzioa (1976-1986)

Grafikoa, 5: Ikasleriaren jatorria %etan (1986-1987)

Grafikoa, 6: Matrikulak lehen mailan: Ikasleriaren eboluzioa (1987-1997)

Grafikoa, 7: Matrikulak lehen mailan: Ikasleriaren eboluzioa (1976-1997)

Grafikoa, 8: Ikasle osoa espezialitateka (1976-1985)

Grafikoa, 9: Praktikak Latinoamerikan (2001-2014)

Grafikoa, 10: Ikasle promozio kopuruak (1976-1999)

Grafikoa, 11: Ikasle promozioak herrialdeka (1976-1999)

Grafikoa, 12: Promozioak generoaren arabera (1976-1998).

Grafikoa, 13: Espezialitateak (1977-2002)

Grafikoa, 14: Hezkuntza lerroan ikasle kopuru osoa (2005-2008)

Grafikoa, 15: Bigarren diplomatura: Matrikulak (2005-2009)

Grafikoa, 16: Graduak matrikulak (2009-2014)

Grafikoa, 17: Graduak bukatutakoak (2012-2013 eta 2013-2014)

Grafikoa, 18: Matrikulak herrialdeka (2015-2016)

Grafikoa, 19: 1997-1998 ikasturtetik 2014-2015era bukatutako irakasle ikasketak, espezialitateka

Grafikoa, 20: Irakasle ikasketak espezialitateka (1997-2014)

Grafikoa, 21: Ikasleriaren jatorria herrialdeka (2001-2002)

Grafikoa, 22: Humanitateak-Enpresa Lizentzia ateratako ikasleak (2000-2012)

Grafikoa, 23: IKO matrikula berriak (2006-2014)

Grafikoa, 24: Praktikak Psikopedagogian (2007-2008 ikasturtea)

Grafikoa, 25: Psikopedagogia lizentzia eta matrikula berriak (2000-2011)

Grafikoa, 26: Psikopedagogia tituludunak (2001-2013)

Grafikoa, 27: Hirugarren zikloan ikasle kopurua (2003-2014)

Grafikoa, 28: Graduondoko ikasleen bilakaera guztira (2002-2010)

Grafikoa, 29: BH Masterreko ikasle tituludunak (2004-2014)

Grafikoa, 30: Diru sarrerak eta gastuak (1998-2013)

Grafikoa, 31: Gastuak ehunekoetan (2014-2015)

Grafikoa, 32: Emaitzak (1998-2014)

Grafikoa, 33: Inbertsioak eta Finantzaketa: Berezko Fondoak (1998-2012)

Grafikoa, 34: Sarrera iturriak ehunekoetan (2011-2013)

Grafikoa, 35: Sarrerak ehunekoetan (2014-2015).

Grafikoa, 36: Langileria HUHEZIn: bazkideak, kontratatuak eta bekadunak (1999-2014)

- **ILUSTRAZIOAK**

Ilustrazioa, 1: Ikerketa eta Transferentzia Gestio Unitateko Antolaketa (2014-2015)

Ilustrazioa, 2: Gestio Unitate Zaharra

Ilustrazioa, 3: Gestio Unitate Berria

• **BESTE**

1. 'JUNTA PROVISIONAL' PARTAIDEAK

DATAK	PARTAIDEAK
29.12.1976	Juan Luis Izagirre, Jose Maria Larrañaga, Felix Ormaetxea eta Javier Retegi

2. IRAKASLE ESKOLAREN 'KOMISIO DELEGATUA' ETA ERREKTORE KONTSEILUAREN OSAKETA (1977-80)

DATAK	PARTAIDEAK
1977-1980	F. Ormaetxea; J. Erdocia; J. Retegi; J.L. Izagirre; J.L. Gonzalez; A. Gomez; J. A. Lezama; J. Serrano; A. Markaide; J. Garmendia; J. J. Otaño; F. Etxeberria; H. Hiribecampos; A. Etxebarria (lehendakari ordea); J.M. Larrañaga; J. Errazti; J. M. Otaegi (lehendakaria); A. Gometza; J. R. Alzelai; J. R. Zarketa; J. M. Urrutia; G. Eskibel; I. Mendiguren; G. Derteano; N. Alzola; J. R. Elorza; E. Villar

3. HUHEZI: ZENBAKITAN

ATALAK	2012 - 2013 IKASTURTEA	2013 - 2014 IKASTURTEA
GRADUKO IKASLEAK	1.186	1.136
GRADU-ONDOKO IKASLEAK	208	144
DOKTORETZAKO IKASLEAK	23	24
NAZIOARTEKO MUGIKORTASUNEN IKASLEAK	36	120
-HUHEZItik atzerrira joandakoak	30	82
-HUHEZItira etorritakoak	6	38

4. AIPAMEN HISTORIKOA. IKUSPEGI KRONOLOGIKOA (1976-2015)

- **1976. Eskoriatzako Irakasle Eskola sortu zen.** Ikastolek garai hartan zuten arazo larria (ez baitzen irakasle tituludun euskaldunik) konpondu guran Hezibide Elkarteak -Debagoieneko hezkuntza- kooperatibak batzen zituen elkarteak, alegia- Eskoriatzako Irakasle Eskola sortu zuen. Hasiera hartan, Salamancako Unibertsitate Pontifizioaren ikasgela moduan hasi zen eskolak ematen.
- **1978. Onespen ofiziala.** Hezkuntza Ministerioak onartu egin zuen Eskoriatzako Irakasle Eskolaren ikasketaplana, aurrerantzean Bilboko Unibertsitateari (gero EHU-UPV) atxikita egongo da.
- **1979. Lehen promozioa.** 39 irakasle irten ziren irakasle-diploma eskuan.
- **1980. Irakasle Eskola, kooperatiba.** Bere ingurunean txertaturik, urrats logikoa izan zen eskola kooperatiba bihurtzea.
- **1981. Titulurik gabeko irakasleen 1. promozioa.** Ikastoletan edo herri-eskoletan euskaraz irakasle titulu barik ari ziren 147 maisu-maistrak eskuratu zuten titulua urte hartan. Guztira, titulu bako 700 maisu-maistrak amaitu zituzten ikasketak Eskoriatzako Irakasle Eskolan.
- **1984. Haurren gaineko dokumentazio-zentroa.** Sei urte bitarteko haurren gaineko dokumentazioa biltzen, antolatzen eta zabaltzen hasi zen Eskola. Geroago, Jakingarriak aldizkaria argitaratzen hasi zen.
- **1985. Irakasleen birziklatze-programa.** Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin batera, lanean ari ziren irakasleak egunean jartzeko ikastaroak antolatzen hasi zen Eskola.
- **1988. Bideo didaktikoak.** Helburu didaktikoekin egindako bideo-bilduma baten lehen alea ("Piti gaztagile") argitaratu zen.
- **1990. Euskararen normalizazioa Administrazioan.** Ikastaro bereziak antolatu ziren euskal administrazioaren funtzionarioen hizkuntza-eskakizunik jasoena lantzeko.
- **1992. Eskola-liburugintzan.** Euskarazko irakaskuntzan eskola-liburuak behar zirela-eta, dozena bat liburu argitaratu ziren.
- **1996. Hezkuntza Berezia.** Hezkuntza-premia bereziak zituzten haurrei irakasteko espezialitatea jarri zen martxan.
- **1997. MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN Humanitate Fakultatea.** Eskoriatzako Irakasle Eskola MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN (MU) Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultate (HUHEZI) bihurtu zen. Humanitateak-Enpresa lizentzia ematen hasi zen.

- **1999. Eraikin berria.** Hasierako eraikina txiki geratu zela-eta, Gizabidea fundazioak alboko S. Viator eraikina (XVII. mendekoa) erosi zuen Humanitateen Fakultatea bertan ezartzeko. **Lehen masterra.** "Enpresa Proiektuen Zuzendaritza" izeneko masterra sortu zen. 400 bat hautagai aurkeztu ziren, baina 20 bakarrik sartu ziren galbahe zorrotza igaro ostean.
- **2000. Psikopedagogia-lizentzia.** Bigarren zikloko lizentzia zen eta irakaskuntza eta gizarte eleaniztunetan sor daitezkeen arazoei hobeto erantzuteko sortu zen. Lehen urtean 33 ikasle izan zituen.
- **2001. Ikasketak, online.** Psikopedagogia-ikasketak eta master bat jarri ziren sarean. **Humanitateak-Enpresako 1. promozioa** ekainean irten zen. **Bi master berriren eskaintza:** Informaziorako eta komunikaziorako teknologien prestakuntzan eta Hezkuntza Zuzendaritzan. **LANKI sortu zen,** MONDRAGON UNIBERTSITATEko Lankidetzaren Ikertegia. Hiru esparru nagusi izan zituen hasieratik: kooperatibismoa, gizartean esku-hartzea eta garapenerako lankidetzak. **"Esperientzia Komunitarioen Truke Programa":** lehen edizioa antolatu zen Hego hemisferioko komunitateen eta Euskal Herriko eragile kooperatibo eta autoeratuen artean. Lankidetzak: Arizmendiarietaren eraldaketa-proiektua liburua argitaratu zen. **LANKI Ikertegiaren lehen argitalpena** izan zen; orduetik aurrera, kooperatibismoaz eta gizartearen erronkez hainbat argitalpen eta material didaktiko sortu da.
- **2002.** Psikopedagogia karreraren baitan **Esku- hartze Psikopedagogia** jarri zen abian, 30en bat ikaslerekin. **Mundukideren interkooperazio-sistemaren** garapeneraren bultzatzaile izan zen LANKI Ikertegia.
- **2003. AOI-PBL metodologia** ezartzen hasi zen sistematikoki 1. mailan. Haur Hezkuntzan oso-osorik ezarri zen, eta bestelako espezialitateetan ikasgai komunetan soilik. Hezkuntza Fisikoa. Irakasle Ikasketetako espezialitate berria hasi zen 32 ikaslerekin.
- **2004. Pertsona eta Talde Garapenerako gestio-unitatea** sortu zen. **Prestakuntza Pedagogikoa** titulazioa ezarri zen. **Irakasle Balioaniztuna** izeneko ikasketak eskaintzen hasi zen.
- **2005. Ikus-entzunezko Komunikazioan** lizentzia sortu zen. Karrera honen misio edo eginkizuna komunikatzaile integralak prestatzea da. Lana edonon egiten dutela ere, gai izango dira erakunde horretako era guztietako komunikazio-beharrei erantzuteko. 36 ikaslerekin jarri zen abian lehenengo maila. **"Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren zentzuaren gaineko gogoeta-prozesua"** egin zen kooperatibetan. Prozesu haren garapenean LANKI eragile funtsezkoa izan zen. Diagnostiko hartatik abiatuta, eta 2007an MONDRAGON Taldearen Kongresu Kooperatiboan berretsita, azken urteotan kooperatibak biziberritzeko hainbat estrategia jarri dira martxan. Urte berean, **"Norbere garapena eta taldeen lidergoa"** izeneko aditu-titulua ezarri zen.
- **2006.** Irakasle-ikasketetan, **Mendeberri proiektuaren 1. promozioa** kaleratu zen. **"Kulturartekotasuna eta eleaniztasuna XXI. mendean"** ikastaroa eskaini zen. **Abian** jarri ziren **Euskara Plana eta Multimedia gunea.** **Garabide elkartearen** sorreran parte hartu zuen LANKIk. Euskal Herrian gauzatutako hizkuntzen berreskurapenerako estrategiak eta esperientzia hegoaldeko herri indigenekin partekatzeko plataforma da.

- **2007. “Euskal Kulturgintzaren Transmisioan” graduondokoa eskaini zen. HUHEZINEMAren** lehen edizioa egin zen. HUHEZiko programako **lehen tesia** aurkeztu zen. **Hezkuntza Kooperatibo Eredu berriaren** diseinu eta inplementazioa hasi zuen LANKIk MONDRAGONeko Gestio Sozialarekin lankidetzan. Harrezkero, MONDRAGON Taldeko kooperatibetan prestakuntza kooperatiborako prozesu zabalak ireki dira. LANKIk, Mundukide-rekin batera, Brasilgo Lurrik Gabeko Nekazarien Mugimendurekin (MST) elkarlana abiatu zuen.
- **2008. “Ikus-entzunezko Komunikazioa”** lizentziaturaren 1. promozioa kaleratu zen. ANECAk **Haur Hezkuntzan Gradua, Lehen Hezkuntzan Gradua eta Ikus-entzunezko Komunikazioan Gradua** onartu zizkion HUHEZlri. HUHEZik **Urrezko Bikain** ziurtagiria lortu zuen. **“Kooperatibagintza” aditu-tituluaren** lehen edizioa eskaini zen Kooperatibetako eragileak prestatzeko bokazioz, eta kooperatibak biziberritzeko estrategietan eragiteko.
- **2009. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen** unibertsitate-masterra eta **Ekonomia Solidarioaren** masterra eskaintzen hasi ginen. ANECAk **Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan** unibertsitate-master ofiziala (**EKOMU**) eta **Berrikuntza Didaktiko Metodologikoko Proiektuen Garapena Hezkuntza Erakundeetan** unibertsitate-master ofiziala (**BERRIMET**) onartu zizkion HUHEZlri. Boloniar egokitutako **Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Ikus-entzunezko Komunikazioa** graduen inplementazioa. **Bagara** prozesuaren sorrera bultzatu zen LANKItik. Prozesu honen xedea Debagoiengan garapen komunitario autoeratu bultzatzea da.
- **2010. Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan** unibertsitate-master ofiziala (**EKOMU**) eta **Berrikuntza Didaktiko Metodologikoko Proiektuen Garapena Hezkuntza Erakundeetan** unibertsitate-master ofiziala (**BERRIMET**) eskaintzen hasi zen. **Ekonomia solidarioari buruzko masterraren** lehen edizioa egin zen, Latinoamerikako garapen sozio-ekonomikoko esperientzia autoeratupei zuzendua. **MU Telebista** sortu zen.
- **2011. “Jatorrizko hizkuntzen eta identitateen berreskurapenerako” aditu-titulua** martxan jarri zen munduko komunitate indigenentzat.
- **2012. VICeko unibertsitateak eta HUHEZIK eskainiko dugun “Berrikuntza eta esku-hartzea hezkuntzan” doktorego-programa onartu ziguten** UNIBASQek eta ANECAk. **Aretxabaletako campus berriaren** obrak egin ziren. **Komunikazioa erakundeetan aditu-titulua** eskaintzen hasi ginen.
- **2013. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Aretxabaletako campus berriaren eraikina inauguratu zen.** VICeko unibertsitatearekin batera **“Berrikuntza eta esku-hartzea hezkuntzan” doktorego-programa** eskaintzen hasi zen. **Blended modalitatean egokitze kurtsoak** eskaintzen hasi zen, diplomatuek graduko titulua lortu ahal izateko. **Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza graduak blended modalitatean** eskaintzea onartu ziguten UNIBASQek eta ANECAk. Oñatiko Enpresagintza Fakultatearekin batera eskaintako **“Ekonomia Soziala eta Enpresa Kooperatiboa” (MCOOP) unibertsitate-master ofiziala** onartu zuten UNIBASQek eta ANECAk.

- **2014.** Lehenengoz eskaini zen **gradu osoa edo bigarren titulazio bat on-line modalitatean** egiteko aukera. Enpresagintza fakultatearekin batera lehenengoz eskaini zen **“Gizarte Ekonomia eta Enpresa Kooperatiboa” (MCOOP)** master ofiziala. **Bigarren Hezkuntzako masterraren kanpo- egiaztagiria** lortu zen UNIBASQetik. **HUHEZIlko barne-kalitate sistemaren kanpo- egiaztagiria** lortu zen UNIBASQetik.
- **2014-2015** ikasturtetik hasita, **dekano berria** aukeratzeak (**Begoña Pedrosa**) **zuzendaritza talde berria** eta antolaketa berria ekarri ditu.

RESEÑA HISTÓRICA. VISIÓN CRONOLÓGICA (1976-2015)

- **1976. Se crea la Escuela de Magisterio de Eskoriatza.** Con miras a resolver el grave problema que las ikastolas tenían en aquel tiempo, pues no había profesores titulados en euskera, Hezibide Elkartea, –asociación aglutinadora de las cooperativas de enseñanza en Debagoiena o Alto Deba–, fundó Irakasle Eskola, es decir, la Escuela de Magisterio de Eskoriatza. La Escuela comenzó su andadura como aula de la Universidad Pontificia de Salamanca.
- **1978. Aprobación oficial.** El Ministerio de Educación aprobó el plan de estudios de la Escuela de Magisterio de Eskoriatza, adscrita en lo sucesivo a la Universidad de Bilbao (posteriormente, EHU-UPV).
- **1979. Primera promoción.** Habiendo obtenido el diploma correspondiente, egresaron aquel primer año 39 alumnos.
- **1980. La Escuela de Magisterio, convertida en cooperativa.** Estando integrada en su entorno, fue un paso lógico que la Escuela se transformara en cooperativa.
- **1981. Primera promoción de profesores sin título.** Aquel año lograron el título de magisterio 147 maestros y maestras que impartían, sin titulación oficial, educación en euskera en ikastolas y escuelas públicas. En total, finalizaron sus estudios en la Escuela de Magisterio de Eskoriatza unos 700 enseñantes sin título.
- **1984. Centro de documentación infantil.** La escuela comenzó a compilar, organizar y difundir documentación sobre niños/as de hasta seis años de edad. Posteriormente, comenzó a publicarse la revista Jakingarriak, en torno al mismo tema.
- **1985. Programa de reciclaje de profesores.** En colaboración con el Departamento de Educación del Gobierno Vasco, se comenzaron a organizar cursos para el reciclaje o puesta al día de profesores en activo.
- **1988. Vídeos didácticos.** Se realizó el primer video (“Piti gaztagile”) de una colección con fines didácticos.

- **1990. Normalización del euskera en la Administración.** Se organizaron cursos especiales para atender a demandas lingüísticas muy especializadas por parte del funcionariado de la administración vasca.
- **1992. Libros de texto escolares.** Dado que la enseñanza en euskera carecía de libros de texto escolares, se publicaron una docena de títulos en euskera.
- **1996. Educación Especial.** Se creó la especialidad para la enseñanza a niños con necesidades educativas especiales. En un tiempo en que la Escuela sufría escasez de alumnos, esta especialidad atrajo a buen número de ellos.
- **1997. Facultad de Humanidades de MONDRAGON UNIBERTSITATEA.** Irakasle Eskola, Escuela de Magisterio de Eskoriatza, se convirtió en Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación de Mondragon Unibertsitatea (MU). Se comenzó a impartir la licenciatura de Humanidades-Empresa.
- **1999. Nuevo edificio.** Dado que el edificio original se había quedado pequeño, la Fundación Gizabidea adquirió el edificio colindante de San Viator (del s. XVII) para situar en el mismo la Facultad de Humanidades. **Primer máster.** Se creó el Máster en “Dirección de Proyectos Empresariales”. Se presentaron unos 400 candidatos, de los que, tras pasar una exigente criba, solo fueron admitidos 20.
- **2000. Licenciatura en Psicopedagogía.** Se trata de una licenciatura de segundo ciclo, creada para atender mejor a los problemas que puedan surgir en la enseñanza en sociedades multilingües. Contó en su primer año con 33 alumnos.
- **2001. Estudios online.** Se ofrecieron en la red los estudios de Psicopedagogía y un máster. En junio egresó la **1ª promoción de Humanidades-Empresa. Oferta de dos nuevos másteres:** en Formación de Tecnologías para la Información y Comunicación, y en Dirección Educativa. **Se creó LANKI,** Instituto de Estudios Cooperativos de MU. Trabajó en tres áreas fundamentales desde su inicio: cooperativismo, intervención social y cooperación para el desarrollo. Se organizó la primera edición del **“Programa de Intercambio de Experiencias Comunitarias”**, entre comunidades del Hemisferio Sur y agentes cooperativos y de autogestión comunitaria de Euskal Herria. Se publicó el libro Lankidetza: Arizmendiarietaren eraldaketa-proiektua (Cooperación: El proyecto de transformación de Arizmendiarieta). Fue la **primera publicación del Centro de Investigación LANKI;** desde entonces se han realizado diversas publicaciones y se ha generado material didáctico sobre el cooperativismo y los retos sociales.
- **2002.** Dentro de la carrera de Psicopedagogía, se puso en marcha la **Psicopedagogía de Intervención** con unos 30 alumnos. LANKI se constituyó en impulsor del desarrollo del **sistema de intercooperación de Mundukide.**
- **2003.** Sistemáticamente se comenzó a aplicar la **metodología AOI-PBL** en el primer curso: en Educación Infantil, en su totalidad, y en otras especialidades, sólo en asignaturas comunes. **Educación Física.** Se puso en marcha la nueva especialidad de estudios de magisterio con 32 estudiantes.

- **2004.** Se creó la **Unidad de Gestión para el Desarrollo de Personas y Grupos**. Se implantó la titulación de **Formación Pedagógica**. Se comenzó a impartir los estudios de **Profesorado Polivalente**.
- **2005.** Se creó la licenciatura en **Comunicación Audiovisual**. La misión o tarea de esta carrera es la preparación de comunicadores integrales, para que, trabajen donde trabajen, sean capaces de responder a todo tipo de necesidades de comunicación de la entidad correspondiente. El primer curso se inició con 36 estudiantes. En las cooperativas se llevó a cabo un **“Proceso de reflexión sobre el sentido de la Experiencia Cooperativa Mondragón”**. En el desarrollo de aquel proceso LANKI fue un dinamizador fundamental. A partir de aquel diagnóstico, que se ratificó el 2007 en el Congreso Cooperativo del Grupo Mondragón, durante los últimos años se han puesto en marcha diversas estrategias para revitalizar las cooperativas. El mismo año se implantó el título de experto en **“Autodesarrollo y liderazgo de grupos”**.
- **2006.** En los estudios de Magisterio salió la **1ª promoción del proyecto Mendeberry**. Se impartió el curso **“Interculturalidad y multilingüismo en el siglo XXI”**. Se pusieron en marcha el **Plan de Euskera y el Taller Multimedia**. Desde LANKI se participó en la constitución de la **asociación Garabide**. Se trata de una plataforma para compartir con los pueblos indígenas del Hemisferio Sur las estrategias y experiencias desarrolladas en Euskal Herria para la recuperación de las lenguas.
- **2007.** Se impartió el Postgrado en Transmisión de la Cultura Vasca (**“Euskal Kulturgintzaren Transmisioa”**). Primera edición de **HUHEZINEMA**. Se presentó la **primera tesis** del programa de la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación. LANKI, en colaboración con el Departamento de Gestión Social del Grupo Mondragón, inició el diseño e implementación del **Nuevo Modelo de Educación Cooperativa**. Desde entonces, se han abierto amplios procesos de formación cooperativa en las cooperativas del Grupo MONDRAGON. LANKI, junto a Mundukide, inició la colaboración con **MST-Movimiento de los Campesinos sin Tierra**, de Brasil.
- **2008.** Salió la primera promoción de la licenciatura en **“Comunicación Audiovisual”**. ANECA aprobó el Grado en Educación Infantil, el **Grado en Educación Primaria y el Grado en Comunicación Audiovisual de la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación**. La Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación obtuvo el certificado Urrezko Bikain. Se impartió la primera edición del título de experto en Cooperativismo, con el objetivo de formar a los agentes cooperativos, para que puedan incidir en las estrategias de revitalización de las cooperativas.
- **2009.** Se comenzó a impartir el Máster Universitario Oficial en **Habilitación Docente para el ejercicio de las profesiones de profesor de Educación Secundaria Obligatoria, Bachillerato, Formación Profesional y Enseñanza de Idiomas**, y también el **Máster en Economía Solidaria**. ANECA aprobó a HUHEZI el Máster Universitario en **Educación en Contextos Multiculturales y Plurilingües (EKOMU)** y el Máster Universitario en **Desarrollo y Gestión de Proyectos de Innovación Didáctico-Metodológica en Instituciones Educativas (BERRIMET)**. Implementación de los Grados en **Educación Infantil, Educación Primaria y Comunicación Audiovisual**, adaptados a Bolonia. Desde LANKI se impulsó la creación del proceso **Bagara**. Su finalidad es dinamizar el desarrollo comunitario autogestionado en Debagoiena.

- **2010.** Se comenzó a ofrecer en HUHEZI el Máster Universitario en **Educación en Contextos Multiculturales y Plurilingües (EKOMU)** y el Máster Universitario en **Desarrollo y Gestión de Proyectos de Innovación Didáctica- Metodológica en Instituciones Educativas (BERRIMET)**. Se realizó la primera edición del Máster en **Economía Solidaria**, dirigido a las experiencias de autogestión comunitaria para el desarrollo socio-económico de Latinoamérica. Se iniciaron las emisiones de la televisión **MU Telebista**.
- **2011.** Se puso en marcha el título de Experto en **“Desarrollo de lenguas e identidades originarias”**, dirigido a las comunidades indígenas del mundo.
- **2012.** UNIBASQ y ANECA aprobaron el programa de doctorado **“Innovación e Intervención Educativas”** a impartir por la Universitat de Vic y HUHEZI. Se realizaron las obras del nuevo **campus de Aretxabaleta**. Comenzamos a ofrecer el título de **Experto en Comunicación en las Organizaciones (ADITUKOM)**.
- **2013.** Se inauguró el edificio del nuevo campus de la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación en Aretxabaleta. Junto con la Universitat de Vic, se inició el **programa de doctorado “Innovación e Intervención Educativas”**. En la **modalidad blended** comenzamos a ofrecer **cursos de adaptación**, para que los diplomados pudieran obtener el título de Grado. UNIBASQ y ANECA nos aprobaron la impartición de los **Grados en Educación Infantil y Educación Primaria** en la **modalidad blended**. UNIBASQ y ANECA nos aprobaron el **Máster Universitario Oficial “Economía Social y Empresa Cooperativa” (MCOOP)** que ofrecemos junto con la Facultad de Empresariales de Oñati.
- **2014.** Por primera vez, se ofreció la posibilidad de realizar **en la modalidad online todo el Grado o una segunda titulación**. Junto con la Facultad de Empresariales por primera vez se ofreció el **Máster Universitario “Economía Social y Empresa Cooperativa” (MCOOP)**. Se obtuvo de UNIBASQ la **acreditación externa del Máster en Educación Secundaria**. Se obtuvo de UNIBASQ la **acreditación externa del Sistema de Garantía Interna de Calidad de HUHEZI**.
- A partir del curso **2014-2015**, a raíz de la elección de la **nueva decana (Begoña Pedrosa)**, también **se renueva el equipo de dirección** y se reestructura la Facultad.

HISTORICAL NOTES. CHRONOLOGICAL PERSPECTIVE (1976-2015)

- **1976. A Teacher Training College was set up in Eskoriatza (Gipuzkoa).** In an endeavour to solve the grave problem that the “Ikastolas” or Basque-medium schools were facing at that time (caused by the lack of qualified, Basque-speaking teachers), “Hezibide Elkarte”, the body that brought together the educational co-operatives in the Upper Deba area, set up the Teacher Training College of Eskoriatza. Initially, lectures began to be given as a classroom attached to the Pontifical University of Salamanca.

- **1978. Official recognition.** The [Spanish] Ministry of Education approved the Eskoriatza Teacher Training College's academic programme, and from then onwards it became attached to the University of Bilbao (later the EHU/UPV-University of the Basque Country).
- **1979. The first cohort of students.** That year 39 teachers left armed with their teaching diplomas.
- **1980. "Irakasle Eskola" a co-operative.** It was a natural step for the college to become a co-operative, bearing in mind that it was firmly established in its milieu.
- **1981. The first cohort of teachers who did not have teaching certificates qualified.** That year, 147 schoolteachers who had been working in the Ikastolas (Basque-medium schools) and as Basque teachers without certificates in public schools obtained their diplomas. A total of 700 school teachers without certificates completed their studies at the Teacher Training College in Eskoriatza.
- **1984. Centre for Documents on Children.** The College began to gather, organise and make known documents pertaining to children up to the age of 6. Later on, the journal Jakingarriak started to be published on this subject.
- **1985. Teachers' refresher programme.** In conjunction with the Education Department of the Basque Autonomous Community Government, courses began to be organised to keep teachers who were working abreast of developments in their field.
- **1988. Educational Videos.** The first in a video series produced for educational purposes. "Piti gaztagile" (Piti, the Cheese Maker), was produced.
- **1990. Basque language normalisation in the administration.** Special courses were run to enable civil servants in the Basque administration to attain the highest language competences.
- **1992. Textbook production.** As there was a need for textbooks in Basque-medium education, about a dozen books were published.
- **1996. Special Needs Education.** The teaching speciality aimed at children with special educational needs came into being. At a time when there were few students at the Teacher Training College, this speciality attracted many.
- **1997. The MONDRAGON UNIBERTSITATEA Faculty of Humanities.** The Teacher Training College in Eskoriatza became the Faculty of Humanities and Education of Mondragon University (MU). It began to award Degrees in Business Humanities.
- **1999. The New Building.** As the original building was no longer big enough, the Gizabidea Foundation purchased the (17th-century) San Viator premises next door for the Faculty of Humanities. **First Master's Degree.**

The Master's degree course in "Business Project Management" was set up. There were about 400 applicants but only 20 obtained a place on the course after going through a rigorous selection process.

- **2000. Psychopedagogy degree.** This Degree Course came about in order to respond more effectively to the problems arising out of multilingual education and societies. 33 students enrolled in the first year.
- **2001. On-line studies.** Psychopedagogy Studies and one Master's degree course were made available over the Internet. **The 1st cohort of Business Humanities students completed their studies in June. The offer of two new Master's Degrees.** One in Training in Information and Communication Technologies, and the other in Educational Management. **LANKI**, the MU's Institute of Co-operative Research, **was set up.** From the start, it focussed on three areas: co-operativism, intervention in society and collaboration for development. **"Exchange Programme of Community Experiences"**: The first edition was organised between communities in the Southern hemisphere and between the Basque Country's co-operative players and the collectively self-managed ones. The book *Lankidetzta: Arizmendiarietaren eraldaketa proiektua* (Co-operation: Arizmendiarieta's Project for Transformation) was published. **It was the first publication of the LANKI Institute of Co-operative Research**; it was followed by many publications and didactic materials on the challenges facing co-operativism and society.
- **2002.** Within Psychopedagogy, the **Psychopedagogical Intervention** course was started with about 30 students. The LANKI Institute of Co-operative Research was the driving force behind the development of the **Mundukide inter-cooperation system.**
- **2003. AOI-PBL (Problem-Based Learning) Methodology** started being applied systematically during the 1st year throughout Pre-primary Education, and to core subjects only in other specialities. **Physical Education.** The new speciality in Teacher Training kicked off with 32 students.
- **2004. The Person and Group Development Management Unit** was set up. **The Pedagogical Training** qualification was introduced. **Multi-skilled Teacher** studies began to be offered.
- **2005. A degree course was set up in Media Communication.** The mission or tasks of this course was to train all-round communicators. Although they could work anywhere, they would be in a position to respond to all kinds of communication needs in the specific organisations they worked in. The course started with 36 students in the first year. **"A Reflection Process on the meaning of the Mondragon Co-operative Experience"** was conducted in the co-operatives. LANKI was a key player in the development of this process. Taking the diagnosis, which had been ratified by the Co-operative Congress of the MONDRAGON Group in 2007, as the starting point, strategies designed to revive the co-operatives had been implemented over the previous few years. The same year saw the introduction of the Expert Degree course entitled, **"Self-development and Team Leadership"**.
- **2006.** In teacher training studies, the **1st cohort** of students in the **Mendeberry Project** completed their studies. The course on **"Interculturality and Multilingualism in the 21st Century"** was offered. **The Basque**

Language Scheme and the Multimedia Centre were **launched**. LANKE participated in the setting up of the **Garabide association**. It is the platform to share strategies for language revival implemented in the Basque Country with the indigenous peoples of the Southern hemisphere.

- **2007.** The postgraduate course in **“Basque Culture Transmission”** was offered. The first edition of the **HU-HEZINEMA** film festival was held. The **first thesis** within the HUHEZI programme was submitted. In collaboration with MONDRAGON Social Management, LANKE embarked on the design and implementation of **the New Co-operative Education Model**. Since then, comprehensive processes in the area of co-operative training have been taking place in the co-operatives of the MONDRAGON Group. In collaboration with Mundukide, LANKE began co-operation with the Landless Workers’ Movement of Brazil (**MST**).
- **2008.** The first cohort of students on the **“Media Communication”** degree course graduated. HUHEZI received approval from ANECA (the National Agency for the Evaluation of Quality and Accreditation) for its **Pre-primary Education, Primary Education, and Audiovisual Communication Degrees**. HUHEZI obtained the **Bikain Gold** Certificate of Excellence. The first edition of the **expert qualification in “Co-operativism”** was offered with the aim of preparing Co-operative players and influencing the strategies to revive the co-operatives.
- **2009.** A university Master’s degree qualifying people to work as teachers in **Statutory Secondary Education and the Sixth Form, Vocational Training and Language Teaching, and a Master’s degree in Solidarity Economics** began to be offered. HUHEZI received ANECA approval for the official university Master’s in **Education in Multicultural and Multilingual Contexts (EKOMU)** and for the official university Master’s in the **Development of Didactic Methodological Innovation Projects in Educational Establishments (BERRIMET)**. The degrees in **Pre-school Education, Primary Education and Audiovisual Communication** were **launched** in line with the Bologna requirements. LANKE promoted the creation of the **Bagara** process. This process aims to promote the collectively self-managed development community in the Upper Deba area.
- **2010.** The official university Master’s in **Education in Multicultural and Multilingual Contexts (EKOMU)** and the official university Master’s in the **Development of Didactic Methodological Innovation Projects in Educational Establishments (BERRIMET)** began to be offered. The first edition of the **Master’s in Solidarity Economics** came into being; it is geared towards collectively self-managed, socio-economic development experiences in Latin America. The **MU Telebista** TV station was set up.
- **2011.** The **expert qualification in “The Revival of Indigenous Languages and Identities”** was started for indigenous communities worldwide.
- **2012.** The **PhD programme on “Innovation and Intervention in Education”** to be offered by the University of VIC and the HUHEZI faculty obtained approval from UNIBASQ and ANECA. Work commenced on the **new campus in Aretxabaleta**. The **Expert Qualification in Communication in Organisations** began to be offered.

- **2013.** The building of the **new HUHEZI campus in Aretxabaleta was inaugurated.** In collaboration with the University of VIC, **the PhD programme on “Innovation and Intervention in Education”** began to be offered. **Upgrading courses in blended mode** began to be offered so that diploma-holders could upgrade their qualifications to degrees. **The offering of degree courses in Pre-primary Education and Primary Education in blended mode** were approved by UNIBASQ and ANECA. The **official university Master’s in “Social Economy and Co-operative Enterprises” (MCOOP)** that we are offering in collaboration with the Faculty of Business Administration in Oñati was approved by the UNIBASQ and ANECA accreditation bodies.
- **2014.** The opportunity to do a complete degree or a **second qualification on-line** was offered for the first time. The official Master’s in **“Social Economy and Co-operative Enterprises” (MCOOP)** in collaboration with the Faculty of Business Administration was offered for the first time. **External accreditation** was obtained from Unibasq **for the Master’s in Secondary Education. External accreditation** was obtained from Unibasq **for HUHEZI’s internal quality system.**
- The appointing of a **new dean (Begoña Pedrosa)** at the start of the 2014-2015 academic year has also brought with it a **new governing board** and the implementing of **a new set-up.**



**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA

FACULTAD DE
HUMANIDADES Y
CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN

ESKORIATZA

Dorleta, z/g.

20540 ESKORIATZA, Gipuzkoa
tel. 943 71 41 57

harrera.huhezi@mondragon.edu

ARETXABALETA

Otalora 29. 20550

ARETXABALETA, Gipuzkoa
tel. 943 71 41 57

harrera.huhezi@mondragon.edu